

HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA
SORALUZE – PLACENCIA DE LAS ARMAS

2017ko Otsaila

I. liburua

"1. MEMORIA" dokumentua

"1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA BERORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA" dokumentua
ETA ERANSKINAK

"1.2. GEHIENEKO ETA GUTXIENEKO HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA ARAUTZEKO ESTANDARRAK BETETZEN DIRELA ETA PLAN OROKORRA INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEN DELA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA" dokumentua

"1.3. INGURUMEN-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA" dokumentua
ETA ERANSKINAK

"4. PLANOAK" dokumentuaren aurkibidea

Soraluze
Placencia de las Armas

IDAZLE TALDEA:

ZUZENDARITZA:

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua

IDAZLEAK:

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua
Carmen Segurola Lázaro, geografoa

LAGUNTZAILEAK:

Endara Ingenieros Asociados, S.L.
- Pedro Azkue Elosegi, C.C.P.-ko ingeniaria.
- Garo Azkue San Emeterio, C.C.P.-ko ingeniaria.

Go4zen Arquitectos.
- Iñigo Peñalba Arribas, arkitektoa
- Aritz Díez Oronoz, arkitektoa

Juan Ignacio Cortés Arzallus, delineazioa eta edizioa
Maria José Fernández Calonge, delineazioa eta edizioa

IKUSKARITZA TEKNIKOA ETA UDAL-INFORMAZIOA

Xabier Rezabal Gurruchaga, udaleko arkitektoa.
Mikel Sanz, udaleko arkitekto teknikoa.
Xabier Elortza Maiztegi.
Begoña San Martín.
Udaleko zerbitzu teknikoak, oro har.

Debegesako zerbitzu teknikoen laguntza ere izan dugu.

AURKIBIDE OROKORRA

"1. MEMORIA" dokumentua *(I. liburua)*

"1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA BERORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA" dokumentua.
ERANSKINAK

"1.2. GEHIENEKO ETA GUTXIENEKO HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA ARAUTZEKO ESTANDARRAK BETETZEN DIRELA ETA PLAN OROKORRA INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEN DELA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA" dokumentua.

"1.3. INGURUMEN-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA" dokumentua.
ERANSKINAK

"2. HIRIGINTZA-ARAUAK" dokumentua

"2.1. HIRIGINTZA-ARAU OROKORRAK" dokumentua *(II. liburua)*

"2.2. HIRIGINTZA-EREMUEN HIRIGINTZA-ARAU PARTIKULARRAK" dokumentua *(III. liburua)*

"2.3. KATALOGOA" dokumentua *(III. liburua)*

"3. AZTERKETA EKONOMIKOA. JARDUKETA-PROGRAMA" dokumentua *(IV. liburua)*

"3.1. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAREN ETA FINANTZARIOAREN AZTERKETA" dokumentua

"3.2. IRAUNKORTASUN EKONOMIKOARI BURUZKO MEMORIA" dokumentua

"3.3. JARDUKETA-PROGRAMA" dokumentua

"4. PLANOAK" dokumentua (*V. liburua*)

HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA
SORALUZE – PLACENCIA DE LAS ARMAS

2017ko Otsaila

"1. MEMORIA" dokumentua

"1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA BERORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA"

ERANSKINAK

AURKIBIDEA **Orrialdea**

I.- SARRERA
I.1. Xedea 1
I.2. Lurralde-esparrua 1
I.3. Aurrekariak 2
I.4. Indarrean dagoen legedia....2
I.5. Plangintzaren irudiaren aukeraketa....5
I.6. Dokumentua idaztea eta izapidetzea. Jendaurreko informazioa eta herritarren parte-hartzea. 5
I.7. Proiektuaren edukia 6

II. ANTOLAMENDURAKO PROPOSAMENA
II.1. Diagnostikoaren laburpena....7
II.2. Udal-irizpideak eta -helburuak 8
II.3. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) xedatutako irizpideak....12
II.4. Eibarko (Debabarrena) Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planetik eta Lurraldearen Arloko Planetatik eratorritako irizpideak....12
II.5. Bizitegiak kuantifikatzeko irizpideak....13
II.6. Kontuan hartutako irtenbideak. Ingurumenaren ebaluazioa eta irtenbideetarako orientabidea 14
II.7. Biztanleriaren hazkunde-hipotesia....15
II.8. Beste irizpide eta helburu batzuk....16
II.9. Esku hartzeko proposamenaren deskribapena 16
II.9.1. Proposamena gauzatzeko oinarriak....16
II.9.2. Deskribapen orokorra 17
II.9.3. Zonakatze globala 19
II.9.4. Etxebizitza....28
II.9.5. Jarduera ekonomikoak 29
II.9.6. Komunikazio-sistema 31
II.9.7. Espazio libreen sistema....34
II.9.8. Komunitate-ekipamendua. 36
II.9.9. Hiri-zerbitzuen azpiegiturak 37
II.9.10. Ibai-ibilguak 38
II.9.11. Aukeratutako irtenbideen justifikazioa. 39
II.10. Proiektua garatzea eta gauzatzea....39
II.10.1. Hirigintza-eremuen mugaketa 39
II.10.2. Plangintza udalerri mugakideekin koordinatzea....41
II.10.3. Hirigintza-sailkapenaren esparruko irizpideak, helburuak eta proposamenak. Lurzoru hiritar gisa sailkatutako lurretan planteatutako hirigintza-garapenei lotutako eskubide eta betebeharren erregimena. 41
II.10.4. Hirigintza-antolamendua gauzatzeko irizpideak eta proposamenak 45
II.10.5. Tokiko hirigintzako estandarrak betetzen direlako justifikazioa 52

AURKIBIDEA (jar.) **Orrialdea**

II.11. Proposamenean aztertutako beste alderdi batzuk. 56
II.11.1.- Paisaia 56
II.11.2.- Eraikuntza landa-ingurunean 57
II.11.3.- Zarata....57
II.11.4.- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak. 58
II.11.5.- Beste alderdi batzuk 59

II.12.- Proposamenaren deskribapena eremuz eremu. 59
II.12.1.- Udalerriaren herrigunea bailaran....59
II.12.2.- Deba ibaiaren ibarreko industria-garapenak. 62
II.12.3.- Beste batzuk 62

II.13. Katalogoa 62

III. AURREIKUSITAKO GARAPENAK PROGRAMATZEKO IRIZPIDEAK....66

IV. ANTOLAMENDUAREN EZAUGARRIEN TAULAK

1.- Lurzoruaren sailkapena 67
2.- Hirigintza-eremuen identifikazioa 67
3.- Zonakatze globala 68

V. AZKEN GOGOETA 69

MEMORIAREN 1. ERANSKINA
Plangintzako irizpideak, helburuak eta irtenbide orokorrak berresteko Soraluze-Placencia de las Armasko udalbatzaren erabakia, udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idaztekoa

MEMORIAREN 2. ERANSKINA
Arriskuei buruzko txostena, Eusko Jaurlaritzarena (Barne Saila)

MEMORIAREN 3. ERANSKINA
Zarata Mapa, eta Eragin Akustikoari buruzko Azterketa

MEMORIAREN 4. ERANSKINA
HAPOri lotutako Eragin Akustikoari buruzko Azterketa

MEMORIAREN 5. ERANSKINA
Lurzorua kutsa dezaketen Jardueren Kokapena

I.- SARRERA.

I.1.- Xedea.

Soraluze-Placencia de las Armasko Udalak Plangintzako Arau Subsidiarioak, 1999. urtean onartutakoak, berrikusteko lanei ekitea eta udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idaztea erabaki zuen (I.1 planoa).

Xede horrekin, eta 2013ko azaroaren 21ean sinatutako kontratuarekin bat etorrita, profesional hauei agindu zien lan hori, dokumentu hau izenpetzen dutenei, hain zuzen: Santiago Peñalba Garmendia eta Manu Arruabarrena Florez arkitektoei eta Mikel Iriondo Iturrioz abokatuari.

Hiru urte eta egun bat geroago, 2016ko azaroaren 22an, Plana izapidetu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak behin betiko onespena eman zion eta Planaren behin betiko bertsioa egiteko eskatu, testu bategin honen xede dena.

Dokumentu honek erantzuna ematen dio Arau Subsidiarioak berrikusteko prozesuari eta horren idazketak Plan Orokorraren proposamena zehazten du, hau da, udalerriaren etorkizun hurbilerako proiektua, ikuspegia 2025ean jarrita.

Prozesu horretan, beste batzuen artean, honako hauek hartu dira kontuan: Udalak 2014ko martxoaren 5ean onartutako Herritarrek Parte Hartzeko Programa; Udalaren osoko bilkurak 2014ko uztailaren 30ean egindako bileran onartutako jarduketa-irizpide eta -helburuen berrespena, bildutako informazioa, egindako diagnostikoa, horiek udalarekin alderatzea eta irtenbideen analisia kontuan hartuta plangintzaren aurrerakina izapidetu ondoren; hainbat aukera aztertu ondoren, Alkarrekin izeneko udal-ekimenaren esparruan ondorioztatu zen guztia; eta, hurrenez hurren, 2015eko martxoaren 26an eta 2015eko urriaren 21ean osoko bilkurak aho batez hartutako hasierako onespenaren eta behin-behineko onespenaren erabakiak.

Halaber, 2016ko apirilaren 15ean egindako Ingurumen Adierazpen Estrategikotik, Adierazpen horretan jasotako ingurumen-zehaztapenak Plan Orokorrean txertatzea justifikatzen duen 2016ko apirileko dokumentutik, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak 2016ko urriaren 13an Adierazpenari buruz egindako txostenetik eta 2016ko uztailaren 13ko bileran EAELABek egindako aldeko txostenetik ondorioztatzen den guztia jasotzen du dokumentuak, eta Etxebizitza Sailburuordetzak, Uraren Euskal Agentziak eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak egindako txostenak ere gehitzen zaizkio. Horren guztiaren ondorioz, honako zehaztapen hauek gehitu dira.

Dokumentu honek jasotzen ditu zehaztapen horiek guztiak.

Dokumentu hau prestatzerakoan, lanak zuzentzen ditugunokin batera, taldea osatzen duten profesionalek ere hartu dute parte; bai eta udaleko zerbitzu teknikoek eta udal-korporazioak berak ere; horiek guztiek garapenaren aurrerapenen berri izan dute progresiboki, puntualki eta periodikoki.

I.2.- Lurralde-esparrua

Plan Orokorraren xedea Soraluze-Placencia de las Armasko udalerri osoa da; 1.409 hektarea inguruko lurralde-hedadura du udalerriak (I.2 planoa), eta, 2014ko abenduaren 31ko errolda-zuzenketaren arabera, 3.969 biztanle ditu (3.944 biztanle 2016ko urtarrilaren 1ean).

Plan Orokorrak hartzen duen lurraldean, interes-gatazkak bateratu behar ditu, eta lehentasunak zehaztu behar ditu berorrek hartzen duen denbora-mugan, interes publikoko gaiei erantzuna emateko. Xede horretarako, sakon aztertu da lurralde hori.

I.3.- Aurrekariak.

2013ko maiatzaren 20ko Gobernu Batzordearen erabakiz, Soraluze-Placencia de las Armasko Udalak Plangintzako Arau Subsidiarioak berrikusteko lanei ekin zien, eta lan horiek kontratatzeko espedientea abiarazi zuen.

Berrikusi beharreko esparrua Plangintzako Arau Subsidiarioei dagokiena da; arau horiek 1999ko abenduaren 21ean onartu ziren behin betiko izaeraz, eta beroriek onartu zirenetik izapidetutako eta behin betiko izaeraz onartutako aldaketak ere kontuan hartu behar dira: Sagarraga (SI-1), Sagar erreka (SI-2), Zahar Etxea (R-16), Olea eta Errekalde Hegoa (R-11 eta I-9), Erregetxe (R-5), Baltegieta (R-22), eta Alde Zaharra (R-8), Zahar Etxea (R-16) eta Arau Subsidiarioen 118. artikulua, igogailuei buruzkoa.

Plana idatzi aurreko fasean, Informazioa eta Diagnostikoa izeneko dokumentua prestatu da, 2014ko martxoan, eta udalak landu nahi duen proiektuaren aurrean udalerriak duen egoera jasotzen da dokumentu horretan; halaber, antolamendurako hainbat aukera jasotzen dituen plangintzaren Aurrerapena eta proiektuaren ingurumen-ebaluazioari buruzko hasierako dokumentua ere prestatu dira.

Udalak, paraleloki, Plan Estrategiko baten lanketa izapidetu du, eta prozesu horretan sortutako hainbat gai kontuan izan dira dokumentu honetan ere. Testuinguru horretan garatzen da, hain zuzen, Alkarrekin prozesua, eta, prozesu horren barnean, udalerriaren etorkizunari buruz luze eta zabal eztabaidatu da.

I.4.- Indarrean dagoen legedia.

I.4.1.- <u>Sarrera</u>

Plan Orokor hau lantzeko hainbat lerrun, izaera eta jatorriko legezko xedapenetan, dokumentuetan eta proiektuetan bildutako askotariko arauek eta aurreikuspenek osatutako esparrua erabili da.

Une honetan, eta esparru orokor hori osatzen duten xedapen eta dokumentu nagusiak gogoratzeko, epigrafe honen hurrengo ataletan aipatzen direnak nabarmendu behar dira.

I.4.2.- <u>Lurralde- eta hirigintza-legedia</u>

* Euskal Autonomia Erkidegoan sustatu diren eta indarrean dauden lurralde- eta hirigintza-xedapenak:
- Lurralde antolamenduari buruzko Legea, 1990eko maiatzaren 31koa.
- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa (2/2006 Legea).
- Premiazko neurriei buruzko Dekretua, 2008ko ekainaren 3koa, lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legea garatzen duena (105/2008 Dekretua).
- 2008ko azaroaren 28ko Legea, erkidegoak hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan duen partaidetza aldatzen duena.
- 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoa.

- 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoari buruzkoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.

* Administrazio zentralak sustatutako xedapenak:
- Lurzoru eta Birgaitze Legearen testu bategina, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartutakoa.
- Lurzoruaren Legea balioesteko Araudia, 2011ko urriaren 24ko Errege Dekretu bidez onartua (1492/2011 Errege Dekretua).
- Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legea, 2013ko abenduaren 9koa.

I.4.3.- <u>Beste arlo batzuetan indarrean dagoen legedia</u>

* Errepideen alorrean indarrean dauden xedapenak, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra erregulatzen duen 1989ko maiatzaren 30eko Legea –geroago hainbatetan aldatu eta osatu dena– eta Gipuzkoako Errepideei buruzko Foru Araua, 2006ko ekainaren 6koa.
* Euskal kultura-ondareari buruzko Legea, 1990eko uztailaren 3koa.
* Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen Legea, 1994ko ekainaren 30ekoa, ondorengo beste xedapen batzuek aldatua eta garatua, espezie jakin batzuk babestekoak barne (bisoi europarra...).
* Irisgarritasuna sustatzeko Legea, 1997ko abenduaren 4koa, eta haren garapenean sustatutako xedapenak.
* Euskadiko ingurumena babesteko Lege Orokorra, 1998ko otsailaren 27koa, eta 2003ko uztailaren 22ko Dekretua, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluazio bateratua egiteko prozedura arautzen duena eta aurreko legea garatzen duena.
Aurreko xedapenei, eta arlo horietan berorietan, proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko erregelamendua gaineratu behar zaie (1998ko irailaren 30eko Errege Dekretua), baita zenbait planek eta programak ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzko Legea, 2006ko apirilaren 28koa, ere.
* Herri-administrazioen ondareari buruzko Legea, 2003ko azaroaren 3koa.
* Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorra, 2014ko maiatzaren 9koa (9/2014 Legea).
* 1/1998 Errege Lege Dekretua, otsailaren 27koa, telekomunikazioen zerbitzuetara sartzeko eraikinetako azpiegitura komunei buruzkoa.
* 346/2011 Errege Dekretu bidez onartutako Erregelamendua, martxoaren 11koa; ITC/1644/2011 Agindua, ekainaren 10ekoa.
* Zarataren Legea, 2003ko azaroaren 17koa, eta lege hori ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionez garatzen duten 2005eko abenduaren 16ko Errege Dekretua, eta zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei buruzko 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretua.
* Trenbide-sektoreari buruzko Legea, 2003ko azaroaren 27koa, eta haren Erregelamendua, 2004ko abenduaren 30ekoa.
* 4/2015 Legea, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.
* Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Legea, 2005eko otsailaren 18koa.
* Uren Legea, 2006ko ekainaren 23koa.
* Landa-inguruaren garapen iraunkorrerako Legea, 2007ko abenduaren 13koa.
* Nekazaritza- eta elikagaigintza-politikari buruzko Legea, 2008ko abenduaren 23koa.
* Etxebizitzarako 3/2015 Legea.

* Abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen Dekretua, 2009ko irailaren 22koa.
* Eraikuntzaren alorrean indarrean dauden xedapenak, eraikuntza antolatzeko Legea, 1999eko azaroaren 5ekoa, eta Eraikuntza Kode Teknikoa barne.
* Eraikuntzaren alorrean indarrean dauden legezko xedapenak, babes ofizialeko etxebizitzak erregulatzen dituztenak eta abar barne.
* 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoari buruzkoa.

I.4.4.- Indarrean dauden lurralde-antolamenduko tresnak

Honako hau da behin betiko onartuta eta indarrean dauden gisa horretako tresnen zerrenda:

* Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. Behin betiko onespena: 1997ko otsailaren 11.
* Eibarko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana (Debabarrena). Behin betiko onespena: 86. Dekretua, 2005eko apirilaren 12koa.
* Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra). Behin betiko onespena: 1998ko abenduaren 22a, eta ondorengo aldaketak.
* Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespena: 2001ko otsailaren 27a, eta ondorengo aldaketak.
* Haize Energia Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespena: 2002ko maiatzaren 14a.
* Euskal Autonomia Erkidegoko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespena: 2004ko uztailaren 27a.
* Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespena: 2004ko abenduaren 21a.
* Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespena: 2009ko uztailaren 21a.
* Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespena: 2/2013 Foru Araua, ekainaren 10ekoa (GAO, 113. zk., 2013ko ekainaren 14a).
* EAEko Nekazaritza, Basoak eta Ingurune Naturala Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onespena: 177/2014 Dekretua, irailaren 16koa (EHAA, 198. zk., 2014ko urriaren 17a).

Orain arte sustatutako lurralde-antolamenduko beste tresna batzuk ez daude indarrean, ez baitira behin betiko onartu (Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, Euskal Kultura Ondarea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, etab.).

I.4.5.- Beste mota bateko planak, dokumentuak eta lanak

Beste mota bateko planen eta dokumentuen adibide batzuk honako hauek dira –plan eta dokumentu horien zerrenda osoa eta itxia azaldu gabe–:

* Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020), 2002ko ekainaren 4an onartua.
* Ingurumen Esparru Programa 2020
* Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailea.
* Tokiko Agenda 21-ean garatutako lanak.

I.5.- Plangintzaren irudiaren aukeraketa.

Planteatutako helburu horrek, hots, udaleko hirigintza-plangintza orokorraren berrikuspenak (Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak), beharrezkoa du 2006. urteaz geroztik dugun lege-testuinguru berriaren arabera egokitutako eta formulatutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, Soraluze-Placencia de Las Armasko lurraldearen antolamendu integrala egin ahal izateko.

Egoera hori izanik, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra da tresnarik egokiena eta zehatzena proposatutako helburua lortzeko, aplikagarri den lege-esparru berriarekin bat etorrita.

I.6.- Dokumentua idaztea eta izapidetzea. Jendaurreko informazioa eta herritarren parte-hartzea.

Soraluze-Placencia de las Armasko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapen-dokumentua, 2014ko martxokoa, jendaurrean izan zen bi hilabetez, udalaren erabakiz, eta erabaki hori, besteak beste, Gipuzkoako Aldizkari Ofizilean argitaratu zen, 2014ko ekainaren 9an. Epe horretan, iradokizunak jasotzen zituzten zazpi idatzi aurkeztu ziren, eta zegokien balioespena egin zitzaien idatzi horiei.

Horrez gain, plangintzaren Aurrerapena idaztearekin batera, 2014ko martxoan idatzitako planaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio estrategikorako prozesuari ekin zitzaion; zegokion ingurumen-organoari igorri zitzaion hasierako dokumentua, erreferentziazko agiria egin zezan, eta 2014ko abuztuaren 25ean jaso zuen udalak agiri hori.

Bestalde eta espedientearekin lotuta, hainbat txosten jaso ditu udalak beste administrazio batzuetatik, beroriei dagozkien eskumenen arloan. Ildo horretatik, hasierako dokumentuari dagozkion kontsulten garaian eta plangintzaren Aurrerapenarekin berarekin lotuta, hainbat txosten jaso dira: Industria, Energia eta Turismo Ministerioarena, telekomunikazioetan duen eskumenari lotuta; Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzarena (bi idatzi); Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzarena; Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarena; IHOBErena; eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultua Zuzendaritza Nagusiarena; eta, aztergai dugun testuinguru honetan, horietako bakoitzaren balioespena egin da.

Horrez gain, Herritarren Parte Hartzerako Programan jasotakoarekin bat etorrita, plangintzaren Aurrerapeneko proposamenak jendartean zabaldu ditu udalak, hainbat kolektibori eta, oro har, herritarrei zuzendutako zenbait dibulgazio-bilera antolatuz. Horri guztiari esker, prozesua heldu egin da, eta, udalak 2014ko uztailaren 30ean egindako osoko bilkuran, irizpideak eta helburuak berresteko erabakia hartu da.

Prozeduraren jarraipenean, topaketa bat antolatu zen 2014ko azaroaren 22an, Alkarrekin prozesuaren esparruan, eta 150 herritar inguru bildu ziren; beste proiektu batzuen artean, Plan Orokorraren berri eman zen, eta harrera ona izan zuten plan horretan egiten diren proposamenek, batez ere, mugikortasuna hobetzearekin, plaza berriak sortzearekin eta hiria Deba ibai aldera irekitzearekin lotuta daudenek.

Erabaki hartan oinarrituta, Plan Orokorraren dokumentua eta dagokion ingurumen-jasangarritasunaren txostena idatzi ziren 2015eko urtarrilean. Aho batez jaso zuten hasierako onespena 2015eko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran.

Aipatutako onarpen hori eta dokumentua 45 lanegunez jendaurrean jartzeko erabakia egunkarietan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2015eko apirilaren 9an.

Udalak igorritako dokumentuen arabera, bederatzi (9) alegazio-idazki aurkeztu ziren jendaurrean erakusteko epearen barnean.

Bestalde, espediente honekin lotutako hainbat txosten eskatu dizkie udalak beste administrazio batzuei, haien eskumenen arabera, bai eta interesa duen jendearen iritzia ere, eta zazpi (7) txosten jaso ditu prozedura horretan.

Halaber, Herritarren Parte Hartzerako Programarekin bat etorrita, udalak Plan Orokorraren proposamena zabaldu du.

Horrek guztiak prozesua umotzea bultzatu du, eta zehaztapenak ere sortu dira.

Bestalde, aldi honetan zenbait akats zuzentzeko aukera ere izan da.

Horrez gain, udaleko zerbitzu teknikoek adierazitako zenbait alderdi ere hartu dira kontuan.

Lurzoru berrien okupazioa minimizatzeko plangintzaren Aurrerapenean egiten zen proposamena berresten du proposatzen den proiektuak; aldi berean, udalerriaren beharrei lehendik dauden kokaguneak aldatuz erantzuten zaie, eta lurzoru berriak artifizializatzeko aukera minimizatzen da.

Dokumentua izapidetzerakoan, epe laburrera Soraluze-Placencia de las Armaserako Plan Orokor berri bat behar dela nabarmendu da, aplikagarri den legedira egokituko den eta udalerrirako etorkizunerako proiektu bat eskainiko duen plan berri bat, indarrean dauden eta jada agortuta dauden Arau Subsidiarioak ordeztuko dituena.

I.7.- Proiektuaren edukia.

Proiektu honek indarrean dagoen hirigintza-legediak eskatutako erabakiak eta dokumentuak jasotzen ditu. Zehazki, honako dokumentu hauek jaso dira Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean:

* "A" dokumentua. Memoria.
* "B" dokumentua. Hirigintza Arauak eta Hirigintzako Ondarearen Katalogoa.
* "C" dokumentua. Azterketa Ekonomikoa – Jarduketa Programa.
* "D" dokumentua. Planoak.

"A. Memoria" dokumentuak honako osagai hauek ditu: batetik, memoria orokorra, planteatutako proposamenen deskripzioa eta justifikazioa eta behar den informazioa jasotzen dituena, planteatutako antolamendua ezartzeko eta hura gauzatzeko motibazioa erantsita (A.1), eta garapen iraunkorraren printzipioan oinarrituta, betiere; bestetik, hirigintza-eraikigarritasun minimoaren eta maximoaren muga arautzaileak betetzeari buruzko eta dokumentua indarreko lurralde-plangintzari egokitzeari buruzko memoria justifikatzailea (A.2); eta azkenik, ingurumen-iraunkortasunari buruz beharrezkoa den txostena (A.3), eskumena duen ingurumen-organoak emandako erreferentziazko agiria eta Ingurumen Adierazpen Estrategikoa berariaz aintzat hartzen duena.

"B. Hirigintza Arauak" dokumentuak hiru zati ditu, ondo bereizitakoak baina osagarriak direnak. Lehenengoa bat dator "Arau Orokorrekin", beraietan azaldutako baldintzetan udal-barruti osoan aplika daitezkeenekin. Bigarrena bat dator "Hirigintza Eremuen Arau Partikularrekin", haien hirigintza-erregimen espezifikoa definitzen dutenekin. Hirugarren dokumentuak Hirigintzako Ondarearen Katalogoa jasotzen du, eta hau ere arauemailea da. Udalerrian dauden eta beraien interes artistiko, kultural, historiko, ekologiko edo naturalistikoagatik zaindu eta babestu egin behar

diren elementu eraikiak edo naturalak zein diren adierazten du. Hirigintzako eta eraikuntzako udal-ordenantzak ere jasotzen dira bertan.

"C. Azterketa Ekonomikoa – Jarduketa Programa" dokumentuak proposamenaren bideragarritasun ekonomikoaren eta finantzarioaren azterketa jasotzen du, plana gauzatzeko denbora-tartearen ikuspegi jakin horretatik (C.1); eta iraunkortasun ekonomikoari buruz beharrezkoa den memoria (C.2) eta proposamena garatu eta gauzatzeko programazioa adierazten duen dokumentazioa ere (C.3) jasotzen ditu.

"D. Planoak" dokumentuak dokumentazio grafikoa jasotzen du, eta informazio-planoak (D.I), proiektu-planoak (D.II-tik D.VI-ra) eta, azken horien artean, egitura-antolamendukoak (D.II), antolamendu xehatukoak (D.III), hirigintza-antolamenduko baldintzatzaile gainjarriei dagozkienak (D.IV), hirigintza gauzatzeko baldintzei dagozkienak (D.V) eta katalogoari dagozkionak (D.VI). Horiez gain, antolamenduaren adierazgarri den irudi bat ere txertatu da (D.VII). Planoak ekoizteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ortofotoetan eta kartografian oinarritu gara, bai eta udalak gure esku utzitako hiri-esparruen kartografian ere.

Aipatutako dokumentu horiek guztiek osatzen dute Soraluze-Placencia de las Armasko Hiri Antolamenduko Plan Orokor hau, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 62. artikuluan berariaz adierazitakoarekin bat etorrita.

II.- <u>ANTOLAMENDURAKO PROPOSAMENA.</u>

II.1.- Diagnostikoaren laburpena

Udalerriaren hirigintza-egoerara egindako hurbilketak eta udalerriaren beraren nahiz Debabarreneko Eremu Funtzionalaren plangintza estrategikoko prozesuei buruz dakigunak Soraluze-Placencia de las Armasko udalerrirako idatzi beharreko Plan Orokor berriak aurrez aurre izango duen egoeraren ikuspegi global orokorra lortzeko aukera ematen dute.

Zeregin horri ekiteko, lehenik eta behin, funtsezko hiru alderdi azpimarratu behar ditugu.

- Udaleko plangintza orokorra koordinatuta egin beharreko zeregina da, eta, udalaren proposamenak jasotzeaz gain, ekimen, zehaztapen eta arloko arauak ere bildu behar ditu, lurralde bakar bati dagokionez.
- Aplikagarri den legediak askotariko arau, prozesu eta kontsultei erantzun behar die, eta horiek guztiak betetzen direla bermatu behar da; baldintza hori nahitaezkoa da egin beharreko ahaleginak balioa izan dezan.
- Ezinbestekoa da prozesu hau gaur egun bizi dugun egoera berezia kontuan izanik gauzatzea, jasaten ari garen krisia nahiz indarrean dagoen Arau Subsidiarioen dokumentua zaharkituta gelditu dela –arau horiek ia guztiz gauzatu dira– eta udalerriaren eraikuntza- eta aldaketa-prozesuari jarraipena emango dioten konponbideak bilatzeko beharra dagoela kontuan hartuta, hain zuzen.

Lehen esandakoa azpimarratuko dugu berriro: laurogeiko hamarkadan GI-627 errepidearen ingurabidea eraiki zenetik, eta, batez ere, joan den mendearen bukaeran Arau Subsidiarioak onartu zirenetik, udalerriak hirigunearen berrikuntza-prozesu izugarria bizi izan du. Inbertsio publikoa inplikatzeko behin eta berriz hartutako erabakiek bultzatu dute prozesu hori, udalerriaren eta bertako biztanleen etorkizuna bermatzeko nahitaez egin beharrekoa baitzen.

Dinamika horri esker, hirigunearen kalitatea asko hobetu da, baina inplikazio publiko horri jarraipena ematea guztiz beharrezkoa dela ikusi da, orain arte egindako ahalegina alferrikakoa izan ez dadin eta nagusiki 2000. urteaz geroztik abiarazitako prozesua arrakastaz amaitzeko.

Horretarako, Plan Orokorrak erreferentziazko proiektua izan behar du, proiektu bideragarria, inplikatutako administrazioen adostasuna izan behar du, eta behin betiko izaeraz onartu ondoren, 8 urte inguruko denbora-tartea izan behar du; Soraluze-Placencia de las Armas udalerriak hiri- eta ingurumen-kalitatea berreskuratu behar du, gaur egun dituen 4.000 biztanle ingururen bizi-baldintzak hobetzeko, herriak biztanleria gal ez dezan, eta udalerria biziegokitasun zehatza izango duten etxebizitzez, zuzkidura egokiz eta enplegu nahikoz hornitzeko.

Biztanleriak behera egin du etengabe udalerrian, 1980-2000 aldian (1000 biztanle inguru, % 20tik gertu), bai eta 2000. urtetik gaur egun arte ere (500 biztanle inguru, % 10etik gora); krisia hasi zenetik, hala ere, joera hori moteldu egin da (2007. urtetik), eta egoera hori baliatu beharko da joera negatibo hori alderantzikatzeko.

Plan Orokor horrek, udalerriarentzat beharrezkoa eta premiazkoa den proiektu horrek, proposamen integratuak formulatu behar ditu, espazio libreen eta oinezkoen ibilbideen beharrei erantzuteko; espazio horietan argia txertatzeko; etxebizitzen eskaintza nahikoa, edukitza moten eta erregimenaren araberako eskaerari egokitutakoa, zehazteko; askotariko jarduera ekonomikoetarako erabiltzeko lurzorua prestatzeko; ekipamenduak hornitzeko; mugikortasuna eta irisgarritasun unibertsalerako baldintzak erruz hobetzeko; eta, horren guztiaren ondorioz, erantzun horiek guztiak eman ahal izateko hirigunea aldatzeko.

Une honetan udalerriak duen egoera hori kontuan hartuta, Izartu I eta II planak aplikatu zirenean bezala, beharrezkoa izango da Europako, Espainiako, EAEko eta Gipuzkoako administrazioetako hainbat arlotako sailen lankidetza koordinatua, udalaren ahaleginaz gain.

Diagnostiko honen laburpen moduan, Soraluze-Placencia de las Armasek Debabarreneko eta Gipuzkoako hirien sisteman bizirik iraungo duela bermatzeko azkeneko urrats bat egitea falta dela azpimarratu behar da. Arazoak hauteman eta adierazi dira, eta, irtenbideak bilatzeko, inplikatu guztien parte-hartze aktiboa beharrezkoa izango da: herritarrena eta administrazioarena.

Soraluze-Placencia de las Armas udalerria Maltzaga ondoan kokatuta dago, AP-1 eta AP-8 autobideen loturen ondoan, kokapen estrategiko batean, Euskal Autonomia Erkidegoaren erdialdean, lurralde historikoetako hiru hiriburuetatik distantzia berberera, gutxi gorabehera.

Erronka hortxe dago, eta bai eta aukera ere; une egokia da, beraz.

II.2.- Udal-irizpideak eta -helburuak

Lortu beharreko lehenengo helburu gisa hauxe proposatzen da: udalerriko biztanleria 4.000 biztanletik gora finkatzea. Horren aldeko hiru alderdi sendo aipatu behar dira: udalerriko jarduera ekonomikoen indartzea, oraindik gehiago sendotu eta bermatu behar dena; azken urteetan gertatzen ari den hirigunearen aldaketa garrantzitsua, Plan Orokorrak jarraipena eman nahi diona; eta udalerriko etxebizitzen jarduera ekonomikoen merkatuko prezioak, inguruko gainerako herrietakoak baino eskuragarriagoak direnak.

Horretarako, nahitaezkoa da udalaren lidergoa herriak beharrezkoa duen berrikuntza sustatuko duten ekimenak zehazteko eta kudeatzeko orduan, udalerriak une honetan aurre egin behar dion egoera kontuan hartuta.

Hasierako zehaztapen hori etorkizuneko udal-proiektua idazteko prozesuaren emaitzaren ondorio izango da, eta Plan Orokorra lantzeko ekimenaren bidez bideratuko da; horrez gain, Plan Estrategikoa ere idatziko da, eta herritarrek eta gizarte-eragileek Alkarrekin prozesuaren barnean izandako dinamizazioa ere hortxe izango da.

Ondorengo kudeaketari dagokionez, udalerriak badu funtsezko aktibo bat: azkeneko hamabost urteetan eskuratutako esperientzia, Europako, estatuko, EAEko eta foru-aldundiko administrazioen inbertsioa bateratzea lortu duena; horri guztiari udalak egindako inbertsioa eta Debegesa eskualdeko agentziaren babesa gehitu behar zaizkio.

Gaur egungo egoera eta goian adierazitakoa kontuan hartuta, nahitaezkoa da berriro ere inbertsio publiko egokiak bateratzea eta ahalik eta sinergia handienak lortzea, mende berriarekin batera abiarazitako prozesua amaitu ahal izateko eta Soraluze-Placencia de las Armas udalerri atsegin eta erakargarri izateko helburua finkatzeko.

Hiriak birgaitzeko, berroneratzeko eta berritzeko arloan estatuan onartutako legedi berriak jarduketa-ildo hori azpimarratzen du; hala, jarduketa horrek lehendik abiarazitako hiria aldatzeko prozesuari jarraipena emango dio, erabat gauzatu arte, lurzoru berrien artifizializazioa saihestuta eta antolamendu-irizpide iraunkorretan oinarrituta.

Bestalde, esparru-helburu horrez gain, egindako diagnostikoan oinarrituta, eta baita berrikuspen-prozesuaren enkargua ekarri zuten aurreko planteamenduetan, Debabarreneko garapen iraunkorrerako estrategiaren barneko 2011-2015 Ekintza Planean jasotakoan nahiz Alkarrekin prozesuak emandakoan oinarrituta ere, hauek dira, besteak beste, proiektuaren lanketan kontuan izan beharreko funtsezko helburuak:

- Garapen iraunkorragoari bide emango dion lurralde-eredua ahalbidetzea, garraio kolektiboaren bultzadan eta hirigunearen erabileraren optimizazioan oinarrituta, egokia den tokietan erabilera-intentsitate handiak eta, aldi berean, zentzuzkoak aurreikusiz, jarduera ekonomikoak dibertsifikatuz eta bizitegi-erabilerekin modu bateragarrian txertatuz.

- Testuinguru horretan biodibertsitatea finkatzen eta lehengoratzen ere ahalegintzea, edozein kasutan, udalerriko biztanleengan eta ondorengo belaunaldietan arreta berezia jarriz.

- Udalerriko bizi-kalitateari eustea eta hura hobetzea, hirigunearen erabilera optimizatuz eta dibertsifikatuz, ondare eraikia eta urbanizatua berrituz eta balioztatuz, ekipamendu-zuzkidura finkatuz, abian jarriz eta handituz, landa-eremuaren erabilera-baldintzen erregulazioarekin inguruneari balioa emanez nahiz hirigunea Deba ibai aldera irekiz, inguru horretan aisialdirako gune nagusia ezartzeko eta Soraluze-Placencia de las Armas egituratzen duen ardatza bilatzeko.

- Biztanle egoiliar gazteak finkatzea eta biztanle gehiago erakartzea. Horretarako, behar adinako lurzoru-eskaintza egingo da kokapen-, prezio- eta tipologia-baldintza egokietan, lehendik dagoenarekiko eta lurraldearen gaitasunarekiko erlazio egokian.

- Errenta mailei eustea eta horiek handitzea, bai lehendik dauden jarduera ekonomikoen premiak, egin beharreko lekualdaketak barne, eta bai beste ekimen batzuk berehala hartzeko ahalmena duen lurzorua prestatuz, hirugarren sektorearen garapena ahalbidetuz, batez ere enpresentzako zerbitzuekin, ikerketarekin, garapenarekin eta berrikuntzarekin, turismoarekin, aisiarekin eta ostalaritzarekin zerikusia duena, eta lehen sektorearen eta lehen sektore horretatik zuzenean eratorritako jardueren hobekuntza aintzat hartuta.

- Udalerriaren ongizate soziala hobetzea, biztanleen integrazioa, konfiantza eta segurtasuna, kulturarako eta hezkuntzarako sarbidea, zuzkidurak, ekipamenduak, etxebizitza eta herritarren oinarrizko gainerako eskakizunak bermatuz eta, aldi berean, kontsumoa kontrolatuz eta ongizate soziala "murriztea" eragingo ez duen oreka bilatuz.

- Berdintasuna eta, zehazki, genero-berdintasuna bermatuko duten neurri egokiak txertatzea, kasu guztietan "puntu beltzak" saihestuz, hala nola Atxuritik Santa Anara doan igarobidearen sarrera.

- Udalerriaren barnean lehentasunez tokiz aldatu behar diren industria-jarduerak lekualdatzeko behar diren oinarriak jartzea.

- Alde zaharra birgaitzeko prozesuari jarraitutasuna ematea eta hainbat eremutako hiri-aldaketari ekitea: Erregetxe, Olaldea, Olea, Errekalde, Baltegieta (kanoi-fabrika),... eta beste batzuk berritzea, hala nola Loralde ingurua.

- Industria-garapen nagusiak finkatzea eta ekimen horiek bizitegi-garapenekin bateragarriak diren eta horietan kokatuta dauden beste tipologia bateko ekonomia-jardueretarako lurzorua prestatzearekin osatzea, nahasketa, dibertsitate eta konplexutasun handiagoko hirigunea lortzeko xedez.

- Espazio libreen zuzkiduren ezaugarriak hobetzea, ibaia eta argia bilatuz eta estrategikoki kokatutako hiru plaza berri nabarmenduz; eta, halaber, ekipamenduen zuzkidura hobetzea, une honetan dauden zuzkiduren berregituraketa orokorra eta eraginkortasun handiagoa ahalbidetuko duten eraikin berriak aurreikusiz.

- Lurzoru hiritarrezinaren antolamenduko baldintzak arautzea, landa-sektorea behin-behinekoz birmoldatzea eragingo duten ekarpenak egiteko gai diren ekimenak txertatzeko.

- Udal-lurraldera iristeko baldintzak hobetzea, motordun ibilgailuetan nahiz motorrik gabekoetan, eta, bereziki, herriko mugikortasuna, irisgarritasun unibertsala, aparkalekuak eta garraio publikoak hobetzea, bai eta bizikleta-sarea ere.

- Aipatutako helburuei erantzuna ematea ingurumen-ikuspegitik iraunkorrak diren soluzioen bitartez eta, horrela, ondorengo belaunaldien etorkizuna bermatzea. Hemen txertatuko dira baita ere energia aurrezteko proposamenak, zerbitzuen azpiegituren eraginkortasun ahalik eta handiena lortzera bideratutakoak (argiteria, etab.) nahiz teknologia berriak herritar guztien zerbitzura jartzekoak.

- Proposatu beharreko soluzioak udalaz gaindiko ikuspegitik sustatzen direnekin txertatzea eta koordinatzea.

- Horrekin guztiarekin, Soraluze-Placencia de las Armasko ingurumen-kalitatea eta biztanleen osasuna nabarmen hobetzea.

Funtsezko oinarri horien gainean, honako irizpide hauek planteatzen dira dokumentu honetan, udal-lurraldearen gaineko esku-hartzeari dagokionez:

- Hiri-izaerako erabileretarako lurzoruaren kontsumoa minimizatzea, hautemandako premietarako erantzun zehatzera mugatuz eta aurretik dagoen hiri-eremuak eskain ditzakeen baliabideen erabilera optimizatuz.

- Landa-izaerako lurreko esku-hartze, erabilera- eta eraikuntza-erregimena arautzea, aipaturiko inguruneak berezkoak dituen balioak babestuz, biodibertsitateari lagunduz, lehen sektorearen garapenarekin, kalitate bereziko lurralde baten gozamenarekin eta paisaiaren antolamenduarekin lotutako produktibitatea bultzatuz eta landa-sektorearen balizko birmoldaketa eragingo duten ekarpenak egiteko gai diren ekimenak txertatuz (Karakate-Irukurutzeta mendikatea, balio geologikoak, bestelakoak...).

- Hiriguneko lurzoruaren erabilerak arautzea, dibertsitatea eta nahasketa bultzatuz, baldin eta bateragarriak badira; eta euren kokapen orekatua sustatzea.

- Udalerriaren eta horren lurralde-testuinguruaren arteko irisgarritasuna eta integrazioa bermatuko dituzten bide- eta zerbitzu-azpiegiturak ezartzea (telekomunikazioak, gasa, ur-hornidura, energia elektrikoa, argiteria, ur zikinen sarea, etab.), garraio kolektiboan arreta berezia jarriz.

- Behar diren tokiko ekipamenduak garatzea.

- Horretarako guztirako, eraikitako eta urbanizatutako ondarea birgaitzea, beharrezkoak diren hiri-eraldaketetarako eta berroneratzeko esku-hartzeak ahalbidetuz.

- Industriako edo hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoak ezartzeko lurrak zehaztea.

- Soraluze-Placencia de las Armasko plangintza lurralde-antolamenduko tresnekin (LAG, LZP, LAP, etab.) eta udalerri mugakideetako plangintzekin koordinatzea.

Aipatutako irizpideak ez daude kontraesanean udalerria txertatuta dagoen Eibarko Eremu Funtzionaleko (Debabarrena) Lurraldearen Zatiko Planean jasotakoekin.

Plangintzak erantzuna eman behar dio lurralde-antolamenduak planteatzen duen ereduari, hirigintza-antolamenduko xedapenak zehaztuz, lehendik dauden erabilerak eta horien ezaugarriak kontuan hartuta behar diren erabilerak arautuz eta lurraldean txertatuz eta aipaturiko irizpide eta helburuei erantzuna emanez.

Horren guztiaren ondorioz, dokumentu honek antolamendurako irtenbide zehatzak eskaintzen ditu udalerri osorako, aurrez aipatutako helburuak eta irizpideak ere barnean hartuta. Irizpide eta helburu horietan txertatu dira, zuzenean edo zeharka, ingurumen-aldagaiak, aztertu diren aukeren azterketatik ondorioztatzen direnak.

Edonola ere, dokumentuaren barnean ingurumenaren arloko izapideak abiarazteko beharrezkoa den ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena txertatu da.

Orain arte aipatutako helburuek bigarren maila batean uzten dituzte aintzat hartu beharrekoak diren beste helburu batzuk, hala nola: udaleko plangintza orokorra lurzoruari eta hirigintzari buruz aplikagarri den estatuko nahiz EAEko legedia berriaren arabera egokitzeko lege-betebeharra, eta indarrean dauden lurralde-planen arabera egokitzeko lege-betebeharra (Debabarreneko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana, funtsean).

Lehenago aipatutako udalaren Ekintza Planean jasota dagoenez, Soraluze-Placencia de las Armasek "hiri-erakargarritasuna handitu beharra du, ekonomikoki garatutako gizarteek gaur egun eskatzen duten inguruaren kalitate-eskariari erantzuteko", eta "hiriaren eraberritzea eraldaketa zabalago baten elementu katalizatzailea" izango den plana eskatzen du. Hori da

hurrengo urteetarako erronka nagusia; gainera, erronka zehaztasun handiz identifikatuta dago, eta udalak abian jarri du erronka horri aurre egiteko prozesua.

Dena den, jakinaren gainean jarri behar da Plan Orokor berria beharrezko dokumentua bada ere, ez dela nahikoa, izan ere, udal-lehentasunek zehaztu beharko duten beste osagai batzuk beharko ditu, eta baita beste administrazio eta inbertsio batzuen inplikazioa ere.

HAPO honek irizpide horiei erantzuten die, eta udal-barruti osoa antolatzea du xede (I.3 planoa).

II.3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) xedatutako irizpideak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) oso-osorik sartzen dute Soraluze-Placencia de las Armasko udalerria Eibarko (Debabarrena) Eremu Funtzionalean, eta eremu funtzional horretako komunikabideen oinarrizko azpiegiturak nabarmentzen dira, bereziki, AP-1 autobidea eta bide-sarea (GI-627).

LAGek aplikazio zuzeneko zenbait arau xedatzen dituzte; horien artean, lehendik dagoen edo proposatzen den hiri-ingurunetik kanpoko bizitegi-eraikuntza autonomo berriaren debekuari dagokiona aipatuko dugu hemen.

Gainera, LAGek alde zaharra lehengoratzeko eta balioa emateko dinamizazio-ekimenak aurreikusten dituzte, bai eta hiri-ingurunea berritzeko estrategiak ere, Soraluze-Placencia de las Armasen, zalantzarik gabe, horrelakoak egin beharra baitago.

HAPO honek erabaki horiei erantzuten die.

II.4.- Eibarko (Debabarrena) Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planetik eta Lurraldearen Arloko Planetatik eratorritako irizpideak

Eibarko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planak Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru mendikatea babestea eta dagokion balioa ematea planteatzen du, bai eta hirigunea ingurumenaren ikuspegitik hobetzea eta berorri balioa ematea ere; horrez gain, bertako alde zaharra lehentasunezko baliabide turistikotzat hartzea ere aintzat hartzen du. Udalerriaren egoeraz jabetuta, ingurumena hobetzeko eta hiri-inguruaren ezaugarriak berreskuratzeko ekintzei heldu beharra dagoela azaltzen du, eta, horrekin batera, Deba ibaiak hiri-ingurunetik pasatzerakoan egiten duen ibilbidearen zatia hobetzea ere planteatzen du. LZPk, gainera, Ezozia eta San Andres inguruak identifikatzen ditu lurralde honetarako sarbide gisa, eta, baliabide turistiko gisa, "etxe-arrazei buruzko parke tematikoa" ezartzeko proposamena ere planteatzen du. Udalaz gaindiko ikuspegi horretatik, Soraluze-Placencia de las Armasko udal-barrutiko tokiren bat xede duen plangintzaren batekin bateragarri egiteko prozesuei ekin beharrik ez du planteatzen. Horrez gain, Lurraldearen Zatiko Planak, zortzi urteko denbora-mugari begira, etxebizitzen eskaintza honako kopuru hauen artekoa izango dela zehazten du: 315 etxebizitza berri gehienez, eta 132 etxebizitza berri gutxienez.

Soraluze-Placencia de las Armasko udalerriko lurretan eragina duten indarreko Lurraldearen Arloko Planak, berriz, hauek dira: Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien eta erreken ertzak antolatzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoetarako lurzorua sortzekoa eta

saltokiak antolatzekoa, eta nekazaritza, basoak eta ingurune naturala antolatzekoa. Lehenengoak ibilguen babesa arautzen du, ibilguak eta ertzak babesteko neurriak ezarriz. Bigarrenak jarduera ekonomikoak ezartzeko lurzorua kokatzeko lehentasunezko intereseko gisa kalifikatzen du udalerria. Eta hirugarrenak lurzoru hiritarrezina zonakatzeko irizpideak ezartzen ditu, eta nekazaritza-sektorean izango dituen eraginak ebaluatzeko protokolo bat gauzatu beharra ere adierazten du.

Honako HAPO honek lurraldearen antolamenduko indarreko agirietan jasotzen diren proposamenak barnean hartzen ditu.

II.5.- Bizitegiak kuantifikatzeko irizpideak.

1999. urteko Arau Subsidiarioek 260 etxebizitza berriren eskaintza egitea aurreikusi zuten; urte horretan, etxebizitzen parke osoa 1.710ekoa zen (1.631 hirigunean).

Jasotako informazioaren arabera, gaur egun udalerrian 1.992 etxebizitza daude, eta, beraz, kopuru horrek adierazten du aurreikusitako eskaintza bere osotasunean gauzatu dela, eta bat dator hori errealitatearekin. Bestalde, azpimarratu behar da azken urteetan ez dela baimenik eman etxebizitzarik eraikitzeko udalerrian; beraz, gaur egungo ereduaren araberako etxebizitzen eskaintza agortuta dago argi eta garbi.

Bestalde, gaur egun egiaz 234 etxebizitza huts daudela ikusi da (etxebizitza kopuru osoaren % 12), eta kopuru hori denboran iraunkorra dela ere esan daiteke (landa-inguruan kokatutako etxebizitzei dagokien % 10 kenduta, kopuru hori bat dator ia 1999ko Arau Subsidiarioetan jasotakoarekin: 202); gaur egun, hori da etxebizitzen arloan udalerrian dagoen eskaintza bakarra, baina, hainbat arrazoirengatik (zahartuta daudelako, bizigarritasun-baldintzak ez dituztelako, antolamendutik kanpo gelditu direlako...), eskaintza hori ez da merkatura iristen.

Bestalde, gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, eskariak behera egin du, finantziazioa lortzeko zailtasunen ondorioz eta jendea ziurgabetasun-egoera hau igarotzeko zain dagoelako; eta metatu egin da, udalerriko biztanleria 4.000 pertsona inguruan finkatu baita, eta etxebizitza-unitate bakoitzeko bizilagunen batez besteko ratioa progresiboki murrizteko joerak bere horretan eutsi baitio (2,41 bizilagun etxebizitza bakoitzeko gaur egun, Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik); eta horrek, baldintza arruntetan, eskaria areagotzen du.

Babes publikoko etxebizitzen azken sustapenek udalerrian harrera ona izan dutela ere ikusi da.

Esparru orokor horretan, Plan Orokorrak erantzun egokia proposatu behar du, eta, egoeraz gain, kontuan hartu behar ditu udal-proiektuak etorkizunera begira dituen helburuak nahiz planak barnean hartzen duen zortzi-hamar urteko epea ere, eta horiek batez ere; epe horretan, gaur egungo ziurgabetasun-egoera atzean utziko dugu ziurrenik, eta udalerriak horretarako prest egon behar du.

Dena den, Plan Orokorra lurralde-antolaketaren arloan indarrean dauden zehaztapenen arabera egokitu behar da, baita ere. Eta etxebizitzen eskaintza honako kopuru hauen artekoa izango dela jasotzen da bertan: 315 etxebizitza berri gehienez, eta 132 etxebizitza berri gutxienez.

Bestalde, orain arte egindako azterketek erakutsi dute 2000-2009 aldian etxebizitza berrien batez besteko egiazko eskaintza urtean 25 etxebizitzatakoa izan dela; kopuru hori 8 urteko denbora-tarte horretara eramaten badugu, 200 etxebizitzako eskaintza izango genuke, eskaintzaren zurruntasun-koefizienterik kontuan hartu gabe; horrek mila biztanleko eta urteko 6 etxebizitza

eraikitzea ekarriko luke, eta kopuru hori bat dator ekoizpen iraunkorraren erreferentziarekin (5 edo 6 etxebizitza mila biztanleko eta urteko), eta oso urruti dago beste udalerri askotan azkeneko urteetan izan diren kontrolik gabeko kopuruetatik.

Bestalde, hautemandako egoerak kokagune jakin batzuetan hiri-eremua aldatzea eskatzen du (Olaldea, Pascual Txurruka...), eta baita gaur egun erabilerarik ez duten hainbat eraikini erabileraren bat esleitzea ere (kanoi-fabrika, besteak beste). Lehenengo kasuetan, Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planak agintzen du esku-hartze hori. Behar horren ondorioz, kokagune horiek, beste erabilera batzuen artean, bizitoki-erabilera berriak ezartzeko gune egoki gisa identifika daitezke, eta, beraz, helburu horiek baldintzatuko dute proposatu beharreko bizitoki-eskaintza.

Hala, aurreko guztia kontuan hartuta eta bizitegien kuantifikaziorako irizpide gisa, proposatu beharreko etxebizitza berrien eskaintza 200 eta 300 etxebizitza artekoa izango dela aurreikus daiteke (eskaintzaren zurruntasun-koefizientea 1,5ekoa da), eta azkeneko kopuru horretatik hurbilago egongo dela ere esan daiteke, aurreko paragrafoan adierazitakoa eta iraunkortasun-printzipioa kontuan hartzen baditugu; printzipio horren arabera, lurzoruek erabilera-intentsitate egokiak izan behar dituzte, eta dentsitate baxukoak saihestu behar dira.

Honako HAPO hau irizpide horietara egokitzen da, bai eta indarreko Lurraldearen Zatiko Planean xede horretarako aurreikusten den kuantifikaziora ere.

Bestalde, hautemandako egoeraren aurrean, beharrezkoa izango da udal-plangintzak epe laburrean, ertainean eta luzean bizitegi-izaerako lurzoruaren eskaintza sustatzea, udalerriak dituen premiei eman beharreko erantzunaren aurreikuspena egin ahal izateko.

Testuinguru horretan, halaber, etxebizitza hutsei erabilera emateko eraginkortasunez erabaki daitezkeen jarduketen irismena balioetsi beharko da, eta, zehazki, aurrez dagoen etxebizitza-parkea berritzea sustatuko da, bereziki alde zaharrean, baina baita gainerako hirigunean eta lurzoru hiritarrezinean ere, sakabanatutako baserriei ere balioa emanez.

Zehaztutako jarraibideek –aurrerago ikusiko dugu, proposamenak adierazitakoan– argi erakusten dute ez dela beharrezkoa lurzoru berrien (lurzoru hiritargarriak) artifizializazioa, udalerriko etxebizitza-eskaerari erantzuteko.

Arlo honetan azpimarratu beharreko beste alderdi bat hauxe da: udalerriko etxebizitzen merkatuko prezioak ez dira iristen, oro har, babes publikoko etxebizitza tasatuetarako ezarritako gehienekoetara, eta prezioak inguruko udalerrietakoak baino baxuagoak dira.

II.6.- Kontuan hartutako irtenbideak. Ingurumenaren ebaluazioa eta irtenbideetarako orientabidea.

2014ko martxoan Plangintzaren Aurrerapena idatzi zenean, askotariko irtenbideak planteatu ziren hautemandako arazoei irtenbidea emateko eta, horrela, udal-proiektua zehazteko.

HAPO hau zehazteko prozesuan, bertako edukiaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa ere egin da harekin batera, eta, zeharka, ingurumen-osagaiak txertatu dira bertan, bai eta biztanleen osasunarekin eta, besteak beste, nekazaritzaren esparruko eraginarekin lotutako osagaiak ere.

Orain aurkeztutako HAPO honek ingurumen-ebaluazioaren prozesu horri erantzuten dio beraz, bai eta berori idazterakoan planteatu diren irizpideei eta jendaurrean ezagutarazteko prozesuaren emaitzari ere.

Aintzat hartu diren eta baztertu diren irtenbideak zehatzago ageri dira bai plangintzaren Aurrerapenean eta bai HAPO honetako ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren X. atalean ere.

Iraunkortasun-printzipioak barnean hartzen ditu proposamenak, hala nola lurzoru berriak ez artifizializatzea, hiri-ingurunea berritzea eta trinkotzea, motorrik gabeko mugikortasunaren aldeko apustua egitea, landa-inguruneko erabilerei eustea eta dagokien balioa ematea, eta ingurumenaren aldetik hobetzea.

Hortaz, planaren proposamenen oinarrizko helburua udalerriko ingurumen-baldintzak hobetzea eta arriskuak minimizatzea da, azken helburutzat biztanleen ongizate eta osasun onena lortzea hartuta; dokumentu honetan jasotzen den hirigintzaren jatorrizko eta funtsezko helburua horixe da, Aurrerapenaren fasean bertan jada adierazi zenetik. Dokumentu honen eranskinetan, Eusko Jaurlaritzak emandako arriskuei buruzko nahitaezko txostena dator (2. eranskina).

Ildo horretatik, planeko proposamenek, espazio irekiak hobetzea ez ezik, horrelako espazioak eskuratzea lortu nahi dute, gutxi baitira udalerrian; espazio publikoen segurtasuna eta babesa sustatu nahi dituzte, horretarako hainbat neurri hartuta, adibidez, Atxuri-Errabalean Deba ibaiaren bi eratzak lotzeko neurria; hirigintzako oztopoak kendu nahi dituzte (eskailerak dituzten igarobideak kendu eta beste batzuk jarri haien ordez, igogailu publiko berri bat ezarri...); garraio publikoaren erabilera eta lekualdaketa aktiboak sustatu nahi dituzte, mugikortasunaren arloan zehaztu diren neurrien bidez; eta, halaber, zaratekin, usainekin edota argiztapenarekin lotutako eragozpenak minimizatu nahi dira, proposamen zehatzen bidez (zarataren inpaktuaren azterketa zehatza, Deba ibaiaren hobekuntza ingurumenaren ikuspegitik, eta argiztapen publikoarekin lotutako proposamenak, Smart Cities programaren esparruan).

Ingurumenaren ikuspegitik planak barnean hartzen dituen berariazko neurriak dira guztiak, eta beren emaitza izan behar dute herritarren osasunaren hobekuntzan.

II.7.- Biztanleriaren hazkunde-hipotesia.

Soraluze-Placencia de las Armasko udalerriak, INEren datuen arabera, 4.018 biztanle zituen 2013ko urtarrilaren 1ean, eta azken urteotan udalerriko biztanleria 4.000 biztanleko kopuruaren inguruan egonkortu dela ikusi da (3.969 ziren 2014ko abenduaren 31n), nahiz eta lehenagotik atzeranzko joera garbi bat ere bizi izan duen udalerriak.

Egindako diagnostikoan ohartarazi zenez, plan honek hartzen duen denbora-tartean, 3.900 bizilaguneko biztanleria izatera iritsiko litzateke udalerria, 2001etik 2013ra bitarteko hazkunde-erritmoari eutsiz gero. Baina, une honetan daukagun atzeraldi ekonomikoa eta zahartutako biztanleria-egitura kontuan hartuta eta umeak izateko adinean dauden emakumeen murrizketaren ondorioz ugalkortasun-tasak behera egingo duela jabetuta, ez litzateke harritzekoa biztanleen galera handiagoa izatea. Horregatik, ezinbestekoa da dinamika hori iraultzeko bitartekoak jartzea, eta horixe da honako Plan Orokor honen helburuetako bat.

Horrela, epe labur eta ertainera izan daitekeen egoerarik onenean, 4.000 bizilaguneko biztanleriari eustea planteatu da.

Horrek ez du esan nahi etxebizitzen eskaintza berri bat aurreikustea beharrezko ez denik; gainera, eta lehen esan dugunaren ildotik, beste helburu batzuei ere erantzuten die horrek. Izan ere, etxebizitza-unitate bakoitzeko bizilagunen batez besteko ratioak (2,41 bizilagun etxebizitza

bakoitzean gaur egun, Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik) pixkana murrizteko joera erakutsi du, eta horrek eskaria areagotzen du.

II.8.- Beste irizpide eta helburu batzuk.

Aurreko ataletan adierazitako helburu eta irizpide orokor horiez gain, plan hau izapidetzeak eta onartzeak duen interesa nabarmendu behar da hemen; izan ere, indarreko Arau Subsidiarioak zaharkituta gelditu dira, eta udalerriak lehenbailehen proiektu bat izatea nahitaezkoa dela ikusi da, egiteko daukan urratsa egin dezan eta hiri-ingurunearen eta ingurumenaren ezaugarriak berreskura ditzan.

Bestalde, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Lege berrira egokitu gabeko planak berrikusteko aginduari erantzuten dio proiektuak, bai eta Eibarko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planak haren xedapenetara egokitzeko ezartzen duen aginduari ere.

II.9.- Esku hartzeko proposamenaren deskribapena.

II.9.1.-<u>Proposamena gauzatzeko oinarriak.</u>

Dena den, Plan Orokor hau sustatzeko erabakia udalak udalerriko antolamendua berrikusteko ikusi duen beharraren ondorio da, egungo egoera eta indarrean dauden Arau Subsidiarioen gauzatze maila eta zaharkitzapena kontuan hartuta.

Urtebetez plana egiteko, kontrastatzeko eta heltzeko egin den prozesuan zehaztu diren helburuei eta hartu diren erabakiei erantzuten diete bertako proposamenek.

Diagnostikatutako egoerari erantzuteko, bai eta udal-proiektua berrikusteko udalaren helburuari eta udal-proiektua indarrean dauden legediaren eta lurralde-plangintzaren arabera egokitzeko aginduei erantzuteko ere, dokumentu hau ondoren azaltzen diren oinarrizko hiru ideiekin bat etorrita prestatu da.

Alde batetik, Soraluze-Placencia de las Armas udalerriaren ikuspegi orokor eta integraletik interes edo garrantzi handiena duen gaia lantzen du dokumentuak, eta hauxe da: udalerriko hirigunea berritzeko eta berrantolatzeko prozesua amaitzea; prozesu hori une honetan indarrean dauden Arau Subsidiarioak behin betiko izaeraz onartu zirenean abiatu zen, eta, besteak beste, Izartu planen bidez sustatu zen.

Horretarako, beharrezkoa da udalak etorkizun hurbilari begira proiektu berri bat garatzea, eta, proiektu horren bidez, lehenago hasitako prozesuari jarraipena eman behar zaio, eremu publikoa hobetu behar da, mugikortasun- eta irisgarritasun-baldintzak sustatu behar dira, eraikitako ondarearen zati handiena finkatu eta berritu behar da, lurzoru berrien artifizializazioa minimizatu behar da, esku-hartzea erabaki den lurzoruen erabileren intentsitatea modu arrazoitu eta egokian optimizatu behar da, eta enkistatutako egoerei irtenbide bat eman behar zaie. Hauek dira, besteak beste, irtenbide bat eskatzen duten gai nagusiak: Santa Ana kaletik Olearainoko jarraipenaren antolamenduari irtenbide bat bilatzea, kanoi-fabrika zaharreko lurzoruaren eta eraikinen erabilera zehaztea, eta Deba ibaiaren eta ibaiertzaren antolamendua.

Oinarri horiek ditu, beraz, plan honek, eta berori idazteaz arduratu den talde teknikoak nahiz udaleko ordezkariek eta udaleko eta eskualdeko zerbitzu teknikoek ildo horretan lan egin dute etengabe.

II.9.2.-Deskribapen orokorra

Proposamena bi alderdi hauen azterketaren ondorio da: alde batetik, aintzat hartu ditu lehendik dauden izakin fisikoak, hau da, mota guztietako kokaguneak, bai eta azpiegiturak, nekazaritza-erabilerak, gaur egungo landaredia, biztanleria, fauna, gaur egungo egoera, eta abar ere; eta kontuan hartu ditu, halaber, abiarazita dauden proposamenak eta etorkizunari begira planteatzen diren proiektu berriak, beharrak, ekimenak eta ideiak ere.

Lehen aipatutako helburu eta irizpideetan oinarrituta proposatzen den ereduak udalerriko bertako nahiz ingurune hurbileko premiei erantzuten die, udalaz gaindiko ekimenak txertatuz lurzoruaren antolamenduaren arloan; besteak beste, Deba bailarako bizikleta-bidea, edota Karakate-Irukurutzeta mendikatea babestea.

Udal-lurraldean esku hartzeko ereduak, normala denez, oinordetzan hartutako hiria finkatzea aurreikusten du oinarrian; baina hasierako eredua, 1999an onartutako Arau Subsidiarioek bere garaian xedatutako abiapuntukoa, berrikusten du, bi helburu hauek ardatz hartuta: irisgarritasun-printzipioa txertatzea eta udalerriaren etorkizuneko bideragarritasuna bilatzea.

Planak askotariko irtenbideak jasotzen ditu horretarako, eta, arloko ikuspegien arabera, ondorengo ataletan deskribatzen dira beroriek.

Oro har, planak proposamenak ahalik eta sinergiarik zabalenak lortzen saiatuz biltzen dituela nabarmendu da, ustez prozesuan irtenbide egokienak eta iraunkorrak direnak hartzeko ahalegina egin baita. Eta hori guztia asmo garbi batekin egin da: planak hartzen duen denbora-tartean, udalerri bizia, bizi-kalitate handiagokoa, lortzea, bai eta ingurumenaren eta hirigintzaren ikuspegitik hiri-ingurune berritua lortzea ere.

Horretarako, ezinbestekoa da hirigunea oinezkoentzako berreskuratzea, espazio libreak sortuz, oso gutxi baitira gaur egun, eta oinezkoentzat (eta bizikletentzat) oztopo urbanistikorik gabeko ibilbideen sistema bat prestatzea, espazio libreak eta ibilbideak lotzeko. Beraz, ibaiaren aurrealdean eta argia bilatzeko asmoz, plaza berriak proiektatu dira Olaldean, Erregetxen eta Kanoietan, eta oinezkoen bideen sare bat ehundu da, Deba ibaiaren bi aldeen arteko lotura hobetuko duena, zubi berrien (Baltegieta eta Gabolats) eta igarobideen bidez (Errekalde-Santa Ana) eta lehendik dauden zubi eta igarobideak ordezkatuz; kokapen-baldintzak hobetuko ditu horrek, arazo hidraulikoak murriztuko ditu, uholde-arriskua minimizatuko du, hirigintzako oztopoak eta puntu beltzak kenduko ditu, eta berorien erabilera beste mugikortasun modu batzuekin bateragarri egingo du. Horrela, hiri-inguruneko joan-etorriak atsegin eta abegikorrak izatea lortu nahi da, motorrik gabeko bitartekoak erabiliz; eta, noski, posible da hori, Soraluze-Placencia de las Armasko hirigunearen neurria eta dentsitatea ikusita.

Praktikan, Plan Orokorretik kanpo utzi dira bide- eta trenbide-azpiegitura berriak, baina, aldi berean, garraiobide publikoen aldeko apustua egin da, autobusaren erabilera bultzatuz.

Lehendik dauden azpiegituren optimizazioan eta hobekuntzan oinarrituta egituratu da proposamena, hiri-inguruneko iparraldeko eta hegoaldeko sarbideak birmoldatzeari arreta berezia jarrita eta hainbat proposamenen bidez, besteak beste: Mendiolako bidegurutzearen berregituratzea; Baltegietako zubi berria antolatzea, lehendik dagoen igarobidea ordezkatuz; eta Irukurutzetako bihurgunean biribilgune bat antolatzea. Ildo beretik, herrian bizi direnei

aparkatzeko tokiak eskaintzeko eta txandaka erabiltzeko bi aparkaleku antolatzea aurreikusten da hiri-ingurunerako sarbideetan, Kanoietan eta Olaldean.

Deba ibaira begira plaza berriak irekiz, hiri-ingurunearen funtsezko egiturarako elementua bilatu nahi du proposamenak, eta, modu osagarrian, ibaiertzetan pasealekuak antolatzea ere plantea daiteke.

Bestalde, lurzoruaren erabileraren optimizazioa ere ahalbidetzen du Plan Orokorrak, plana gauzatzeko eta garatzeko epean ez baitu ia batera handitzen eta, areago, murriztu egiten baitu artifizializatutako azalera, indarreko hirigintza-plangintzak aurreikusitakoarekin alderatuta. Horretarako, jarduketen kopurua mugatu egiten da esparru horretan, eta planteatutako helburuei modu oso batean erantzuteko beharrezkoak direnetara mugatzen da. Horrela, jada lurzoru hiritarren artean sailkatutako lurretan kokatzen dira proposatzen diren jarduketa esanguratsuenak, eta eremu hauetan aurreikusten direnak dira, zehazki: Erregetxen (ekipamenduen eraikina), Olaldea (bizitegi-izaerako eraikinak eta hirugarren sektoreko erabilerak arkupea duten behe-solairuetan, eta pasalekua ibaiertzean), Txurruka (bizitegi-izaerako eraikina), Zahar Etxea (ekipamenduen eraikina), eta Kanoiak (bizitegi-izaerako eraikina). Udalerriko erdigunean kokatutako hiri-ingurunea berritzeko esku-hartzeak dira, eta Amillagako industrialdea berritzeko aurreikusten den esku-hartzearekin osatzen dira beroriek; izan ere, industrialde horrek industria-jarduera bat hartzen zuen duela hilabete batzuk arte, baina gaur egun desagertua da jarduera hori.

Aldi berean, planak udalaren ekipamendu-sistema finkatuko du, eta xede horretarako Erregetxen aurreikusten den lursailaren antolamenduak, hirigunearen erdialdean kokatzen denak, indartuko du berori.

Planak landa-lurzorua ere antolatzen du, lehen sektoreko erabileren garapena erraztuz eta bere natura-balioak babestuz. Horretarako, bizitegi-erabilera autonomoetarako eraikin berria ezartzea saihestuko du, eta nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-ustiapenekin lotutako ezarpenak garatzea edota birgaitzea eta lehendik dagoen ondare eraikian esku hartzea arautuko du.

Horrela, hirigunea zuzkidura-, bizitegi- eta industria-erabilerak hartzeko eremu gisa erabiltzea optimizatzen da, eta sinergia handiagoak ahalbidetzen ditu horrek, helburu jakin batzuetan biltzen diren inbertsio publiko eta pribatu jakin batzuetarako bideak bilatzeko ahalegina egitearekin batera.

Horrelako esku-hartze ereduak bizitegi- edo industria-eremu berriek lurzorua modu estentsiboan eta bereizketarik egin gabe okupatzea eta beroriei dagozkien azpiegitura berriak sortzea saihesten du, eta, aldi berean, lurraldeari lehen malako garapenerako balioa emateko helburuari erantzuten dio.

Bestalde, ikusi diren arriskuei eta, bereziki, uholde-arriskuei erreparatuz gauzatuko du planak udalerriaren antolamendua.

Ondare arkitektonikoaren, arkeologikoaren eta naturaliskoaren katalogoa ere barnean hartzen du planak, ondare horretako elementu garrantzitsuenen babesa arautzeko.

Ondorengo ataletan modu xehatuan deskribatuko diren askotariko beste zehaztapen batzuk ere jasotzen ditu planak.

II.9.3.-Zonakatze globala

Udal-barruti osoa zonakatzeko proposamena egiten du Plan Orokorrak, eta hainbat eremu bereizten ditu, lurzoru hiritarrak edo hiritarrezinak diren aparte utzita; horretarako, proposatzen den hirigintza-araudi orokorrean, hainbat erabilera- eta eraikuntza-baldintza ezartzen dira. Zonakatze global hori II.1 eta II.2 planoetan adierazi da grafikoki.

Hauek dira udal-lurraldearen egitura orokorreko elementu esanguratsuenak:

- Lehenengoa eta esanguratsuena: Deba ibaia eta bere ibaiadarrak.
- GI-627 errepidea.
- AP-1 autobidea.
- Debako bizikleta-biderako proposatutako ibilbidea, Bergaratik Maltzagara artekoa.

Lurraldearen egitura orokorra izaera orokorreko ekipamendu eta espazio libreek osatzen dute; eta egitura horren elementu gisa azpiegitura-sareetako elementu bereziak finkatzen dira (ur-depositua, besteak beste).

Hirigunean, gainera, hainbat eremu bereizten dira, besteak beste: lehentasunez bizitegi-erabilerara zuzentzen direnak (A), jarduera ekonomikoetarakoak (B), errepide-sareari dagozkionak (sistema orokorra), bai motordun ibilgailuei dagozkienak eta bai oinezko eta bizikletei dagozkienak (E), ekipamenduetakoak (G), espazio libreei dagozkienak (F.1 eta F.2) eta zerbitzu-azpiegituretarakoak (H).

Memoria honen azken aldera txertatzen diren ezaugarrien koadroetan ikus daitekeenez, esanguratsua da bizitegi- eta industria-eremuek antzeko azalera hartzen dutela ikustea; horietako bakoitzak lurzoru hiritar osoaren herenetik gorako azalera hartzen du; eta, aldi berean, gainerako zatia (ia beste heren bat), askotariko zuzkidurak (espazio libreak, errepideak eta ekipamenduak) hartzen dituzten eremu publikoetara zuzendu da.

Eremuen tipologia horiei landa-lurzorua nahiz hiri-ingurunea xede dituzten antolamenduko baldintzatzaile gainjarriak erantsi behar zaizkie.

Bestalde, proposamenak ekosistema naturala zaintzen du, balio ekologiko handieneko eremuak babesten baititu; gainera, lurzoru hiritarrezin guztia berorren baliabideekin, balioekin, landarediarekin, erabilerekin eta gaitasunekin bat etorrita antolatzen eta zonakatzen du. Halaber, ekintza positiboko neurriak planteatzen dira degradatutako, hondatutako edo aldatutako eremu edo espazioetarako, eta baita ingurumenaren ikuspegitik arriskuren bat duten inguruetarako ere, hala, arrisku horiek murrizteko edo desagerrarazteko.

Soraluze-Placencia de las Armasko lurzoru hiritarrezina antolatzeko eta zonakatzeko proposamen hau Antolamenduko Landa Eremuen (II.1 planoa) eta Baldintzatzaile Gainjarrien (IV. planoak) mugaketatik abiatuta zehaztu da; bata zein bestea ingurumen-organoak igorritako erreferentziazko dokumentuan jasotzen diren proposamen eta gomendioak aintzat hartuta definitu dira; eta, berorietarako, erabilerak eta jarduerak arautu dira, lehenago deskribatutako

balio, baliabide, erabilera eta gaitasun haiekin bat etorrita. Ondoren zehaztu ditugu ezaugarri horiek guztiak.

Lurzoru hiritarrezinaren barnean sailkatutako udalerriko lurraldearen azalera zabalean planak izango dituen eraginak positiboak izango dira beti, hartu diren erabakiek ingurua babestea baitute xede eta, horrez gain, landa-lurzoruak naturaren, paisaiaren eta produkzioaren ikuspegitik dituen balioak gorde eta zaintzea sustatzen baitute; horrez gain, ingurumenaren ikuspegitik hondatuta, degradatuta eta kaltetuta dauden eremuak berreskuratzea, leheneratzea edota hobetzea ere sustatzen dute. Urbanizaziotik babestu egin dira baliabide horiek, baina biztanleek beroriez gozatzeko aukera dute, balio horien kokagune den lurraldearen balio potentzial intrintsekoaz jabetzeko beharrezkoa baita horiek ezagutzea, bai eta beroriez gozatzea eta, modu egoki batean, dagokien balioa ematea ere. Praktikan, Euskal Herriko historiaurrea ezagutzeko ibilbidearekin (Karakate-Irukurutzeta mendikatea), balio geologikoekin eta beste balio batzuekin lotutako aisialdiko eta turismoko jarduerak ezartzea sustatuko da.

Ez da proposatu udalak berariaz dagokion espedientean identifikatzen eta arautzen dituen landa-errepideei zona edo eremu maila esleitzea.

* Antolamenduko landa-eremuak.

Sei eremu mota bereizi dira. Eta honela identifikatu dira: D.1, D.21, D.22, D.3, D.4 eta D.5. Hauek dira zehazki:

- Babes bereziko landa-eremua (D.1).

Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru natura-intereseko eremua dugu hemen; Euskal Autonomia Erkidegoko Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekiko 36. zenbakian jasota dago. Ingurumenaren ikuspegitik balio handiko lurraldea da honako hau (balio botanikoa, paisaia, aisialdia, balio kulturala, historikoa, etab.), Informazio eta Diagnostiko dokumentuan aipatu denez, eta Soraluze-Placencia de las Armas, Elgoibar, Azkoitia eta Bergarako udalerriak hartzen ditu. Debabarreneko Eta Uroka Kostako Lurraldearen Zatiko Planek natura-intereseko eremu gisa identifikatzen dute esparru hau.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin (LAG) bat etorrita, bai eta EAEko natura babesteko 16/94 Legearekin ere, eremu horretarako dagokion Antolamendu eta Kudeaketa Plana (AKP) landuko da, deskribatutako balioak babesten eta mantentzen direla bermatzeko; plan horretan, eremu hori 16/94 Legean zehaztutako babes-irudiren baten barnean antolatzeko aukera balioetsi behar da. Plan horrek zehaztuko du gaur egun dauden ingurumen-balioak zaintzeko, hobetzeko edota leheneratzeko zer jarduketa egin behar diren, eta tokiko populazioen edo eragin-eremuen garapen iraunkorra sustatuko du, halaber. Eremu horretan Antolamenduko Plan Berezia ere izapidetu ahal izango da, nahitaez formulatu beharrekoa ez bada ere, eta, noski, udalaz gaindiko irismena izan beharko du berorrek.

Jarduketarako jarraibideak eta arauak zehaztuko dituen plana garatzen ez den bitartean, Plan Orokorrean esku-hartze antropikoa mugatzea proposatzen da, eta inguru horrek aurretiaz duen egoera bere horretan mantenduko da; inguruan aprobetxamenduren bat egonez gero, jarduera hori iraunkortasunaren ikuspegia kontuan hartuta garatuko da, eta erabilitako baliabidea berritzen dela bermatuko da. Bertako zuhaitz-masak mantenduko dira, bereziki pagoenak, eta zuhaiztiak mozteko eta bakanketak edo garbiketak egiteko zereginak sustatuko dira, espezie horiek berroneratzeko halakoak egitea egoki dela irizten denean. Eremu honetan, txilardi lehor europarrekin (EU 4030 Kodea) lotutako interes komunitarioko eremuak nabarmentzen dira, bai

eta Elosua-Plazentzia Estazio Megalitikoaren interes kulturala ere, Ondasun Kultural gisa kalifikatutakoa, Multzo Monumental kategorian, ekainaren 24ko 137/2003 Dekretuaren arabera; eta baita paisaiaren balioa ere (gailurren lerroak eta inguru hurbilak ikuspegi interesgarriak eskaintzen ditu, Deba bailaran eta inguruan berorren kokapena identifikatzearekin bat). Eibarko Lurraldearen Zatiko Planak (Debabarrena) mendiko larreen eremu bat identifikatzen du, gainera, mendilerro osoan zehar, eta, beraz, kontuan hartu beharko da Antolamendu eta Kudeaketa Planean (AKP).

Gaur egun dauden habitaten eta ingurumen-balioen babesarekin bateragarriak diren erabilerak onartuko dira soilik, eta berariaz debekatuko da berorien bestelakotzea, aldaketa edota desagerpena ekar dezakeen jarduketa oro. Natura-intereseko eremu horri interes publiko edo sozialeko jarduketaren batek eragingo balio, EAEko ingurumena babesteko 3/1998 Lege orokorrak, otsailaren 27koak, 51. artikuluan jasotakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren azterketa egin beharko da, eta eskumena duen administrazioari dagokion baimena eskatu beharko zaio.

Eibarko Lurraldearen Zatiko Planak (Debabarrena) honela sailkatu du eremu hori: Aisialdiko Eremu Naturala, Udalaz Gaindiko Eskualde Eremua (Elgoibar eta Soraluze-Placencia de las Armas); sailkapen horren arabera, etapak, lehentasunak eta baliabideen eskuragarritasuna kontuan hartuko dituen plan baten arabera programatu eta garatu beharko da inguru hori, eta modu bateratuan kudeatu beharko da. Ildo berean, ekipamendu eta zerbitzuen maila jakin bat izan beharko duela ere eransten du, eta zehaztapen horiek guztiak ere aintzat hartu beharko dira Antolamendu eta Kudeaketa Planaren lanketan.

Bestalde, babes bereziko landa-eremu hauetan, lurraldean sakabanatuta dauden hemengo zuhaitz-masak ere txertatzen dira, zehazki, *Quercus ilex* zuhaiztiak (UE 9340 kodea) eta pagadi azidofilo atlantikoak, *Ilex* eta noizean behin *Taxus* basopea dutenak (EU 9120 kodea), zuhaitz horien lerrokaduretan txertatzen direnak; bai eta ibilguen ertzetako haltzadiak eta lizardiak ere, *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* zehazki (EU 91EO* kodea), artadiak, *Castanea sativa* zuhaiztiak (UE 9260 kodea) eta txilardi lehor europarrak (EU 4030 kodea), Korridore Ekonomikoaren barnean daudenak (natura-intereseko eremua + lotune den korridorea). II.1 planoan identifikatu dira guztiak.

Hariztiz eta baso mistoz osatutako formazioak ere sartzen dira, bai eta hemengo landarediz osatutako inguruki eta hesiak ere, lurralde honek izan dezakeen landarediaren *lekuko* gisa. Horien barnean sartzen da Kurutzeko Gaina edo Kurutzetako Gaina ere, Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planean natura-intereseko gunetzat hartzen dena. Kartografiatutako orbana, gaur egungo egoeraren arabera plan honetan doitu egin den orban hori, nahiko homogeneoa da, *pinus radiata* zuhaitzez osatutako gune txiki baten kasuan izan ezik, eta interesgarria litzateke ale horiek moztu eta basoa berritzea, hemengoak diren antzeko espezieak erabiliz. Landare-orban horiek nahiko ondo gordeta eta zainduta daude, salbuespenak salbuespen, nahiz eta horietako batzuek hobetzeko eta ingurumenaren ikuspegitik leheneratzeko jarduketaren bat behar duten, klimax-basorantz bilaka daitezen (degradatutako ertzak dituzten eremuak, soilguneak, baso-landare aloktonoak tartean, basopearen gehiegizko garapena, etab.)

Interes komunitarioko gainerako habitatak, garaiera txikiko sega-belardi pobreak (6510 kodea), txilardi lehor europarrak (4030 kodea) eta larre lehor erdi-naturalak (6210 kodea) hartzen baditugu, horietako bakar bat ere ez da jo lehentasunezkotzat, eta ez dira sartu babes bereziko eremu horretan, Soraluze-Placencia de las Armasko lurraldearen antolamenduari hertsiki lotutako irizpideengatik. Erabaki hori hartzeko arrazoi nagusiak askotarikoak izan dira: higadura arrisku handiko eta oso handiko lurzoruak babestu beharra (baliabide ez-berriztagarria), edota

larre-erabilerarako bokazio handiagoa dutenak gordetzea, abeltzaintzako jardueraren garapena sustatzeko eta udarri honetako abeltzaintzako ustiapenei jarraipena emateko, esaterako. Horrez gain, habitat horiek nahiko ohikoak dira bai udalerri honetan eta bai Gipuzkoako lurralde osoan.

- Nekazaritza eta abeltzaintzako landa-eremua eta landazabala. Balio estrategiko handia (D.21).

Nekazaritza, Basoak eta Ingurune Naturala Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak Soraluze-Placencia de las Armasen tipologia horretako lurzorurik identifikatzen ez badu ere, honako dokumentu honetan bi eremu horrelakotzat hartzea egoki ikusi da, IV. mota agrologikoari dagozkion lurzoruak aintzat hartuta eta duten berezitasunagatik. Irure auzoan, barruti horren hego-ekialdean dauden bi eremu dira, Saloguengainekoa baserriaren eta Untzetagainekoa baserriaren (azken hau Bergaran) ondoan daudenak.

- Nekazaritza eta abeltzaintzako landa-eremua eta landazabala. Trantsizioko landa-paisaia (D.22).

Eremu hau erabilera-gaitasun moderatuko edo baxuko lurzoruei dagokie, nagusiki maldek (kasu askotan % 30etik gorakoak), drainatzeek eta ezaugarri kimikoek ezarritako mugen ondorioz. Inguru horiek, oro har, oso hauskorrak dira hainbat erabileratarako, kokapen topografikoaren eta sakonera, ur-erreserba eta ugalkortasun txikiaren ondorioz.

Soraluze-Placencia de las Armas udalerriko lur malkartsuen ezaugarriak aintzat hartuta eta nekazaritzarako nahiz abeltzaintzarako erabileretara zuzentzeko lurrak behar direla kontuan hartuta, gaur egun larre eta baratzeetarako erabiltzen diren eremuen izaerari eusten saiatu gara zonakatze-proposamen honetan, malda handiko inguruetan ez daudenean edo higadura-prozesu larri edo muturrekoen mende ez daudenean behinik behin (Ezoziko eta San Andresko hegaleko hainbat inguru baztertu dira, arriskua minimizatzeko). Sega-belardiak, Habitat Zuzentarauan interes komunitarioko habitat gisa sailkatuta daudenak, eremu horretako tipologiaren barnean sartzen dira, eta ez dira intereseko landareditzat hartu, udalerri honetako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapen askok lurzoru horiek baitituzte oinarri. Hala ere, plan honek eremuari dagokion tipologia horren barnean txertatzen ditu, eta lur horien bokazioarekin bat etorriko den erabilera arautzen du; beraz, babestu egingo ditu hein batean, abeltzaintzako ustiapenak eta horrelako habitata garatzea errazten duten teknikak sustatzen baitira. Ez dugu ahaztu behar belardi horien jatorria artifiziala dela, eta baserritarrak eta belarjaleek zeregin garrantzitsua betetzen dutela horiek babesteko orduan, azken horiek lur hori zapaltzen eta ongarritzen baitute.

Edozein modutan ere, kategoria honen barnean jasotako eremu gehienak zainketa berezia behar duten lurzoruei dagozkie, lehenago adierazitako ezaugarrien ondorioz, eta oso garrantzitsua da alderdi hori azpimarratzea. Alde horretatik, udalerri honetako paisaiak lehenagotik ere lurzoru hauek babesteko ahalegina egin dela erakusten du, harrizko hormatxo txikiak ikusten baitira (Deba ibaiaren eskuin aldeko hegaletan, Ezozia eta San Andres auzoetan, eta, puntualki, Txurruka eta Irure auzoetan), bai eta baso-unada txikiak ere, belardiekin mosaikoan.

Aipatutako irizpide horien ondorioz, kategoria honen barnean txertatutako eremuak ez datoz guztiz bat ez Eibarko Lurraldearen Zatiko Planean (Debabarrena) jasotakoekin, ez eta Nekazaritza, Basoak eta Ingurune Naturala Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean jasotakoekin ere –bi horietan jasotakoak ere ez dira berdinak–, baina gehiago hurbiltzen dira azkeneko horretan jasotakoetara, eta zehaztu egiten dituzte.

- Basogintzako landa-eremua (D.3).

Lurraldearen ezaugarri topografikoek udalerriko hainbat eremu baso-erabilerara zuzentzea ekarri dute, nahiz eta gaur egun ez duten erabilera hori. Malda handiko eremuak dira, erabilera-ahalmen txikia dutenak, eta higadura-prozesu garrantzitsuak dituzte. Horrelakotzat hartzeko lehentasuna izan duten irizpideak naturaren eta ekoizpenaren ikuspegitik balioa duten eremuok babestearekin lotuta daude, eta, horregatik, jarduera mota hori hartzeko duten gaitasun horretara, baso-erabilerara, zuzendu dira.

Baso-erabilera duten esparru guztiak eremuaren tipologia bakar batean biltzen dira; izan ere, ekoizpen-funtzioa eta babes-funtzioa lotuta daude elkarrekin, nahiz eta komeni den % 50etik gorako maldetan baso-erabilera sustatzea, beroriek babesteko, eta matarrasen bidezko erabilera horiek zokoratzea. Ildo horretatik, ustiapenei lotutako baso-berritzeek, lehen fase batean, zeregin egokia betetzen dute, ingurua zaindu eta gordetzeko bidea ematen baitute, baina ondo egonkortuta edota, areago, paisaian ondo integratuta dauden gune batzuei eraso larriak edo kalteak eragin diezazkiekete matarrasek edo baso-soilketek, bai ikuspegi ekologikotik eta bai fisiografikotik, eta ustiatu ondoren, urak lur horiek higa ditzake, arazo larriak eraginez, masa-mugimenduak sorraraz daitezke eta inguru horren egitura ekologikoa ere nabarmen pobretu daiteke. Gainera, baso-erabilerak baso-pistak irekitzea eta gero horiek mantentzeko lanak egitea eskatzen du (askotan ez zaie jaramonik egite), eta malda handiko inguruetan lur-mugimenduak eragiten ditu horrek, ibai-ibilguak aldatzen ditu, drainatzeko obrak ez dira nahikoa izaten, eta nabarmen eragiten zaio paisaiari; eta, batzuetan, ustiaketa horietan erabiltzen diren makinetatik datozen olioak inolako kontrolik gabe isurtzen dira.

Hertsiki ingurumenari lotuta dauden gogoeta horietan, higadura-arrisku handia edota % 50etik gorako malda duten eremuetan hemengo espezieak landatzeko aukera sustatu beharra azpimarratu da, eta kontuan hartu behar da udalerri honetako lurren zati handi batek ezaugarri horiexek dituela. Gaur egun dauden espezie aloktonoko baso-masen ordez poliki-poliki bertako espezieak sartzeko apustua Soraluze-Plancencia de las Armasko paisaiaren aniztasuna bultzatzeko eta sustatzeko asmoz ere egiten da; izan ere, gaur egun, pinuaren, pinu zuriaren eta beste antzeko konifero batzuen monolaborantza da nagusi. Lurzoru publikoetarako neurri horiek sustatu dira Administrazioaren bidez, nahiz eta ez den oro har horrelako egoeran dauden gainerako lurretara berori hedatzeko proposamenik egin. Bestalde, xede horretara bideratutako "Baso Bidez" programaren barnean, udalak jada zenbait ekimen sustatu dituela azpimarratu behar da.

Ingurumenaren erabilera eta kudeaketa zuzena sustatzeak, aldi berean, ingurumenaren arloko ziurtagiria lukeen zura lortzeko aukera emango luke, eta ustiaketa horiek merkatu berriei zabalduko lizkiekete ateak ("eskari berdea").

- Ingurumena hobetzeko landa-eremua (D.4).

Ingurumen-organoak igorritako erreferentziazko dokumentuan jasotzen denez, Aurrerapenean planteatutako ekimen batzuk eremuen kategoriara jaso dira, baldintzatzaile gainjarrien irismenarekin.

Ingurumena hobetzeko landa-eremuen artean txertatu dira dokumentu honetan erreken ertz batzuk, ertz horiek ezaugarri zituzten ibaiertzeko landareak (haltza eta lizarra nagusiki) galdu baitituzte, edo landare-lerro mehe batera murriztuta gelditu baitira; eta harizti azidofiloko eta baso mistoko arboladi gaztea edo degradatua duten zenbait eremu; udal-barrutiaren ipar-

mendebaldean dagoen Maltzagako harrobi inaktiboari dagokion eremu txikia (ekologikoki berritzeko ingurua); eta AP-1 autobidearen ezponda eta basogabetzeak ere.

- Hilerri berria ezartzeko proposatzen den eremua.

Hilerria Ezozira, futbol-zelai ondora, lekualdatzea proposatzen du planak, Ezoziko bide zaharraren eta GI-3653 errepidearen ondoko lurretara, eta eragin garrantzitsuak izango ditu inguru horrek. Gainera, aurreikusitako xede hori hartzeko egokitzat jo da, hirigunetik gertu dagoela ere aintzat hartuta.

- Azaleko urak babesteko landa-eremua (D.5).

Ibai-ibilguen multzoak (Deba ibaia eta berorren ibaiadarrak) eta berorien babes-ertzak osatzen dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak (isurialde kantauriarra) xedatzen duenaren ildotik. Beraz, eduki hidraulikoari begira, Debaren ibilgua, udal-barrutian sartzen den unetik (gutxi gorabehera 24,4 KP) Egorekin bat egin arte (19,4 KP), IV. mailakotzat hartzen da: $200 < A \leq 400$ Km². Sagarraga erreka, ezker eretzetik, eta Ipintza, Keixeta eta Orroaga, eskuin ertzetik, 0 mailakoak dira, eta berorien arro isurlea 1etik 10 Km²-ra artekoa da ($1 < A \leq 10$ Km²). Gainerako ibai-ibilguak 00 mailari dagozkio, eta, beraz, 1 Km²-tik beherako arro isurlea dute, eta Lurraldearen Arloko Plan honetan isurketa-urtzat hartzen dira.

Azaleko uren inguru horietan, jabari publiko hidraulikoa eta horien zortasun- eta kontrol-eremuak errespetatuko dira, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak, Uren Legeak, Plan Hidrologikoak eta EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak diotena betez.

Horrez gain, Deba ibaiaren ibilgua hondatuta dagoela eta ingurumenaren aldetik aldatuta dagoela azpimarratu da; beraz, beharrezkoa da inguru hori berreskuratzeko eta ingurumenaren aldetik hobetzeko jarduketak sustatzea, ibaiak hiri-ingurunean egiten duen ibilbide osoan.

Hemen ere, Deba ibaiak Soraluze-Placencia de las Asmasko hiri-ingurunean egiten duen ibilbidean ibai ingurua zaindu beharra dagoela jaso da, batez ere Olea presa inguruan; izan ere, 2014an ur-zozoa eta martin arrantzalea espezieak (*Cinclus cinclus* eta *Alcedo atthis)* ikusi dira bertan, eta interes bereziko espezietzat hartzen dira Basoko eta Itsasoko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan.

Uholde-arriskuen arloko arazoek eremu hauetan proposatuko diren ekintzak baldintzatzen dituzte; izan ere, eremu horietan eta ikuspegi hidraulikotik ekintza zehatzak planeatu behar ditu planak eta halaxe egiten du, indarreko legediarekin bat etorriz uholde-arriskua nabarmen minimizatzeko.

* Baldintzatzaile gainjarriak.

Antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileetan, hainbat tipologia bereizten dira. Alde batetik, ingurumenarekin lotutako baldintzatzaileak daude, ondoren adierazten direnak, zehazki, eta berorien barnean daude zonakatze akustikoa eta ingurumen-unitate homogeneoak; eta, bestetik, beste modu bateko arriskuak aintzat hartzetik eta horiei erantzuna ematetik ondorioztatu diren baldintzatzaileak.

Oraingoz udalerrian akuiferoen kutsadura izateko arriskua duen eremurik ez dela hauteman adierazi nahi da.

- Korridore ekologikoa (CS 1).

Lurralde honetan dago Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru lotunea, Gorostiagarekin batera, Izarraitz eta Aizkorri-Aratz inguru edo guneen konexio-elementua; halaber, Soraluze-Placencia de las Armasen ekialdean, R-9 eskualde-korridore ekologikoaren eremu bat dago (adierazitako lotune horren inguruko lurretan, Txurruka auzoko Aizpuruzabala eta Ozetagaña guneetan), eta inguru edo gune horien arteko lotura errazten du horrek

EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen dokumentuan biltzen den eremuari dagokionez, Karakate-Irukutzeta Agerre Buru lotuneari dagokion eremuaren mugetan zenbait kontu doitu dira, Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planean biltzen diren mugei eta dokumentu honetako zehaztapenari egokitzeko.

- Faunaren ikuspegitik interesa duten eremuak (CS 2).

Hainbat azterketa egin ondoren, hirigintzako informazioan jaso ondoren eta ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena idazterakoan beroriek zehaztu ondoren, Sagarraga errekan hemengo karramarroaren (*Austropotamobius pallipes*) intereseko eremua identifikatu da planean.

Ez da berariazko baldintzatzailerik ezarri uholde-enararekin lotuta (*Riparia riparia),* nahiz eta behin-behineko izaeraz espezie hori bertan badagoen egiazta daitekeen Deba ibaiaren ibilguan esku hartzen denean.

- Floraren ikuspegitik interesa duten eremuak (CS 3).

Gorostia (*ilex aquifolium*) hauteman da eremu batean, eta babestutako espeziea da gorostia.

- Interes geologikoko eremuak (CS 4).

Interes geologikoko eremuak (IGE) bat datoz Arzabaletako sumendi-harriekin; Igarate-Mendiolako taula-formako gorputzekin; Maltzagako laba jarioaldi trakitikoekin; Argarateko pillow-labekin; Arkaizko pillow-labekin eta Karakateko ebakidura bolkanikoarekin.

- Paisaia babesteko eremuak (CS 5).

Aztergai dugun esparru honetan, ez dago izaera bereziko paisaiarik katalogatuta, ez eta paisaia- edo kultura-mugarririk ere, nahiz eta udalerri honen iparraldeko esparru txiki bat Arrateko Santutegiaren ikusizko eragin-eremuan sartzen den (Eibarren dagoen eta Soraluze-Placencia de las Armasko arroak mugakide duen ikus-arroan, 186 zenbakikoan, kokatuta dagoen paisaia- eta kultura-mugarria).

Bestalde, Karakate-Irukurutzeta Agerre Buru natura-intereseko eremuan sartzen den Soraluze-Placencia de las Armasko paisaia ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko paisaia berezi eta nabarmenen katalogo irekian (aurreproiektua), baina honako dokumentu honetan txeratu dira bereziki bertako gailurren lerroa eta gertueneko ingurua, paisaiaren ikuspegitik balio handia duenez babestu beharreko paisaia delako (mendikatetik izugarrizko bistak daude, eta Gipuzkoako lurretan duen presentzia ere ez da nolanahikoa). Modu bertsuan, Debaren beste ertzeko inguru kakumenalak ere sartzen dira, Deba eta Sagarraga bailaren artean kokatutako Artegietako hegal aldeetako eta inguruetako *uharte* moduko ingurua barnean hartuta, irradiazio-lainoa den egunetan paisaian oso modu berezian agertzen baita. Ia udal-barruti osoa hartzen duen ikus-arroaren ikusgarritasun handieneko lurraldea babesteko proposatzen da hori guztia.

- Higa daitezkeen edo higadura-arriskua duten eremuak (CS 6).

Higadura hidriko laminarrak, USLE REAL ereduaren arabera kalkulatu denak, argi islatzen du garrantzi handia dutela udalerri honetan higadura-prozesuak jasateko arrisku moderatua, larria, oso larria edo muturrekoa duten eremuek; eta eremu horietako erabilerak eta beroriek egokitzeko eta kudeatzeko teknikak kontrolatu beharra dagoela adierazten du horrek. Lurralde honen ezaugarriak eta azkar hazten diren baso-sailek hartzen duten hedadura handia aintzat hartuta, erabiltzen diren teknikak ondo zaintzeak lehentasuna izan behar duela azpimarratu da; eta arrisku handieneko inguruak haziera motelagoko espezieetara orientatu beharra ere azpimarratu da, berritu ezin den baliabide den aldetik lurra babestu ahal izateko.

Higadura-arrisku handiena duten tokiak Deba ibaiaren bi ertzetako behe-hegaletan kokatzen dira, bai eta Deba ibaiaren eskuin ertzeko hegaletan ere, batez ere Ezozia eta San Andresko auzoetan.

- Ingurumenaren aldetik hobetzeko, leheneratzeko edota berreskuratzeko eremuak (CS 7).

Deba ibaiaren ibilgua sartzen da hemen, udalerri honetatik igarotzen den tartean; bai ibilgua bera eta bai ibaiertzak, oso hondatuta eta degradatuta daudelako. Abiatu beharreko jarduketek hainbat lan hartu behar dituzte barnean, ibaiertzetako espezieak landuz inguru horiek berreskuratzea eta hobetzea, landa-ingurunetik igarotzen den zatian espezie inbaditzaileak erauztea edota hondatu eta dregadatutako zatiak leheneratzea, esate baterako, elementu natural horiek Soraluze-Placencia de las Armasko bizitzan eta paisaian eta hiri-ingurunean txertatzeko xedez.

Lehentasuna duen jarduketa da, inguru hori ingurumenaren aldetik nahiko hondatuta baitago eta hirigunetik pasatzen den zatian udalerriko espazio libre hiritar nagusi izan dadin ibaiaren balioa indartzea interesgarri jo baita.

- Kutsatuta egon daitezkeen lurrak (CS 8).

Planaren barnean, 5. eranskina dator, eta IHOBEK egin eta irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bitartez onartutako EAEko Kokapenen Inbentarioan jasotako eremuak identifikatzen dira bertan, hots, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruak; bai eta 2014ko urtarrilean erakunde horren datu-basean eguneratutako informazioan jasotzen direnak ere (inbentarioa eguneratzeko zirriborroa, 2008az geroztiko aldaketak jasotzen dituena).

Horrelako guneen kokapena zehazteko orduan eta lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutako garbitzeko 1/2005 Legeak, otsailaren 4ak, xedatzen duena betez, ezinbestekoa da dagokion esplorazio-azterketa egitea, erabilera-aldaketa egin aurretik lurzoruaren kalitatea benetan ezagutzeko eta kontrolatzeko.

Ezinbestekoa izango da ikerketa hori egitea, aipatutako legeak xedatutakoaren arabera lurzorua kutsatutzat, eraldatutzat edo, hala dagokionean, ez eraldatutzat jotzeko eta haren gainean jarduteko.

- Uholdeak jasan ditzaketen eremuak (CS 9).

EAEko barneko arroei dagozkien Uholde Arrisku eta Kalteginen Mapek, Uraren Euskal Agentziak (URA) 2013ko ekainean egindakoek, Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremu bat identifikatu dute Deba ibaiaren ibilguan, Soraluzeko tarte hiritarrari dagokiona; ES017-GIP-DEB06 kodea du (hasierako koordenatuak: X 548099 eta Y 4780009, eta

amaierako koordenatuak: X 546993 e Y 4780790). 1,54 km inguruko eremu hori Keixeta errekarekin bat egiten duen puntutik Sagarragarekin elkartu arte doa (9,7 Ha inguru).

Plan hau idazterakoan, etengabeko harremanak izan dira URArekin, irtenbideak aurkitzeko, eta jada lehendik eraiki eta urbanizatutako eremuen gaineko esku-hartzeetara mugatu dira, lurzoru berririk hartu gabe; eremu horien uholde-arriskua murriztea dakarte beroriek, eta baldintza hobeak dakartzate bai arlo hidraulikoan eta bai ingurumenaren eta hirigintzaren ikuspegietatik ere, besteak beste, aplikagarri den Plan Hidrologikoko irizpideak betez.

Ildo horretatik, hiru igarobide edo zubi ordezkatzea, bi presa txiki beheratzea eta ibaiertzeko pasealekuetan babesgarriak gauzatzea aurreikusten da; aldi berean, ibaiaren aurrealdeko eraikinen lerrokadurei eutsi egiten zaie edo atzeratu egiten dira, lehendik daudenekin alderatuta. Horrela, ibaiaren ibilgua errespetatuko da, berorren igarobidea oztopatzen duten elementuak kenduko dira (zubi-pilareak, presa txikien altuera murriztea....), eta ibaiertzak berreskuratzeko aukera ere izango da.

Uholde-orbanak murriztea lortzen da planean, eta horixe ikus daiteke dokumentuko IV.4 planoan.

- Eremu akustikoak (CS 10).

"4. Planoak" dokumentuko "IV.2" planoan islatzen dira, eta eremu horietako helburu akustikoak 2012ko urriko Dekretuak xedatzen dituenak dira. Zehazki, hauexek dira (31. artikulua; I. eranskineko 1. zatiko A taula):

LEHENDIK URBANIZATUTA DAUDEN EREMUEKIN
LOTUTAKO KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK

EREMU AKUSTIKO MOTAK		**ZARATA-INDIZEAK**		
		Ld	**Le**	**Ln**
A	Nagusiki bizitegi-erabilerako lurzoruak dituzten eremuak	65	65	55
B	Nagusiki industria-erabilerako lurzoruak dituzten eremuak	75	75	65
C	Nagusiki aisialdi eta ikuskizunetarako erabilerako lurzoruak dituzten eremuak	73	73	63
D	Nagusiki C-tik aparteko hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak dituzten eremuak	70	70	65
E	Nagusiki osasun, irakaskuntza eta kulturako erabilerako lurzoruak dituzten eremuak, kutsadura akustikoaren aurkako babes bereziren bat behar dutenak	60	60	50
F	Garraio-azpiegituren sistema orokorren edo antzeko beste ekipamenduen eraginpeko eremua	(1)	(1)	(1)

(1) Eremuaren mugan, helburu akustikoak bat etorriko dira mugakide duen eremuaren zonakatze-tipologiari dagozkionekin.

Bestalde, etorkizuneko hirigintza-garapenei lotuta dauden kalitate akustikoko helburuak aurreko taulan adierazi direnak dira, 5 dB(A)-tan murriztuta.

Gai honekin lotutako zehaztapenak plan honetako 3 eta 4. eranskinetan adierazitakoarekin osatzen dira.

II.9.4.-Etxebizitza.

Soraluze-Placencia de las Armasko biztanleria, gaur egun, 4.000 biztanle ingurukoa da, eta Plan Orokorrak hartzen duen denbora-tartean (2025. urtea) biztanleriak kopuru horri eutsik diola aurreikusten da (ikusi II.7 atala).

Bildutako informazioaren arabera, udalerrian dauden etxebizitzen kopurua gaur egun 1.992 unitatekoa da, eta azpimarratu behar da azken urteetan udalerrian ez dela baimenik eman etxebizitzarik eraikitzeko; beraz, gaur egungo etxebizitzen eskaintza ia agortuta dago erabat.

II.5 atalean adierazitakoa kontuan hartuta, Plan Orokor honetan bizitegien arloan egin beharreko eskaintza 200 etxebizitzatik 300era bitartekoa izatea planteatu da.

Gai honekin lotuta dokumentu honetan zehaztu den proposamena hirigunea berritzeko jarduketen antolamendu berrian datza; bizitegi-erabilerara zuzendutako oin berriko eraikuntza 21.703 m^2(s) ingurukoa litzateke zehazki, eta, xede horretarako, ezinbestekoa da lehendik dauden bizitegietan 536 m^2(s) eraistea; beraz, bizitegietarako eskaintza berri eraginkorra 21.167 m^2(s)-koa litzateke. Etxebizitza bakoitzaren batez besteko neurria 90 m^2(s)-koa litzatekeela kontuan hartuta, 235 etxebizitza berri ingurukoa litzateke aurreikuspena.

Hortaz, adierazitako denbora-tarte horretarako zehaztutakora egokituko litzateke eskaintza, behealdetik jota, udal honetan planteatu denari jarraituz; eta, aldi berean, ingurumenaren eta hirigintzaren ikuspegitik hirigunearen ezaugarriak berreskuratzeko helburuak erdiesteko ekintza esanguratsuenei erantzungo litzaieke horrela.

Adierazitako etxebizitzen kopurua hutsik dauden eta merkatuan berriro sar daitezkeen etxebizitzen ehunekoarekin osatuko da, alde zaharrean birgaitzeko esku-hartzeen bidez eta, oro har, hiri-ingurunean etxebizitzen nahiz landa-ingurunean sakabanatutako baserrien eskaintzaren bidez.

Lurralde-antolaketaren arloan indarrean dauden zehaztapenen arabera egokia litzateke, beraz, azaldu bezala egindako proposamena (ikusi II.4 atala). Aurrez adierazitako eraikigarritasun-eskaintza horren kokapena hauxe litzateke:

EREMUA EDO AZPIEREMUA	BIZITEGIETARAKO ERAIKIGARRITASUNA (m^2(s))	ETXEBIZITZA BERRIEN KOPURUA
OLALDEA	9.900	110
TXURRUKA	2.692	29
KANOIAK	8.400	90
BALTEGIETA 26 (a.2.1/26)	311	8
GIPUZKOA etorbidea (a.2.1/19)	400	4
GUZTIRA	21.703	241

Bestalde, nabarmendu behar dugu antolamenduko eraikigarritasun-eskaintza berriaren zati handi bat babes publikoko etxebizitzetara zuzentzea aurreikusten duela proposamenak . Ildo horretatik, zehazki 4.300 m^2(s) babes ofizialeko etxebizitzetara zuzentzea aurreikusten da, eta beste 4.300 m^2(s) etxebizitza tasatuetara, oro har aztergai dugun kasu honetan legeak eskatzen duen gutxienekoa nabarmen gaindituz; eta aurrez adierazitako esku-hartze horietan jarduketa integratutzat zein jo daitezkeen aintzat hartuta (Olaldea eta Kanoiak), 3.553 m^2(s) babes ofizialeko etxebizitzak lirateke, eta 3.553 m^2 etxebizitza tasatuak. Kanoietan planteatzen den jarduketaren irismena kontuan hartuta planteatu da hori horrela; izan ere, lehendik dauden eraikinen katalogazioak baldintzatu egiten du etxebizitzen neurria eta, bereziki, ezarriko den eraikinen tipologia.

Dena den, planteatu den babes ofizialeko etxebizitzen eta etxebizitza tasatuen eskaintzak aise gainditzen du aurrez adierazitako esku-hartze berri horietarako lurzoru hiritarrean integratutako jardueretarako eskatzen den estandarraren aplikazioa hedatuz aterako litzatekeena; kasu horretan, tipologia horietako bakoitzerako 4.254 m^2 (s) eskatuko lituzke, eta proposatutako 4.300 m^2 (s)-ko neurri horretatik behera dago kopuru hori.

Horrela, bizitegi-izaerako tipologietan aintzat hartu beharreko legezko estandarrak aise eta modu globalean betetzen dira, egokiro kokatzeaz gain. Dagokion nahitaezko txostena ere egina dago.

Hipotesitzat planak hartzen duen denbora-tartean biztanleriari eutsi egingo zaiola hartuta, denboraldi horretan aurreikusitako eraikigarritasunaren % 60 eraginkor bihurtzen dela kalkulatuta eta aldi berean etxebizitza hutsen % 10 merkaturatzen direla pentsatuta, etxebizitza-okupazioari dagokionez 2,2ko ratioa aterako litzateke; eta, gaur egungo ratioa 2,41ekoa denez, beherantz egingo luke, beraz; hamar urteko denboraldirako aurreikusitako joeraren arabera arrazoizkoa litzateke beherakada hori.

Dena den, krisi egoerak eta horrek dakarren ziurgabetasunak, langabezia-tasak eta kredituen mugak zalantzan jar dezakete eskuartean dugun proiektua; baina gorabehera horrek ez du eragozpen izan behar, udalak etorkizun hori ahalbidetzeko landutako proiektua susta dezan, alderantzizko kasuan ezinezkoa izango baita.

Egoera horren aurrean, nahitaezkoa izango da esku-hartze publikoaren bidez proposatutako jarduketak sustatzea, bultzatzea eta babestea.

II.9.5.-<u>Jarduera ekonomikoak.</u>

Hiribilduaren bizitza eta bilakabidea jarduera ekonomikoari lotu zaizkio historikoki; jarduera hori landa-izaerakoa izan zen nagusiki aspaldiko urteetan, baina baita industriala ere, metalari eta zehazki armagintzari lotutakoa, 1573. urtean lehenengo "Real Fábrica de Armas" ezarri zenetik. Gaur egun oraindik ere funtsezkoa da udalerrian industria-sarea (landunen % 40 ingururi ematen die lana), eta lantegi metalurgiko asko daude, batez ere torlojugintzan eta makina-erremintan aritzen direnak.

Azpimarratu beharra dago bailararen ezaugarri bereziek herrigune nagusian integratutako industria-sarea sortzea ekarri dutela, eta hainbat eraikinek industria-erabilera eta bizitegi-erabilera hartu izan dute aldi berean; horrez gain, alturako industria-jarduera ere garatu da. Baina eraikin horiek gehienak zaharkituta daude gaur egun erabilera haiek hartzen jarraitzeko, eta, gainera, erabilera horien bateragarritasuna ere zalantzazkoa da. Izan ere, ildo horretatik,

Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planak Olaldea eta Errekalde eremuak nagusiki bizitegi-erabileretarako zuzentzea proposatzen du, modu zehatz eta berariazkoan.

Bestalde, udalerriaren herrigunetik oso gertu eta haren ondoan, Deba ibaian gora (Mendizabal) nahiz Deba ibaian behera (kanoi-fabrika, Mendiola, Ugarroa, Amillaga eta Aginaga-Maltzaga), nagusiki industrialak diren beste gune batzuk garatu dira, Sagar errekaren behe-ibarrean (Sagar erreka eta Sagarraga) eta Saloguenen kokatutakoez gain. Gune horietako gehienak garatuta daude, eta hainbat jarduera hartzen dituzte; lau salbuespen baino ez daude: Amillaga eremuko pabiloiak, duela gutxitik erabiltzen ez direnak; Mendiolako lursail azpieraiki bat; kanoi-fabrika, 2004. urteaz geroztik erabiltzen ez dena; eta Santa Ana kalearen hegoaldean kokatutako eraikin batzuk.

Zuzenbidearen eta hirigintzaren ikuspegitik, modu osagarrian, aipamen berezia merezi du Amillaga (lehen Agate) eta Uhaska inguruetan hautemandako egoerak; gaur egun indarrean dauden Arau Subsidiarioen hasierako izapidean inguru horiek industria-lurzoru gisa antolatu ziren arren, proposamen hori bertan behera gelditu zen arauak behin betiko izaeraz onartu zirenean.

Horrela, *ex novo* industria-lurzoru kalifikazioari ekitea baztertu egiten du proposamenak, Aurrerapenean gai honetan aintzat hartu diren ekimenak, aipatutako Uhaskakoa barne, bazterrean utziz; beraz, lehendik dauden industria-lurzoruak finkatzen dira oro har, ondoren adierazten diren hiru salbuespenekin; eta Amillaga ingurua, zati hadi bat eraikita duena eta duela gutxi erabilerarik gabe gelditu dena, berritzea proposatzen da gainera, indargabetze hori arrazoitu zuten zuhurtasunen arrazoiak desagertu ondoren.

Hortik ondorioztatzen den proposamenak erantzun mugatua ematen du, finkatutako lurzoruek eskaintzen duten erabilgarritasuna ere aintzat hartuta; baina nahikoa da, aldi berean, udalerriaren beharrei erantzuteko eta, bereziki, hala eskatzen duten jarduerei kokaleku berria emateko, gaur egun dituztenak baino instalazio egokiagoak behar badituzte edota eraldatzeko proposatu diren eremuetan kokatzen badira eta horrek jarduera tokiz aldatzea eskatzen badu; zehazki, horrelako egoerak sortuko dira Olaldean eta Errekalden.

Adierazi berri ditugun hiru salbuespen horiek aurrez industria-lurzoru gisa sailkatutako eremuak aldatzea eta nagusiki bizitegi-erabilerako lurzoru bihurtzea eskatzen dute, hirigune horiek eta beren inguruak berritzeko. Olaldea (Santa Ana kalea, 28 zenbakitik 40ra) eta Errekalde (19 zenbakitik 21era) dira, Oleako zubiaren mendebaldean, Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planean proposatzen denez; eta Kanoien ingurua, Baltegietan.

Horren guztiaren ondorioz, antolamenduko industria-eraikigarritasuna finkatu egiten da Aginaga-Maltzaga, Saloguen, Txurrukena Goikoa, Mendizabal, Sagar erreka, Sagarraga eta Ugarroa eremuetan; industria-izaerako ezarpenak kentzea proposatzen da Olaldea, Txurruka eta Kanoiak eremuetan; eta lehendik dauden industria-garapenak hedatzea proposatzen da Mendiola Industrialdean, Errekalde Goikoan (Oleako zubiaren ondoan dagoen udalaren lursaila) eta Amillagan, lehen bi kasuetan azpieraikitako bi lursailak erabat gauzatuz eta hiri-eraldaketa bat aurreikusiz hirugarrenean, 9.100 m^2(s)-ra arte antolatuta; horrexek adieraziko luke udalerrian proposatzen den industria-eskaintza berria.

Bestalde, bizitegi-izaerako erabilerekin bateragarriak izango diren hirugarren sektoreko erabilerak sustatu nahi dira Olaldea eta Errekaldeko eremuetan; eta, eremu horietan, hurrenez hurren 1.600 m^2(s) eta 580 m^2(s) antolatu dira xede horretarako. Bestalde, Errekalden, Oleako zubiaren ondoko udal-orubean aurreikusitako hirugarren sektoreko erabilera finkatzea proposatzen da (390 m^2 (s)).

Oro har, hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoak −merkataritza nahiz ostalaritzakoak, bulegoak, hotelak...− ezartzearen alde egitea proposatu da. Horretarako, jada badugu ondare eraikia, eta hiri-inguruneareN ezaugarriak berreskuratzea erakargarria izango da xede hori erdiesteko.

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak, gaur egun indarrean dagoenak, jarduera ekonomikoak ezartzeko lurzorua kokatzeko lehentasunezko intereseko gisa kalifikatzen du udalerria, eta aurrekoak bezalako proposamenak baimentzen ditu.

Bestalde, jada lehen ere azaldu denez, Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planak Olaldea eta Errekaldeko eremuak berritzeko planteamendua egiten du berariaz, eta inguru horietan aurretik dauden industria-izaerako erabileren ordez bizitegi-izaerakoak ezartzea proposatzen du.

Horrela, jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoruaren eskaintza udalerriak hirigunea berritzeko prozesuari ekiteko hertsiki beharrezkoa duen horretara eta udalerriko lurraldearen ezaugarrietarako egokia denera mugatzen da.

Dena den, beste eskari mota batzuek eskualdearen ikuspegitik aurki dezakete erantzuna, udalerriko lurraldeak ez baitu eskaintzen, oro har, jarduera ekonomiko berriak eta, bereziki, jarduera industrialak hartzeko lurzoru gisa prestatzeko gaitasun bereziak dituen lurzorurik.

Bestalde, eremu funtzionalak xede horretarako lurzorua du, kudeaketa- eta urbanizazio-fase aurreratuetan, gainera; horixe da Eibarko Erisono industrialdearen kasua, nahiz eta ez den eskualdean esparru horretan udalerrien arteko konpentsazio-mekanismorik bideratu: alderdi hori planteatzeko iradokizuna egin da, Tolosaldean emaitzatzat Apattaerreka industrialdea ekarri zuen prozesua adibidetzat hartuta, esate baterako.

Azkenik, jarduerei dagokienez, Plan Orokorrak landa-inguruneareKin lotutako jarduerak bultzatzea planteatzen du, helburutzat sakabanatutako baserriei probetxua ematea eta Ezozia eta San Andres inguruetako sarbideak indartzea ere hartuta; horrekin batera, landa-inguruneko balio bereziak zabaldu eta gozatzeko aukera emango duten jarduerak ere ezarri ahal izango dira. Ahalik eta sinergia handienak lortzeko bidea bilatuko da horrela, aldi berean inguru hori ingurumen aldetik hobetzeko aukera emango baitute.

II.9.6.-<u>Komunikazio-sistema.</u>

Udalerrian eta, zehazki, hirigunean Irisgarritasun Planaren (2003) eta Izartu I eta II planen bidez (2001 eta 2004) mugikortasun- eta irisgarritasun-baldintzak nabarmen hobetu badira ere, gai honetan arazo handi samarrak hautematen dira oraindik ere, eta, horregatik, beharrezkoa da gai horretan azken urteotan abiarazi diren ekintzei jarraipena ematea, arazo horiei irtenbidea aurkitu ahal izateko.

Lehenik eta behin, udalerrian garraio-zerbitzu kolektiboaren alde egin beharra dagoela ikusi da. Ildo horretatik, autobusen geralekuak berriro antolatu ditu udalak, eta beste hobekuntza batzuk ere egin daitezke; baina batez ere zerbitzuen maiztasuna handitzea proposatu da. Horrez gain, mikrobusen zerbitzu jarraitua eskaintzeko aukera ere planteatu da aztertzeko, udalerriko bide-eraztunerako. Ildo horretako esku-hartze batek ibilgailu pribatuen erabilera eta beharra arinduko lituzke eta, horrez gain, aparkalekuen beharra ere arindu egingo litzateke.

Ibilgailu pribatuez besteko garraiobideak erabiltzearen aldeko apustu horren ildotik, Plan Orokorraren barnean sartzen da Deba bailarako bizikleta-bideari jarraipena emateko irizpidearen antolamendua ere; Bergaratik Soraluze-Placencia de las Armasko hirigunera eta Maltzagara arte doa bizikleta-bide hori, azken horretako bide-zatia ere barne hartuta; eta sare horrek Eibar eta Elgoibar aldera jarraitutasuna izan dezan lortu nahi da; izan ere, berorren ibilbidean malda txikiak lor daitezkeenez eta herriguneen arteko distantziak aintzat hartzekoak direnez, bizikleta garraio-aukera egokia bihur daiteke bidaien ehuneko esanguratsu baterako. Proposamena jada Gipuzkoako bizikleta-bideen Lurraldearen Arloko Planean biltzen da, eta bizikleta-bide horretarako behin-behinekoz ibilbidea marrazteko aurrerapena ere jasotzen da dokumentuan; xede horretarako, utzita dagoen trenbidearen ibilbidea baliatzen da, zati horri dagokion balioa emanez, eta hirigunean jarraipena emateko modua zehaztu beharko da bertan (Mendiolako lotunea eta Gabolats eta Santa Ana kaleetako baterako ibilbidea), bai eta Maltzaga arte jarraipena emateko modua ere; berori Deba ibaiaren ezkerraldean egitea aurreikusten da, GI-627 errepideari lotutako irtengune baten bidez eta zati horretan abiadura murrizteko asmoz bidea estutuz, edo beherago kokatutako trazadura baten bidez, noiz edo noiz uholde garaian urez estalita geratzeko arriskua izango lukeen arren (III.3 planoa).

Plan Orokorraren denbora-tartearen barnean, bailara honetako garraiobide publiko gisa trenbidea berreskuratzeko aukera baztertu egin da, arloko ikuspegi horretatik proposatzen dena ikusita, nahiz eta Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planean aurreikuspen hori jasota dagoen.

Horren guztiaren ondorioz, errepide- edo trenbide-azpiegitura berririk ez duela proiektatzen planak ikus daiteke, eta AP-1 autobidearen eta GI-627 errepidearen trazadurak finkatzen ditu. Esku hartzeko proposamenak errepide horretatik herrigunera sartzeko bidea hobetzeko egin beharreko lanei dagozkie bereziki.

Ipar-mendebaldean, "T" formako bidegurutze bat antolatzea planteatzen da, zain egoteko bide bat eginez erdian; horrek Mendiolatik Bergararako noranzkoan irteteko bidea erraztuko du, nahiz eta semaforo bidez irtenbide osoago bat ematea ere plantea daitekeen; eta hego-ekialdeko lotunean, Irukurutzetako bihurgunean biribilgune bat egitea proposatzen da, irtenbide horrek hirigunera sartzeko eta bertatik irteteko lau mugimenduak egokiro bideratzen baititu.

Bi lotuneetan proposatzen diren esku-hartzeek ez dute neurriz gorako inbertsioak egitea eskatzen, eta, gainera, irisgarritasun-baldintza zehatzak ebazteko eta sistema gehiago argitzeko aukera ematen dute; hiriguneko bideen eraztunean, berriz, zirkulazioaren intentsitatea nabarmen murrizteko bidea ere ematen dute.

Hiriguneko ibilgailuentzako bideen eraztun horri dagokionez, berori finkatzea erabaki da, nahiz eta ezinbestekoa izango den berori hobetzea ere. Horretarako, Baltegietan zubi berri bat altxatu beharko da, jada bere garaian Arau Subsidiarioek aurreikusitakoen ildotik; eta berori berriro kokatzeko proposamena egin da, nahiz eta dagokion proiektua gauzatzen denean zehatz daitekeen argi eta garbi berorren kokalekua. Zubi berri horrek eraztunaren luzera % 20 murrizteko modua ematen du, eta, areago, hiriguneko eraztun horren eta GI-627 errepidearen arteko interferentzia saihesten du. Gainera, aurrerago doa: gaur egungo Sagar errekako igarobidea kentzeko aukera ematen du zubi horrek, eta inguru horretan Deba ibaiaren bi ertzak lotzen ditu oinezkoentzat, inolako oztoporik gabe. Zubian malda leunagoa izan dadin, egokia dirudi ezkerraldean sestra nabarmen igotzea; ez dago hori egiteko inolako eragozpenik, eta, areago, hori egiteak alde horretan zubiaren horma-bularraren altuera igotzeko modua ematen du; eta ibaiaren ur-xaflaren igarobidea errazten du horrek. Nahiko izaera puntuala duen esku-hartze xume bat da, abantaila bereziak dakartzana berriro ere, eta hainbat helbururi erantzuten dio; gainera, sinergiak sustatzen ditu, eta, berori gauzatzerakoan, askotariko eragile publikoen parte-hartzea bateratzen du. Errepideen eraztun berri horretako zirkulazioan noranzko bakarrari eutsiko

zaiola aurreikusten da, eta, beraz, luzetarako aparkalekuari ere eutsi egingo litzaioke; hala ere, oraingo ezaugarri berriek zirkulazioko bi noranzkoen artean aukeratzeko bidea ematen dute, nahiz eta, hirigunerako sarbidearen ikuspegitik eta plan honetan aparkalekuen arloan egiten den proposamen zehatza ikusita, egokiagoa dirudien gaur egungo noranzkoari eustea; dena den, kasu horretan horrek ekarriko lituzkeen gastuak eta beste zerbitzu batzuek izan ditzaketen eraginak ere balioetsi beharko dira (hondakinen bilketa eta beste batzuk).

Bestalde, Oleako urari goiti Arau Subsidiarioek aurreikusten zuten zubi berria gauzatzeko aukera baztertu egin da.

Hirigunean motordun ibilgailuen mugikortasuna egituratzen duen eraztuna Gabolats eta Etxaburueta kaleek osatzen duten zeharkako sarearekin osatzen da, bai eta Gabolats kalean arrazoi hidraulikoak tarteko ordezteko eta zabaltzeko proposatu diren zubiekin eta Zubi Nagusiarekin ere.

Hiriguneko bide-sarean, Santa Ana kalearen ardatza behin betiko osatzea proposatzen du planak, eta Oleako zubiraino egokiro luzatzea. Horretarako, Deba ibaiaren aurrealdean bidearen jarraipena antolatzearen alde egin da, eta, gaur egun udalak aurreikusita duenaren arabera, Gabolats-Santa Ana ardatza aldibereko kale izatea aurreikusten da, ibilgailu motordunen aurrean oinezkoei lehentasuna emanez; aldi berean, luzetarako aparkalekua ere aurreikus daiteke, bai eta bizikleten zirkulazioa ere. Gainera, udalerriaren hiri-ezaugarriak bultzatzeko lehentasunezko ekintza bat da, erdigunean kokatutako leku batean esku hartzen baita. Horrek eragin positiboa du Deba ibaiaren ezkerraldean, Zubi Handitik beherako zatian.

Oinezkoentzako bideen sarea osatu eta hobetzea proposatzen du planak, eta irisgarritasun unibertsalerako bete beharreko baldintza guztiak ezartzea. Ildo horretatik, udalak abian jarri duen igogailu publikoen sistema sendotu da, besteak beste, eta Olaldea eta Zeleta artean beste igogailu bat ezartzea ere proposatu da; bestetik, Sagar erreka eta Errekaldeko oinezkoentzako igarobideak aldatzea planteatu da, ez baitituzte irisgarritasunaren ikuspegitik baldintzak egokiro betetzen; lehenengoaren kasuan, erantzun hobea emango zaio Baltegieta kalearen amaieran proposatzen den zubi berriaren bidez, eta bigarrenaren kasuan, Atxuriko plazaren aurreko igarobide berriaren bidez.

Bestalde, oinezkoentzako lekua berreskuratzeko proposamena ere egin da, bereziki, hirigunea Deba ibai aldera irekiz; ildo horretatik, Erregetxeko aire libreko aparkalekua kentzeko proposamena ere nabarmendu da -salbuespen modura txandakatze-erregimenean erabilgarri dauden aparkalekuei eutsiz-; aparkatzeko 45 toki kentzea adieraziko luke horrek.

Aparkatzeko bi eraikin handi sortuz, aparkalekuen hornidura zabaltzeko bi proposamen bereizi ere egin dira, horietako bakoitza GI-627 errepidetik hirigunera sartzeko ibilgailuentzako lotuneen ondoan: bata Santa Anan (200 autorentzako lekua luke, baina aukera hau gauzatzeko lehendik dauden 45 aparkalekuak kendu behar dira); eta bestea Baltegietan (gutxi gorabehera 180 autorentzako lekua). Aurrez egindako salbuespena aintzat hartuta, aire libreko aparkalekuari eutsi egiten zaio, bide-eraztunari lotutakoari, bai eta Gipuzkoa etorbidearen ondoan dagoenari ere, eta udala aztertzen ari den ekimenen bidez berori hedatzeko aukera ere badago; eta halaxe egin da Olean eta industrialdeetan ere. Horrekin guztiarekin, gaur egungo hornidura handitu egiten da (290 aparkaleku gehiago), eta proiektatutako etxebizitza berrien beharrei (210) eta txandakako aparkalekuen beharrari erantzuten zaie, hirigunearen sarreran oso modu estrategikoan baitaude beroriek; kontuan hartu behar da, gainera, proposatutako antolamendu berriak aire librean beste

aparkaleku batzuk ere izan ditzakeela, errepideen ondoan. Horrez gain, Erregetxen lurpeko aparkalekua antolatzeko aukera ere aintzat har daiteke.

Beraz, hirigunean mugikortasun-baldintzak nabarmen aldatzea adierazten du planak, eta beste neurri batzuk hartuz are gehiago hobetu daiteke arlo hori, gainera. Alde batetik, Gabolatseko zubitik Olaldeko igarobide berriraino hiriguneko ardatz nagusia oinezkoentzako gune bihurtzeaz ari gara; bestetik, Deba bailarako bizikleta-bideari jarraipena emateko proposamenaz, hirigunetik pasatzean aldi berean bestelako erabilerak ere barnean hartuta, bide-eraztuna deritzona erabiliz horretarako; eta, azkenik, hirigunean zirkulaziorako abiadura orduko 30 kilometrora murrizteaz (orduko 30 km-ko gune bat ezartzeaz), ibilgailuen mugikortasuna eta bestelakoena bateratzeko eta zarata murrizteko xedez (ikusi zaratari buruzko azterketa, dokumentu honetako eranskinetan datorrena).

Ekintza horiek guztiak dokumentu honetako III.3 planoan laburbildu dira.

Azkenik, udalerriko errepideen eta landa-bideen sarea finkatzea proposatu da, foru-sarea osatzen duten errepideekin batera; berorien identifikazioa IV.2 planoan zehazten da, eta berorien erabilera-baldintzak, titulartasuna, sakabanatutako baserrietarako sarbideak eta erabilerak ezartzeko horietatik ondorioztatzen diren baldintzak, berriz, Hirigintza Arau Orokorretan arautu dira.

II.9.7.- Espazio libreen sistema.

Egin den diagnostikoan nahiz Alkarrekin prozesuan udalerriari begira hautemandako beharren artean, espazio publikoak hobetu beharra jaso da.

Bestalde, testuinguru horretan, argi ikusi da kontua ez dela kuantitatiboki handia izango den eskaintza bat bilatzea, kalitatezko eskaintza bat egitea baizik; edonola ere, legeak eskatzen dituen gutxieneko ratioei erantzun behar die eskaintza horrek.

Praktikan, errealitateak argi erakusten du ez dagoela berariaz izaera hiritarra duten espazio libre nahikorik herritarren gozamenerako eta topagunerako; ez, behintzat, horretarako neurri egokiak dituenik. Bi baino ez ditugu aipatuko: Plaza Zaharra eta Frontoi plaza, bakoitza 1.000 m^2 baino zertxobait handiagoa.

Abiapuntuko egoera konplexu horri erantzuteko, proposamen sendoa egiten du Plan Orokorrak: hiru plaza handi antolatzea proposatzen du, gaur egungo hiri-ingurunearen barnean.

- Plaza-izaeraz Erregetxeko aparkalekua berreskuratzen du, hiriguneko ardatz gisa hartuta eta ekipamenduetarako eraikin bati lehentasuna emanez; berorren perimetroan arkupe bat txertatuko litzateke, eguraldi txarra egiten duenerako babesa emateko. Oinezkoentzako berreskuratutako gune hau Plaza Zaharrarekin bateratzea lortu nahi da esku-hartze horren bidez; eta, aldi berean, lehendik dagoen eraikin bat eraitsiz (Kalebarren 24ko eraikina), ibai aldera irekitzea aurreikusten da. Horrek 2.600 m^2-tik gorako azalera lukeen espazio libre bat sorraraziko du.
- Olaldean, hiri-ingurunearen hegoaldean eta Deba ibaira irekita, plaza berri bat antolatzen du; udalerriko hiriguneak hegoaldera jarraitutasuna izan dezan laguntzen du horrek, berorren bidez Deba ibaiaren ezkerraldean kokatutako eremuak txertatzen

baitira bertan −Olea, Zeleta eta eskola-zuzkiduren ingurunea, eta Alde Zaharra−, igarobide berri baten bidez berorietatik plazara sarbidea eginez. 1.200 m^2 inguruko azalera duen espazio libre bat ekarriko du horrek, eta ibaiertzean proiektatu den pasealekuan zehar luzatuko da.

- Gabolatseko zubiaren eta Deba ibaiaren ondo-ondoan, plaza berri bat antolatzen du Kanoietan; ibaiaren ezker ertzean, hirigunearen iparraldean, zehazki. Hiru plazen kokapena orekatuko litzateke horrela. 1.200 m^2-tik gorako azalera duen espazio libre bat ekarriko du horrek.

Udalerriaren ezaugarriak berritzeko eta berreskuratzeko prozesuan aldaketa garrantzitsua adieraziko dute jarduketa horiek bakarrik ere.

Finkatu egiten dira, bestalde, Plaza Barrixa, Frontoi plaza eta Estaziño, Txurrukena, Atxuri, Arrizabaleta eta Ezozia parkeak, besteak beste; eta, modu osagarrian, parke baten antolamendua zehazten da Olean, Deba ibaiaren ondoan, osagarri modura.

Honako taula honetan deskribatzen diren inguruak ere espazio libreen sistema orokorraren barnean sartzen ditu planak, hiri-ingurunean modu orekatuan banatuta, betiere, eta 26.506 m^2-ko azalera osoa hartuta.

EREMUA EDO AZPIEREMUA	**AZALERA m^2**
EZOZIA	15.139
ERREGETXE	3.696
ALDE ZAHARRA	2.598
OLEA	2.571
ERLAEGIALDEA	2.502
GUZTIRA	26.506

Espazio libreen sistema orokorrerako legez eskatzen den gutxienekoak gaur egungo biztanle bakoitzeko (4.000 biztanle inguru guztira) 5 m^2-ko zuzkidura ezartzen du, eta, bizitegi-izaerako garapen berrietan, 25 m^2 (s)-ko zati bakoitzeko beste 5 m^2 erantsi behar zaizkio zenbateko horri. Azken horiek guztira 21.703 m^2(s) izango direnez, eskaria, esparru horretan, 4.341 m^2-koa litzateke; eta gaur egungo biztanleriaren araberako eskaria, berriz, 20.000 m^2-koa litzateke. Osotara, beraz, aintzat hartu beharreko gutxieneko erreserba 24.341 m^2-koa litzateke.

Sistema orokorren mailan, hortaz, antolatutako espazio libreen azalera osoak gutxieneko eskaria gainditu egiten du %9an inguruan.

Modu osagarrian, Plan Orokorrak beste inguru batzuk ere kalifikatu ditu, askotarikoak, espazio libreen tokiko sistemara zuzentzen direnak, eta auzo guztiei ematen diete zerbitzua beroriek. Hurbiltasun-beharrei egokiro erantzuten dieten espazio libreetan azalera osagarria izatea ekarriko luke horrek, beraz. Horien artetik, hauek aipatuko ditugu hemen: Sagar erreka lorategia, Arrizabaleta parkea, Estaziño parkea, eskola-ingurunearen ataurreak, Santa Anan proiektatu den eta Deba ibaiaren aurreko pasealekura hedatzen den plaza berria, Txurrekene Behekoan kokatutako parkea, Atxuri plaza, Baltegietako Gabolats zubiaren ondoan aurreikusitako plaza berria eta Kanoien parkea, berorren mugak berriro egokitu ondoren. Espazio horiei oinezkoentzako ibilbideak, oinezkoentzako programatzen diren inguruak edo lehentasunez oinezkoei zuzentzea proposatzen direnak erantsi beharko litzaizkieke, eta, testuinguru horretan, bereziki haurren eta ahalmen urriko pertsonen autonomia bermatzeko ahalegina egingo litzateke, Alkarrekin prozesuan berariaz planteatu denari jarraiki. Tokiko sistema libreen arloan beharrezkoa den zuzkidura betetzen dela memoria honetako II.10.5 puntuan arrazoitzen da.

Modu osagarrian, lurzoru hiritarrezinean sustapen eta jabari publikoko baratzeak antolatzeko aukera planteatu da. Ezozian kokatzea proposatu da, eta 5.000 m^2 inguruko azalera hartuko lukete.

Proposatutako espazio libreak II.1 eta III.1 planoetan identifikatu dira.

II.9.8.- <u>Komunitate-ekipamendua.</u>

Tokiko ekipamenduen zuzkidura garrantzitsua du udalerriak, eta, halaber, askotariko kultura-jarduerak, gizarte-jarduerak, kirol-jarduerak... ditu. Lehenengo eta behin, horiek finkatu behar dira, biztanleei eskaintzen zaizkien zerbitzuak bermatzeko.

Bigarrenik eta Alkarrekin prozesuan adierazi denez, zuzkidura horiei dagokien balioa eta probetxu handiagoa emateko eta neurri batean beroriek berriro egituratzeko, hobetzeko edota hedatzeko beharra sumatu da.

Horregatik, ezinbestekotzat jo da bertako inbentario batean zuzkidurak, horien euskarri diren eraikinen egoera eta eskuartean dauden proiektu eta ekimenak biltzea. Lehen hurbilketa batean, nahiko argi ikusten da hainbat jarduerak lokal berberak erabiltzen dituztela, eta beste batzuek erabilera mugatua dutela; bestalde, horietako batzuen egoera nahiko eskasa dela ikusi da, eta indarrean dauden Arau Subsidiarioetan antolamenduz kanpo uztea ere aurreikusi zen.

Egoera hori ikusita eta Plan Orokor honek hartzen duen denbora-tartea kontuan hartuta, irizpide orokor gisa lehendik dauden ekipamenduen lursailak finkatzea planteatu da, salbuespenen bat edo beste eginez, nahiz eta horien erabilerak berriro antolatzea ere gerta daitekeen.

Modu osagarrian, udalerrirako ekipamenduak hartuko lituzketen lursail eta eraikin berriak lortzea ere planteatu da, hiria eraldatzeko proposatzen diren jarduketek emaitza horixe ekarriko bailukete. Ildo horretatik, Erregetxeko plazaren aurrean antolatutako lursaila berariaz ekipamenduetara zuzentzea aurreikusten da, eta xede horretarako 2.500 m^2(s)-ko eraikigarritasuna gauzatzeko

aukera ematen da bertan. Lurzati horrek hainbat erabilera izan ditzake, besteak beste: eguneko zentroa, tokiko musika-eskola, zuzkidura-bizitokiak, etab.

Olaldea eremuaren antolamenduan sartzen den behe-solairuko lokalen bat ekipamenduetara ere zuzendu daiteke, eta, horrez gain, gaur egungo Zahar Etxea handitzeko aukera ere proposatu da Atxurin. Gainera, Olean espazio libreetara zuzentzen den lurzoruan, ibaiarekin lotutako kirol-erabilerak ezartzea ere planteatu da (piraguismoa).

Hirigintza estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuaren 2. xedapen gehigarrian eskola-hornidura publikoaren arloan xedatzen denari erantzuten diola Plan Orokorrak ere justifikatu da hemen; xede horretara 9.000 m^2-ko gutxieneko azalera zuzentzea eskatzen da xedapen horretan. Horrela, Estaziño eta Santa Ana eremuetan, hurrenez hurren, 7.807 m^2-ko eta 2.204 m^2-ko azalerak aurreikusi dira, ekipamenduen sistema orokorrean txertatuta, eta horien baturak eskatzen den estandarra gainditu egiten du.

Horrez gain, epe erdi edo luzera gaur egungo hilerria lekuz aldatzea planteatu da; hilerriak hartzen duen lurzorua libre geldituko litzateke horrela, eta, besteak beste, irakaskuntza-zuzkiduren beharrei erantzuna emateko eskuragarri geratuko litzateke. Horren ondorioz, Plan Orokorrak hilerria kokatzeko beste gune bat aurreikusten du: 6.000 m^2 inguruko lurzorua legoke horretarako, Ezoziko futbol-zelaiaren ondoan, hegoaldera. Bestalde, egungo hilerria hedatzeko proposamena, indarreko Arau Subsidiarioek aurreikusten dutena, baztertzea dakar aukera horrek.

Horrekin guztiarekin batera eta gaur egungo instalazioei probetxu hobea ematearekin batera (kiroldegiaren estalkia berritzea, kanoien parkeko kirol-pistak...), ekipamenduen kokapena berriro antolatu ahal izango da udalerrian, herritarrei zerbitzu hobea eman ahal izateko eta gizarte-, laguntza- eta kultura-jardueren (ekimen publikokoak nahiz pribatukoak), irakaskuntza-jardueren, kirol-jardueren eta oro har aisialdiarekin lotutako jardueren funtzionamendu egokia bermatzeko.

II.9.9.- Hiri-zerbitzuen azpiegiturak.

Udalerriak dituen zerbitzu-azpiegituren sarearekin lotuta, ez da hauteman eskari edo gabezia esanguratsurik.

Ur-horniduraren barnean, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren aldeko txostena jaso da, eta proposatzen den garapenerako ur nahikoa dagoela azaltzen da bertan; eta, oro har, gaur egungo hiri-sarea hobetzea planteatzen da, Amillagara ere luzatzeko eta landa-inguruaren hornidura-baldintzak hobetzeko; gainera, lehendik dauden ur-bilguneen sistema berreskuratzeko aukera ere planteatu da.

Ur zikinen sareari dagokionez, pixkana tokiko sarea berritzea proposatu da, eta hirigintzako jarduketak aukera ematen duen tokietan, euri-urak eta hondakin-urak bereizteko sistema bat ezartzea aurreikusten da; aldaketa hori egin ezin den tokietan, gaur egungo sareei eutsiko zaie, azken zatietan gainezkako isurbideetatik pasaraziz. Ildo beretik, hiri-sarea hirigunetik gertueneko baserrietara hedatzeko aukera ere balioetsiko da.

Energia elektrikoaren arloan, gaur egungo sarea finkatzen da, nahiz eta transformazio-zentro berriak ezartzeko beharra eta gaur egungo aire-lineetatik doazen zati batzuk lurperatzeko beharra ere sor daitekeen.

Kale-argiteriari dagokionez, tokiko sare eraginkorragoa ezarriko da, eta "smart cities" programa beste zerbitzu batzuetara ere hedatuko da.

Telekomunikazioen arloan, azpiegiturak bateragarri eginez sinergiak bilatzeko ahalegina egingo da. Ildo beretik, udalerrian antenen ezarpena eta, bereziki, telefonia mugikorreko zerbitzuena arautzeko esku hartuko da. Xede horretarako planak eta ordenantzak sustatzen badira, horiek onartu aurretik arlo horretan eskumena duen administrazioaren irizpenaren menpe jarriko dira (Industria, Energia eta Turismo Ministerioa).

II.9.10.- Ibai-ibilguak.

Planak ibai-ibilguen balioa azpimarratu nahi du, uren kalitatea hobetuz eta ibaiertzak lehengoratuz; horretarako, batez ere lurzoru hiritarrezinean baina baita hiri-ingurunean ere esku hartzeko hainbat neurri ezartzea proposatzen du.

Aintzat hartu diren aukerak aztertu ondoren eta URArekin ados jarri ondoren, hiri-ingurunean ez esku hartzeko aukera nahiz 2006an idatzitako proiektuan planteatutakoa aintzat ez hartzea proposatu da, eta uholde-arriskua murriztuko duen eta aldi berean hirigunea Deba ibaialdera irekitzea ahalbidetuko duen irtenbide bat aukeratu da. Horretarako, alde batetik, Olea, Igareta eta Olabarrenako presak finkatzea proposatu da, eta azken bi horien altuera jaistea, hiru helburu lortzeko: uholde-arriskua murriztea, faunaren igarobidea erraztea eta hiriguneko ur-xaflei eustea; eta, bestetik, Errekaldetik Santa Anara bitarteko igarobidea eta Gabolatseko zubia ordezkatzea proposatu da, elementu berrietan ibilguan pilareak ezartzea saihestuz.

Horrez gain, Deba ibaiaren ertzetan lehendik dauden askotariko industria-eraikinetan esku hartzea planteatu da, batzuetan gaur egungo lerrokadurei eutsiz eta beste batzuetan ibaiarekiko nabarmen atzera eramanez; horrela, ibaiertzetako pasealekuak zabaldu egin dira horretarako aukera zegoenean. Horrez gain, urbanizazioaren mugetan eta, oro har, zubietan (Olaldea, Kanoiak, Amillaga), bai malden aurrean eta bai uholde-arriskuaren aurrean babesgarriak gauzatzea aurreikusi da, gune horiek babesteko; eta, horrekin batera, zubi edo igarobide berriak ezartzea aurreikusten den tokietan (Baltegieta, Olaldea...), sestrak gorantz doitzea proposatu da, edota zubietarako irtenbide modura geometriak, lauzen ertzak edo eraikuntzako beste aukera batzuk erabiltzea, berorien azpitik ur-xaflaren igarobidea errazteko.

Modu osagarrian eta hiri-ingurunea berritzeko proposatzen diren esku-hartzeen emaitza gisa, planak Deba ibaialdera irekitzen diren hiru plazaren antolamendua hartzen du barnean (Olaldea, Erregetxe eta Kanoiak), bai eta eskuin ertzean Oleako zubiraino doan pasealekua ere, Santa Ana kaleari jarraipena emanez; azken pasealeku hau urari beheiti luzatzeko aukera ere izan daiteke, Soraluze-Placencia de las Armasko udalerrirako eta Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremuarekin lotuta URAk azkenean landu dezakeen proiektuaren arabera.

Oro har, lehendik dauden eraikinei eta urbanizazioari ahalik eta kalte gutxien egitea lortu nahi da, eta, beraz, lehentasuna eman zaio helburu horri, jabari hidraulikoa errespetatzea eta araudiaren eta aplikazio-plangintzen arabera uholde-arriskua minimizatzea galarazi gabe, betiere.

Proposamen honen emaitzak argitzeko xedez, plan honetan txertatu den IV.4 planoa landu da, eta, bertan, 500 urteko birgertatze-aldirako uholde-orbana nola murrizten den adierazten da. Zehazki, hartu diren neurriek bizitegi-garapen berrien xede diren eremuetan (Olaldea, Txurruka, Kanoiak) uholde-arriskua saihesteko aukera ematen dutela ikusten da.

Bestalde, 500 urteko birgertatze-aldirako uholde-orbanak GI-627 errepideari eta industrialdeei (Mendizabal, Amillaga...) eragingo diela ikusten da; eta planean, gutxienez 100 urteko birgertatze-aldiko uraldiak saihesteko neurriak aurreikusten dira hiri-eraldaketaren xede den industrialdean (Amillaga).

Gainera, planteatutako neurrien osagarri litzatekeen beste bat ere har liteke, uholde-arriskua nabarmen murrizteko, batez ere Alde Zaharrean eta haren inguruan. Zubi Nagusia ordezkatzea litzateke, nahiz eta, kultura-ondare gisa duen balioa ikusita, oraingoz babestea planteatu den. Egin diren azterketa hidraulikoen arabera, zubiak neurri handiko pilare bat izateak presa-efektu garrantzitsua adierazten du uraldi garaietarako.

II.9.11.- Aukeratutako irtenbideen justifikazioa.

Udalerriko Arau Subsidiarioak berrikusteko sumatutako premiari erantzuna emateko udal-akordioan oinarrituta garatu den prozesuaren emaitza dira hartutako irtenbideak, eta prozesu horretan bertan, berorren inguruko eztabaidan, herritarren ekarpenetan eta arlokoetan, eta horiek guztiak dokumentu honetan koordinatu eta txertatzeko ahalmenean justifikatzen dira.

Prozesuan zehar planteatutako irizpide eta helburuei egokitutako erantzuna ematen dietelako ere justifikatzen dira, eta, bereziki, jarraitu beharreko 2014ko uztaileko plangintzaren irizpide, helburu eta irtenbideak berresteko akordioari erantzuten diete.

Hirigintzaren ikuspegitik nahiz ingurumenaren ikuspegitik ere justifikatzen dira, ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenean (Plan Orokor honetako A.3 dokumentua) ere jasotzen denez.

Xede horretarako espezifikoki egindako azterlanaren arabera (Plan Orokor honetako C dokumentua), berorren bideragarritasunaren ikuspegitik ere justifikatzen dira.

Eta, azkenik, Soraluze-Placencia de las Armasko udalbatzaren onespenaren bitartez berrespena jasotzen badute ere justifikatuko dira.

Eta, azkenik, behin betiko onespenaren ondorioz justifikatzen dira.

II.10.- Proiektua garatzea eta gauzatzea.

II.10.1.- Hirigintza-eremuen mugaketa.

Udalerriaren hiri-ingurunearen multzo osoaren barnean (lurzoru hiritarrek osatua), hainbat hirigintza-eremu identifikatzen eta mugatzen ditu planak, berorietan planteatzen diren hirigintza-proposamenak argiago eta sistematikoago azaldu ahal izateko. Salbuespenen batean, mekanismo hori erabili da lurzoru hiritarrezinerako ere.

Hirigintza-proposamenak zehazteari eta azaltzeari begira, lurralde-eremu autonomoak dira, eta batez ere honako irizpide hauek bere osotasunean aintzat hartuta egin da mugaketa:

* Lehendik dagoen hirigintza-araubidea finkatzea edo ez finkatzea.
* Eraginpeko lurrek hirigintzaren ikuspegitik duten sailkapena.
* Abiaraziko diren garapenen jatorria hirigintzaren ikuspegitik.

* Aipatutako lurren egiturazko antolamendurako eta kalifikazio orokorrerako proposamenak.
* Antolamendu xehatu edota zehatzerako proposamenak.
* Planteatutako antolamendua garatzeko eta gauzatzeko aurreikuspenak.

Hona hemen berorien zerrenda:

* 1 Aginaga-Maltzaga
* 2 Amillaga
* 3 Ezozia
* 4 Mendioala Industrialdea
* 5 Ezozibidea
* 6 Gabolats
* 7 Loralde
* 8 Arraikua
* 9 Erregetxe
* 10 Estaziño
* 11 Alde Zaharra
* 12 Santa Ana
* 13 Zeleta
* 14 Olaldea
* 15 Olea
* 16 Mendizabal
* 17 Saloguen
* 18 Txurrukena Goikoa
* 19 Txurrukena Behekoa
* 20 Errekalde Goikoa
* 21 Errekalde Behekoa
* 22 Erlaegialdea
* 23 Atxuri Errabala.
* 24 Baltegieta-Zupidebarrena.
* 25 Kanoiak.
* 26 Baltegieta-Iturburua
* 27 Sagar erreka.
* 28 Sagarraga
* 29 Ugarroa

Lurzoru hiritarrezinean kokatutako beste eremu bat ere erantsi behar zaie horiei:

* LHE 1 Hilerri berria.

Horrez gain, berorien mugaketa "II.4. Lurzoruaren sailkapena. Hirigintza-eremuen mugaketa (hirigunea)" planoan adierazi da, eta azkena aipatu den kasu horretan, Arau Partikularretan txertatu diren grafikoetan.

II.10.2.- Plangintza udalerri mugakideekin koordinatzea.

Udalerri berean integratutako lurren multzoak osatzen du Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren eremua, eta plan hori onartzetik eratorritako ondorioak –betebeharrezkotasuna, nahitaezkotasuna, etab.- ezingo dira beste herrialde batzuetara zabaldu.

Baina, zenbait kasutan, zaila izaten da lurraldearen errealitatea bera, etenik gabeko osotasun den heinean, udalerri bateko edo beste bateko muga administratiboak bezain zurruna eta itxia den zerbaitetan lotzea eta sailkatzea.

Horregatik dira garrantzitsuak lurralde-antolamenduko tresnak eta, bereziki, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak eta Lurraldearen Zatiko Planak, horietako erabaki eta proposamenek udalerriaren mugak gainditzen baitituzte.

Beraz, udalerrien ertzen hirigintza-antolamenduaren zehaztapenak nahiz proposamenak gauzatzeak koordinazio- eta lankidetza-jarrerak eskatzen dituzte, kasu bakoitzean eragiten dieten udalbatzen aldetik.

Kasu honetan, Soraluze-Placencia de las Armasko udal-barrutia da plan honen erreferentzia-esparrua, eta, lehen adierazi den bezala, hura onartzeak dituen ondorioak ez dira hedatuko udalerriaren mugetatik harago.

Bestalde, lurraldearen osaketa, kokapena, hiri-ingurunearen baldintzatzaileak eta abar kontuan hartuta, ez da beharrezkoa izan mugakide dituen udalerrietako plangintzekin (Elgoibar, Eibar eta Bergara) koordinatzeko neurri bereziak hartzea, halakorik egitea eskatzen duen gai edo auzirik ez baitago.

Lurraldearen antolamendurako indarrean dauden tresnetan biltzen diren zehaztapenak ere barnean hartzen ditu planak, bai eta errepideen foru-sarea ere; eta horiek guztiak, osotara, Soraluzeko hiri-antolamendua udalerri hori barnean hartzen duen lurralde-esparruan txertatzeko mekanismoak dira.

II.10.3.- Hirigintza-sailkapenaren esparruko irizpideak, helburuak eta proposamenak. Lurzoru hiritar gisa sailkatutako lurretan planteatutako hirigintza-garapenei lotutako eskubide eta betebeharren erregimena.

A.- *Soraluzeko lurraren bilakaeraren eta okupazioaren estrategia.*

Garapen eta bilakaera-prozesu konplexu eta luze baten emaitza da Soraluzeko udalerria gaur egun; eta, besteak beste, prozesu horren emaitza da gaur egungo hiri-ingurunea.

Planak, neurri handi batean hiri-ingurune hori finkatzeaz gain, bertako zenbait inguru berritzeko eta berroneratzeko jarduketak proposatzen ditu. Eta ez du aurreikusten nekazaritza- edo natura-ingurunera hedatzea ekarriko duen jarduketarik.

Hiriaren ikuspegitik dauden behar eta eskariei gaur egungo egituraren barnean erantzuten dien lurraldearen garapen-eredua adierazten du horrek guztiak, eta, udalerriko lurren hirigintza-sailkapenari dagokionez, berariaz bi lur mota bereizten ditu (hiritarra eta hiritarrezina), ondorengo ataletan adierazten diren terminoetan eta irismenarekin.

B.- *Lurren hirigintza-sailkapena.*

2006ko ekainaren 30eko Legeak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, xedatutakoari erreparatuta, udalerriko lurrak ondoren azalduko diren irizpideen arabera sailkatzea eta lur horiek lur mota desberdinetan txertatzea proposatzen da.

a) Lurzoru hiritarra.

Lurzoru hiritar gisa sailkatzen dira aipaturiko legean lur mota horretakotzat jotzeko xedatutako baldintzak betetzen dituztenak.

Lur horiek Plan Orokor honetako "4. Planoak" dokumentuan biltzen diren "II.3. Lurzoruaren sailkapena (udalerria)" eta "II.4. Lurzoruaren sailkapena. Hirigintza-eremuen mugaketa (hirigunea)" planoetan jasotakoak dira zehazki.

Osotara, 376.596 m²(l)-ko azalera dute. Azalera hori udalerri osoaren % 2,67 da.

Gainera, lege horretan bertan xedatutakoaren arabera, lur mota horren barruan, ondoren azalduko diren bi kategoriak bereizten dira. Hori bai, horiek identifikatzea antolamendu xehatuaren zehaztapenaren esparruan egin beharreko lana da, eta horrexegatik egiten da plan honetan bertan, antolamendu hori finkatzen den kasuetan. Garapen-plangintza formulatzea aurreikusten den kasuetan, berriz, haren zehaztapena garapen-plangintza horri lotzen zaio. Honako hauek dira kategoria horiek:

* Lurzoru hiritar finkatu gabea.

Aipaturiko legean kontu horren inguruan xedatutako baldintzak betetzen dituztenak sartzen dira lurzoru mota eta kategoria honetan. Berorren barruan, lurzoruen bi azpikategoria hauek bereizten dira:

- Urbanizazio finkatuaren gabeziagatik edota gutxiegitasunagatik finkatu gabeko lurzoru hiritarra.

  Lurzoru mota eta kategoria horretan sartzen dira, lurzoru hiritar gisa sailkatzeko behar diren baldintzak eta, besteak beste, lehen aipaturiko legeko 11. artikuluko 3.b.1 atalean xedatutako eskakizunak betetzeaz gain, haietan aurreikusitako antolamendua gauzatzeko xedeetarako jarduketa integratuko eremuetan sartzen diren lurrak.

Plan honek horrela sailkatu eta kategorizatu ditu "25. Kanoiak" eremuko lurrak. Halaber, lurzoruen azpikategoria horretan bertan sartuta ulertuko dira hainbat lurzoru, plan hau garatzeko sustatuko den plangintza xehatuak hala eskatzen duenean. Zehazki, horrelako plangintza formulatzea aurreikusten da "2. Amillaga" eta "14. Olaldea" eremuetan eta "22.1 Zahar Etxea" azpieremuan.

- Eraikigarritasun haztatua handitzeagatik finkatu gabeko lurzoru hiritarra.

  Lurzoru mota eta kategoria horretan sartzen dira lurzoru hiritar gisa sailkatzeko behar diren baldintzak eta, besteak beste, lehen aipaturiko Legeko 11. artikuluko 3.b.2 atalean xedatutako eskakizunak betetzen dituzten lurrak. Modu osagarrian eta jakineko lur batzuk lurzoru mota eta azpikategoria honetan sartzeko xedez, besteak beste esku hartzeko honako irizpide hauek aintzat hartzea proposatzen da:

  . Aurreko azpikategorian sartzeko behar diren baldintzak betetzen ez dituzten lurretan eraikigarritasun haztatua handitzea eragiten duen hirigintza-aurreikuspen orok lurzoru mota eta azpikategoria honetan sartzea justifikatzen du.
  . Eraikigarritasun haztatuaren gehikuntza sestra gainean zein azpian gerta daiteke. Horrela, soto kopurua handitzea aurreikusten den guztietan gertatuko dela hori ulertzen da.
  . Halaber, erabilera-aldaketaren kasuan, erabileren haztapen-koefizienteak aplikatzetik ateratzen dena bete beharko da.

  Plan Orokor hau eta bai berorren garapena sustatuko duen plangintza onartzeko unean baldintza horiek betetzen dituzten lurrak ofizialki eta araudiaren ikuspegitik mota eta azpikategoria horretako lurzorutzat hartu behar dira une horretatik aurrera. Besteak beste, izaera hori dute honako hauek zehazki:

  . Plan honek berariaz horrela sailkatu eta kategorizatu dituen lurzoruak. Hauexek dira, zehazki:

    * "a.2.1/19" lursaila ("19. Txurrukena Behekoa" eremua).
    * "21.1 Txurruka" azpieremua.
    * "a.2.1/26" lursaila, 26. eremua.

  . Berorren garapenean sustatuko den plangintza xehatuan horrela kategorizatzen diren beste lurzoru batzuk.

  . Indarreko plangintzan xedatutakoaren arabera, eraikigarritasun haztatuaren aipaturiko gehikuntza eragiten duten hirigintza-jarduketen xede diren beste lur batzuk.

* Lurzoru hiritar finkatua.

Lurzoru mota eta kategoria horretan sartzen dira ondoren azalduko diren egoeretakoren batean dauden lurrak:

- Hirigintza-plangintzak (Plan Orokorrak berak edo haren garapenean sustatu beharreko plangintza xehatuak) egungo egoeran finkatutako lur urbanizatuak eta eraikiak, lehendik dauden eraikinak eraitsi eta ordezten diren kasuan, baimendutako hirigintza-eraikigarritasunean egindako beheranzko birdoikuntza posibleen kalterik gabe.
- Lur eraikigarriak eta eraiki gabeak, orubetzat jotzeko baldintzak betetzen dituztenak, baldin eta eraikigarritasun haztatua handitzeagatik finkatu gabeko lurzoru hiritar gisa sailkatzeko eta kategorizatzeko baldintzak betetzen ez badituzte.
- Lur eraikigarriak eta eraiki gabeak, baldin eta eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik finkatu gabeko lur hiritar gisa sailkatu eta kategorizatzeko baldintzak betetzen ez badituzte eta orube-izaera ez badute, orube-izaera lortzeko irismen mugatuko urbanizazio-lanak gauzatzea eskatzen dutenak.
  Aipaturiko legeko 195.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, aipaturiko kostuak ezin du gainditu udal-lizentzian baimendutako eraikuntza-obraren kontrata gauzatzeko aurrekontuaren % 5.
- Hirigintza-plangintzaren arabera, modu protagonista eta esanguratsuan behintzat eraikigarriak ez diren lurrak, urbanizatuta daudenak eta egungo egoeran finkatzen direnak, urbanizazioa hobetzeko jarduketen aurreikuspenak ere egin ahal izango diren arren.
  Horixe da, besteak beste, lehendik dauden eta finkatuta dauden hiriko espazio libreen eta hiriko bideen kasua.
- Modu protagonista eta esanguratsuan behintzat eraikigarriak ez diren, irismen eta kostu mugatuko urbanizazio lanak gauzatzeko zain dauden eta hiri-bilbe finkatuaren barruan kokatuta dauden lurrak.

Beste modu batean esanda, lurzoru-kategoria horretan sartzen dira lurzoru hiritar gisa sailkatzeko behar diren baldintzak betetzen dituzten lurrak, baina ez urbanizazio finkatuaren gabeziagatik edo gutxiegitasunagatik nahiz eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik finkatu gabeko lurzoru hiritar gisa kategorizatzea justifikatuko luketenak.

Plan Orokor hau eta berorren garapenean sustatu beharreko plangintza xehatua onartzeko unean baldintza horiek betetzen dituzten lurrak ofizialki eta araudiaren ikuspegitik motan eta kategoria horretako lurzorutzat hartu behar dira une horretatik aurrera.

Lurzoru hiritarraren kategorizazioa Plan Orokor honetako III.2 planoetan adierazi da.

b) Lurzoru hiritarrezina.

Lurzoru hiritarrezin gisa sailkatzen dira Plan Orokor honetako "4. Planoak" dokumentuko "II.3. Lurzoruaren sailkapena (udalerria)" planoan modu horretan identifikatutako udalerriko lurrak.

13.711.513 m²(l)-ko azalera dute osotara. Azalera hori udalerriaren % 97,33 da guztira.

C.- *Lurzoru hiritarretan planteatutako hirigintza-garapenei lotutako eskubide eta betebeharren erregimena. Urbanizazio-kargak. Haien eta hauen irismena.*

Lur hiritarren jabeen eskubide eta betebeharrak nahiz urbanizazio-kargen irismena eta hedadura zehaztu ahal izateko, indarreko legedian, Plan Orokor honetan bertan eta berorren garapenean sustatutako plangintzan xedatutakoa bete beharko da.

Berori gauzatzea edota betetzea, besteak beste, plan honetako "2. Hirigintza Arauak" dokumentuan xedatutako irizpideetara egokituta egin beharko da.

II.10.4.- Hirigintza-antolamendua gauzatzeko irizpideak eta proposamenak.

A.- *Sarrera.*

Hirigintza-antolamendua gauzatzea prozesu konplexua da, askotariko izaera eta irismena duten fase eta osagaiek osatutakoa.

Horrela, salbuespenen kalterik gabe, egikaritze hori fase berezituetan hartutako edota gauzatutako erabaki eta jarduketen emaitza da edo izango da, eta, esaterako, hainbat dokumentu egitearekin (Plan Orokor hau, finkatutako plangintza, berorren garapenean sustatu beharreko plangintza, beharrezkoa den kasuetan sustatu beharreko Hirigintzako Jarduketa Programak, berdinbanaketa-proiektuak, urbanizazio-obren proiektuak, eraikuntza-proiektuak, etab.), urbanizazio-lanak nahiz eraikuntza-lanak gauzatzearekin eta abarrekin lotuta egongo da.

Ondoren, kontu horri dagokionez eta indarrean dagoen hirigintza-legedian xedatutako irizpideen arabera, plan honetan planteatzen diren proposamen orokorrak azalduko dira, bai eta horiek erantzuten dieten irizpideak ere; eta, horretarako, beren egiturazko eskala edo eskala xehatua ere identifikatuko da.

B.- *Hirigintza gauzatzeko aurreikuspenak egiturazko antolamenduaren mailarekin*

Besteak beste, honako hauek zehazteko helburua duten aurreikuspenen multzoa da:

* Planteatutako garapenak gauzatzeko sekuentzia eta estrategia, arreta bereziki jarduketa integratuen xede izan behar dutenetan jarrita.

  Helburu nagusia planteatutako proposamenen garapen- eta gauzatze-prozesuak denboraren, ekonomiaren, hirigintzaren eta abarren ikuspegitik programatzeko irizpideak zehaztea da, arlo horretan jarduketa integratuen xede izan behar dutenei nahiz egitura-izaerako zuzkidura publikoko proiektatuei (bide-azpiegiturak, hiriko zerbitzuenak, ekipamenduenak, etab.) arreta berezia jarrita.

Hori bai, oro har, aipaturiko jarduketa integratuko eremuen mugaketa zehatz eta ofizialak ez du egiturazko antolamenduaren mailarik, inola ere.

* Udalerriko sistema orokorren sarea garatzeko eta gauzatzeko sekuentzia eta estrategia, dagokion kasuan, gauzatze-eremuetan txertatzeko edo sartzeko jarraibideak barne, bai berorien programazioen xedeetarako eta bai horien eraginpeko lurrak eta obren gauzatze eta ordainketa lortzeko.

  Ildo horretatik, arreta berezia jarri behar zaie udalak "15. Olea" eremuan zehaztutako "F.1. Hiriko espazio libreak (SO)" eremu globalean txertatzen diren jabetza pribatuko lurrak lor ditzan planteatutako aurreikuspenei; eta planean aurreikusten diren hiri-inguruneko bizitegi-garapen berrekin horiek hirigintzaren ikuspegitik duten lotura ere oso aintzat hartu beharko da. Zehazki, honako koadro honetan jasotzen diren hirigintza-garapenekin lotuta egongo direla aurreikusten da, bertan adierazi diren ehunekoetan, zehazki.

PARCELA - ÁMBITO - SUBÁMBITO	EDIFICABILIDAD PONDERADA -m²(t-VPO)- (s.r., sin garajes)	PORCENTAJE -%-	SUPERFICIE – m²(s)-
Ámbito "14. Olaldea"	14.270	37,41	962
Parcela "a.2.1/19"	720	1,89	48
Subámbito "21.1 Txurruka"	5.312	13,93	358
Subámbito "22.1 Asilo"	1.440	3,77	97
Ámbito "25. Cañones"	15.120	39,64	1.019
Parcela "a.2.1/26"	1.280	3,36	86
Total	38.142	100	2.571

Espazio libre horren aurreikuspenaren bidez, bizitegi-garapen horien kasuan legeak eskatzen duen hirigintza-estandarrari erantzuten zaio espazio libre orokorren arloan, eta horrixe erantzuten dio lotura horrek.

* Plan honen garapenean sustatu beharreko plangintza xehatua landu eta onartzeko epeak, hura formulatzea aurreikusten den kasuetan.

C.- *Gauzatzeko aurreikuspenak antolamendu xehatuaren mailarekin*

Plan honek berak lurzoruen antolamendu xehatua definitzen duen kasuetan, antolamendu xehatu hori, funtsean eta beste batzuen artean, berori gauzatzeko honako aurreikuspen hauen zehaztapenarekin osatzen da:

* Beraien barnean dauden lurrek eta, hala dagokionean, haiei atxikitakoek osatutako jarduketa integratuko eremuen mugaketa edota identifikazioa, Hirigintzako Jarduketa Programen formulazioaren xedeetarako.

  Aurreikuspen hori dagozkion gauzatze-unitateen mugaketarako irizpideak finkatuta osatzen da, hala dagokion kasuetan eta egokitzat jotzen bada.

Arlo horretan indarrean dagoen hirigintza-legedian jasotako irizpideei nahiz aurrerago azaltzen direnei erantzuten diete mugaketa horiek. Modu osagarrian eta orokorrean, dagokion antolamendu xehatuaren zehaztapenerako garapen-plangintza formulatzea aurreikusten den kasu guztietan, eremu haien mugaketa aipatutako plangintzari lotzen zaio.

* Eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik finkatu gabeko lurzoru hiritar gisa sailkatutako lurrek eta lursailek osatutako gauzatze-eremuen identifikazio kontzeptuala eta, hala dagokionean, grafikoa, zuzkidura-jarduketen xede dena.

  Gauzatze mota horri lotzen zaizkio, aurrez azaldutako hirigintza-sailkapeneko irizpideen arabera, eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik finkatu gabeko lurzoru hiritar gisa sailkatu eta kategorizatzen diren lurrak.

  Eta epigrafe horretan bertan azaldutakoarekin bat etorrita, eremu horien identifikazio grafiko zehatza eta behin betikoa plangintzan bertan (Plan Orokor honetan jasotakoa) nahiz plangintza gauzatzeko prozesuan zehaztutakoa da edo izango da.

* Lurzoru hiritar finkatu gisa sailkatutako eta jarduketa isolatuei lotutako lurrek eratutako gauzatze-eremuen identifikazio kontzeptuala.

  Gauzatze mota horri lotu behar zaizkio, aurreko epigrafean azaldutako hirigintza-sailkapeneko irizpideen arabera, aipaturiko lurzoru mota eta kategorian sartzen diren eta jarduketa-modalitate horri lotutako obren xede diren lurrak.

  Kasu honetan ere, eremu horien identifikazio grafiko zehatza eta behin betikoa plangintzan bertan nahiz berori gauzatzerakoan zehaztutakoa dela edo izango dela ulertu behar da.

* Desjabetze-jarduketak, sistema orokorren eta tokiko sistemen sareetako zuzkidura publikoetara eta beroriek gauzatzera zuzendutako lurrak lortu ahal izateko.

  Desjabetzeetarako aurreikuspen horiek, kasuan kasu, lur horiek planteatutako hirigintza-garapenari lotzeko beste batzuekin osatzen dira, eta, zehazki, jarduketa integratuko eremuekin, gauzatze-unitateekin edota garapen horiekin lotuta zehazten diren zuzkiduretarako jarduketekin.

* Erabileren haztapen-koefizienteen zehaztapena, ondorengo berdinbanaketa-proiektuetan izan daitezkeen eguneratzeen kalterik gabe.

  Geroago azalduko diren irizpideei erantzuten diete zehazki.

D.- *Izaera orokorreko urbanizazio-lanak gauzatzeko eta ordaintzeko irizpide orokorrak.*

Oro har, indarrean dagoen hirigintza-plangintzan (Plan Orokor hau barne) planteatutako hirigintza-jarduketak eta -garapenak kasu bakoitzean xedatutako hirigintza-betebeharrak betetzeari lotuta daudela ulertu behar da, urbanizazio-lanak ordaintzeari eta, hala dagokionean, gauzatzeari begira planteatutakoak barne.

Gauzatze-unitateetan txertatutako jarduketak eta garapenak direnez, betebehar horiek, beste batzuen artean, indarrean dagoen lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legeko 147. artikuluan eta lege horretan bertan nahiz indarrean dauden beste xedapen batzuetan jasota dauden hirigintza-kargei lotutakoak dira, bai eta arlo horrekin zerikusia duten gainerakoetan araututakoei lotutakoak ere.

E.- *Hirigintza gauzatzeko lurralde-eremuak.*

a) Eremu horiek identifikatzeko eta mugatzeko irizpide orokorrak.

Eremu horiek indarreko hirigintza-legedian daude araututa.

Legedi horretan araututako jarduketa mota bakoitzari lotutako lurrek eratzen dute kasu bakoitzean: jarduketa isolatuak, zuzkidura-jarduketak, jarduketa integratuak, eta sistema-sare orokorren eta tokikoen zuzkidura publikoak gauzatzeko jarduketak.

Kasu honetan, eremu horiek honako irizpide hauen arabera mugatzea planteatu da:

* Kasu bakoitzean xede guztietarako haien barne dauden lurrek nahiz haiei atxikitakoek eratutzat joko dira.

* Eremu horietan sartzen dira edo horiei atxikitzen zaizkie kasu bakoitzean planteatutako hirigintza-garapenari elkartutako lur guztiak, irabazizko erabileretara edo zuzkidura publikotara zuzenduta dauden edo ez eta espazioan duten jarraitutasuna edo desjarraitutasuna alde batera utzita.
  Horrela, eremu horiei atxikita daude edota eremu horien barnean sartzen dira aipaturiko garapenei lotutako zuzkidura publiko orokorretara eta tokikoetara zuzendutako lur guztiak, lur horiek administrazioak hartzeko xedeetarako nahiz dagozkien obrak gauzatu eta ordaintzeko xedeetarako direnean.
  Zehazki, udalak eskura ditzan, espazio libre orokorretara zuzentzen diren lurrak jarduketa integratuen programei eta zehazten diren zuzkidurakoei lotzen zaizkie, Plan Orokorrean ezarritako baldintzetan, betiere.
* Planteatutako helburuak lortzeak (arestian aipaturikoak barne) gauzatze-eremu jarraituak nahiz etenkakoak mugatzea justifikatzen du edota justifikatu ahal izango du.

Zehazki, espazioan jarraipena duten nahiz jarraipenik ez duten lurzoru hiritarrak direnean, aipaturiko eremuak dagozkien lurrak barne hartuta edo atxikita eratzen dira. Erabaki egokiak plan honetan zehazten dira, edo hirigintza-prozesuaren ondorengo faseetan hartu beharko dira, planteatutako helburuak lortu ahal izateko soluzio baten edo bestearen egokitasunari erreparatuta.

"V.1. Hirigintza gauzatzeko baldintzak" planoan zehaztu dira grafikoki mugatuko eremuak.

b) Jarduketa Integratuko Eremuak (JIE)

Urbanizazio finkatuaren gabeziagatik edota gutxiegitasunagatik finkatu gabeko lurzoru hiritar gisa sailkatutako lurrak hartzen dituzten eremuek osatzen dituzte.

Plan honetan ezarritakoaren arabera, "25. Kanoiak " eremua, aldi berean, jarduketa integratuko eremu bat da, berorren ezaugarriak eta proposatutako garapenerako baldintzatzaileak aintzat hartuta.

Horrez gain, plan honen garapenean susta daitekeen plangintza xehatuak jarduketa integratuko beste eremu batzuk ere zehaztu ahal izango ditu horrelako plangintza egitea eskatzen duten eremuetan (Amillaga, Olaldea, Zahar Etxea).

c) Zuzkidura-jarduketen xede diren eremuak.

Eraikigarritasun haztatua handitzeagatik finkatu gabeko lurzoru hiritar gisa sailkatutako lurrek osatzen dituzte.

Hori bai, eremu mota horiei lotutakotzat jo behar dira bai lehen aipaturiko eraikigarritasuna handitzearen eragin zuzena jasotakoak eta bai, indarrean dagoen hirigintza-legedian nahiz Plan Orokor berrian bertan xedatutako irizpideekin bat etorriz, aipaturiko handitzearekin lotutakotzat jo behar diren zuzkidura publikotara zuzendutakoak edota elkartutakoak.

Plan honetan xedatutakoaren arabera, mota horretakoak dira eremu hauek:
* "a.2.1/19" lursaila, "19. Txurrukena Behekoa" eremukoa.
* "21.1 Txurruka" azpieremua.
* "2.1/26" lursaila, 26. eremukoa.
* Plan honen garapenean sustatuko den plangintzak zehazten dituenak.
* Mota horretakotzat sailkatzeko eta kategoria hori emateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituztenak.

d) Jarduketa isolatuko eremuak.

Lurzoru hiritar finkatutzat jotzeko behar diren baldintzak betetzen dituzten lurrek osatzen dituzte.

Zehazki, eremu horiei lotzen zaizkie lursailak orube izaera har dezan gauzatu behar diren urbanizazio-obrek eragindako lursail guztiak, beste batzuen artean.
Horien mugaketa grafikoa eta berariazkoa lehen adierazitako moduan eragindako lurren sailkapena eta kategorizazioa dakarten jarduketak zehazterakoan eta identifikatzerakoan gauzatu behar da.

e) Zuzkidura publikotara zuzendutako lurrak lortzeko desjabetze-jarduketak.

Desjabetze-bidez esku hartuko da administrazioak zuzkidura publikotara zuzendutako lurrak lortzeko, indarrean dagoen legedian horretarako xedatzen diren kasuetan.
Zehazki, desjabetze bidezko esku-hartzeak proposatu dira honako kasu hauetan:

* Loralde kalean kokatutako lursailak (2 eta 4 zenbakiak), "7. Loralde" eremukoak.
* Kalebarren 24 kalean kokatutako lursaila, "9. Erregetxe" eremukoa.
* Olea Auzoan, 2 zenbakian kokatutako lursaila, "15. Olea" eremukoa.
* "F.1. Hiriko espazio libreak (SO)" eremu globalean txertatutako lurrak, "15. Olea" eremukoak.
* Atxuri kaleko 21 zenbakian kokatutako lursaila, "23. Atxuri-Errabala" eremukoa.
* "LHE 1. Hilerri berria" eremua, osotasunean hartuta.

Gainera, adierazi denaren ildotik, desjabetzeetarako aurreikuspen horiek, kasuan kasu, lur horiek planteatutako hirigintza-garapenari lotzeko beste batzuekin osatzen dira, eta, zehazki, jarduketa integratuko eremuekin, gauzatze-unitateekin edota garapen horiekin lotuta zehazten diren zuzkiduretarako jarduketekin.

Kasu horietan, gai horretan indarrean dauden legezko xedapenetan adierazten denarekin bat etorriz (2/2206 Legeko 187. artikulua etab.), udala (erakunde desjabetzaile denez) jatorrizko jabearen posizioan subrogatutzat joko da, hirigintza-garapen horien esparruan.

f) Gauzatze-unitateak eta jarduketa-sistemak.

Horien mugaketaren xedeetarako, 2006ko ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legean xedatutakoaren arabera, Hirigintzako Jarduketa Prometan eta hirigintza-plangintzan bertan erabakitakoa bete beharko da.

F.- *Landa-lurzoruaren eta lurzoru urbanizatuaren egoerak.*

2008ko ekainaren 20ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuan xedatutako irizpideen eta xedeen arabera, Soraluzeko udalerriko lurrak landa-lurzoruaren egoeran edo lurzoru urbanizatuaren egoeran integratutakotzat jo behar dira

G.- *Erabileren haztapen-koefizienteak.*

Indarrean den hirigintza-legediak erabileren haztapen-koefizienteak zehaztea aurreikusten du hirigintza-antolamendu xehatuaren esparruan, eta, dagokionean, *"berdinbanaketa-tresnek eguneratu ahal izango dituzte".*

Kasu horretan, "3.1 Bideragarritasun ekonomikoaren eta finantzarioaren azterketa" dokumentuan nahiz Plan Orokor honetako Hirigintza Arau Orokorretan azaldutako irizpideen arabera zehaztea proposatzen da. Hona hemen horietako irizpide batzuk:

* Egokitzat jotzen da jakineko erabilera mota bat erabiltzea kasu guztietan, konparaziorako erreferente orokor gisa. Horretarako, ezinbestekoa izango litzateke erabilera horren haztapen-koefizientea zehaztea eremu guztietan, hura antolatuta ez duten eremuak ere barne hartuta.
  Horrela, posible izango litzateke konparazio-azterketak eta balioespenak egitea, izaera orokor handiagoz edo txikiagoz.
  Kontu horri dagokionez, erreferentziazko erabilera hori araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren araubideari uztartutako hirigintza-eraikigarritasuna izan daitekeela hartu dugu aintzat.
* Oro har, haztapen-koefiziente horiek eguneratzeko proposamena egin da, betiere, hori egiteko justifikazioa ematen duen inguruabarren bat badago (finkatutako koefizienteak zaharkituta gelditu izana; udalerriaren egoera ekonomikoa edota higiezinen egoera aldatu izana, etab.).

Premisa orokor horietatik abiatuta definitu ondoren, erabileren haztapen-koefizienteak ondoren azaltzen den taula honetan jasotakoak dira. Plan Orokor honetako "3.1 Bideragarritasun ekonomikoaren eta finantzarioaren azterketa" dokumentuan azaldutako irizpideen arabera (ekonomikoak, etab.) zehaztu dira. Honako taula honetan zerrendatzen direnak dira:

ERABILEREN HAZTAPEN-KOEFIZIENTEAK.

ERABILERA ETA ARAUBIDE JURIDIKO-EKONOMIKOA	LURZORU URBANIZATUAREN ERAGINAREN BALIOA €/m²	HAZTAPEN-KOEFIZIENTEA
Etxebizitza		
Erregimen Orokorreko BOE	271,10	1,00
Erregimen bereziko erkidegoko edota udaleko erregimen tasatuko babestua	416,66	1,54
Sustapen librea.	488,57	1,80
Hirugarren sektorea	171,43	0,63
Industriala	242,86	0,90
Ekipamendu pribatua	50,00	0,18
Aparkalekua – Erantsiak		
Etxebizitza babestuenak	105,09	0,39
Sustapen librekoak.	114,29	0,42

H.- *Urbanizazio-obretarako proiektuen modalitateak eta horiek formulatzeko irizpideak.*

Proiektatutako urbanizazio-obrak zehaztu eta gauzatzeko behar diren proiektuak egiteko irizpideekin osatzen dira aurreko aurreikuspenak, batez ere haiek eragindako eremuen mugaketari dagokionez eta xede horrekin egin eta sustatu beharreko proiektu motaren identifikazioari dagokionez.

Honako hauek dira xede horrekin sustatu beharreko proiektu motak:

* 2006ko ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legeko 194. artikuluan araututako urbanizazio-proiektuak.

* Urbanizazio-lan osagarrien proiektuak, aipaturiko lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legeko 195.1 artikuluan araututakoak, hala dagokienean jarduketa isolatuetan behar diren urbanizazio-lanak zehazteko xedez sustatutakoak.

  Oro har, kontuan hartu behar da eraikuntza-proiektuen proiektu osagarriak direla.

  Gainera, aipaturiko kasuan, zuzkidura-jarduketak deritzenen testuinguruan horiek formulatzea beharrezkoa izan daitekeela ulertzen da.

* Aipaturiko legeko 195.2 artikuluan araututako gainerako obra-proiektuak.

Horiek formulatzeko irizpideak aipaturiko legean xedatutakoak dira, bai eta Plan Orokor honetako Hirigintza Arau Orokorren eta Partikularren garapenean zehazten direnak eta plangintza xehatuan zehazten direnak ere.

I.- *Lurzoru hiritarrezineko esku-hartzeak.*

Era berean, lurzoru hiritarrezinean, garapenari eta gauzatzeari dagozkien irtenbideak eta kudeaketa-baldintzak definitzen dira, bai hilerri berri baten behin-behineko antolaketarako, bai aisialdiko baratzeak prestatzeko; eta lurraldera sartzeko guneak (Ezozia eta San Andres) eta landa-inguruari lotutako ezarpenak arautzeko baldintzak ere definitzen dira.

II.10.5.- Tokiko hirigintzako estandarrak betetzen direlako justifikazioa.

A.- *Sarrera.*

Zehazki, indarrean dagoen uztailaren 3ko 123/2010 Dekretuak, hirigintzako estandarrei buruzkoak, xedatzen ditu estandarrak (6. artikulua).

Dekretu horretan xedatzen denez, estandar horiek bete behar dituzten hirigintza-garapenak finkatu gabeko lurzoru hiritarrean aurreikusten direnak dira, bertako bi kategorietan. Plan Orokor honen esparruan, honako inguru hauetan aurreikusten diren garapenak dira:

* "2 Amillaga" eremuan aurreikusten den industria-garapena.
* "14. Olaldea" eremuan aurreikusten den bizitegi-garapena.
* "25. Kanoiak" eremuan aurreikusten den bizitegi-garapena.
* "19. Txurrukena Behekoa" eremuko "a2.1/19 lursailean aurreikusten den bizitegi-garapena.
* "21.1 Txurruka" azpieremuan aurreikusten den bizitegi-garapena.
* "22.1 Zahar Etxea" azpieremuan aurreikusten diren bizitegi-garapena eta ekipamendu-garapena.
* 26. eremuko "a21/26" lursailean aurreikusten den bizitegi-garapena.

Egiaz, "2. Amillaga" eta "14. Olaldea" eremuetan eta "22.1 Zahar Etxea" azpieremuan antolamendu xehatua zehazteko plangintza bereziak formulatzea aurreikusten denez, berori formulatu eta onartu ondoren soilik ezagutu ahal izango da behin betiko eta ofizialki zer kategorizazio dagokien eremu eta azpieremu horietako lurrei, eta, zehazkiago, orduan jakingo da ea lurzoru hiritar finkatu gaberik baden edo ez. Horrexegatik, plangintza berezi horretan aztertu eta justifikatu beharko da estandar horien aplikazioa eta betearazpena.

Dena den, une hauetan eta eremu eta azpieremu horien baldintzatzaileak nahiz berorietan plantatzen diren hirigintza-garapenak aintzat hartuta, horien eraginpeko lurrek finkatu gabeko lurzoru hiritar kategorizazioa izateko baldintzak dituztela jo da (orientabide izaeraz behintzat). Horregatik, hirigintza-estandar horiek bete beharko dituztela ulertzen da.

B.- *Tokiko hirigintza-estandarrak betetzeari buruzko irizpide orokorrak.*

Zehazki, indarrean dagoen uztailaren 3ko 123/2010 Dekretuak, hirigintzako estandarrei buruzkoak, xedatzen dituen irizpideak dira (6. artikulua, 7.a, 8.a...). Hona hemen horietako irizpide batzuk:

* Estandar jakin batzuk (espazio libreak eta berdeguneak) zehazteko eta betearazteko erreferentziazko elementua, zehazki, kasu bakoitzean eraginpean hartzen den eremuaren azalera da.

* Beste estandar batzuk (beste zuzkidura publiko batzuk, aparkalekuak, etab.) zehazteko eta betearazteko erreferentziazko elementua, berriz, hirigintza-eraikigarritasuna da, eta, zehazkiago, hirigintza-eraikigarritasuna handitzea, aurrez gauzatu denarekin alderatuta.
  Horregatik, kasu horietan, estandar horien aplikazioak zuzkidura publiko berriak edo gehiago antolatzea ekar dezake soilik, lehendik dagoen eraikigarritasuna handitzea aurreikusten denean; eta ez da horrelakorik izango, berriz, aurreko eraikigarritasunari eusten zaionean edo eraikigarritasuna txikiagoa denean.

* Hirigintza-estandarrak betetzeari buruzko irizpide orokorra eta lehentasunezkoa zehazteko, nahitaezkoa da, beraz, kasu bakoitzean eragiten zaion eremuan horiei lotuta dauden zuzkidurak antolatzea egiaz. Dena den, eragiten zaion eremuaren eta proposatutako hirigintza-garapenaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek horrelakorik egiteko modurik ematen ez badute edo horrelakoak zail egiten badituzte, horiek lekualdatzera edo konpentsazio ekonomikoa ematera jo daiteke.

* Modu osagarrian, zuzkidura publiko horiek multzokatu eta eremu zabalagoen zerbitzura jar daitezke.

C.- *Tokiko hirigintza-estandarrak betetzeari buruzko irizpide orokorrak Plan Orokor honetan.*

Soraluzeko hiri-inguruneko (lurzoru hiritarrak dira guztiak) ezaugarri eta baldintzatzaile askotarikoek −barnean hartuta beroren orografiari, dimentsionamenduari, jarraitutasun materialari eta abarri buruzkoak− justifikatzen dute ingurune hori halakotzat hartzea, tokiko zuzkidura publikoen antolamenduari eta tratamenduari begira eta estandar horiek betetzeari begira.

Gainera, ezaugarri eta baldintzatzaile horiei esker, tokiko zuzkidura horiek soraluzetar guztiek erabiltzeko moduan eta haien eskura daude, horien kokapena dena delakoa izanda ere.

Horregatik, tokiko hirigintza-estandarrak besteak beste ondoren ageri diren irizpide orokorrekin bat etorriz betearaztea proposatzen du plan honek.

Alde batetik, hiri-inguruneare multzo horretan hirigintza-estandar horiek modu globalean betearaztea proposatzen du, hirigintza-garapen berrien xede diren eremuetan zuzkidura publiko berrien antolamendu materiala egitea gerta badaiteke ere, baldin eta berorien ezaugarri eta baldintzatzaileek horretarako aukera ematen badute.

Horrela, osotasunean hartuta, hiri-inguruneak osatzen duen multzo horretan, estandar horiek betetzearekin lotutako eskakizunei erantzuten zaie.

Bestalde eta geroxeago azalduko badugu ere, plangintzako zenbait garapen berrirekin lotutako zenbait zuzkidura-eskakizun garapen horietan sortuko diren eskubideen titularrei dagokien balio ekonomikoa ordainduz betetzea proposatzen da.

Beraz, 123/2012 Dekretuko 7. artikuluan adierazten denarekin bat etorrita, diru-sarrera ekonomiko horiek, besteak beste, honako xede hauetara zuzentzen direla ulertu behar da: zuzkidura publikoetara zuzendutako lurrak udalak eskuratzeari dagozkion kostuen ordainketa (Loralde kaleko 2 eta 4 lursailak; Kalebarrengo 24.a; Olea auzoko 2.a; Atxuriko 21.a; "15. Olea" eremuko "F.1" eremu globaleko lurrak, etab.); lehendik dauden zuzkidurak berritzeko eta hobetzeko obrak gauzatzea; etab.

Esparru orokor horretan, tokiko hirigintza-estandar horiek betetzea proposatzen da, besteak beste, honako irizpide hauek aintzat hartuta:

a) Hirigintza-estandarrak betetzea "2. Amillaga" eremuan aurreikusten den garapenaren esparruan.

   Eremuan sustatuko den Hiri Antolamenduko Plan Bereziari dagokio berori antolatzea eta justifikatzea, berorren antolamendu xehatua zehazteko helburua hartuta.

   Dena den, berorren ezaugarriak eta baldintzatzaileak zein diren ikusita, estandar horiek dagozkien zuzkiduren antolamendu eta urbanizazio materialaren bidez betearazi ahal izango dira.

b) Hirigintza-estandarrak betetzea "2. Olaldea" eremuan aurreikusten den garapenaren esparruan.

   Eremuan sustatuko den Hiri Antolamenduko Plan Bereziari dagokio berori antolatzea eta justifikatzea, berorren antolamendu xehatua zehazteko helburua hartuta.

   Dena den, berorren ezaugarriak eta baldintzatzaileak zein diren ikusita, estandar horiek dagozkien zuzkiduren antolamendu eta urbanizazio materialaren bidez betearazi ahal izango dira.

c) Hirigintza-estandarrak betetzea "19. Txurrukena Behekoa" eremuko "a.2.1/19" lursailean aurreikusten den garapenaren esparruan.

   Tokiko espazio libreen antolamendua eskatzen du proposatzen den antolamenduak; 30 m^2-ko azalera lukete gutxi gorabehera. Proposatutako garapenaren baldintzatzaileek eragotzi egiten dute lursailean espazio libre horien antolamendu materiala. Estandar hau berorri dagokion balio ekonomikoa ordainduz bete beharko da.

   Aldi berean, antolamenduak lehendik dagoen hirigintza-eraikigarritasuna finkatzea dakarrenez eta berori handitzea aurreikusten ez denez, ez da beharrezkoa tokiko beste zuzkidura batzuk antolatzea, ez eta aparkalekua antolatzea ere.

   Bestalde, indarreko estandarrari erantzuteko beharrezkoak diren zuhaiztiak landatzea ahalbidetzen dute lursailaren ezaugarriek.

d) Hirigintza-estandarrak betetzea "21.1 Txurruka" azpieremuan aurreikusten den garapenaren esparruan.

   Azpieremuaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek eragiten dute hirigintza-estandarrak antolamendu materialaren bidez betetzea ezinezkoa izatea, aparkalekuei eta landarediari buruzkoen salbuespen bakarrarekin.

Azpieremuaren azalerari (1.952 m²) eta ondoriozko hirigintza-eraikigarritasunari [1.355 m²(t)] erreparatuta, espazio libretarako eta tokiko beste zuzkidura batzuetarako hirigintza-estandarrak 293 m² eta 271 m²-ra iristen dira. Adierazitakoari erreparatuta, bere balio ekonomikoa ordainduta bete behar da.

e) Hirigintza-estandarrak betetzea "22.1 Zahar Etxea" azpieremuan aurreikusten den garapenaren esparruan.

Azpieremuaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek bidea ematen dute zenbait hirigintza-estandar zehazki honako zuzkidura hauek antolatuz eta materialki urbanizatuz betetzeko: aparkalekuak; landaredia.
Aldi berean, azpieremuaren azalera aintzat hartuta eta hirigintza-eraikigarritasuna handitu egingo denez, gainerako hirigintza-estandarrak betetzeko 622 m^2-ko azalerako zuzkidura publikoak antolatu beharko dira.
Zehazki azken zuzkidura publiko horiei dagozkien estandarrak betetzea ezinezkoa gertatzen da eremuaren ezaugarriak eta baldintzatzaileak kontuan hartuta. Estandar horiek dagokien balio ekonomikoa ordainduz bete beharko dira.

f) Hirigintza-estandarrak betetzea "25. Kanoiak" eremuan aurreikusten den garapenaren esparruan.

Eremuaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek justifikatu egiten dute eta bidea ematen dute zenbait estandar dagozkien zuzkidurak antolatuz eta materialki urbanizatuz betetzeko.

g) Hirigintza-estandarrak betetzea 26. eremuko "a.2.1/26" lursailean aurreikusten den garapenaren esparruan.

Lursailaren ezaugarriak eta baldintzatzaileak aintzat hartuta, ezinezkoa da dagozkien zuzkidurak antolatuz eta materialki urbanizatuz betetzea estandarrak, aparkalekuei eta landarediari dagozkien estandarren kasua salbuespentzat hartuta, betiere.
Lursailaren azalera eta hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntza hurrenez hurren 182 m^2-koa eta 103 m^2(s)-koa izango dela kalkulatzen denez, estandar hauek betetzeko 48 m^2-ko azalerako zuzkidura publikoak antolatu beharko dira. Estandar horiek dagokien balio ekonomikoa ordainduz bete beharko dira.

II.11.- Proposamenean aztertutako beste alderdi batzuk.

II.11.1.- <u>Paisaia.</u>

Izaera bereziko paisaiarik katalogatu ez bada ere, dokumentu honek bertako inguru kakumenalak nabarmentzen ditu, paisaiaren ikuspegitik babestu beharreko lurraldetzat hartuta; eta, xede horretarako, paisaia babesteko eremuak identifikatzen ditu, baldintzatzaile gainjarri maila emanez.

II.11.2.- Eraikuntza landa-ingurunean.

Landa-inguruneko eraikuntza- eta erabilera-baldintzak arautzen ditu planak, eta, bereziki, ingurune hori ustiatzearekin, berorrek eskatzen dituen zuzkidurekin edota inguru horretan egoki direnekin lotutako eraikuntza-baldintzak arautzen ditu.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin bat etorriz, dokumentuak debekatu egiten du lurzoru hiritarrezinean nekazaritza-ustiapenei lotuta ez dauden etxebizitzetara zuzendutako eraikin berriak ezartzea. Ildo horretatik, 82/1998 Foru Dekretuan, azaroaren 24koan, lurzoru hiritarrezinerako baimenak eta lizentziak emateko jarduketak koordinatzeari buruzkoan, xedatutakoaren arabera, udalek, behar den lizentzia eman baino lehen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapenerako Sailari txosten bat eskatu beharko diote, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen batekiko lotura eta garatuko den jarduerarako proposatutako eraikinaren egokitasuna balioetsiko duen txostena.

Lehendik dagoen baserrian, eraikuntza- eta erabilera-baldintzak arautzen dira, berori finkatzeko, handitzeko edo berria ezartzeko egoki diren arauak zehaztuta eta, betiere, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretarako edo landa-ingurunean baimendu daitezkeen beste batzuetarako badira; horien barnean hartzen da lehendik dagoen baserrian etxebizitza autonomoak ezartzeko aukera ere, dagokion balioa eman ahal izateko. Testuinguru horretan, baserri bakoitzeko bi etxebizitzetara mugatzen da haien gehieneko erabilera-intentsitatea, eta 600 m^2(t) baino gehiagoko eraikigarritasuneko eraikin nagusia duten baserrietan gehienez hiru etxebizitzetara gaitzea ahalbidetuko da.

II.11.3.- Zarata.

Egin den prozesuaren ondorioz landu den proposamenak hobetu egingo du gaur egungo egoera, sor daitezkeen hots-inpaktuei dagokienez; izan ere, motordun ibilgailuen zirkulazioa murriztea eta motorrik gabeko zirkulazioa handitzea espero da, bai eta oro har ingurumen-kalitatea hobetzea ere, horixe sustatzen baitu proposamenak.

Jarduera ekonomikoak hartzeko xedea duen lurzorua ez da gehitu, eta gaur egun Olaldean eta Txurrukan industria-erabileren eta bizitegi-erebileren artean sortzen diren hotsen gatazka murriztu egingo da.

Bestalde, planean ez da aurreikusten komunikaziorako azpiegitura berririk udalerrian, Irukurutzetako biribilgunea salbu; ingurabidean ibilgailuen abiadura minimizatuko da berorren bidez, eta, beraz, dagokion hots-inpaktua murriztu egingo da.

Egindako zarata-mapako eta eragin akustikoen azterketako ondorioak ikusita (3. eranskina), Soraluze-Placencia de las Armasko hiri-ingurunean gai honen esparruko indarreko legezko xedapenetan zehazten diren helburu akustikoak neurri handi batean betetzen direla ondoriozta daiteke. Dena den, kontuan izan behar da, 213/2012 Dekretuan xedatzen denarekin bat etorriz, ezin dela etxebizitzetarako eta abarretarako eraikinetarako lizentziarik eman kalitate akustikoko helburuak betetzen ez badira, salbuespentzat hartuta, besteak beste, babes akustiko bereziko eremuak.

Eta gutxieneko edukia ere zehazten da:

* Eremuaren zedarriztapena.
* Zarata-fokuen zerrenda eta haien ekarpen akustikoa.
* Dagokion eremuko planaren zehaztapena.

Horrela, Plan Orokorrak "21.1 Txurruka" azpieremuan eta "25. Kanoiak" eremuan bizitegi-garapenak aurreikusten ditu, eta, beraz, aplikagarri diren baldintzatzaile akustikoei erantzuna eman ahal izateko, ezinbestekoa da azpieremu eta eremu horiei babes akustiko bereziko eremu izendapena ematea, biak ondo bereizita, Eragin Akustikoari buruzko Azterketan (4. eranskina) jasotzen denaren ildotik.

Bestalde, grafikoki "IV.2 Zonakatze akustikoa" planoan adierazten diren eremu akustikoak identifikatzen ditu, eta, "CS. 10 Eremu akustikoak" baldintzatzaile gainjarria ere identifikatzen du, behar den araudia ere xedatuz.

II.11.4.- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.

IHOBEK 1998an egindako EAEko Kokapenen Inbentarioa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten kokapenena, eta 2014ko urtarrilean eguneratutako IHOBEren datu-baseko informazio kontuan hartuta, denboran zehar gizakiak eman dien erabileragatik lurzorua kutsatzen duten edo kutsa dezaketen jarduerak dituzten ingurune edo eremuak identifikatu dira.

Lurzorua ez kutsatzeko edo kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak dioena, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuak, lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatutzat emateko irizpideak eta estandarrak xedatzen dituenak, dioena, eta dagozkien jarduketa-planek zehazten dutena kontuan hartuta, aurrez adierazitako toki horietako edozeinetan erabilera aldatzeko edo kutsadura eragin dezakeen jarduera bat utzarazteko, aurrez ustiapenari dagokion azterketa egin beharko da. Nahitaezkoa izango da ikerketa hori, lurzoruaren kalitatea zehaztu eta kutsatutzat, eraldatutakotzat edota eraldatu gabekotzat jotzeko, aipatutako legeak xedatzen duenaren arabera; bai eta arlo horretan indarrean dagoen legediaren bat etorrita inguru horietan jarduteko ere. Horrez gain, eremu horiek berreskuratu beharra eta ingurumenaren ikuspegitik beren eremuan txertatu beharra ere planteatu da, betiere berorietako jarduerak amaitutzat jo ondoren.

Soraluze-Placencia de las Armasen, kutsatuta egon daitezkeen 95 kokaleku jaso dira inbentarioan; 4. eranskineko zerrendan ageri dira beroriek.

Inbentarioan identifikatutako lurzoruetan, dokumentuak finkatu egiten ditu eremu horietan indarrean dagoen plangintza orokorraren zehaztapenak, eta horietako batzuk eraldatzea aurreikusten da; edozein kasutan, gai horretan aplika daitekeen arloko legedian xedatutakoa bete beharko dute jarduketa horiek.

Lurzoru hiritarrezineko hainbat eremuren ingurumen-hobekuntza ere berariaz aurreikusten du dokumentuak.

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak (lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Kokapenen Inbentarioa, IHOBErena) arloan indarrean dagoen legedian aurreikusitako ikerketa-, kontrol- eta tratamendu-prozesuen baitan jarriko dira lurzoruaren kalitatea ezagutu eta kontrolatzeko xedez, kasuan-kasuan planteatzen den erabilera-aldaketa gauzatzeari ekin baino lehen. Ikerketa, lehen aipaturiko legeak xedatutakoaren arabera,

ezinbestekoa da lurzoruaren kalitatea kutsatuta, eraldatuta edo, hala dagokionean, eraldatu gabe dagoen adierazteko eta jarduketaren aurretik horren arabera jokatzeko (hartu beharreko betebeharrak eta kargak, esleitutako erabileren eta lurzoruaren kutsaduraren arteko bateraezintasunak ekiditea edo aurreikustea, lurzorua lehengoratzeko ekintza baten kostuak bere gain hartzeko jarduketak bideratzea, etab.).

Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruetan, nahitaezkoa da lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpeneko prozedura betetzea, jarduera bat ezarri edo handitzeko, lurmugimenduak gauzatzeko edo kalifikazioa aldatzeko lizentzia lortu aurretik, 1/2005 Legeko 17. artikuluan aintzat hartutako kasuetan. Lursail horiek lurzoruen inbentario batean sartuta egon behar dute, egiten diren aldaketak erregistratu ahal izateko.

Bestalde, kontu horren erregulazioa "CS.8 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak" baldintzatzaile gainjarria identifikatzen duten Plan Orokor honetako Hirigintzako Arau Orokorren xede da, behar den erregulazioa ezarrita.

II.11.5.- Beste alderdi batzuk.

EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planean ez da identifikatu hezegunerik udalerri honetan.

Ez da identifikatu udalerrian onura publikoko mendirik ere.

II.12.- Proposamenaren deskribapena eremuz eremu.

II.12.1.- Udalerriaren herrigunea bailaran.

Udalerri honen herrigunea batez ere Olea eta Mendiola zubien artean kokatzen da, eta Deba ibaiaren bi ertzetan modu linealean luzatzen da. Hirigunearen erdigune horixe birkalifikatu nahi du proposamenak, eta erabilerak eta mugikortasuna berriro antolatzen ditu; zuzkidura publiko berriak ezartzeko ahalegina egiten du horretarako, hala nola plazak, pasealekuak... Eredu orokor bat asmatu da horretarako, denborarekin proposamen guztiak gauzatzeko aukera emango duten askotariko jarduketak identifikatzen dituena.

Udalerriaren hiriguneko erdigune hori hogeita bat hirigintza-eremuk osatzen dute, eta bizitegi-erabilera dute nagusiki beroriek, salbuespentzat Ezozia eremua (zuzkidura) eta Errekalde Goikoa (jarduera ekonomikoak) hartuta.

Soraluze-Placencia de las Armasko hirigunea izugarri aldatu da azken hamarkadan, nahiz eta, lehen ere esan dugunez, nahitaezkoa den helburu horretan berehala beste pauso bat aurrera ematea, hiriaren ezaugarriak modu eraginkorrean bultzatzeko eta hiri abegitsu eta erakargarria izan dadin lortzeko. Ikusiko dugunez, bete daitekeen helburua da. Argia bete-betean sartu da jada Soraluze-Placencia de las Armasen, eta administrazioak modu erabakigarrian esku-hartze gutxi batzuk gauzatzea nahiko izango da, argi hori betiko gera dadin.

Horretarako, hiri-ingurunea berroneratzeko jarduketa esanguratsuenak eremu hauetan proposatu dira: Erregetxen, Alde Zaharrean, Olaldean, Kanoietan eta Errekalde Behekoan; eta Deba ibaiaren bi ertzak hobeto lotzeko proposamenak ere erantsi behar zaizkie horiei.

Heldu beharreko oinarrizko zereginetako bat hirigunearen erdialdean bertan Erregetxeren antolamendua osatzea da. Toki berean zenbait jarduketa koordinatuta abiaraztean datza, eta helburu bakarra dute: gune horren ezaugarriak berreskuratzea. Jarduketa hauetaz ari gara:

- Goiko plazako aire libreko aparkalekua kentzea, alde zaharreko espazio libre publiko nagusi gisa antolatuz; eraikina arkupe batez hornituko da iparraldeko eta mendebaldeko aldeetan, eta txandakatze-erregimeneko aparkaleku batzuei eutsiko zaie.
- Plaza hori Plaza Zaharrarekin egokiro lotzea, bigarrena Deba ibaiaren aldera gehiago irekiz; horretarako, Kalebarrengo 24 zenbakiko eraikina eraistea aurreikusten da.
- Plaza osatzea, iparraldeko eraikina amaituz, egungo Etxaburuetako 5 zenbakiko mehelinaren ondoan; eraikin horren eraikuntza-profila onartuko da horretarako.
- Aipatu dugun eraikin horretan ekipamendu-erabilerak kokatzea; eta horien artean zuzkidura-bizitokiak ere sar daitezke.
- Antolamenduan Erregetxe plazak duen mailaren azpitik lurpeko aparkalekuak egitea ere jaso daiteke, leku horren ezaugarri geologikoek aukera horri buruzko azterketa xehatuagoa egitea aholkatzen badute ere.

Aurreko esku-hartzea udalerriko alde historikoan egin beharreko esku-hartzeetako bat da, udalak bere garaian egokiro sustatutako Birgaitze Plan Berezian jasotzen dena; horietako batzuk gauzatu dira jada (parrokiari atxikitako eraikinak eraistea, Gabolats eta Santa Ana kaleen urbanizazioa...). Planean adierazi diren proposamenek Debara begira dagoen hirigunearen aurreko aldean indarreko plangintzak eskatzen dituen eraiste-lanak minimizatzea dute xede. Beraz, alde historikoko Plan Berezian jasotzen diren proposamenak berregokitu egingo dira oro har, plan hau izapidetzeko prozesuaren emaitzaren arabera, eta berori birgaitzea udalerriko hirigunea berritzeko oinarrizko bigarren ardatz gisa hartuko da.

Udalerriaren barneko hiri-eremuaren etorkizunerako oinarrizko hirugarren esku-hartzea Santa Ana kalearen ekialdeko muturrean egin beharreko eraldaketa da (Olaldea). Helburu hori indarreko Arau Subsidiarioetan planteatuta zegoen jada. Baina xede horretarako aurreikusi diren irtenbideek ez duten eman beharreko fruitua eman, eta, horregatik, "0" irtenbidea edo ez esku hartzean datzana baztertu egin da. Hainbat aukera aztertu ondoren, kaleari ibai ondoan Olearaino jarraipena ematea erabaki da, eta, horretarako, lehendik dauden eraikinak (industria-eraikinak eta bizitegi-izaerakoak) eraitsi behar dira nahitaez; horretarako, modu osagarrian udalerriko beste leku batean ostatu emateko aukerak ere aurreikusi dira. Horrez gain, neurri esanguratsuak dituen plaza baten antolamendua ere planteatu da; zeharka ere jarraipena izango du berrorek, bai Deba ibaiaren ezkerraldera, hirigintzako oztopoak saihestuko dituen igarobide baten bidez, eta bai Zeleta eta Estaziñoko goialdeko guneetara ere, igogailu publiko berri bat ezartzeko proposamenaren bidez. Horrez gain, esku-hartzeak sestra gaineko bizitegi-garapen bati ere badakar, eta 110 etxebizitzarentzako lekua edukiko luke garapen horrek; horrez gain, bulegoak eta hirugarren sektoreko beste erabilera batzuk gauzatzeko baimena ere ematen da antolamenduan; behe-solairua merkataritza-erabileretara edo hirugarren sektorekoetara zuzenduko litzateke oro har, eta erabilera publikoko espazioa ahalik eta gehien hedatzeko arkupe jarraitu bat ere aurreikusten da bertan. Sestrapean garajeetarako bi solairu gaitzea ere jasotzen da antolamenduan (200 ibilgailurentzako aparkalekua, gutxi gorabehera), eta esku-hartze honetan eraitsi behar direnak (lehendik dauden 45en bat) ordeztuko lirateke hein batean.

Gauzatu beharreko oinarrizko laugarren jarduketa Baltegieta kaleko kanoi-fabrika kokatzen den lurzoruari erabilera bat ematea da. Soraluze-Placencia de las Armasek ezin dio utzi finkatzen jarduera-hutsune horri, duela hamarkada bat instalazio horietako jarduera alde batera utzi

zenetik hutsik baitago. Lurzoru hiritarrak hiriaren beharrei erantzun behar die, eta dagokion moduan egokitu behar du. Ildo horretatik, gaur egungo Gabolats zubia ordezkatzea eta hedatzea erabaki da, bai eta ibaiaren eta zubiaren ondoan plaza berri bat egitea ere; horrek hegoalderago kokatutako fabrikak eraitsi beharra ekarriko du. Aldiz, ibaiaren aurrealdean lerrokatuta dauden gainerako pabiloien aztarna, jarraitutasuna eta ezaugarri bolumetrikoak finkatzea planteatu da, nahiz eta gerta litekeen gaur egungo egoera aintzat hartuta horiek ordezkatzea ere; dena den, berorien itxura hiritarrarekin lotutako elementu esanguratsuenei eta lerrokadura-baldintzei eutsi egingo zaie. Hautemandako egoera horren aurrean, eraikin horiek batez ere bizitegi-erabilerara zuzentzea erabaki da, eta sestra gaineko hiru solairuko profila aurreikusi da berorietarako; 9.600 m^2(s)-ko eraikigarritasuna ahalbidetu da horretarako. Modu osagarrian, hegalaldeari atxikitako eraikina eraistea aurreikusi da, eta sestra gainean garajeetarako zuzkidura hartuko duen eraikin baten bidez ordezkatzea.

Bestalde, ondare eraikia birgaitzea proposatu da oro har, nahiz eta egoki denean ordezkatu ere egin daitekeen, batez ere Deba ibaiaren ertzetan, Errabal, Atxuri eta Errekalde kaleetan. Testuinguru horretan, bada duen irismenagatik hemen berariaz adierazi den jarduera bat: Olea zubiaren ondoan planteatzen dena, Pascual Churruca fabrikaren egungo instalazioen antolamendu-baldintzak berriro definitzen dituena, eta instalazio horien eta aipatutako zubiaren artean kokatutako orubeari dagokiona. Bizitegi-izaerako etxe sail bana antolatzea proposatzen da, eta enpresa udalerrian egokiro birkokatu ahal izateko aukerak aurreikustera garamatza horrek.

Bestalde, lehendik dauden eraikinen eraikuntza-baldintzak finkatzea aurreikusten du oro har planak, nahiz eta gerta daitekeen beroriek ordezkatzea ere; kasu batzuetan, baldintza berriak aurreikusi dira horretarako (a.2/19 eta a2/26 lursailak); eta salbuespen batzuk ere sor daitezke, eraikin batzuk antolamenduz kanpoko egoeran daudela adierazi ondoren.

Beraz, alde batetik, zaharkituta dauden edota kokapen-, erabilera-, biziegokitasun- edota irisgarritasun-baldintza desegokiak dituzten eraikinak bereiziko dira, eta, bestetik, herriaren behar saihetsezinei erantzuteko eraitsi beharreko eraikinak, Santa Ana kaleko 28tik 40ra bitartean, Errekalde kaleko 21ean eta kanoi-fabrikan, Gabolats zubiaren ondoan, formulatutako proposamenak, esate baterako. Lehenengo horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Atxuri kaleko 21. zenbakia; Deba ibaiaren gaineko oinezkoentzako igarobide berrirako sarrerari irtenbidea emateko.
- Eraikin bat Olean; hiri-izaerako parke bat aurreikusten da bertan.
- Santa Ana kaleko 2 zenbakia, Zubi Nagusiaren ondoan; espazio publiko gisa berreskuratzekoa.
- Kalebarrengo 24. zenbakia, Plaza Zaharraren aurrean dagoena, plaza Deba ibaira irekitzeko.
- Errekaren ondoko bi eraikin, Loralden; erreka ertzak nabarmendu dira bertan, espazio libre gisa.

Horrez gain, jarduketak gidatuko dituzten irizpide eta helburuak Hirigintza Arau Partikularretako bakoitzean zehazten diren jarduketa-irizpide eta helburuei dagozkien atalean jasotzen dira.

Arau Partikular horietan, dagozkien eraikuntza- eta urbanizazio-baldintzak ere definitzen dira, eta finkatutako eraikuntza eta urbanizazioari dagozkienak finkatu dira oro har, baina uholde-arriskua minimizatzeko proposatu diren neurriek baldintza batzuk doitu beharra ekar dezakete.

II.12.2.- Deba ibaiaren ibarreko industria-garapenak.

Berriki aipatu dugun hiri-inguruneko erdigunetik gertuago edo urrunxeago, badaude lehendik zenbait industria-kokapen ere, Debaren eta Sagar errekaren ertzetan; funtsean, finkatu egin dira, edota antolamendu-arau berriak aurreikusi dira berorietarako. Bederatzi hirigintza-eremu dira, honako toponimo hauek dituztenak: Aginaga-Maltzaga, Amillaga, Ugaroa, Mendiola Industrialdea, Sagar erreka, Sagarraga, Errekalde Goikoa (erdigunean kokatua), Saloguen eta Mendizabal.

Jarduketarik esanguratsuena Amillagan proposatu dena da, eta aplikagarri izango diren antolamendu-baldintza berriak arautzen dira kasu horretan.

Horrez gain, jarduketak gidatuko dituzten irizpide eta helburuak Hirigintza Arau Partikularretako bakoitzean zehazten diren jarduketa-irizpide eta helburuei dagozkien atalean jasotzen dira.

II.12.3.- Beste batzuk.

Modu osagarrian, desjabetze bidez jardutea proposatzen da lurzoru hiritarrezineko eremu batean, bi helburu nagusirekin: gaur egungo hilerrirako beste kokapen bat zehaztea, eta aisialdiko baratzeen kokapena aurreikustea, Ezozirako bidearen ondoan.

Modu osagarrian, udalerria ingurumenaren ikuspegitik hobetzeko hainbat esku-hartze jasotzen dira planean, bai Deba ibaiaren eta zenbait errekaren ertzetan, bai zenbait errepideren ezpondetan; udalerrian besteak beste Baso Bidez programaren bidez hemengo basoak berreskuratzeko edota Karakate-Irukurutzeta mendikateari dagokion balioa emateko abiarazitako ildoekin lotuta dago hori.

II.13.- Katalogoa.

Plan Orokorrak udalerriko kultura-ondareko elementu interesgarriak jasotzen dituen katalogoa hartzen du barnean, betiere, xede horretarako ezarritako irizpideak eta aplikagarri diren legedia nahiz gainerako erabakiak aintzat hartuta.

Alde batetik, kultura-ondarearen arloan eskumena duen udalaz gaindiko administrazioak jada zehazten ditu babes motaren bati lotuta dauden elementuak, eta, horregatik, Plan Orokorrak zuzenean katalogoan jasotzen ditu horiek; eta, bestetik, udalerriak bazuen lehenagoko katalogo bat, indarreko Arau Subsidiarioetan jasotzen dena; horixe hartu da hasierako erreferentziatzat, eta Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak prozesuan zehar igorritako zerrendak erantsi zaizkio hori, aztertzeko.

Udalerriaren eta bertako kokaguneen tamainak eta berorien ezaugarriek ez dute aparteko kultura-balioa duten edo kultura balio esanguratsua duten elementuen alde jokatu, eta, egiaz, eraikitako bi elementutara mugatzen dira udalaz gaindiko babes mailaren bat duten elementu eraikiak: Santa Maria la Real elizaren ataria, eta Arregia dorretxea.

Horrez gain, udalerriak baditu interesa duten beste bi elementu hauek ere: Elosua-Plazentzia Estazio Megalitikoa, eta alde historikoko gune arkeologikoa; eta baditu presuntzio arkeologikoko beste hainbat gune ere.

Abiapuntuko erreferentzia baten edo bestearen xede diren elementuak zehatz-mehatz aztertu dira, kultura-ondare horren balio esanguratsuenak kontuan hartuta (eraikuntza-balioak, konposizioari lotutakoak, balio estetikoak, historikoak, artistikoak, ingurumenari lotutakoak...), eta etorkizunean bizirik jarrai dezan konpromisoa hartuta oinordetzan jaso dugun hiriarekiko errespetuan oinarrituta.

Erabakien irismenaren aurrean udalak duen erantzukizuna irizpidetzat hartuta ere egin da katalogazioa, erantzukizun hori lotuta baitago katalogatutako eraikinak kultura- eta ondare-balioak mantendu eta zaintzeko baldintzetan tratatzen direla ikuskatzearekin, bai eta eduki ekonomikoarekin ere, beroriek egokiro mantentzeko beharrezkoak diren obrak eta jarduketak ordaintzearekin lotuta eta, betiere, berorien kostuak jabeek arlo horretan dituzten betebeharrak gainditzen baditu, besteak beste eta gutxienez, 2008ko Lurzoruaren Legeak 9.1 artikuluko aurreikuspenetan xedatzen duenarekin bat etorriz (2/2008 Legegintzako Errege Dekretua), eta hiriak birgaitzeko, berroneratzeko eta berritzeko 2013ko ekainaren 26ko Lege onartu berrian berorri ematen zaion edukian xedatzen denaren arabera.

Katalogazioa egiterakoan, kontuan hartu da honako Plan Orokor honetan egiten diren proposamenen bideragarritasuna ere.

Horrela, udalaren ikuspegitik, beharrezkotzat jo da hauek egitea:

- Udalerriko **alde historikoa** finkatzea, berorri dagokion Birgaitze Plan Berezia finkatuz; bertako zenbait zehaztapen doitu ahal izango dira, hala ere, bereziki ibaiertzean ahalik eta eraikin kopuru handienari eusteko oro har.
- **Udalaz gaindiko babes-izaera duten elementuak** katalogatzea, presuntzio arkeologikoko elementuak eta gune arkeologikoak barne hartuta, Kutzebar tumulua eta Atxolintxiki 2 cista barne.
- Deba ibaiaren itxura hiritarra babestea, hainbat elementu finkatuz, hala nola **Olea, Igareta** eta **Olabarrenako hiru presak,** nahiz eta azken bien altuera jaitsi egingo den, hiru helburu hauek erdiesteko: uholde-arriskua murriztea, faunaren igarobidea erraztea eta hiri-inguruneko ur-xaflei eustea.
- **Kanoi-fabrikaren (SAPA)** azken eraikinen oroimena eta aztarnak babestea hirigunean, eraikinak ordeztu eta berrezarri ahal izango badira ere, berorien egoera eta eraikuntza-ezaugarriak aintzat hartuta.
- **Deba ibaiaren ezkerraldearen fatxada hiritarra** finkatzea ingurumenaren ikuspegitik (Atxuri eta Errabal kaleen atzealdeak).
- Katalogoan bere osotasunean sartzea **Santa Maria la Real eliza.**
- Kanoi-fabrikaren lehen kokaguneari dagokion lursaila, **Errabal kaleko 10 zenbakikoa** (Erregetxe zaharra), katalogoan sartzea.
- **Hiriguneko etxe** esanguratsuenak katalogoan sartzea.
- Landa-ingurunean kokatutako udalerriko **baserrien** multzo adierazgarri bat sartzea katalogoan.
- Katalogoan kulturaren ikuspuntutik interesgarriak diren **baselizak** sartzea guztiak aztertu ondoren, ugari baitira udalerrian.
- Katalogoan **garai bateko trenbidearen zubiak** sartzea; Deba bailarako bizikleten bidea azpiegitura hori erabiliz gauzatu ahal izateko beroriek birmoldatu beharra ere izan daiteke, horrek berak ere balioa emango baitio.

Bestalde, ez da egokitzat jo katalogoa modu orokor batean zabaldu eta lehendik dagoen industria-ondarea hor sartzea, balio esanguratsu eta berezirik ez duenez beharrezkoa ez dela ulertu delako, batetik, eta, bestetik, udalerriaren etorkizuna bermatzeko eraikin horietako batzuk ordezkatzea ezinbestekoa delako (Olaldeako esku-hartzeak, Txurrukakoak...).

Katalogoan udalaz gaindiko babesa izango duten hogeita hamar elementu sartzera eramango gaitu horrek, eta beste berrogeita hamar elementuk udalaren esparruko babes-izaera izango dute. Honako hauek dira elementu horiek, zehaztasun handienaz identifikatzen dituzten toponimoekin identifikatuta eta arlo horretan egin den azterketaren arabera:

Elementu kalifikatuak:
1. Santa Maria la Real elizaren ataria.
2. Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa.
   10 elementu berezi sartzen dira bertan (Atxolin, Iruiya eta Aitzpuruko Zabala trikuharriak, eta Aizkoin, Atxolin Txiki, Naasiko Goena, Pagobedeinkatu, Kutzebakar eta Gizaburua tumuluak, eta Atxolintxiki 2ko cista).

Inbentarioan sartutako elementuak:
3. Hirigune historikoko esparru arkeologikoa.

Abiarazitako elementuak:
4. Arregia dorretxea. Gabolats, 2

Presuntzio arkeologikoko guneak:
5. San Martzial baseliza (Meteri eta Zeledon Santu martiriak) (Irure auzoa).
6. Aginaga baserria (Ezozia auzoa).
7. Armendia errota (Ezozia auzoa).
8. Ezpilla baserria (Ezozia auzoa).
9. Larreategi baserria (Ezozia auzoa).
10. Agirre baserria.
11. Agirre Bekoa errota.
12. Agirrebolu errota.
13. Arkaitz errota.
14. Galtzeiduko ola baserria.
15. Igareta errota (Iturburu).
16. Iturbe Zaharra errota.
17. Olabarrena burdinola (ez zaio egiturarik ikusten).
18. Olea burdinola.
19. Sabuako tumulua.
20. Sagarraga Ola.
21. San Andres errota (Kaiseta).
22. Erregetxe zaharra etxea (hirigunea).
73. Irure Aundi baserria.
74. Done Estebeko tenplua.
75. Aldasoro baserria.
76. Ezoziako Andre gurea tenplua
77. Yriaungo Done Ander baseliza
78. Iturriaga baserria.
79. Saloguen Azpi baserria.
80. Done Emeterio eta Done Celdonioko tenplua.

Udal mailan babestutako elementuak:
23. Zupidebarrena dorrea. Baltegieta, 7.
24. Plaza Barriako iturria.
25. Erregetxe zaharra (lehenengo kanoi-fabrika). Errabala,10.
26. Santa Maria la Real eliza.

27. Baltegietako dorrea. Baltegieta, 22.
28. Zubi Nagusia
29. Kalebarren 1eko etxea.
30. Erretore etxea. Kalebarren, 2
31. Kalebarren 3ko etxea.**Zati bat.**
32. Kalebarren 4ko etxea.
33. Kalebarren 5eko etxea.
34. Kalebarren 7ko etxea.
35. Kalebarren 9ko etxea.
36. Udaletxea. Santa Ana, 1.
37. Santa Ana 4ko etxea.
38. Santa Ana 7ko etxea.
39. Santa Ana 9ko etxea.
40. Santa Ana 12ko etxea.
41. Santa Ana 13ko etxea.
42. Gabolats 20ko etxea.
43. Baltegieta 6ko etxea.
44. Errabala 22ko etxea.
45. Atxuri 5eko etxea.
46. Atxuri 9eko etxea.
47. Errekalde 6ko etxea.
48. SAPAren pabiloiak. (Zati bat.)
49. Sagar erreka 2ko eraikina (garai bateko Indesal)
50. Salogoen Axpi baserria (Irure auzoa).
51. Irure Handikoa baserria (Irure auzoa).
52. Irure Hemendikoa baserria (Irure auzoa).
53. Zabale baserria (Irure auzoa).
54. Iturbe Zaharra baserria (Ezozia auzoa).
55. Armendia baserria (Ezozia auzoa).
56. Illordo baserria (Irure auzoa).
57. Aldasoro baserria (Ezozia auzoa).
58. Iturriaga baserria (San Andres auzoa).
59. Agirre baserria.
60. Aseginolaza Zaharra baserria.
61. Izagirre baserria.
62. Goenetxea baserria.
63. San Esteban baseliza (Irure auzoa).
64. Ezoziko Ama Birjinaren baseliza (Ezozia auzoa).
65. San Andres baseliza (San Andres auzoa).
66. San Roke baseliza (Ezozia auzoa).
67. Santa Ageda baseliza (Irure auzoa).
68. San Martzial baseliza (Meteri eta Zeledon Santu martiriak) (Irure auzoa).
69. Olea presa.
70. Igareta presa.
71. Olabarrene presa.
72. Trenbide zaharreko zubiak.

Zubi Nagusia katalogoan sartzeari dagokionez, berorren inguruan sortutako arazo hidraulikoa dela eta, dagokion azterketa egiteko aukera izango da.

Egoki irudituz gero, katalogoan jasotako ondareari buruzko Plan Berezia egin ahal izango da, eta fitxa bereziak jasoko lirateke plan horretan, dagozkien dokumentu fotografikoekin eta berorietako elementuak deskribatzeko datu historiko, artistiko eta arkitektonikoekin, Eusko Jaurlaritzak gomendatutakoaren ildotik; oro har, honako Plan Orokor honetan jasotzen da katalogoan sartutako elementuen kokapen planimetrikoa.

Katalogoan, ondare arkitektonikoko, arkeologikoko eta historikoko eraikin eta elementuak zerrendatzen dira, eta aplikatuko zaien araudia zehazten da, plan honetako Hirigintza Arau Orokorretan eta Partikularretan jasotzen baita berori.

III.- AURREIKUSITAKO GARAPENAK PROGRAMATZEKO IRIZPIDEAK.

Indarrean dagoen hirigintza-legediak Plan Orokorrei bideragarritasun ekonomikoaren eta finantzarioaren azterketa gehitzeko premia xedatzen du, eta programazio egoki bat ere jasota izan behar du berorrek.

Dokumentu hori modu independentean egin da Plan Orokor honetan, aipaturiko aginduari eta proposamenaren bideragarritasunaren justifikazioari erantzunez, eta horri lotuko gatzaizkio.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legean (77.5 artikulua) eta 15/2008 Dekretuan (15. artikulua) xedatutakoaren arabera, lurzoru hiritar nahiz hiritargarrietan, bizitegietarako nahiz industria-erabileretarako direnetan, aplikatu beharreko gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasunak xedatu dira, Plan Orokorrak ezartzeko orduan.

Eremu bakoitzari dagozkion Hirigintza Arau Partikularretan jasotako proposamenen azterketa xehatuan ikus daitekeen bezala, bizitegi-lurzorurako aurreikusten diren jarduketa integratuei dagozkien garapen berrietarako proposatutako sestra gaineko (s.g.) eremu-eraikigarritasunek ez dute gainditzen lurzoru hiritarrean baimendutako gehienekoa (2,3 m^2(s)/m^2). Bestalde, 0,4 m^2(s)/m^2-ko baimendutako gutxienekoaren gainetik kokatzen dira guztiak oro har.

Bizitegi-garapen berrien xede diren jarduketa integratuak	**Eremuko bizitegi-azalera (m^2(l))**	**Eraikigarritasun antolatua s.g. (m^2(s))**	**Eraikigarritasun-ratioa m^2(s)/m^2(l)**
25. KANOIAK	7.665.-	14.000.-	1,83

Halaber, industria-lurzoruetan, eremu bakoitzaren % 30 gutxienez lursail pribatiboekin bat etortzea aurreikusten da, baina gutxieneko hori gainditu egingo da Amillagako eremuan, hirigune hori berritzeko Plan Berezia idazten denean.

Beraz, zentzu horretan xedatutako lege-eskakizunak bete egiten dira.

III.- PROPOSAMENA INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEARI BURUZKO JUSTIFIKAZIOA.

Diseinatutako Plan Orokorra Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) zehaztapenetara egokitzen da, beroriek proposatutako oinarrizko komunikazio-azpiegiturak errespetatuz, lehendik dagoen edo proposatzen den hiri-ingurunetik kanpoko bizitegi-eraikuntza autonomo berriak debekatuz eta alde zaharra lehengoratzea eta balioestea proposatuz. Lurraldearen Zatiko Planaren zehaztapenetara ere egokitzen da, ondoren azalduko den bezala.

Eibarko eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planak aurreikusten duenaren arabera, Soraluze-Placencia de las Armasko Plan Orokorrak udalerriaren hirigunea finkatzea proposatzen du, bai eta hiri-ingurunea berroneratzeko bidea sustatzea ere. Testuinguru horretan, Plan Orokorrak Lurraldearen Zatiko Planari erantzuten dio, besteak, beste, honako ekintza hauei helduta:

- Hirigunea berritzea eta ingurumenaren ikuspegitik hobetzea, bai eta dagokion balioa ematea ere; horrez gain, bertako alde zaharra lehentasunezko baliabide turistikotzat hartzea ere aintzat hartzen du.

- Hirigunea eraldatzeko edota berritzeko eragiketen bidez esku hartzea, lehendik dagoen hiri-ingurunean, Deba ibaian eta ibaiertzetan esku hartuz, eta industria-kokapenak zuzkidura publiko eta bizitegi-eremu bihurtuz (Olaldea, Txurruka, Kanoiak...).

- Bizitegi-erabilerarako 241 etxebizitza; xedatutako tartearen barnean kokatzen da kopuru hori, etxebizitza berrien gehieneko kopuruaren (315) eta etxebizitza berrien gutxieneko kopuruaren (132) artean.

- Zerbitzu eta komunikazioen azpiegiturak hobetzea, mugikortasunerako baldintza hobeak sortzen saiatuz.

- Karakate, Irukurutzeta eta Agerreburu mendikatea babestea eta dagokion balioa ematea.

Horrekin guztiarekin, Plan Orokorrak behar bezala eta osotasunean erantzuten die eremu funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planeko zehaztapenei.

Bestalde, Plan Orokorra udalerrian eragina duten Lurraldearen Arloko Planen zehaztapenen arabera idatzi da.

Horregatik guztiagatik, Soraluze-Placencia de las Armasko Plan Orokor hau aplikatu beharreko lurralde-plangintzara egokitzen dela ondoriozta daiteke.

Donostian, 2017ko otsailean

SANTIAGO PEÑALBA MANU ARRUABARRENA MIKEL IRIONDO

HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA
SORALUZE – PLACENCIA DE LAS ARMAS

2017ko otsaila

“1. MEMORIA” dokumentua

“1.3. INGURUMEN-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA”.

ERANSKINAK

AURKIBIDEA Orrialdea

0.- Ingurumen Jasangarritasunaren Txostenaren testu bateginaren sarrera 1

I.- Edukiaren laburpena, planaren helburu nagusiak eta planarekin zerikusia duten beste plan eta programa batzuekin dituen loturak. 1

II.- Nazioarteko, Europar Batasuneko, Estatuko, Autonomia Erkidegoko, Aldundiko edota tokiko araudietan ingurumena babesteko zehaztutako helburuak, planak izan ditzakeen eragin esanguratsuekin, erreferentziazko agirian jasota daudenekin, zerikusia dutenak; eta helburu horiek eta ingurumenari dagokion edozein alderdi kontuan nola hartu diren azaltzeko justifikazioa. 3

III. Ingurumenaren gaur egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak, eta planak denbora-mugan izan dezakeen bilakaera, berori aplikatzen ez bada..... 8

IV.- Eragin nabarmenak jasan ditzaketen eremuen ingurumen-ezaugarriak..... 11

V.- Planerako garrantzitsua den edozein ingurumen-arazo, naturaguneei eta babestutako espezieei aplikagarria zaien legediaren arabera ingurumen-aldetik garrantzitsutzat jo diren eremuetakoak barne. 26

VI.- Lurraldeko ingurumen-unitate homogeneoen definizioa. 26

VII.- HAPOren ondorioak ikuskatzeko programa..... 31

VIII.- Ingurumenean izan ditzakeen eragin esanguratsuak. 40

IX.- Natura 2000 Sareko lekuetan izango duen eraginaren ebaluazioa. 92

X.- Irtenbideen hautaketa-prozesuaren laburpena. 92

XI.- HAPO aplikatzearen ondorioz ingurumenak jasan ditzakeen eragin negatiboak prebenitzeko, murrizteko eta indargabetzeko aurreikusitako ingurumen-integraziorako neurriak. 96

XII.- Kartografia. 109

XIII.- Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenaren laburpen ez-teknikoa, alderdi garrantzitsuenen kartografiarekin..... 110

XIV.- Aukeratutako irtenbideen eta planaren eragin negatiboak prebenitzera, murriztera edo arintzera bideratutako neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena, horietatik eratorritako ingurumen-gastuak barneratzen dituela bermatzen duena. 112

1. eranskina: Baliabide hidrikoen nahikotasunari buruzko txostena.
2. erankina: Ingurumenaren egungo egoerari lotutako alderdi garrantzitsuak.

0.- INGURUMEN JASANGARRITASUNAREN TXOSTENAREN TESTU BATEGINAREN SARRERA.

Soraluzeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko ingurumen-jasangarritasunaren txostenaren testu bategin honek bere idazketa-prozesuan xedatutakoa jasotzen du eta, bereziki, 2016ko azaroaren 22ko behin betiko onespeneko, 2016ko urriaren 13ko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren txosteneko eta ingurumen-organoak 2016ko apirilaren 15ean egindako Ingurumen Adierazpen Estrategikoko zehaztapenak eta 2016ko apirileko ingurumen-zehaztapenak txertatzeko Memorian jasota dagoen guztia.

Horri guztiari erreparatuz, 2014ko martxoan egindako informazio- eta diagnostiko-dokumentu eguneratuan jasotako ingurumenaren egoeraren alderdi garrantzitsuei buruzko informazioa txertatu da dokumentuan. Berariaz adierazten da URAren 2015eko informazioaren arabera eguneratutako uraren kalitateari buruzko informazioa sartu dela.

Egindako eguneratzeek Planaren gainbegiratzea eta jarraipena egiteko erreferentzia gisa balio behar dute, eta agerian uzten dute Plan Orokorra egikaritzearen urgentzia, populazioa murriztu eta zahartu egin dela azalduz, hein handi batean udalerriaren ingurumen- eta hiri-birgaitzea ahalbidetzeko ekintzarik ez dagoelako, Planak planteatzen dituen ekintzak eta Plana bera martxan jartzea eskatzen dutenak.

Bestalde, proposatutako gidoia aukeratzea 211/2012 Dekretuaren II. Eranskinean xedatutakoa berariaz betetzearen ondorioa dela azpimarratzen da.

Edozein kasutan, lana egiterakoan ez da gidoi hori jarraitu, baizik eta metodoligiak eskatzen duena.

I.- EDUKIAREN LABURPENA, PLANAREN HELBURU NAGUSIAK ETA PLANAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIN DITUEN LOTURAK

Soraluze-Placencia de las Armasko Udalak Plangintzako Arau Subsidiarioak, 1999. urtean onartutakoak, berrikusteko lanei ekitea eta udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idaztea erabaki du.

EAEko ingurumena babesteko 3/1998 Lege orokorrak, otsailaren 27koak, 41. artikuluan eta I. Eranskineko A) atalean jasotakoaren arabera eta planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 4. artikuluan jasotakoaren arabera, eta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioarena, 6. artikuluan, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek -aurrerantzean HAPO- ingurumen-ebaluazioaren prozedura bete behar dute nahitaez.

Dokumentu hau, testuinguru horretan, HAPOren ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena da.

Soraluze-Placencia de las Armasko HAPOren edukiak udalerriaren hirigintza-antolamendu integrala zehaztea du helburu, eta horretarako, iraunkortasun-irizpideak kontuan hartuta, gaur egun antolamendu horrek eskatzen duen proiektua jasotzen du. Horrela, mugatuak baina, aldi berean, estrategikoak diren ekintzak planteatu dira, mende aldaketarekin batera udalerrian gertatzen ari den hirigunearen aldaketa-prozesua burutu ahal izateko, ezinbestekoa baita udalerriaren ingurumen- eta hiri-ezaugarriak bermatzeko.

Hauek dira, besteak beste, HAPOren helburu nagusiak:

- Hiri abegitsu eta erakargarria eraikitzea, integrazioa oinarri hartuta.
- Irisgarritasun- eta mugikortasun-baldintzak hobetzea.
- Hirigunea Deba ibai aldera irekitzea.
- Hirigunea berroneratzea eta berritzea, eta baita energia-eraginkortasuna hobetzea ere.
- Landa-ingurunearen antolamendua.
- Jarduera ekonomikoari eustea eta jarduera hori berritzea.

Eta, horretarako, egindako diagnostikoa, biztanleen eskakizunak eta aztertutako irtenbideak kontuan hartuta, beharrezkoa da hiri-ingurunean jardutea, espazio libre publiko berriak sortuz eta espazio horietan argia txertatuz, eta, oro har, ingurune horren ezaugarriak berreskuratzea.

Eta, horretarako, HAPOk ez dauka zertan aurreikusi lurzoru berriak hartzea, beharrezko irtenbideak aurkitu baitira lurzoru berriak artifizializatu gabe.

HAPOren memorian, eta dokumentu horri atxikitzen gatzaizkio, zabalago adierazita daude planaren edukiak eta helburu nagusiak.

Bestalde, plana, oro har, aplikagarri den legedi berriarekin bat etorriz dago idatzita (memorian horrelaxe jasota dago); eta, bereziki, indarrean dagoen lurralde-antolamenduarekin (LAG, LZP,LAP, etab.) eta aplikagarri diren ingurumen-planekin eta -programekin bat dator.

Hasierako dokumentuan eta planaren memorian, HAPO egiterakoan kontuan hartu diren planei eta programei buruzko aipamen zabala egiten da.

Bestalde, Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena egiterakoan, bereziki kontuan hartu izan da ingurumen-organoak igorritako erreferentziazko agirian jasotakoa.

Erreferentziazko agiri horrek, Soraluze-Placencia de las Armasko Udalak Aurrerapenean planteatutako guztia zehatz-mehatz aztertu ondoren, ahulak edota baliagarriak diren baliabideak eta Plan Orokorraren aplikazio-eremuan izan daitezkeen ingurumen-arazoak adierazten ditu, eta horiek oso kontuan hartu beharko dira plana nahiz ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena idazterakoan; horrez gain, bi dokumentu horiek kontuan hartu beharko dituzten hainbat irizpide ere jasotzen ditu.

Planteatutako oharrek udalak garatu duen lana aberasten dute, eta, a priori, ez dago kontraesanik horien eta udal-proposamenen artean. Hainbat iradokizun egiten dituzte, eta, beste proposamen batzuen artean, lurzoru hiritarrezina sailkatzeko tipologiak, hasiera batean aurreikusita zeudenak, sinplifikatzeko eta berregokitzeko proposamena azpimarratzen da, bai eta landa-eremuan kontuan hartu beharreko baldintzatzaile gainjarriak ere; HAPOn emango zaie erantzuna horiei.

Erreferentziazko agiriaren proposamenak, bestalde, zalantzan jartzen du Mendizabalen industria-garapen berriak garatzea, eta udalerrian jarduera ekonomikoek izan ditzaketen lurzoruen beharrei buruzko azterketa sakon bat egitea iradokitzen du, horiei jada urbanizatuta dauden eremuetan erantzuten saiatuz, Aurrerapenean udalerriko hirigunea berritzeko jasota dauden prozesuak oztopatzen ez badituzte, betiere. Horrelaxe egiten da, hain zuzen, HAPO honetan, eta, horrela, Amillagako eremua (lehen Agate) helburu zehatz horretarako berrerabiltzea proposatzen da, kontuan izan diren beste irtenbide batzuk baztertuta.

Erreferentziazko agiriari erantzunez, HAPOk Katalogoaren zehaztapena ere jasotzen du, bildutako informazio guztia eta berorren irismena aztertu ondoren; era berean, hirigunean egin beharreko aldaketa-proposamenak ere jasotzen ditu.

Txosten hau, bestalde, bat dator erreferentziazko agirian zehaztutako edukiarekin eta irismenarekin, eta aurrez landutako informazioa zehatz osatu da. Horrela, beste zeregin batzuen artean, landarediaren egoera eguneratu da; faunaren jarraipena egin da; proposamena administrazio hidraulikoarekin kontrastatu da, eta hark dagokion txostena igorri beharko du, HAPOren hasierako onespena lortutakoan; eskaera berriei erantzuteko beharrezkoak diren urbaliabideak badirela arrazoitzen duten agiriak bildu dira; eta errepideen eta lehendik zeuden gainerako azpiegituren arloan eskumena duten administrazioen iritzia jaso da, planean bildutako aurreikuspenek izan dezaketen eraginari buruz.

Era berean, HAPOren jarraipena egiteko eta ingurumen-alderdien integrazio maila neurtzeko adierazleen sorta bat ere jasotzen du txostenak; ingurumen-alderdien integrazio maila zehazteko, erreferentziazko agiriaren iradokizunak hartu dira kontuan.

Dokumentu honetan, nekazaritzan duen eraginaren ebaluazio-protokoloa ere ageri da, EAEko Nekazaritza, Basoak eta Ingurune Naturala Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak jasotakoarekin bat etorriz.

Halaber, azpimarratu behar da planaren proposamenen oinarrizko helburua udalerriko ingurumen-baldintzak hobetzea eta arriskuak minimizatzea dela, azken helburutzat biztanleen ongizate eta osasun onena lortzea hartuta, horixe baita, hain zuzen, hirigintzaren jatorrizko helburua.

II.- NAZIOARTEKO, EUROPAR BATASUNEKO, ESTATUKO, AUTONOMIA-ERKIDEGOKO, ALDUNDIKO EDOTA TOKIKO ARAUDIETAN INGURUMENA BABESTEKO ZEHAZTUTAKO HELBURUAK, PLANAK IZAN DITZAKEEN ERAGIN ESANGURATSUEKIN, ERREFERENTZIAZKO AGIRIAN JASOTA DAUDENEKIN, ZERIKUSIA DUTENAK; ETA HELBURU HORIEK ETA INGURUMENARI DAGOKION EDOZEIN ALDERDI KONTUAN NOLA HARTU DIREN AZALTZEKO JUSTIFIKAZIOA

Soraluze-Placencia de las Armasko HAPO egiterakoan, besteak beste honako dokumentu eta araudi hauetan jasotzen diren iraunkortasun-printzipioak hartu dira kontuan:

- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa; bereziki, 3. artikulua, Plan Orokorra egiteko oinarrizko esparrua.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena; bereziki, 1. eta 2. artikuluak, Plan Orokorraren IIT hau egiteko oinarrizko esparrua.
- Europako zuzentarauak:
  * Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta fauna zein flora basatiak zaintzeari buruzkoa.
  * 2000/60/EE ZUZENTARAUA. Uraren esparrua.
  * 2006/118/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, kutsaduraren eta narriaduraren aurka lurpeko urak babesteari buruzkoa.
  * 2004/49/EE Zuzentaraua, zaratarena.
  * Esku-hartzeek biodibertsitateko elementu bereziak ez kaltetzea.
- Europar Batasunaren zazpigarren "Environment Action Programme" (2014-2020).
- Biodibertsitateari buruzko Europako estrategia, 2020 artekoa.
- Hiriko eta tokiko iraunkortasunaren Espainiako estrategia.

- Garapen iraunkorrerako Euskadiko estrategia 2020.
- Garapen iraunkorraren euskal ingurumen-estrategia 2002-2020.
- Euskal Autonomia Erkidegoko III. Ingurumen Esparru Programa 2011-2014 (Gaur egun, IV. Ingurumen Esparru Programa 2015-2020 gauzatzen ari da).
- Garapen Iraunkorrerako Debabarreneko Estrategia, 2020, eta berorren Ekintza Plana 2011-2015.
- 3/1998 Lege orokorra, otsailaren 27ko, EAEko ingurumena babestekoa, eta, bereziki, legearen 2., 5., 23., 25., 28., 30., 69. eta 83. artikuluak; 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko Legearen testu bateratua onartzen duena; eta 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babestekoa.
- 2/2008 Errege Dekretu Legegilea, ekainaren 20koa, lurzoruaren Legearen testu bateratua onartzen duena; bereziki, legearen 2. eta 10. artikuluak.
- 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, ekonomia iraunkorrari buruzkoa.
- Natur ondareari eta biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 2. artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko Legearen testu bateratua onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 2. artikulua.
- 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, plan eta programa jakin batzuek ingurumenenari eragindako ondorioen ebaluazioari buruzkoa.
- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioarena.
- 167/1996 Dekretua, uztailaren 9koa, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko dena.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, urarena, eta, bereziki, legearen 3. artikulua; eta 1514/2009 Errege Dekretua, urriaren 2koa, lur azpiko urak kutsaduratik eta hondatzetik babestea arautzen duena.
- 400/2013 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 3. artikulua; 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa; 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.
- 34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoa.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, nekazaritza- eta elikagaigintza-politikari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programa 2007-2014 (gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programa 2014-2020 gauzatzen ari da).
- 7/1990 Legea, euskal kultur ondareari buruzkoa; 137/2003 Dekretua, ekainaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden Estazio Megalitikoak Multzo Monumental izendapenez kultura-ondasun gisa deklaratzeko eta babes-araudia ezartzeko dena; 1998ko otsailaren 12ko Agindua, Kultura sailburuarena, Soraluze-Placencia de las Armasko Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoa Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean Multzo Monumental izendapenaz Kultura Ondare gisa sartzen duena; eta 1997ko irailaren 17ko Erabakia, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena; honen bidez, 1997ko irailaren 11ko erabakiak iragartzen dira, hau da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat udalerri presuntzio arkeologikoko gune aitortzen dituzten erabakiak.
- 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Mendiena, eta 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako Mendiena.

- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa; 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta soinu-igorpenei buruzkoa; 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa; eta 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, ingurumeneko zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa.
- 22/2004 Dekretua, urriaren 19koa, EAEko hilotzen sanitateari buruzko Erregelamendua onartzen duena.

Araudi horrekin eta jarraibide eta printzipio orokor horiekin bat etorrita eta, halaber, udalak dagokion hasierako dokumentua egin ondoren ingurumen-organoak igorritako erreferentziazko agiriarekin bat etorriz, udalerriak datozen bi urteetarako eskatutako proiektua gidatuko eta sustatuko du udal-administrazioak, bi ideia nagusiri erantzunez: "ingurumen-kalitatea hobetzea" eta udalerriaren "erakargarritasuna sustatzea". Eta proposatutako horren guztiaren helburua Debabarreneko eta Gipuzkoako hirien sisteman Soraluze-Placencia de las Armas udalerriak bizirik iraungo duela bermatzeko azken urratsa egitea da, horrela, mende berriarekin batera abiarazitako prozesuari jarraipena emanez.

Helburu horretarako, ekintza zehatzak nabarmenduko dira planean, ahalik eta sinergia handienak lortzeko, ia esklusiboki jada artifizializatuta dagoen ingurunean jardunez eta bere garaian udalerriko Arau Subsidiarioek aurreikusi zuten hirigunearen azalera murriztuz, betiere. Ingurumenaren aldetik Deba ibaia eta berorren ertzak hobetzea eta espazio libre berriak sortuz eta argitasuna emanez hirigunea ibai aldera irekitzea dira proposamenaren oinarrizko helburuak, mugikortasuna eta, zehazki, motorrik gabeko ibilgailuen mugikortasuna bultzatzen duten beste helburuekin batera. Helburu horiek guztiek eta dagozkien proposamenek argudiatutako hirigintza iraunkorraren printzipioei erantzuten diete, udalerriko erabakiak gidatzen dituztenei, hain zuzen, eta harago doaz gainera.

Horrela, interes berezia du Europako "Smart Cities" proiektuaren barneko udal-ekimenak; hasiera batean, herriko kale-argiteriaren eraginkortasuna hobetzera bideratuta dago, eta teknologia berrien aplikazio orokorrera hedatu nahi da, kudeaketa energetiko iraunkorra lortzeko, bai eta baliabide horiek herritar ororengana hurbiltzeko ere.

Plan Orokorrean formulatutako proposamen guztiak behar bezala txertatuta daude udalak paraleloki bultzatzen dituen prozesuen barnean: Agenda 21aren Ekintza Planean, Alkarrekin prozesuan eta Udalaren Plan Estrategikoaren idazketan.

Ikuspegi orokor hori kontuan hartuta, HAPO egiterakoan, ingurumenaren arloko helburu eta irizpide estrategiko hauek hartu dira aintzat, besteak beste:

- Ingurumeneko kalteei aurrea hartzeari lehentasuna ematea, kalte horiek zuzentzeko eta orekatzeko neurrien gainetik. Ez dira proposatzen lurralde-okupazio esanguratsuak dakartzaten hiri-kanpoko garapen berriak, ez eta azpiegitura berriak ere. Hain zuzen, ez da lurzorurik lurzoru hiritargarri gisa sailkatu.
- Lurzoru berri bat sailkatu aurretik, lehendik sailkatuta dauden lurzoruak erabiltzeko aukera agortzea. Hirigunearen azalera murriztu da, lurzoru zehatz batzuk sailkapenetik kanpo utziz; eta zaharkituta dauden hiriko guneak aldatuz soilik egingo diren esku-hartze berriak sustatu dira.
- Erabil daitezkeen ur-baliabideak eta lurraldearen karga-gaitasuna aintzat hartzea, lurzorua zehazterakoan, sailkatzerakoan edota kalifikatzerakoan. Ur-baliabideak egokitzeari dagokion txostena jasota dago, eta, aldi berean, proposamenarekin "lurraldearen karga" murrizten da, lurzoruaren kontsumoa txikiagoa baita.
- Kutsatuta egon litezkeen lurzoruak leheneratzeko eta balioesteko irtenbideak bultzatzea eta ahalbidetzea. Ildo horretan, neurriak hartzea planteatu da, inbentarioan horrela jasota dauden lurrekin lotuta.

- Udalerriko jatorrizko guneetan eraikitako eta urbanizatutako ondarea birgaitzeari lehentasuna ematea. Lehendik dagoen ondarea finkatzea planteatu da, udalerriak eskatutako hirigunearen aldaketa hori egiteko ezinbestekoak diren azken eragiketetarako beharrezkoak diren zenbait esku-hartze estrategiko kaltetu gabe.
- Bigarren bizileku izango diren etxebizitzak edota etxebizitza hutsak ugaritu ez daitezen begiratzea. Udalerrian arazo esanguratsua ez bada ere, udalak ildo horretan ekintzak sustatzea aurreikusten du, eta horretarako, etxebizitza-parkearen egoera aztertu du.
- Hiriaren zatiketa edo sakabanaketa ekiditea, askotariko erabilera edo jarduerek behar bezala integratuta eta espazialki kohesionatuta jarrai dezaten ahalbidetuz eta mugikortasun-premiak murritz daitezen. Proposamenak ez du hirigunea zabaltzen; alderantziz, ahalik eta kontzentrazio handiena bilatzen du. Eta, aldi berean, Deba ibaiaren bi ertzak hobeto lotzea eta estrategikoki kokatutako hiru lotura-zentro sortzea −Kanoietan, Erregetxen eta Olaldean diseinatutako plazak− jasotzen du.
- Hiri-egitura trinkoak eta konplexuak sustatzea, planteatutako premiei erantzun ahal izateko. Udalerriko hirigunea Gipuzkoako trinkoenetakoa da; nolanahi ere, hirigunearen erabilera-intentsitatea handiagotzea egokitzat jo da, berorren dibertsitatea sustatuz; horretarako, ekipamendu berriak aurreikusi dira, eta, aldi berean, hiriguneko merkataritzari eta hirugarren sektoreko jarduerari eusteko eta nolabait horiek sustatzeko ahalegina egingo da, industria-ehunak jarduera mistoko espazio bilakatzen lagunduz eta biziegokitasunean inpaktu negatiboak eragitea saihestuz, betiere.
- Garapen berriak kokatzea eta antolatzea, besteak beste, honako alderdi hauek bermatuz:
  * Irisgarritasun ona, bai garraio publikoentzat eta bai bizikleten eta oinezkoen sareentzat.
  * Eguzki-baldintza egokiak, bai eta energia-eraginkortasun pasiborako baldintza egokiak ere.
  * Ur-hornidurako sareetara eta ur zikinen sareetara sarrera.
  * Kalitate akustikoari buruzko helburuak, aplikagarri direnak, betetzea.
  * Esku-hartzeek biodibertsitateko eta ingurumen-balioko elementu bereziak ez kaltetzea.
- Bizikleta-bideen sare segurua eta jarraitua diseinatzea, eremu publikoko erabilerekin eta gainerako garraiobideekin gatazkarik ez sortzeko moduan. Horrelaxe egitea planteatu da, eta, hain zuzen, horrela, Gipuzkoako bizikleta-bideen Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoari eta berorren inbertsio-konpromisoei erantzuna emango zaie.
- Ekipamenduen eta espazio libreen azalerak herritarren beharretara egokitzea. Horrelaxe egin da; ekipamenduen sistema orokorra (musika-eskola, zahar etxea, eskola-aurreikuspenak epe luzera...) eta espazio libreen sistema orokorra osatu dira, hirigunean estrategikoki kokatu dira (plazak), eta Ezoziko, Erlaegiko eta Oleako parkeekin osatu dira; irisgarritasun unibertsalerako bete beharreko baldintza guztiak betetzen ditu; ahalik eta erabileraniztasun handiena bilatu da; eta espazio publikoari lehentasuna eman zaio hiriguneko elementu antolatzaile gisa, argiarekin bat egiteko gune gisa, argia oso urria baita Deba bailara estuaren sakonean egiten duen bidean.
- Natura- eta landa-ingurunea eta sortutako, sustatutako edo eraikitako ingurunea berdeguneen bidez lotuko dituzten korridoreak (ekologikoak) egon daitezen sustatzea, eta hiriaren eta naturaren arteko trantsizioa erraztuko duten jarduerak edo esparruak bultzatzea (hiri-baratzeak, herria hornituko duen inguruneko nekazaritza, baso-landaketak, landaresiak, zuhaitz autoktonoen ilarak, etab.). Horrelaxe planteatu da, Ezoziko, Erlaegiko eta Oleako hiri-inguruetako parkeen antolamenduaren bidez eta, Ezoziko bide zaharrean, hirigunetik oso gertu, aisialdiko baratzeetara bideratutako eremuaren antolamenduaren bidez.

- Iturri berriztagarrietan oinarritutako energiaz hornitzeko, instalazio deszentralizatuak ezartzeko aukera ahalbidetzea. Aukera hori bereziki Amillagan egingo den hiri-aldaketaren proposamenean kontuan hartzea planteatu da, beste ekimen batzuk kaltetu gabe.
- Lurzoru hiritarrezinaren zonakatzeak udalerriko landa-inguruneen eta natura-inguruneen zaintza, kontserbazio eta hobekuntza egokia ahalbidetzen du; horretarako, lurraldearen ezaugarriekin eta bokazioarekin bat datozen erabilerak bultzatuko dira. Helburu horretarako, plangintzaren Aurrerapenean lehenengo aldiz formulatutakoa abiapuntutzat hartuta eta erreferentziazko agiriaren planteamenduei nahiz udalaren oharrei jarraituz, zonakatze-proposamen konplexuagoa egin da, aurrez eskatutako edota ondoren proposatutako helburuei erantzun zehatzagoa emateko.
- Paisaia plangintzan txertatzea, berori babestuz, kudeatuz eta antolatuz, Paisaiaren Europako Hitzarmenean eta 90/2014 Dekretuan, ekainaren 3koan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoan, ezarritakoari jarraituz. Lurraldearen ikuspegitik baliodun paisaia-unitate berezirik aurreikusten ez den arren, Plan Orokorrak udalerriko inguru kakumenalak paisaia-unitate gisa nabarmentzea erabaki du, bereziki, Karakate-Irukurutzeta mendikatea.
- Ur-baliabideak eta ur-ingurunea −lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak− babestea, zaintzea eta leheneratzea, uraren Esparru Zuzentarauaren helburuak lortzen saiatuta. Proposatutako ildo horretan, Deba ibaiaren eta berorren ertzen ingurumena hobetzea planteatu da, eta baita ibaiaren ibaiadar batzuena ere. Era berean, errespetatu egin dira urari buruzko gaietan indarrean dagoen araudiak ezarritako atzeraemangune eta zortasunak, eta, aldi berean, formulatutako helburu multzoari erantzun zaio.
- Hirigunean, uholde-arriskua minimizatzea. Helburu horretarako, bilerak egin dira bereziki Uraren Euskal Agentziarekin, eta proiektuaren xedapenak Plan Hidrologiko Nazional berrian jasotako irizpideetara eta xedapenetara egokitu dira; bestalde, lehendik dauden uholde-orbanen interpretazioa zuzendu da, eta testuinguru horretan, hirigunean lehendik dauden presekin lotuta formulatu diren proposamenak kontuan hartu dira.

  EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPren 1. aldaketak E2 atalean (*uholdeen aurkako babesa*) eta E4 atalean (*eremu berrietako drainatzea*) ezarritako baldintzak orraztea eta ikustea.
- Hirigintzaren zehaztapenean osasuna oinarrizko erreferentzia gisa txertatzea, hirigintzaren jatorriak gogoratuz eta hirientzako gutxieneko osasun- eta higiene-baldintzak kontuan hartuta. Aurreikusitako neurriek, hiria hedatu gabe eraikuntzaren kontzentrazioa sustatzeko eta "alderantzizko zentzuan" motorrik gabeko mugikortasuna eta irisgarritasun unibertsala bultzatzeko aurreikusi diren neurri horiek, gidatu dute udalaren ekintza, plangintzaren Aurrerapenaren fasea formulatzen hasi zen unetik.
- Hiri-eraginkortasunaren kontzeptua sustatzea, planak lurralde honetarako ezarritako antolamendu-ereduaren sorrera bera oinarri hartuta, proposamen aukera zabal bat ahalbidetuz eta bultzatuz, besteak beste: lehendik dauden baliabideak zentzu handiagoz erabiltzea eta baliabide ez berriztagarrien (lurzorua, adibidez) kontsumoa kontrolatzea, hondakin gutxiago sortzea, motorrik gabeko ibilgailuetan mugitzeko aukera indartzea, abiadura kontrolatzea, birziklatzea eta hondakinak berrerabiltzea, herria argitzeko eguzkiaren argia edota energia-eraginkortasuna bilatzea.
- Plangintza lantzerakoan, genero-ikuspegia eta kultura-aniztasuna txertatzea. Hiri-eremua nabarmen hobetzeko aukera ematen du planak, eta ibilbideen eta kaleen sistema hobetzen du, hautemandako puntu beltzak saihestuz, gaur egun Errekalden dagoen pasabidea, esaterako; eta auzoen arteko lotura ere hobetzen du, hirigune jarraitu bakar bati bide emanez.

IIT honetan ondoren deskribatzen denaren nahiz Plan Orokorraren edukien irakurketak hemen landutako ikuspegi orokorra osatzen du, eta proiektua egiterakoan ingurumen-irizpideak oso kontuan hartu direla arrazoitzen du; horrela, beraz, ez dago zalantzarik, honako hau behar bezala mugatuta dagoen plangintza-eredu iraunkorra da.

III.- INGURUMENAREN GAUR EGUNGO EGOERAREN ALDERDI GARRANTZITSUAK, ETA PLANAK DENBORA-MUGAN IZAN DEZAKEEN BILAKAERA, BERORI APLIKATZEN EZ BADA

III.1.- INGURUNE FISIKOAREN ETA SOZIOEKONOMIKOAREN EZAUGARRIAK

Soraluze-Placencia de las Armas udalerriko ingurumenaren egoera zehatz-mehatz deskribatuta dago Informazioa eta Diagnostikoari buruz 2014ko martxoan egindako dokumentuan.

Bere edukia jasotzeko xedez, dokumentuak eranskin gisa jaso du azterlan hori (II. eranskina), eguneratu ondoren.

III.2.- INGURUMENAREN BILAKAERA PROBABLEA PLANAREN EPEAN, BALDIN ETA APLIKATZEN EZ BADA

Abiapuntuko informazio horri eta landa-irteeretan jasotako "erregistro"ei esker eta lan-hipotesi gisa, sistema naturalek eta sozioekonomikoek plangintza orokorreko berrikuspen honetako proposamenak kontuan hartzen ez badira zer-nolako bilakaera izango duten ezagut daiteke.

Hori 0 irtenbidea litzateke, edo esku-hartzerik gabeko irtenbide hipotetikoa, hau da, Arau Subsidiarioetan eta indarrean dauden aldaketetan ezarritako plangintza-ereduari eustean datzana; aurrez ere aipatu den moduan, plangintza-eredu hori agortuta baitago.

Hori horrela, esan beharra dago, sistema naturalen bilakaerari dagokionez, erliebearen formak, delako 0 irtenbidearen kasuan, modu naturalean aldatuko liratekeela, edota gizakiaren esku-hartzearen ondorioz, higadura-arrisku handiena izan dezaketen inguruetan edota lurzoruaren erabileren garapena oso iraunkorra ez den inguruetan, eta hegala jauz daiteke puntualki, etab. Era berean, ez litzateke, besteak beste, finkatu gabeko eraikinak botatzearekin edota indusketekin lotutako hondakinik sortuko, eta, beraz, lurraldean ez legoke horiek jaso beharko lituzkeen eremurik.

HAPO berriaren proposamena garatzerakoan lanen fasean sortu ohi diren aldi baterako eraginak, soinu maila (zarata) gehitzea, airearen kalitatearen aldaketa, kamioien zirkulazioagatik sortzen diren auto-ilarak eta abar, ez lirateke sortuko, eta ibilgailuen igorpenen ondorioz (karbono monoxidoa, beruna, sufre dioxidoa, nitrogeno oxidoa...) sortutako inmisio mailak mantendu egingo lirateke denboran, edota areagotu ere egin litezke, esparru orokorrean parke mugikorra hazi egingo litzatekeela aurreikusten baita. Paraleloki, ezingo lirateke murriztu gaur egungo mugikortasunarekin lotutako ingurumen-efektu negatiboak, ez baitira kontuan eduki oinezkoen eta bizikleten ibilbideei buruzko proposamen berriak, ez eta hiriguneko ibilgailuen zirkulaziorako gaur egungo antolamenduaren hobekuntza edota Irukutzetako biribilgunearen proposamena ere; gaur egungo motordun ibilgailuen mugikortasunaren ingurumen-inpaktua eta inpaktu soziala murrizteko asmoz, mugikortasun iraunkorra eta udalerrirako irisgarritasuna sustatzera bideratuta daude neurri horiek, beste jarduketa batzuekin batera. Ez lirateke lortuko airearen kalitatea babestean eta zaratak eta baliabideen kontsumoa murriztean sortzen diren ondorio onuragarri horiek, herritarren bizi-kalitatean eragina dutenak, eta, gainera, modu horretara, ez litzateke sustatuko mundu osoan arazo den klima-aldaketari aurre egiteko jarduketarik.

Deba ibaiaren ibilbideari dagokionez, lanen fasean, uraren kalitateak ez lituzke unean uneko eragin horiek jasango, baina ibaia hirigunean txertatzeko planteatutako proposamenekin (ibai aldera irekitako espazio libreak sortzea, ibar ertzeko pasealekuak edo, epe luzera, Olearen hego-ekialdera dagoen eremua hirigune ondoko bainu-eremu gisa egokitzea) lotutako eragin positiboak ere ez lirateke sortuko; era berean, ez lirateke leheneratuko hondatuta eta narriatuta dauden ibaiertzen zati batzuk eta ez litzateke horietan ingurumena hobetuko, ez eta uholde-arriskua minimizatzeko edota kentzeko aurreikusita dauden jarduketak garatuko ere, besteak beste.

Eragindako lur emankorren azalera txiki horri, balio handiko baliabidea eta landarediaren eta faunaren zutabe denari, eutsi egingo litzaioke, eta horrekin batera, inguruarekin lotutako nekazaritza-erabilerek denboran zehar jarraitu ahal izango lukete Ezozi inguruan. Baina, paraleloki, ez lirateke sortuko kutsatuta egon litezkeen lurzoruak lehengoratzearekin lotuta beste proposamenetan jasota dauden eragin positiboak, ez baitago erabilera-aldaketagatik barneratu beharreko betebeharrik edo kargarik. Dena den, garatzeko proposamen multzoan, lurzoru "landugabea" ez da bereziki kaltetuta suertatzen den ingurumen-faktore bat, garapen-proposamen gehienak lehendik artifizializatuta dauden lurzoruetan oinarritzen baitira, eta, puntualki, lurzoruari eustearekin bateragarri diren erabileretan, aisialdiko baratzeen proposamenaren kasuan, adibidez.

Ingurumen-balio handiena duen landarediari dagokionez, azpimarratu behar da hostozabalen zuhaizti gazteek ez luketela eraginik jasango, baina, aldi berean, hostozabalen baso-formazioak (harizti-baso misto atlantikoa, pagadia, haltzadia, artadia eta gaztainadia) ez lirateke Babes Bereziko Guneen kategorian sartuko, eta hori, hain zuzen, ez da indarrean dauden Arau Subsidiarioetan gertatzen; gainera, aipatutako azken lau formazio horiek interes komunitarioa duten habitatak dira, eta guztiak Soraluze-Placencia de las Armasko paisaian nabarmentzen dira, koniferoen monolaborantzaren nagusitasunaren gainetik.

Ez litzateke bertan jasoko faunaren, landarediaren eta geologiaren intereseko eremuen eta balio agrologiko handiko eremuen babesa, eta, era berean, ez lirateke naturagune babestuen artean lurraldearen integrazioa eta konektibitatea hobetzeko neurriak proposatuko ondare biotikoaren zaintza bermatzeko, ez baita jaso korridore ekologikoei buruzko proposamen zehatzik, ez eta horiei dagozkien erabilera-arauak ere arauen atalean; eta hori ez da horrela gertatzen indarrean dagoen plangintzan.

Paisaiaren ikuspuntutik, bi plangintzatan jasota dago gailurren babesa, baina HAPO berriaren kasuan, gainera, hiri-paisaiari balio handiagoa emateari garrantzia eman zaio, gutxi zainduta baitago eta bailararen estugunean kokatuta baitago, argi gutxirekin eta ibaiari "bizkarra" emanez. Horretarako, udalerritik igarotzen den zatian Deba ibaiaren balioa handitzea proposatu da; uren planoak eta presek sortzen dituzten uharteak kontuan hartu dira, eta baita hiriko argitasuna eta kolorea ere (espazio publikoak ibai aldera irekitzea, edota ibaiaren ertzean, eskuin aldean, pasealekua egitea, etab.), eta, aldi berean, ingurumena hobetzeko, berreskuratzeko eta leheneratzeko jarduketak planteatu dira. Proposamen horiek oinordetzan jaso dugun hiriak eta ibaiaren beraren ezaugarri hidraulikoek eskaintzen dituzten aukeren barnean sartzen dira, eta horrela, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 2. helburuari erantzuna ematen zaio. 0 irtenbidea aukeratzeak, beraz, ez luke eragin positiborik ekarriko hirigunera (Erregetxe, Olaldea, Kanoiak, Txurruka...) ingurumenaren eta hirigintzaren hobekuntzari dagokionez, hiri-eremuaren ezaugarriak berreskuratzeko eta leheneratzeko jarduketak baitira paraleloki; gainera, irtenbide horrek ez du udalerriko ipar-ekialdeko eremua, Arrateko Santutegiaren ikus-arroan dagoena, paisaia babesteko eremu gisa hartzen. Gaur egungo Arau Subsidiarioek, beren sorreratik, ibaiaren ertzetan pasealekuak

egokitzea aurreikusten zuten, nahiz eta ezin izan diren garatu 15 urte hauetan, horretarako mekanismoak falta izan direlako.

Esparru sozioekonomikoan, ez esku hartzeak etxebizitzen, jarduera ekonomikoen, ekipamenduen eta espazio libreen beharrei erantzuteko lurzorurik ez izatea ekarriko luke. Ez esku hartzeko ildo horretan jarraitzeak herritarren gozamenerako diren sustapen eta erabilera publikoko aisialdiko baratzeak ez eskaintzea, hilerria lekuz aldatu ondoren hiri-eremuan zuzkiduretarako lurzorurik lortzeko aukerarik ez izatea, eta hiri-eremu orekatsuagoa eta erakargarriagoa lortzeko hiriaren ezaugarriak ez berreskuratzea esan nahi du. 0 irtenbidearekin jarraitzea gaur egungo ereduaren araberako etxebizitzen eskaintza agortuarekin jarraitzea da, irtenbide mistoak kontuan hartu gabe, besteak beste, hutsik dauden etxebizitzen erabilera sustatzea, bizitegi-izaerako eraikuntzen birgaitzea sustatzea, etxebizitzen batez besteko neurria eta etxebizitzen promozioan ekimen publikoa sustatzea; eta, hori guztia, gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, eskariak atzera egin baitu, eta lurzoru berriei (lurzoru hiritargarriak) eragin gabe.

Ondare historiko, artistiko eta arkeologikoaren arloan, HAPO hau aurrera ez eramateak 1999ko Udalerriko Ondarearen Katalogoa indarrean izatea dakar; horrela, ez dira aintzat hartzen udalerriko ondare-intereseko elementuak, aipatutako katalogo horretan txertatzeko aukera balioetsi ahal izateko; ez da plangintzarik egin helburu horretarako aplikagarria den legediaren arabera, eta, zehazki, birgaitzeari eta hiri-berroneratzeari eta -berrikuntzari buruzko lege berriaren arabera kontuan hartu beharreko irizpideak zehazteko. Eta SAPAko pabiloi industrialei dagokienez, ez dakigu denborarekin zer gertatuko litzatekeen, gaur egun dauden bezala, hondatuta eta bazterrera utzita, jarraituko balute.

Irisgarritasunari eta mugikortasunari dagokienez aldaketarik gabeko ildo horri jarraituz gero, motordun ibilgailuen gaur egungo garraiobideen alde apustu egiten jarraituko litzateke, eta horrek ingurumenean, berorren aldaera batzuetan, eragin negatiboak ekarriko lituzke, lehen esan duguna gogoratuz; eta ez litzateke alderdi hori hobetuko hiri-eremuan, Atxuritik Santa Anarako pasabide berriaren edota Gabolats eta Baltegietan aurreikusitako zubi berrien proposamenak garatuz (GI-627 errepidetik hirigunera sartzeko bi loturek zailtasunak adierazten dituzte, hirigunean ibilgailuen zirkulazioari buruzko gaur egungo antolamendua norabide bakarreko eraztun batean oinarrituta dago, Gabolats-Santa Anatik Olearaino ez dago jarraipenik, besteak beste). Hiriguneko eskaerari erantzuteko aparkalekuak, aire libreko okupazioa murriztea ekarriko luketenak, ez lirateke egingo, beste irtenbideak planteatzen duen moduan.

Zerbitzuen azpiegiturei dagokienez, eraginik gabe geldituko lirateke plangintzaren gaur egungo berrikuspenarekin lotutako hainbat jarduketa: landa-ingurunean ur-horniduraren baldintzak hobetzeko aukera, lehendik dauden ur-bilguneen sistema berreskuratzeko aukera, gaur egungo aire-lineetatik doazen zati batzuk lurperatzeko aukera, udalerrian antenen ezarpena arautzeko aukera, eta, hirigintzako jarduketak aukera ematen duen tokietan, euri-urak eta hondakin-urak bereizteko sistema bat ezartzeko aukera, besteak beste.

Hirigintzaren plangintzaren kapituluan, Plan Orokorrak hiri-eremurako bideratutako azalera murrizteari uko egitea ekarriko luke 0 irtenbideak (lurzoru hiritarrezina 1999. urteko proposamenean % 97,17koa zen; eta HAPO berriaren proposamenean, berriz, % 97,27koa da).

Garbi ikusi denez, 0 irtenbidearekin lurraldearen zati txiki batek ez luke aldaketarik jasango (hilerri berria, Ezozian aisialdiko baratzeak eta Irukurutzetako biribilgunea), baina horrek soraluzetarren garapena eta bizi-kalitatea geldiaraziko lituzke, bai eta oso hondatuta eta narriatuta dauden zenbait gune ingurumenaren eta hirigintzaren aldetik leheneratzeko eta hobetzeko aukera eta lurzoru hiritarrezina berorren balioekin, baliabideekin, erabilerekin eta

gaitasunekin bat etorrita berriro antolatzeko eta zonakatzeko aukera ere. Era berean, hirigintza-plangintzarekin lotutako iraunkortasun-irizpideak abian ez jartzea ere esan nahi du; eta, horrela, esparru honek ez lieke erantzungo tokian (Agenda 21), autonomia-erkidegoan (GIEIE eta Ingurumeneko III. Esparru Programa), estatuan nahiz nazioartean ingurumenaren arloan ezarritako konpromisoei. Azkenik, udalerriaren plangintza ez legoke egokituta hirigintzaren arloan dagoen legedi berrira (8/2007 Legea, maiatzaren 28koa, Lurzoruari buruzkoa; 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, etab.), ez eta lurraldearen, ingurumenaren eta paisaiaren antolamenduaren arloan etorritako erabakietara ere.

IV.- ERAGIN NABARMENAK JASAN DITZAKETEN EREMUEN INGURUMEN-EZAUGARRIAK

IIT honetan behin eta berriz adierazi den moduan, Soraluze-Placencia de las Armasko HAPO honetako jarduketa-proposamenek oso kontuan hartzen dute ingurumena, eta oso txikiak edo unean unekoak dira kontuan hartu beharreko eta balioetsi beharreko eragin negatiboren bat sortzen duten esku-hartzeak. Hala ere, plan honek ingurumen-iraunkortasunaren ikuspegitik aztertzen du udalerri osoa, eta, horregatik, udalerriko hainbat eremutan garatzeko eta sustatzeko proposamen positibo ugari planteatzen ditu aldi berean; horregatik, ezinbestekoa da IIT honetan horiek kontuan hartzea.

IIT honetako IV. nahiz VIII. atalak lantzerakoan, egokitzat jo da, kokapen-irizpideak nahiz azpimarratu nahi diren gaiak kontuan hartuta, proposamenen sailkapen bat egitea, dokumentua ulergarriagoa izan dadin. Horren guztiaren arabera, HAPO honen proposamenak honela zehaztu dira:

1.- Deba ibaiaren antolamendurako proposamenak.

2.- Bizitegi-izaerako lurzoruaren antolamendurako proposamenak.
   - 2.1. Kanoiak.
   - 2.2. Olaldea.
   - 2.3. Txurruka.

3.- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren antolamendurako proposamenak. Amillaga.

4.- Ekipamendu eta zerbitzuetarako lurzoruaren antolamendurako proposamenak.
   - 4.1. Hilerri berria.
   - 4.2. Aisialdiko baratzeak.

5.- Antolamendurako proposamenak mugikortasunaren arloan. Irukurutzetako biribilgunea.

6.- Lurzoruaren antolamendurako beste proposamen batzuk hirigunean.

7.- Beste proposamen orokor batzuk mugikortasunaren eta irisgarritasunaren arloan.

8.- Proposamen orokorrak zerbitzuen azpiegituren arloan.

9.- Landa-lurzoruaren antolamendurako proposamenak.

1.- Deba ibaiaren antolamendurako proposamenak

Aurrerapenaren Informazioa eta Diagnostikoa dokumentuan adierazi den moduan, ingurumenaren ikuspegitik, Deba ibaiko uraren kalitatea eta ibaiaren ibarrak eta ertzak oso hondatuta daude aspalditik. Ibaiaren ibilbideko ertzen zati handi bat, hirigunean daudenak batez ere, hiri-erabilerekin okupatuta daude (etxebizitza-erabilera, jarduera ekonomikoak, azpiegiturak, etab.), eta uholde-arriskuari aurre egiteko, hormigoizko hormak egin ohi izan dira batez ere. Horren guztiaren ondorioz, ibaiertza izan behar lukeen eremua guztiz aldatuta dago, eta ia ez dago landaredirik (ez dago zuhaitzik, unean uneko zuhaixka txiki batzuk soilik, ez eta jarraipenik ere gainaldean).

Kanalizatu gabe dauden ibaiertzen zati txikietan, landaredi natural gutxi dago -haltzadi kantauriarra, hondatuta-, eta, gainera, ibaiertzeko ohiko espezieen ordez (haltza, lizarra, hurritza, etab.), espezie aloktonoak daude, Platanus sp, Robinia pseudoacacia eta Ficus carica, esaterako. Ekosistemak izango dituen beste eragin batzuk oso lotuta daude presen (Olea, Igereta, Olabarrena), ubideen (Iñasibarko ibia), zentral hidroelektrikoen (Sologoen) eta ibilguan bertan bermatzen diren zubi eta igarobideen kokapenarekin.

Kalitate hidromorfologikoa txarra da, estaldurek, babesek eta kanalizazioek guztiz aldatu baitute, eta bertako uren egoera ekologikoa, 2011ko kanpainako EAEko Ibaien Egoera Ekologikoaren Jarraipen Sareak emandako datuen arabera, moderatua da, makroornogabeen komunitateen eta baldintza fisiko-kimiko orokorren ondorioz.

Adierazle biologikoek eta baldintza fisiko-kimikoek hobeto eboluzionatu dute azken urteetan, eta hori ur zikinen sarearen lanak hobetzearekin eta Epeleko Ur Zikinen Araztegia abian jartzearekin lotuta dago, eta baita hainbat industria-enpresa desagertzearekin ere.

Fauna-komunitatearen kalitatea ere moderatua da, eta inguru honetan egon daitezkeen espezie batzuk falta dira; baina argi eta garbi dago bertako uren kalitatea hobetu egin dela, Deba ibaiak udalerritik igarotzean egiten duen ibilbidearen zati batean ur-zozoa eta martin arrantzalea ere badirela egiaztatu baita.

Esandako horri guztiari Deba ibaiak udalerri honetan egiten duen ibilbidearen zati batzuetako uholde-arriskua erantsi behar zaio; aipatu behar da hirigunea zeharkatzen duen zatia Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremutzat hartzen dela, URA agentziaren EAEko barneko arroen Arriskugarritasun eta Arrisku Mapetan.

2.- Bizitegi-izaerako lurzoruaren antolamendurako proposamenak

2.1.- KANOIAK

Esparru hau Deba ibaiak mugatzen du iparraldetik; ekialdetik, Baltegietako 17. eta 26. zenbakietan helbideratutako eraikinek eta Gabolatseko zubiak; hegoaldetik, berriz, San Martzialeko hegalak eta GI-627 errepideak; eta mendebaldetik, Baltegietako 30. eta 32. zenbakietako eraikinek, udalerriko hirigunera sartzeko errepideak eta ibaiak berak. Hirigunean kokatzen da, nahiz eta ezarri zen unean udalerritik kanpo zegoen.



1954.URTEA

Baltegietako industria-jardueraren jatorria eta, zehazki, armagintzarena 1862an kokatzen da, "*Euscalduna"* enpresa orduan hasi baitzen bertan. Hala ere, XV. mendetik armagintzan aritzen ziren herrian, hainbat sutegi sortu baitziren, zehazki, 1573. urtean Soraluzeko Real Fábrica de Armas bertan kokatu zenetik. Gaur egun dauden pabiloiak XX. mendearen lehen herenekoak dira, "*The Placencia de las Armas Company Limited*" bailaran kokatu zenekoak, hain zuzen. Konpainia hori izan zen 1935era arte fabrikaren jabea, eta ondoren, Sociedad Anónima de Placencia de las Armas -SAPA- sortu zen, Kanoi Fabrika izenez ezaguna dena; fabrika honek bertan jarraitu du 2005. urtean itxi zen arte, urte horietan guztietan hainbat jabe eta kudeatzaile izan dituen arren. 1954ko aireko argazki horretan, eraikin horien multzoa ikus daiteke, Deba ibaiak Gabolats inguruan deskribatzen duen meandroan.

Esparru horren ezaugarri dira bertako industria-eraikinak; altuera mugatua dute eta BS, BS + 1, eta BS + 2 profilekoak dira; aur egun ez dira erabiltzen, eta Deba ibaiaren ezkerreko ertzean eta Baltegieta kalearen bi alderdietan zehar lerroan kokatuta daude. Industria-eremu hori abandonatuta dago, zaindu gabe eta hondatuta ingurumenaren ikuspegitik, eta horrek eragin negatiboa du kanpora begira inguru honek duen irudian eta baita udalerriak duenean ere, mendebaldetik herrirako "sarreran" kokatuta baitago. Lehentasunezko helburu gisa ezarri da antropizatutako paisaia hori hobetzea.

Deskribatutako ezaugarri horiek kontuan hartuta, ikusten da gaur egun jada desagertuta daudela lurralde horrek duela mende bat zituen ingurumen-balioak. Egiatan, eta, oro har, gaur egungo lurzoruaren zati garrantzitsu bat jada artifizializatuta dago, ez dago ia landaredirik, eta dagoenak ez du ingurumen-balio handirik; gauza bera gertatzen da bertako faunarekin ere.

Gunerik lauenean, Baltegieta kalearen ondoan, platano bat, magnolia bat eta hurritz, gaztainondo, altzifre eta sasi batzuk daude (azken horiek hegal aldera), eta mendebaldeko muturrean, esparruaren ertzean eta Baltegieta kaleko ezpondaren ondoan, lizar gazte batzuk daude. Kanoietan, hegalaren hegoaldean dagoen eremua da ingurumen-balio handiena duen eremua; eremu horretan, baratze txikiak eta fruitu-arbolak, sastrakak (laharrak, iratzea...) eta hostozabalen zuhaizti gazteak daude (hurritza, sahatsa, urkia, lizarra, gaztainondoa, haltza eta platanoren bat edo beste). Hegal horretan, garrantzi handiena duten aleak, haltzak, GI-627 errepidearen ondoan eta ekialdeko muturrean, proposatu den jarduketa-eremutik kanpo, daude kokatuta.

Deba ibaiaren ezkerreko ertza hormigoizko horma batez bideratuta dago, eta berorren gainean baina apur bat atzeraemanda daude eraikita industria-pabiloien hormak. Gainera, hormaren ondoan, zokalo bat dago, ur zikinen sarearen kolektore nagusia hartzen duena. Ez dago ibaiertzeko landaredirik (sasiakazia bat eta lizar bat soilik daude, mendebaldeko muturrean, eremuaren muga-mugan). 1954ko aireko argazki horrek argi islatzen du egoera hori.

Kanoiak eremuak uholde-arriskua ere badu, URAren (Uraren Euskal Agentzia) Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremuen barnean baitago lurralde hori. Era berean, bertako lurzoruen zati handi bat kutsatuta egon litezkeen lurzorutzat hartzen da, lurzoru horietan mende batez baino gehiagoz garatu izan den armagintza-jarduera dela eta.

Sumendi-bretxak, "pillow-bretxak" deritzenak, nabarmentzen dira substratu geologikoan, eta lurzoru alubialak, balio agrologiko handiko lurzoruak, desagertu egin dira (hegalekoak balio agrologiko txikiko lurzoruak dira).

Industria-pabiloi horiek ez dira interes kulturaleko ondaretzat hartzen, nahiz eta HAPO honetan udalerriaren memoria historikoarekin lotuta daudela azpimarratzen den.

2.2. OLALDEA

Atzeko errepide batek, Santa Ana kalearen luzapen estuak, mugatzen du esparrua iparraldetik; hegoaldetik, Deba ibaiaren ibilguak; mendebaldetik, berriz, Errekaldeko igarobideak; eta, ekialdetik, Oleako zubiak.

Olaldea ingurua espazio hiritarra da nabarmen; dentsitate baxuko (BS, BS+01 eta BS+02) eraikinak daude bertan, batez ere, industria-erabilera dutenak, eta, neurri txikiagoan, bizitegi-izaerakoak, nahiz eta batzuk hutsik dauden.

Aparkaleku bat ere badago, Errekaldeko igarobidetik gertuen dagoen aparkalekua, hain zuzen, eta eraiki gabeko lursail bat ere bada, Vda. de E. Azcárate SA eta Tornideco SL metalgintza-fabriken artean (torlojugintzako jarduerak), une honetan baratze gisa erabiltzen dena.

Hiriguneko inguru hori jada urbanizatuta zegoen XX. mendearen erdialdea baino lehen; 1954ko aireko argazkian ikus daiteke hori. Garai horretan, gaur egungo eraikin guztiak eraikita zeuden, Oleako zubitik gertuen dagoen Tornideco SA enpresari dagokiona salbu; azken hori 1970eko aireko argazkian azaltzen da.

Atzeko errepidea, gaur egungo Santa Ana kalea dena, bazen jada, eta baita Errekaldeko igarobidea ere; aldiz, ez zegoen Oleako zubia artean, XXI. mendean eraiki baita (2002. urtean). Oleako zubia egiteko, esparrutik gertu dagoen izen bereko presa beheratu egin behar izan zen.



1954.URTEA



1970.URTEA

Deskribatutako ezaugarri horiek kontuan hartuta, nolabait ikusten da gaur egun desagertuta daudela lurralde horrek lehengo denboretan zituen ingurumen-balioak. Egiatan, lurzoruaren zati handiena jada artifizializatuta dago gaur egun, ia ez dago landaredirik, eta dagoen landarediak ez du ingurumen-baliorik (gertuen dagoen landaredia, Santa Ana errepideko eskuinaldeko ezpondan dagoena, sasiakazia eta laharra da).

Sumendi-bretxak, "pillow-bretxak" deritzenak, nabarmentzen dira substratu geologikoan, eta lehen zeuden lurzoru alubial urriak, balio agrologiko handiko lurzoruak, ia erabat desagertu dira. Lurzoru emankorreko zati txikia, berriz, duela urte batzuk aldatu zen (hormigoizko hegalkinez egindako bideratzeak, eraikin mugakideetara sartzeko bideak, eraikin txikiak, etab.), eta, beraz, lurzoru hori eraldatuta dago.

Faunari dagokionez, azpimarratu behar da esparruan bertan intereseko fauna-espezierik ezagutzen ez bada ere, bertatik gertu, Deba ibaiaren inguruan, ur-zozoa, *Cinclus cinclus,* eta martin arrantzalea, *Alcedo atthis,* ikusi direla; Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen EAEko Katalogoan, interes bereziko espezietzat hartzen dira horiek. Horiez gain, kaskabeltz handia, *Parus major,* usoak, ahateak eta kaioak ere ikusten dira. Landa-bisitetan ez da ikusi uhalde-enara habiagilerik (*Riparia riparia)*, ez eta espezie hori berori ere, 2010ean Munibe aldizkariaren 58. zenbakian, 2007-08ko landa-lanean oinarrituta, I. Etxezarretak idatzitako "Distribución y situación actual del avión zapador (*Riparia riparia*) en la vertiente cantábrica del País Vasco" artikuluan adierazten duen moduan. Ibaiaren beheragoko aldean ere, Mendiola inguruan, ez da uhalde-enararen presentziarik hauteman.




Ur-zozoa, *Cinclus cinclus*, Deba ibaian.



Kaskabetza, *Parus major,* Deba ibaiaren inguruan.

Deba ibaia oso aldatuta dago eremu hori igarotzen duen zaitan, 1954. urtetik; garai hartan, eremuko ibaiertzean eta hegoaldeko muturreko ertzean zegoen landaredia nabarmentzekoa zen. Deba ibaiaren eskuin ertzeko zati hau bideratuta dago, eta zenbait eraikin ere badaude; eraikin horietako batzuek ibilguaren mugan zuzen-zuzenean bermatuta dituzte beren hormak, eta beste batzuk, aldiz, zutabeen bidez bermatuta daude. Ia ez dago ibaiertzeko landaredirik.

Lurralde horrek uholde-arriskua du, eta URAk udalerri honetan identifikatutako Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremuen baitan ageri da. Era berean, bertako lurzoruen zati handi bat kutsatuta egon litezkeen lurzorutzat hartzen da, lurzoru horietan garatu izan den eta gaur egun garatzen den jarduera ekonomikoa, batez ere industriala, dela eta.

Paisaia guztiz antropizatuta dago, eta, gainera, gutxi zainduta, eta berorren antolamendua eskasa eta ez egonkorra da; atzeraemangune eta altuera askotariko eraikinak daude, espaloirik, berdegunerik eta antzekorik gabe, eta mugikortasun unibertsalaren arloan, gabezia izugarriak ditu.

Interesa eta balio historiko-arkeologikoa duen elementu kulturalik ez da ezagutzen bertan.

2.3. TXURRUKA

Deba ibaiaren ibilguak mugatzen du esparrua iparraldetik; hegoaldetik, Errekalde kaleak; ekialdetik, Oleako zubiak; eta, mendebaldetik, Errekalde kale horretan bertan duela gutxi eraikitako bizitegi-izaerako eraikin batek.

Nabarmen hiritarra den inguru horretan, hainbat altueratako (BS-tik PS+04-ra) egiturak atxikita dituen eraikin bat dago, torlojugintzako industria-jarduerara zuzendua (P. Churruca SA), eta baita eraikinik gabeko eta erabilerarik gabeko lursail txiki bat ere, Oleako zubitik gertu.

Hiriguneko inguru hori urbanizatuta zegoen XX. mendearen erdia baino lehen, eta 1954ko aireko argazkian ikus daiteke hori. Gainera, gaur egun baino dentsitate handiagoa zuen. Garai horretan, ez zegoen gaur egungo Oleako zubia, baina bai izen bereko presa, eta, ibaiaren ezkerreko ertzeko zati horretan, eraikinak zeuden lerro jarraituan. Gaur egungo P. Churruca SA enpresaren eraikina altxatuta zegoen jada.



1954.URTEA



1989.URTEA

Aspalditik jasaten ari den presio antropikoaren ondorioz, garai batean zituen ingurumen-balioak desagertuta daude; ez dago landaredirik, ez eta lurzoru naturalik ere ia (lurzorua duen lursail hori garai batean zeuden eraikinak bota ondoren betetakoa da; Oleako zubi berria egiteko eraitsi zituzten 2001-2002 urteetan, dagozkien ortofotoek agerian uzten duten moduan).

Sumendi-bretxak, "pillow-bretxak" deritzenak, nabarmentzen dira substratu geologikoan, eta zeuden lurzoru alubial urriak, balio agrologiko handiko lurzoruak, desagertu egin dira.

Faunari dagokionez, Olaldeako esparruari buruz esandakoa errepikatu behar da, bi proposamenak ibaiaren zati berean, aurrez aurre, kokatzen baitira; beste ertzean bezalaxe, ertz honetan ere ibaia bideratuta dago, ibai-ibilguaren ertzean bermatutako P. Churruca SA industria-eraikinaren hormen bidez; gainera, zokalo bat ere badago, ur zikinen sarearen kolektore nagusia harzen duena. Jada aspalditik ez dago bertan ibaiertzeko landaredirik.

Uholde-arriskuari dagokionez, esparru hau URAk udalerri honetan identifikatutako Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremuen barnean dago, eta bertako lurzoruak kutsatuta egon litezkeen lurzorutzat hartzen dira, lurzoru horietan garatu izan den industria-jarduera ekonomikoaren ondorioz.

Paisaia hiritarra da bereziki, gutxi zaindutakoa, batez ere, ibai aldera dagoen ingurua; altuera eta egitura-ezaugarri askotariko eraikinak daude, eta baita azken hamar urtean inolako erabilerarik ez duen lursail bat ere.

Bertan ez da ezagutzen interesa eta balio historiko-arkeologikoa duen elementu kulturalik.

3.- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren antolamendurako proposamenak: Amillaga

Aurrerapenari dagokionez, soilik Amillagako irtenbidea (lehen Agate ekialdea zeritzona) jaso da, eta ez da onartu Agate mendebaldeko, Uhaskako eta Mendizabalgo eremuetan lurzoru berririk hartzea, lurzoru landugabeari eragiten baitio horrek. Horrela, Eibarko (Debabarrena) LZPn jasotakoa betetzen da, ez baita lurzorurik birkalifikatzen jarduera ekonomiko berriak hartzeko. HAPO honen garapen-proposamen bat da, lurzoru hiritarrean ezarrita dauden hainbat industria-enpresari beste kokapen bat emateko planteatutakoa bereziki.

Amillaga bailararen hondo estuan eta Deba ibaiaren eskuin aldeko behe-hegalean dago kokatuta, eskuin aldean dauden beste industria-kokaleku batzuen ondoan (Aginaga-Maltzaga, Ugarroa eta Mendiola Industrialdea). Ongi komunikatuta dagoen eremua da, eta zuzenean sartzen da GI-627 errepidetik.

Sumendi-bretxak, "pillow-bretxak" deritzenak, nabarmentzen dira bereziki substratu geologikoan; sumendi-materialak dira, eta iragazkortasun ertain-baxua esleitzen zaie, zenbait maila buztintsuak direlako (hausturak iragazkortasun maila igo dezake). Gaitasun agrologiko baxuko lurzoruak daude, VII motakoak (kanbisol eutrikoak), eta, puntualki, baita gaitasun agrologiko handikoak ere, III motatakoak (flubisol eutrikoak), nahiz eta azken horiek ia guztiz desagertu diren, industria-pabiloiak ezartzearen eta beste inguru batzuk zolatzearen ondorioz. Gainera, aipatu behar da hegalaren zati batek eta berorren ertzeko inguruak aldaketak jasan zituztela beren morfologian, eta bete ere egin zituztela, AP-1 errepiderako lanak egin zituztenean.

Esparru honen ingurumen-balioa, oro har, oso baxua da, aspaldiko urteetan gizakiak asko aldatu duen espazioa baita. Lurzoru horien okupazioa eta berorien ingurua eraldatuta daude XX. mendetik, aurrez zuten ingurumen-balioa kontuan hartu gabe Eibartik hona lekualdatu zen industria-enpresa baten ondorioz, bereziki. Indubrik enpresak, lehen Embalajes Ansola zeritzonak eta Carpintería Arrillaga izenez sortu zenak, ehun urtez baino gehiagoz lanean jardun ondoren, bere ateak itxi zituen 2014ko udan; gaur egun, industria-hondakinak soilik daude (2014ko urriaren erdi aldean, jarduerarekin lotutako egitura ugari eraitsita zeuden). Jarduera hori XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan ezarri zen lehenengo aldiz Deba ibaiaren eskuineko ertzean; laurogeita hamarreko hamarkadan, beste egitura batzuk eraiki ziren hegoalderantz, eta baita hormigoizko zabalgunea eta hegalean kokatutako atzeko pabiloi angeluzuzena ere. XXI. mendearen hasieran (2000-2003), AP-1 errepidearekin lotutako obrek eta, zehazki, Larreategiko bidezubiarekin lotutakoek hegaleko inguruari eragin zioten (lurrak mugitu ziren eta bideak ireki ziren). 1954ko aireko argazkian, nekazaritza-erabilerak ikus daitezke (zelaiak, zuhaitz autoktonoak eta pinudia), baina baita tren zaharraren ibilbidea (Ferrocarriles Vascongados enpresarena, Maltzaga eta Bergara artekoa) eta gaur egungo GI-627ko errepidearena ere; azken hori eremuaren ezker aldean dago, eta ibai-ibilguarekin paraleloan doa ibilbidea. Horrek guztiak argi eta garbi islatzen du lurralde horrek eta berorren inguruak denborarekin jasan duen presio antropiko gogorra, eta, aldi berean, ingurumenaren alderditik eremua nahiko hondatuta dagoela uzten du agerian.

Gaur egun, espazio horren ingurumen-balio handiena bereziki hegalean kokatuta dagoen lurzoru landugabearekin lotuta dago (gaitasun agrologiko baxuko lurzoruak), eremuaren zati handi bat lurzoru artifizializatuekin identifikatzen baita. Baina, paraleloki, Amillagako hegal guztiak ez du lurzoru landugabea, eraikin batzuk, errepide bat edo sarbide bat eta, iparraldeko muturrean, zabalgune bat ere badaude, eta horiek eragina izan dute substratu naturalean. Baliabide natural horri lotuta, oro har, natura-balio berezirik ez duen landaredia dago (erruderal nitrofiloa), hegaleko zenbait puntutan dauden zuhaizti misto gazteak eta pinua salbu.

Bestalde, faunari dagokionez, ez da hauteman mehatxatutako eta babestutako espezierik edo espezie berezirik.

Deba ibaiaren ibilbideak Amillaga eremua igarotzen du mendebaldeko muturretik, eta lurraldea ibaiaren eskuin aldean dago kokatuta. Bertako industria-jarduerak larriki eragin dio ibaiari, ibilguaren ertzean bertan bermatuta baitago zuzen-zuzenean hormigoizko horma. Ez dago ertz naturalik, ez eta ibaiertzeko landaredirik ere. Uholde-arriskurik ere ez dagoela dirudi, bideratuta dagoen ertz zatiarekin bat baitator, zubiaren eragina alde batera utzita, hori zuzendu baitaiteke.

Deba ibaiko urek udalerri honetatik igaortzen den zatian duten kalitateari dagokionez, Informazioa eta Diagnostikoa Dokumentura joko dugu, eta leku honetan kokatuta zegoen enpresa desagertzearekin batera lehen zegoen hargunea ere desagertu egin dela azpimarratuko dugu soilik. Argi eta garbi dago inguru horretako ingurumena birgaitzeko eta leheneratzeko beharra dagoela.



1954.URTEA



1981.URTEA

Lurralde hau ez dago katalogatutako ikus-arroen barnean, ez eta interes bereziko guneen barnean ere; domeinu antropogenikoan, industria-paisaia unitatearen barnean sartzen da, eta Debako bailararen zati honetan nagusi da paisaia mota hori. Bailarako oso gune estuan eta behe-hegalean kokatuta dago, eta oso gutxi ikusten da, malda handiko hegalez inguratuta baitago (GI-627 errepidetik ikusten da gehienbat, eta, neurri txikiagoan, AP-1 errepidetik, kota altuagoan dagoelako); gainera, Aginaga-Maltzagako, Ugarroako eta Mendiolako industrialdeetatik gertu dago; horregatik guztiagatik, paisaia aldetik hauskortasun maila baxua du gune horrek.

Interesa eta balio historiko-arkeologikoa duen elementu kulturalik ez da ezagutzen bertan.

4.- Ekipamendu eta zerbitzuetarako lurzoruaren antolamendurako proposamenak: hilerri berria eta aisialdiko baratzeak

Zuzkiduren atalari dagokionez, Ezoziko ingurua, futbol-zelaiaren kirol-ekipamendutik eta GI-3653 errepidetik gertu dagoen inguru hori, aztertzea komeni da, hilerri berria (6.000 m² inguru) eta aisialdiko baratzeen gunea (5.000 m² gutxi gorabehera) leku horretan kokatzeko aukera baitago. Honekin batera egin den ingurumen-deskribapena, beraz, zuzkidura horiek ezartzeko bi irtenbide horiei dagokie, bi jarduketak mugakideak baitira eta ingurumen-ezaugarri antzekoak baitituzte.

Eremua Deba ibaiaren eskuin ertzeko hegalean kokatuta dago, Karakate-Kortazarreko behe-hegalean, hirigunetik oso gertu, Mendiolako industrialdearen eta lehen aipatutako futbol-zelaiaren ondoan. Eremua hegoaldetik, mendebaldetik eta iparraldetik GI-3653 errepideak eta Legarda baserrirako bideak mugatzen dute, eta hirigunera eta Ezoziko landa-izaerako herrigunera GI-3653 errepidetik sartzen da. Beraz, ongi komunikatuta dago ingurua, eta iritsi-erraza da.

Eremuaren topografia malkartsua da, % 30tik gorako maldak ditu, eta, leku batzuetan, muturreko guneetan, % 50etik gorakoak. Substratu geologikoari dagokionez, sumendi-bretxak, "pillow-bretxak" deritzenak, daude, eta pillow-egitura (sumendi-bretxen artean tartekatutako zerrenda) duten laba-jarioaldiak dituzte tartekatuta. Sumendi-material horiek, oro har, iragazkortasun ertaina dute; laba-jarioaldiei, berriz, hausturarengatik, iragazkortasun apur bat esleitzen zaie, eta sumendi-bretxek iragazkortasun txikiagoa izan ohi dute, maila buztintsuagoak dituztelako.

Gaitasun agrologiko baxuko lurzoruak dira, VI2 motatakoak (kanbisol distrikoak), eta erabilera-gaitasun txikia dute.

Ez du inolako ur-ibilgurik zeharkatzen eremua, nahiz eta bi erreka igarotzen diren bi behe-ibar txikiren artean dagoen kokatuta: bata, Mendiola erreka (futbol-zelaitik gorako uretatik jada bideratuta dago) eta, bestea, Arzabaleta erreka (hirigunean sartu aurretik bideratuta dago, Ezozibidearen parean).

Bertako landaredia batez ere belardiek osatzen dute, *garaiera txikiko sega-belardi pobreek*; belardi horiek interes komunitarioko habitat gisa identifikatuta daude, lehentasunik ez badute ere *(6510,* UE kodea, eta E2.21, EUNIS kodea), eta lahar eta iratze ugari dago gainera (ez bakarrik bidearen eta lursailaren ertzetan, baita belardietan tartekatuta ere). Zuhaitz hostoerorkorrak ere badaude eremuaren iparraldeko muturrean, Legarda baserrirako bidean (batez ere, lizarra, astigarra eta haritz kanduduna), eta baita hego-ekialdeko muturrean ere, Arkaitzeta behe-ibarraren ondoan, jada esparrutik kanpo (astigar gazteak, hurritzak, haritzak, lizarrak eta abar, lahar eta landaredi erruderal nitrofilo ugariren artean; azken hori ezpondan eta errepidearen eskuin aldeko ertzean ikus daiteke).
Faunari dagokionez, ez da hauteman mehatxatutako eta babestutako espezierik edo espezie berezirik.

Lurralde honetako paisaia ez dago katalogatutako ikus-arroen barnean, ez eta interes bereziko guneen barnean ere; nekazaritza-izaerako mosaikoen paisaia-unitateari dagokio, baso-landareak ditu ibai-domeinuaren barnean, eta unitate mota horren presentzia indarstua da bai udalerrian eta bai eskualdean. Bailarako oso gune estuan dago, Ipintza-Arkaitzeta ibaien behe-hegalean artean, eta oso gutxi ikusten da, malda handiko hegalez inguratuta baitago (GI-3653, AP-1 eta GI-627 errepideetatik ikusten da gehienbat); gainera, Mendiolako industrialdetik eta futbol-zelaitik nahiz Soraluze-Placencia de las Armasko hirigunetik gertu dago; horregatik guztiagatik, paisaia aldetik hauskortasun baxua du gune horrek.

Interesa eta balio historiko-arkeologikoa duen elementu kulturalik ez da ezagutzen inguru honetan.



1954.URTEA

5.- <u>Antolamendurako proposamenak mugikortasunaren arloan</u>: <u>Irukurutzetako biribilgunea.</u>

Eremua hirigunearen hegoaldean dago, udalerriko ibai nagusiak deskribatzen duen lehenengo meandroaren aldirietan, Deba ibaiaren ezkerraldeko behe-hegalean, GI-627 errepidearen 52. KPan gutxi gorabehera.

Sumendi-bretxak, "pillow-bretxak" deritzenak, nabarmentzen dira bereziki substratu geologikoan, eta, berorren portaera hidrogeologikoari dagokionez, iragazkortasun ertaina dute, porositatearen ikuspegitik. Azpimarratu behar da Deba ibaiaren ibilbidetik gertu dauden lurzoru lauenetan lehen GI-627 errepidearen bihurgunea zegoela; gaur egungo ibilbidea egin zenean, bertan behera utzi ziren lur horiek. Horixe erakusten dute honekin batera atxikita doazen argazkiek; gaur egun oraindik bertan jarraitzen duten zoladura eta petril zatiak ere ikus daitezke argazki horietan. Eremu honetako zati bat eraldatuta dagoela eta ez dagokiola lurzoru alubialen inguruneari islatzen du horrek.



1954.URTEA



1983. URTEA

Eremua ez du inolako ur-ibilgurik zeharkatzen, nahiz eta Deba ibaiaren ur-ibilgua jarduketa-esparruaren ertzetik doan eta ibai horrek Iñasibarko ibiaren parean egiten duen meandroaren inguru konbexuan dagoen eremua.

Landarediari dagokionez, bereziki erruderal nitrofiloa da, eta platanoak (errepidearen paraleloan dauden zuhaitzen lehenengo ilara) eta urkiak (zuhaitzen bigarren ilara) dituen zuhaizti gazte bat dago bertan, GI-627 errepidearen zabalgune zaharrean. Ibaiaren ibilguan eta ertzean, hurritz, haltz, intxaurrondo, sahats eta platano gazteak daude, bai eta lahar ugari ere. Jada eremuaren ertzean, hegoaldeko muturrean dauden haltzak dira esanguratsuenak, eta baita eragindako hegalean kokatutako pinudia ere.





Errepideko antzinako tartearen zoladura eta petrila.

Faunari dagokionez, ez da hauteman mehatxatutako eta babestutako espezierik edo espezie berezirik.

Lurralde hau ez dago katalogatutako ikus-arroen barnean, ez eta interes bereziko guneen barnean ere; domeinu antropogenikoan, industria-paisaia unitatearen barnean sartzen da, eta Debako bailararen zati honetan nagusi da paisaia hori. Mendizabalgo industria-pabiloien ondoan, bailararen oso gune estuan dago kokatuta, eta malda handiko hegalez inguratuta dago; horregatik, ez da erraza lurralde horretara iristea (GI-627 errepidetik ikusten da gehien), eta, paisaiaren aldetik, hauskortasun baxuko gunea da.

Interesa eta balio historiko-arkeologikoa duen elementu kulturalik ez da ezagutzen.

6.- <u>Hiriguneko lurzoruaren antolamendurako beste proposamen batzuk</u>:

Era berean, hiriguneko gainerako eremuen antolamendu-baldintzak arautzen ditu planak; jatorrian zituen ingurumen-balioak galtzen joan da espazio hori, udalerri gisa sortu zenetik etengabe jasan dituen aldaketen ondorioz.

Jada finkatutako lurzoru hiritarretan egiteko proposamenak dira, jada artifizializatuta dauden eta interesik gabeko landaredia eta fauna duten lurretan egitekoak. Paisaia hiritarra da argi eta garbi, eta eraikuntza berria hutsik dauden orubeetan egingo litzateke, edota lehendik dauden eraikinak ordeztuko edo leheneratuko lirateke, espazio libreak sustatzeko; hirigunea hobetzeko, berriz, berori berriro urbanizatzea planteatu da, lehen zituen ezaugarriak berreskuratzeko premia handia ikusi baita.

Proposamen batzuk udalerriaren Alde Zaharrean kokatzen dira, eta eremu hori gune arkeologiko gisa sartuta dago Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean, Multzo Monumental kategorian (Kultura Sailaren Agindua, 1998ko otsailaren 12koa) eta Plan Berezia du; horregatik, beharrezkoa da Alde Zaharrean alderdi hori aztertzea, bai eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruekin edota Deba ibaia hirigunetik igarotzen den zatian hautemandako Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremuarekin (ES017-GIP-DEB06 kodea) topo egiten duen aintzat hartzea ere.

7.- <u>Beste proposamen orokor batzuk, mugikortasunaren eta irisgarritasunaren arloan</u>.

Mugikortasunaren arloan, hainbat proposamen formulatzen ditu planak; proposamen horiek ere aurrez aipatutako hirigunea dute erreferentziazko leku; hau da, ingurumenaren ikuspegitik oso hondatuta dagoen eremu hori, hain zuzen.

Gaur egungo egoerak gabezia garrantzitsuak dituelako gertatu da hori: besteak beste, espazio libreen esparruan gabeziak ditu, oinezkoentzako ibilbideak falta dira, Deba ibaiaren bi ertzen artean lotura egokiak falta dira eta kaleek ez dute jarraitutasunik (Santa Ana kalea); gainera, arkitektura-oztopoak nabari dira (eskailerak dituzten igarobideak), lotura egokiak falta dira (Olaldea Zeletarekin lotzen duena, esaterako), eta uholde-arriskua murrizteko neurriak ere falta dira.

8.- <u>Proposamen orokorrak zerbitzuen azpiegituren arloan</u>.

Modu osagarrian, udalerriko zerbitzuen azpiegiturak hobetzea ere jasotzen du planak, eta, zehazki, horien eraginkortasuna hobetzea; ekintza horiek hirigunean islatuko dira batez ere, hau da, aurreko bi ataletan aipatutako ekimenak hartuko dituen inguru artifizializatu berean.

9.- <u>Landa-lurzoruaren antolamendurako proposamenak</u>.

Informazioa eta Diagnostikoa dokumentuan zehatz-mehatz deskribatu dira udalerri honetako hirigunearen ezaugarriak, eta, beraz, horri atxikiko gatzaizkio. Dena den, mendeetan egin diren aldaketek udalerriko paisaia hondatu eta eraldatu dutela eta bertan izan zitekeen landaredia (hariztiak, pagadiak eta haltzadiak bereziki) duten oso espazio gutxi daudela azpimarratzen da. Azkar hazten diren beste espezie batzuen artean, pinuaren *monolaborantzak* indar handia hartu du, eta monotonia handia eman dio paisaiari; hala ere, badaude oraindik kontserbazio-egoera onean dauden pagadi txikiak eta harizti eta baso mistoak, eta baita, puntualki, haltzadiak ere; horiez gain, ingurumenaren aldetik babestea, hobetzea eta berreskuratzea komeni den arte eta gorosti batzuk ere badaude (1 km x 1 km laukia).

Faunari dagokionez, aipatzekoa da karramarro autoktonoak erreka batzuetan duen presentzia, Sagarraga errekan, esaterako, bai eta ur-zozoak eta martin arrantzaleak Deba ibaian duten presentzeia ere (ez da ikusi uhalde-enararik).

Argi eta garbi dago, deskribatu diren ur-ibilguek eta intereseko landarediak eta faunak duten balioaz gain, beste aldagai batzuen artean, Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru natura-intereseko eremua dela naturaren aldetik interes handiena duen espazioa; eremu hori Eibarko (Debabarrena) Eremu Funtzionalaren LZPn babestuta dago jada, ingurumen-balio ugari baitakartza: paisaia eta monumentu megalitiko ugari, fauna, flora, etab. Udalerriaren zati handiena hartzen duen ikus-arroak argi azaltzen du bertako eremu kakuminalek duten balioa, aipatutako natura-intereseko eremuan txertatutakoek duten balioaz gain.

Lurren gaur egungo erabilerak (basoak eta belardiak, bereziki, ia ez baitago balio agrologiko handia duen lurrik) bat datoz normalean lur horiek duten bokazioarekin; hala ere, higadura-arriskua dutelako lurra babestu beharreko inguruak hauteman dira. Kutsagarriak izan daitezkeen jarduera edo instalazioak dituzten beste eremu batzuk ere azpimarratu behar dira, eta baita uholde-arriskua duten eremuak (Deba ibaia) eta espezie inbaditzaileak dituztenak ere, biodibertsitatearen andeatzean eragina dutelako.

Eta, azkenik, berariaz azpimarratu da Deba ibaiaren egoera, urteen joanean asko hondatu eta aldatu den elementu natural hori lehentasuneko eremutzat hartu baita; beharrezkoa da ingurumenaren aldetik hobetzeko, berreskuratzeko eta leheneratzeko jarduketak egitea, gaur egun ingurumenaren aldetik zer egoeratan dagoen ikusita (kalitate baxuko urak, ertzak hondatuta daude, espezie inbaditzaileak daude, arazo hidraulikoak ditu, etab.). Ingurumen aldetik berreskuratze-jarduketak behar dituzten udalerriko beste eremu batzuk ere aintzat hartuko dira.

V.- PLANERAKO GARRANTZITSUA DEN EDOZEIN INGURUMEN-ARAZO, NATURAGUNEEI ETA BABESTUTAKO ESPEZIEEI APLIKAGARRIA ZAIEN LEGEDIAREN ARABERA INGURUMEN-ALDETIK GARRANTZITSUTZAT JO DIREN EREMUETAKOAK BARNE

Hiri Antolamenduko Plan Orokor honetan planteatutako proposamenetatik eta jarduketetatik ez da inpaktu negatiborik ondorioztatu babestutako naturaguneetan, natura-intereseko eremuetan, erabilera publikoko eta erabilera babesleko mendietan, zuhaizti autoktono edota babestuetan, hezeguneetan, ur-ibilguetan, balio agrologiko eta geologiko handiko lurzoruentan, paisaia berezi edota bikainetan, babestutako espezieetan edo ingurumenaren aldetik sentiberak diren eta ingurumen-kalitatea duten beste esparruetan.

VI.- LURRALDEKO INGURUMEN-UNITATE HOMOGENEOEN DEFINIZIOA

Informazioa eta Diagnostikoa dokumentuarekin eta hasierako dokumentuarekin batera doan Aurrerapena idazterakoan jaso ziren ingurumen-faktore esanguratsuenak oinarri hartuta Soraluze-Placencia de las Armasko ingurune fisikoaren aurretiazko azterketa egin ondoren, unitate homogeneo batzuk definitu dira; natura-, ingurumen- edota ekoizpen-ezaugarriak dira horien ezaugarri erabakigarriak. Lurraldearen zatiketa espazial hori egiteko, definitutako elementu erabakigarri horiek duten homogeneotasuna hartu da abiapuntutzat, euren ezaugarri fisiografikoak, ekologikoak, funtzionalak eta zientifiko-kulturalak nahiz produkzioaren eta paisaren esparruan dituzten ezaugarriak kontuan hartuta; era berean, beste irizpide batzuk ere hartu dira kontuan, erabilera-gaitasunearen eta erabilera–mugen aurrean dituzten portaeren arteko antzekotasuna, esaterako. Azken finean, bereizitako ekoizpen- eta ingurumen-sistemak

batzen dituzten kudeaketa-unitate homogeneo gisa multzokatutako lurralde-eremuak dira; kasu batzuetan, natura-faktoreak izango dira nagusi, eta, beste batzuetan, berriz, lurzoruaren erabilerak edo giza okupazio maila. Era berean, unitate horietako bakoitzaren barnean eta plangintza orokorreko dokumentu batean horiek duten helburua kontuan hartuta, lurzoru hiritarrezinaren zonakatze-proposamenean kontuan hartu beharreko elementu edo ingurumen-baldintzatzaile berezi interesgarriak deskribatu dira, halakorik izan denean.

Unitate horiek lurraldearen elementuak eta prozesuak adierazten dituzte, modu ulergarrian, eta, bereziki, ikuspegi eragile batetik, azkenean lurzoru hiritarrezinean gune batzuk eta horien baldintzatzaile gainjarriak identifikatu ahal izateko; eta dagozkien erabilera- eta jarduera-arauak ere ezarri dira, plangintza honen berrikuspen-prozesu osoan jaso eta deskribatu diren balioak, baliabideak, erabilerak, arriskuak eta gaitasunak kontuan hartuta.

Proposatutako ingurumen-unitateak IV.3 planoan daude jasota, eta honako hauek dira:

- Ingurumen-balioa eta balio babeslea duten zuhaitz-formazioak

Ingurumen-unitate honetan sartu dira haltzadi kantauriarren, artadi kantauriarren, harizti azidofiloen eta harizti-baso misto atlantikoen formazioak, eta baita zuhaizti gazteak edo degradatuak ere, identifikatu berri diren gaztainondoen eta pagoen baso-sartzeekin batera. Landaredi potentzialez osatutako formazioak dira gehienbat, aipatutako kasu puntualak salbu, eta, kasu zehatz batzuetan, udalerrian eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan oso gutxi dauden babestutako espeziez osatutako formazioak dira.

Ingurumen-unitate honetan, beraz, interes komunitarioa duten habitat hauek sartu dira: *Ilex* eta batzuetan *Taxus* basopeak dituzten pagadi azidofiko atlantikoak (EU 9120 kodea); *Quercus ilex* baso txikiak (UE 9340 kodea); *Castanea sativa* baso txikiak (UE 9260 kodea); eta *Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior* haltzadiak eta lizardiak (EU 91EO* kodea).

Zuhaitz-formazio horiek ingurumen-balioa dute, biodibertsitatea bultzatzen baitute, eta askotariko erabilera duten zuhaixka- eta baso-formazioak sortzen baitituzte, oso malkartsua den lurralde honetako lurren higadura kontrolatzeaz gain; horregatik, ezinbestekoa da zuhaitz-estaldura, landare-geruza baxuak eta biomasa zaintzea. Hala ere, baso autoktonoen kontserbazio-egoera ona bermatu, horien azalera zaindu, masak ekologiaren aldetik hobetu eta interes ekologikoa duten zuhaitzak kontserbatzen direla bermatu behar bada ere, zuhaitz-masa horiek, hein batean, zur- eta egur-baliabideen ustiapenerako nahiz perretxikorarako erabili ahal izango dira, modu kontrolatuan eta iraunkorrean eginda, betiere. Baso-ustiapenetan, erreka ertzetako landaredi autoktonoa errespetatuko da, eta baita babestuta dauden edota urriak diren landaredi batzuk ere, artadia, esaterako. Kasu batzuetan, badago sastraken eta larreen ustiapenaren bidez abeltzaintza sustatzeko aukera ere, basoaren birgaitzea edo zuhaitzen berritzea galarazten ez bada betiere; eta beste batzuetan, ingurumena hobetzeko jarduerak sustatuko dira. Baso-formazio horien paisaia-balioarekin lotuta aisialdiko jarduerak edo jolas-jarduerak ere sustatu ahal izango dira (mendi-ibilbideak, interpretazioa, etab.), betiere higadura kontrolatzen bada eta inguru horien ingurumen-kalitatea aldatzen ez bada. Formazio horiek koniferoak nagusi diren paisaiaren monotonia hausten dute, urte osoan zehar kolorea behin eta berriz aldatuz.

Suteekin, garbitasun-tratamenduekin eta biomasa lortzeko tratamenduekin daude lotuta arriskuak, tratamendu horiek higadura sortzen duten eta lurzorua kaltetzen duten kasuetan; beraz, higadura-arrisku nabarmena duten lurretan berariaz kontrolatuko dira baso-ustiapenak.
Zuhaitz-formazio horiek udalerri osoan zehar zabalduta daude, konifero sailen artean, eta, neurri txikiagoan, belardien artean tartekatuta. Deba ibaiaren eskuin ertzeko hegalean gehiago

daude ezker hegalean baino, eta pagadi gehienak Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru natura-intereseko eremuan kokatuta daude.

- Ingurumen-balioa eta ekoizpen-balioa duten basoak

Ingurumen-unitate honetan, autoktonoak ez diren espezieetako baso- eta zuhaitz-formazioak sartu dira, homogeneo samarrak eta, oro har, espezie bakarrekoak, bereziki zura lortzera zuzendutako ekoizpen-balioak dituztenak. Zura ekoizten duten espezieen artean, hauek dira lurralde honetan nagusi direnak: pinu beltza, *Pinus radiata*, eta pinu zuria, *Larix kaempferi*; eta horiez gain, Lawson altzifrea, *Chamaecyparis lawsoniana,* izei gorria, *Picea abies*, eta larizio pinua, *Pinus nigra*.

Ustiapen-iraunkorreko teknikak eta arauak garatzen ez badira (higadura sortuko ez duten eta lurra kaltetuko ez duten garbitasun-tratamenduak eta biomasa lortzeko tratamenduak...), landaketen bidez zura ekoizteko sistemak lurzorua galtzeko arriskua dakar berarekin (higadura), bereziki aztergai dugun lurzoruan, malda handiak baititu. Deba ibaiaren eskuinaldeko nahiz ezkerraldeko ertzetako hegalek, konifero horiek kokatuta dauden lurrek, % 30tik gorako malda dute. Ingurumen-unitate honekin lotutako beste arrisku bat suteen arriskua da.

Ekoizpen-sistema horren ondorioz sortzen den paisaia monotonoa da, eta, beraz, lehentasuna du lurralde honetako landaredi potentzialari lotutako espezie autoktonoekin barietatea bilatzeak; horrela, paisaia askotarikotzea, biomasaren ekoizpena moteltzea eta, ondorioz, higadura-arriskua txikitzea lortuko da, eta inguru horietako habitat eskasa aberasteko da. Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru natura-intereseko eremuaren zati garrantzitsu batean mota honetako baso-formazioak daudela azpimarratzen da; gainera, Elosua-Plazentzia Estazio Megalitikoarekin lotutako kultura-intereseko hainbat elementu dituen lurraldearekin eta paisaia-balioa duten guneekin (batez ere gailurren lerroa eta hurbileneko ingurua) bat egiten du, korridore ekologikoa izateaz gain (Izarraizko espazioak eta nukleoak Aizkorri-Aratzekoekin lotzen dituen elementua da Gorostiagarekin batera, eta baita eskualdeko R-9 korridore ekologikoaren zati ere, Soraluze-Placencia las Armasko ekialdean).

Udalerriaren zati garrantzitsu bat, udalerriaren erdia baino gehiago, ingurumen-unitate honetan sartuta dago gaur egun, eta baita Irure auzoko lurralde zabala ere; lurralde horretan, duela hilabete batzuk zuhaitzak bota zituzten, eta, orain dela gutxi, azkar hazten diren espezieekin basotu da, horrela, azken hamarkadetan izan duen erabilerari eutsiz.

- Sastraka eta larrez osatutako mosaikoa.

Txilardien eta otadien sastrakek (*Ulex gallii*, *Ulex europaeus*, *Erica vagans, Calluna vulgaris*), eta iratze atlantikoek *(Pteridium aquilinum*), baso azidofiloen ordezko natura-unitate bat osatzen dute, eta horietan, besteak beste, laharrak eta hesilaharrak ere agertu ohi dira. Basogabetuta dauden muinoetako eta mendietako lurrak hartzen dituzte, mozketengatik, suarengatik edota beste arrazoi batzuengatik baso-sailak suntsituta eta basotu gabe gelditzen direnean (matarrasean soildutako basoetan oso erraz garatzen dira); lur horiek gero abereek okupatzen dituzte (abeltzaintza estentsiboa), hain zuzen. Formazio horiekin batera eta elkarerkin mosaiko bat osatuz, larre mesofiloak dituzten eremu batzuk ageri dira; horietan, bertan behera utzitako lurrak, gutxi zaindutako larreak eta soilguneak inbadituz, albitza (*Brachypodium pinnatum)* da nagusi, Bromion espezieari atxikitako komunitatea.

Jatorri antropikoko ingurumen-unitate honek interes komunitarioa duten hainbat habitat biltzen ditu, besteak beste: *larre lehor erdi-naturalak*, EU 6210 kodea, eta *txilardi lehor europarrak*, EU 4030 kodea; horietan, *Erica, Calluna*, *Ulex* eta *Cistus* deritzen espezieak dira nagusi. Ote zuria

(*Ulex europaeus*) da, hain zuzen, udalerrian presentzia handiena duena. Habitat horiek sare formako egitura dute, eta faunari babesa eta elikagaia eskaintzen dizkieten ingurune bereziak dituzte; aldi berean, lotura-eremuak ere badira espezie askorentzat. Lurzoruetan atxikipena hobetzen (CO^2 finkatzen dute) eta higadura kontrolatzen ere laguntzen dute, baina malda handiko eta ertaineko inguruetan kokatuta daudenez, horietan larreak hobetzeko egin daitezkeen jarduketak, sastrakak kentzeak, esaterako, kontrolatu egin behar dira. Sute-arriskua ere horiekin lotuta dago.

Karakate-Irukurutzetaren hegalaren erdi eta goi aldeko inguruetan −Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buruko natura-interesko eremuaren barnean txertatuta daude batzuk− eta Ezozia auzoaren hegalaren behe aldeko inguruetan dago kokatuta unitate hori, eta, puntualki, baita Artegieta inguruan eta Irure auzoaren ondoan ere.

- Belardiak eta lur landuak

Belardietara, eta, neurri txikiagoan, laborantzara eta fruitu-arboletara zuzendutako espazio irekiek osatzen dute unitate hau. Belardiei dagokienez, ia espezie bakarreko formazioak direla esan behar da; landatu, erein, ongarritu eta urtean hainbat aldiz segatzen dira siloratzeko. Belardi horietan, bazkan aritzen dira behiak eta ardiak, eta, neurri txikiagoan, baita zaldiak ere. Belar-formazio horiek orlak, heskaiak eta zuhaitz autoktonoak izan ohi dituzte tartean, ilarak edo baso txikiak osatuz batzuetan; elkargune eta babesgune dira faunarentzat, eta, beraz, interesa du beroriek kontserbatzeak.

Lur landuek azalera txikia hartzen dute; aire libreko baratzeak dira bereziki, eta, puntualki, plastiko azpikoak −berotegiak−; baina bazka-landareak ere badaude. Horiek baserrien inguruetan daude kokatuta, eta horien azalera aldatuz doa denborarekin, belardien onerako edo kalterako. Fruitu-arbolek ere azalera txikia hartzen dute, zabalera handiagoa duen sail batek salbu, eta, belardiekin batera, mosaiko bat osatzen dute.

Belardi gehienak *garaiera txikiko sega-belardi pobreak* dira (Alopecurus pratienses, Sanguisorba officinalis), udalerrian nahiz Gipuzkoako lurraldean ugari diren interes komunitarioko habitatak (UE 6510 kodea), hain zuzen. Egiatan, belardi horien jatorria artifiziala da; gizakiak jatorrizko basoa erre edo moztu ondoren sortzen dira belardi horiek lehenengo etapetan, eta, gero, belarjaleek zeregin garrantzitsua betetzen dute horiek egonkortzeko orduan, lur hori zapaltzen eta ongarritzen baitute.

Ingurumen-unitate hau erabilera-gaitasun moderatua eta are baxua duten lurzoruetan kokatuta dago, maldek, drainatzeek eta propietate kimikoek (gaitasun agrologiko handiagoko lurzoruak dituzten bi eremu soilik identifikatu dira) hainbat muga ezartzen baitituzte. Malden gogortasuna eta duten higadura-arrisku handia kontuan hartuta eta antolamenduko proposamenari begira, gaur egun erabilera horietara zuzenduta dauden eta higadura-arrisku handirik ez duten inguruak hartu dira aintzat, gaur egungo nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenei eutsi ahal izateko asmoz. Inguru horietan, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren garapen iraunkorra sustatuko da, bai eta horiekin bateragarriak diren ekosistemak eta nekazaritza-paisaiak zaintzen eta gordetzen direla bermatzen dutenak ere. Dena den, lurzoruen erabilera zaintzeari arreta berezia eskaini behar zaio oro har, eremu horiek oso hauskorrak baitira, duten kokapen topografikoaren eta sakonera, ur-erreserba eta ugalkortasun txikiaren ondorioz.

Horrez gain, unitate honetako elementu esanguratsuenetako batzuk −heskaiak, esaterako− desagertu diren arren, unitate honek paisaia-balio handia du: kontraste handia egiten du pinudiekin eta ibai nagusiaren igarobideko okupazio antropikoarekin, eta habitat sakabanatu gehien dagoen eremua da (baserriak). Zaindu beharreko paisaia kulturala da, nekazaritza-

inguru atlantikoetako bocage paisaia tipikoa, eta berorren dinamika eta iraunkortasuna abeltzaintzari oso lotuta daude, hein handi batean.

Belardiek eta lur landuek (nekazaritza- eta abeltzaintza-izaerako unitatea) udalerriaren azalera handi bat hartzen dute, batez ere Deba ibaiaren bi ertzetako hegalen erdi aldeko eta behe aldeko eremuak. Ezkerraldean baino eremu handiagoa hartzen dute eskuinaldean, eguzkitsuagoa baita eta baserri gehiago baitaude; eta ezkerraldean, baso-erabilera nagusitzen da.

- Ibilguen eta ibaiertzen sistema (azaleko urak)

Unitate honetan sartzen dira Deba ibaia, udalerritik igarotzen diren ibaiadarren multzoa eta horiei dagokien babes-eremua, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPk (isurialde kantauriarra) ezarritakoarekin bat etorriz. Berorien ingurumen-egoera ez dela berdina hauteman da.

Deba ibaiak, bere bilakaera historikoan *oso arreta gutxirekin* tratatu den ibai horrek, ezinbestekoak ditu ingurumenaren aldetik hobetzeko, leheneratzeko eta berreskuratzeko jarduketak. Ibaiko uren kalitatea, ibaiertzak (oso aldatuta daude eta ia ez dute zuhaitz-estaldurarik) eta ibaiaren morfologia (estaldurak, babesa, kanalizazioak) oso hondatuta daude, eta, gainera, inguru batzuk uholde-arriskua dute (Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremua, Deba ibaiak udalerrian egiten duen ibilbidearen herriguneko tartean; hasierako koordenatuak: X 548099 eta Y 4780009, eta amaierako koordenatuak: X 546993 eta Y 4780790, gutxi gorabehera 1,54 km).

Ibilgu nagusiak baino ingurumen-kalitate hobea dute errekek, batez ere euren erdiko eta goiko tarteetan, behe muturreko tarte asko lurperatuta baitaude. Tarte puntual batzuetan, zuhaixkek eta zuhaitzek elkarrekin batera osatzen duten intereseko landare-espezieen multzo bat ere aurki daiteke (Sagarragan eta Orroagan, batez ere).

Hauxe da irizpide orokorra: uren kontserbazioa sustatzea eta uren kalitatea hobetzea; ibilguak eta ibaiertzak okupatu eta hondatzea ekiditea; ingurumenaren aldetik zenbait tarte leheneratzeko eta berritzeko jarduketak sustatzea, halakorik egin daitekeenean; eta arrisku naturalengatik sor daitezkeen kalteak murriztea.

Faunari dagokionez, aipatzekoa da karramarro autoktonoaren presentzia (*Austropotamobius pallipes*) Sagarraga errekan eta, ziur asko, baita beste erreka batzuetan ere; eta ur-zozoarena (*Cinclus cinclus*) eta martin arrantzalearena (*Alcedo atthis*), Deba ibaiaren ibilguan.

- Landaredi gutxi edo landaredirik ez duten inguruak

Oso unitate homogeneoa da, landaredi gutxi edo landaredirik ez duelako. Eremu horiek hartzen dituzten edota hartu izan dituzten erabilerek larriki hondatu dute lur horien landaredi-estaldura, eta, kasu askotan, gainera, guztiz desagertu da. Honako inguru hauek osatzen dute unitatea: hiri-eremuek, jarduera ekonomikoetarako lurzoruak eta landagune txikiak barne hartuta; azpiegiturek; lur-betetzeek; bertan behera utzita dagoen harrobiak; zabortegiak; landaredi erruderal nitrofiloa duten inguruek; herriko parkeek, eta baita kutsatuta egon litezkeen lurzoruek ere. Eremu horietako batzuk oso degradatuta edota hondatuta daude ingurumenaren aldetik, eta, beraz, horiek ingurumen aldetik hobetzeko eta leheneratzeko jarduketak sustatzea komeni da.

VII.- HAPO-REN ONDORIOAK IKUSKATZEKO PROGRAMA

Planak, plangintza-tresna gisa, errealitatea eraldatzea du xede, eta kudeaketarako borondatea eskatzen du, pixkana gauzatuz eta proposamenak betez helburuak lortzen joan daitezen.

Testuinguru horretan, garrantzitsutzat jotzen da jarraipen- eta kontrol-lana egitea, Soraluze-Placencia de las Armasko IIT honetan hasieran aurreikusi eta aztertutakoaren eta hori gauzatzearen ondoriozko azken emaitzaren artean desbideratze esanguratsurik ez dagoela bermatzeko, batez ere bere garapenean eta berori gauzatzeko jarduketa zehazetan gerta litezkeen ondorio negatibo posibleak zuzenduz. Plana martxan jartzeak ez du eragin behar aurreikusi eta onartutakoa ez den ingurumen-inpaktu esanguratsurik, eta, edozein kasutan, arindu eta zeinu positibokoak indartu behar ditu.

Azterlan honetan zehar aipatu denez, plana tresna dinamikoa da; plangintza-prozesu ororen berezko ziurgabetasunean bilduta dago, eta inpaktuen ebaluazioa haren ondorioak ezagutu baino lehen egiten da. Horregatik, proiektu eta obren faseetan, IIT honi aurre egiteko orduan erabili diren iraunkortasun-irizpide berekin lan egin beharko da, xehetasunen eta zehaztasunen ikuspuntutik, eta neurriak, kontrol-helburuak edota adierazleak informazio frogagarri horretara egokitu beharko dira.

Haren helburua, azken batean, plana indarrean dagoen denboran eta ingurumen- eta iraunkortasun-ikuspegitik, planeko hirigintza-proposamenen zorroztasun eta betetze maila gainbegiratzea da, alde batetik, eta ingurumen-ebaluazioaren emaitzen zorroztasun eta betetze maila gainbegiratzea, bestetik.

VII.1.- Kontrol-xedeak

Planak lurraldean proposatu dituen jarduketa guztiak kontrolatu behar ditu Ingurumena Zaintzeko Programak eta, berariaz, planean aldaketa bat eragin dezakeen edozein lan edo esku-hartze ekar dezaketen jarduketak. Besteak beste, hauek aipatu behar dira:

- Lurralde osoko aberastasun naturala babestea eta kontserbatzea eta, bereziki, deskribatutako ingurumen-eremu eta -balioak (lurzorua, airea, landaredia, fauna, ura, ibilguak, ibaiertzak, paisaia, biztanleria, jarduera ekonomikoa, interes kulturaleko ondasunak, etab.).

- Lurraldearen ingurumen-kalitatea kontserbatzea eta hobetzea, planak eragina izan aurretik ingurumen-ikuspegitik degradatutako edo hondatutako balioak eta eremuak leheneratzeko eta hobetzeko interes berezia jarrita (kutsatuta egon litekeen lurzorua, hondatutako ibaiertzak, inguruko zarata, arkitektura- eta komunikazio-oztopoak, harrobia, zabortegiak, landare inbaditzaileak, etab.). Era berean, interes berezia jarriko da biztanleen bizi-kalitatean eragina izango duten proposamenak gauzatzeko ere (plaza publiko berriak, ibaiertzeko pasealekuak, ibilgailuen eta oinezkoen irisgarritasuna hobetzea, zubi eta igarobide berrien bidez hirigunean iragazkortasuna hobetzea, etab.).

- Ingurumen-arriskuak kontrolatzea, bereziki: hiriguneko uholde-arriskua eta zarata-arriskua; hegaletako higadura-arriskuak; hilerri berriko arrisku hidrogeologikoa; kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen arriskua; eta hondakinak sortzeko arriskua.

- Pertsonak kaleratzean eta horren ondorioz industria-enpresak hustean, hori aurrez kontrolatzea.

- Berariaz, modu berezian gainbegiratuko dira landa-lurzoruaren antolamendu-proposamenak, baliabide naturalak babesteko eta kontserbatzeko eta berorren garapen iraunkorra indartzeko eta sustatzeko.

- Plan honen egikaritzapen eta garapen egokia kontrolatzea; beraz, plangintzaren baldintza tekniko guztietan, neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak eta IIT honetako ingurumena zaintzeko programa jasoko dira. Berariaz azpimarratuko dira, duten garrantziagatik, bizitegi-izaeraren, jarduera ekonomikoaren, ekipamenduaren, zerbitzuen eta bereziki hiriguneko mugikortasunaren eta irisgarritasunaren garapenerako antolamendu-proposamenak nahiz landa-lurzoruaren antolamendu-proposamenak. Proposamen horiek ezinbestekoa eta horren urria den ondasunaren, hots, etxebizitzaren eskaintza hobetzen dute, garapen ekonomikoari eusten diote eta berori sendotzen dute, lurraldeko irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzen dute, eta, oro har, ingurumena zaintzen laguntzen dute, biztanleriaren dinamikan eta egituran, herritarren bizi-kalitatearen eta ongizatearen hobekuntzan, Deba ibaiaren inguruaren hurbilketan eta gozamenean, eta soraluzetarrentzako eta bisitarientzako lurraldeak izan dezakeen proiekzioan eragiten dituzten ondorio guztiak gutxietsi gabe.

- Prebentzio, zuzenketa eta konpentsazioko neurriak hartzen direla bermatzea eta, aldi berean, euren eraginkortasuna egiaztatzea. Eraginkortasuna behar adinakoa ez bada, kausak zehaztu eta neurri espezifiko eta zuzenak ezartzea.

- Garapen-planetan, proiektuetan edota lanetan jarduketak kontrolatzea, prebentziozko neurriak eta neurri zuzentzaileak betearazteko, hirigintzako arauekin bat etorriz.

- IIT honetan aurreikusi ez diren inpaktuak hautematea, eta horiek murrizteko, ezeztatzeko edo konpentsatzeko hartu beharreko neurri egokiak aurreikustea.

- Ondorioen izaeran (lanaren une honetan, horietako asko probableak direla balioetsi da) nahiz proposamenen garapenean eta, bereziki, oso bateragarriak ez direnetan edota eragin ezezagunak izan ditzakeenetan dagoen ziurgabetasun maila kontrolatzea.

Obrako edo eraikuntzako fasean, ingurumen-kontrola egingo da, eta, aldian behin, dagozkien txostenak egingo dira horretarako zehaztutako epeetan; obran bertan egindako ikuskapenetan behatutakoa jasoko da beroreitan. Txosten horietan, hartu diren prebentziozko neurriak eta neurri zuzentzaileak edota konpentsatzaileak idatziko dira, bai eta planean jasota dagoenarekiko aldaketarik egon den ere; halber, izandako arrakasta maila edota agertu diren arazoak ere jasoko dira idatziz. Horiek gauzatzerakoan izandako edozein gorabeherak erregistratuta gelditu behar du (isuriak, lur-jauziak, igorpenak, landaredian edo beste ingurumen-balio batzuetan sortutako eraginak, etab.). Obra amaitutakoan, bukaerako txosten bat egin beharko da, eta txosten horretan, kontrol-jarraipenaren barneko hainbat alderdi (arrisku posibleak, landatutako aleak, erain direnak, etab.) eta erabilera- edo ustiapen-fasean egingo direnak azpimarratuko dira. Azken fase horretan, aldian behingo azterketak egingo dira, inguruaren egoera ona egiaztatzeko eta inpaktu berririk ez dela agertu begiratzeko.

VII.2.- Jarraipena

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 51. artikuluaren eta plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuko 16. artikuluaren arabera, honako hauek dira ingurumen-jarraipena egiteko ardura duten erakundeak:

- Plan honen sustatzaileak, hau da, hiribildu honetako Udalak, bi urtetik behin igorriko dizkio Ingurumen Organoari ingurumen-adierazpen estrategikoa edo ingurumen-txosten estrategikoa betetzeari buruzko jarraipen-txostenak Plana egikaritzen den denboran.

Txosten horiek egiteko, Udalak dagokien erakundeetan bilduko dituzte eskura dituzten datuak, bikoiztasunak saiheste aldera. Hala, lehendik dauden jarraipen-mekanismoak erabili ahal izango dira. Zentzu horretan, hainbat erakundek honako alderdi hauei buruz gaitutakoak aipa daitezke, besteak beste:

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila airearen kalitatea ebaluatzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila kontsumo publikoko uren kalitatea ebaluatzeko.
- Uraren Euskal Agentzia (URA) uraren kalitatea eta ibilguen egoera kontrolatzeko.
- Debabarrenako Mankomunitatea hiri-hondakinen eta antzekoen kudeaketarako.
- Udala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumenaren eta Obra Hidraulikoen eta Mugikortasunaren eta Lurralde Antolamenduaren Departamentua eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila hirigintza- eta ingurumen-legezkotasuna babesteko.

Bi urtez behingo txosten horiek honako hauek jaso behar dituzte batik bat:

- Izapidetutako eta izapidetzen ari diren jarduketak.

- Egikaritzen ari diren jarduketak, aintzat hartu beharreko obra bakoitzaren ingurumen-baldintzatzaileei modu berezian erreparatuz, gehitutako prebentziozko neurri eta neurri zuzentzaile nagusiak, horien eraginkortasuna, neurri gehiago hartu beharrik izan den eta aurreikusi ez ziren eta prebentziozko beste neurri batzuk edo beste neurri zuzentzaile edo konpentsatzaile batzuk hartzea eragin duten inpaktuak (negatiboak eta/edo positiboak) detektatu diren adieraziz.

- Egikaritutako ingurumen-arloko neurriak (lehendik dauden ingurumen-elementuak babestea, ondare-elementuak barne, baleude, gasak eta partikulak atmosferara isurtzea, soinu-mailak, hautsaren presentzia esanguratsua, higadura-prozesuak, lur-mugimenduak, hegal-ezegonkortasunak, hondakinen kudeaketa, isurketak, landare-lurra kentzea-pilatzea-berrerabiltzea, paisaian txertatzea, etab.).

- Egindako kontrolen laburpena.

- Erregistratutako gorabehera nagusiak (isuriak, lur-jausiak, igorpenak, landaredian edo beste ingurumen-balio batzuetan sortutako eraginak, etab.) eta beste neurri babesle eta/edo zuzentzaile batzuk ezartzea.

- Planaren egikaritze-mailaren eta ingurumen-ikuspegitik handik ateratzen den guztiaren balantzea, hala badagokio, Planaren epemugan desbideratzeak edo aurkako egoerak birbideratzeko aukera emango diona.

- Balio ekologiko handieneko eremuen eta baliabide naturalen kontserbazio-egoera orokorraren balantzea.

- Aurreikusitako ingurumen-adierazleen jarraipenera hurbiltzea.

- Beste plan batzuek HAPOren ingurumen-helburuen gainean izan ditzaketen ondorio kaltegarriak eta horien izapidetze-egoera kontuan hartzea.

Txosten global horiek agerian utziko dute Planak ingurumen- eta jasangarritasun-helburuak betetzeko duen benetako gaitasuna eta, horrela ez bada, aukera emango du, ahal den heinean, Planaren kontrakoak diren eta/edo Planarekin bat ez datozen egoerak bere epemugan birbideratzeko.

Gainera, Udal Zerbitzuek zuzenean egiaztatu beharko dute garapen-planek (plan bereziek), hirigintzako jarduketa-programek, proiektuek (urbanizaziokoek eta obrakoek) eta xehetasun-azterketek eta honako hauek betetzen dituztela:

- HAPOk ezarritako ingurumen-baldintzatzaileak.

- IJTean aurreikusitako prebentziozko neurriak, neurri zuzentzaileak eta/edo konpentsatzaileak txertatzea, orokorrak nahiz espezifikoak.

- Jarraipen Programa txertatzea.

Garapen-tresna bakoitzerako (Plan Bereziak -esaterako, Amillaga eta Olaldea eremuetako garapenak-, Programak -esaterako, Amillaga, Cañones eta Olaldea eremuetako garapenak-, Proiektuak -esaterako, Mendizabal biribilguneari eta zubi eta pasabide berriei dagozkienak-), hirigintza- edo ingurumen-izapidetzearen esparruan edo obra- eta instalazio-lizentzia eman aurreko esparruan, kasu bakoitzaren arabera, jarraipen-txosten bat egingo da eta, txosten horretan, ingurumen-baldintzatzaileak betetzen diren edo ez adieraziko da eta, Planak edo Proiektuak aldaketaren bat izango balu izapidetzen ari den bitartean, beste txosten bat egingo da.

Hirigintza- eta eraikuntza-obren ingurumen-zaintzaren kasuan, IJTean, Ingurumen Memorian eta, hala badagokio, garapen-tresna edo -proiektu bakoitzaren ingurumen-baldintzatzaileetan zehaztutako neurri babesleak, zuzentzaileak eta/edo konpentsatzaileak aplikatzen direla egiaztatuko da, bai eta neurri horien eraginkortasun-maila ere. Jarraipen-txostenak obren iraupen-epeetara egokituko dira, hiru hilean behingo kontrolen eta obrak amaitu aurreko txostenaren kalterik gabe. Neurri zuzentzaile eta/edo babesleen aldaketak edo ez-betetzeak ikusten badira, gertatutakoa jasotzen duen txostena egingo da eta horren arabera jokatuko da. Halaber, obren edozein unetan aurreikusitakoak baino inpaktu handiagoak sortzen badira, beste txosten bat egin beharko da. Eta obra amaitu eta eremua ikuskatu ondoren, azken txostena egingo da. Txostenean hainbat ingurumen-aldagairen (arrisku posibleak, landatutako aleak, egindako ereintzak, etab.) kontrola egiteko alderdiei erreparatuko zaie eta erabilera- edo ustiapen-faseko kontrol-periodikotasuna adieraziko da eremuaren egoera ona eta denborak aurrera egin ahala inpaktu berririk ez dela izan egiaztatzeko.

Udalak, HAPOren sustatzaile gisa, Planaren garapen-jarduketen ingurumen-jarraipena egiteko erantzukizuna duen arren, haien sustatzaileei dagokie hartutako neurriak betearaztea, hirigintza- eta ingurumen-kontrolaren arloan Udalak dituen eskumenen kalterik gabe.

Testuinguru horretan, bikoiztasunak ekiditeko helburuarekin eta, baldin eta udala ziur badago kontrolatu beharreko ingurumen-aldagaiei buruzko informazioa fidagarria dela, kontrol zuzenen ordez jarduketa bakoitzaren sustatzaileak egindakoak edo arloan eskumenak dituzten erakundeek egindakoak kontuan hartu ahal izango dira.

Udalari dagozkion jarraipen- eta gainbegiratze-zereginak Udal Zerbitzu Teknikoek hartuko dituzte beraien eguneroko jardunean.

Hala, gainbegiratze-programa udal-aurrekontuaren barruan egin ahal izango da, a priori aparteko beste inbertsiorik aurreikusi gabe eta beste erakunde batzuei eta, bereziki, organo nagusiari eta ingurumen-organoari dagokienaren kalterik gabe.

VII.3.- Ingurumen-adierazleak

Plan honek honako xede hau ere badu: ingurumena babesteko helburuak eta garapen iraunkorraren helburua udalerrian txertatzeko konpromisoa neurtzeko, ondoren zehaztutako ingurumen-adierazleak erabiltzea.

Planak ingurumenean izan ditzakeen eraginak ezagutzeko erabilitako estrategia berean oinarritzen da jarraipen-planteamendua, eta beraz, funtsezkotzat jotzen da adierazleak erabiltzea; baina bada desberdintasun bat: IIT honetako eraginak edo inpaktuak ebaluatzeko erabilitakoak aurreikusitako balioetan oinarritzen dira, aurrera begira lortutako balioetan; eta eraginen jarraipenean egindako neurketa guztiak, berriz, benetako balioetan oinarritzen dira.

Planaren eraginen jarraipena egiterakoan adierazleak erabiltzeak neurri zehatz eta jakin batzuk hartzeko aukera ematen du, datuen edo emaitzen interpretazioak gomendatzen duen heinean, eta planaren ingurumen-, hirigintza- eta iraunkortasun-helburuak betetzen direla ziurtatzeko aukera ere ematen du. Horretarako, ahal den neurrian, ingurumen-ebaluazioa egiterakoan inpaktuak identifikatu eta balioetsi direnean erabilitakoetatik hurbil dagoen adierazle-sistema bat erabiltzen saiatu gara, eta planaren helbururen bat neurtzeko praktikoak izan daitezkeen beste adierazle batzuk ere erabili dira, lortzeko eta kontrolatzeko nahiko errazak direnak.

Iraunkortasunarekin lotutako adierazleek alderdi soziala eta ekonomikoa nahiz ingurumen-alderdia hartzen dituzte, Iraunkortasuna lortzeko Europako Hirien Gutunean (Alborgeko Gutuna) ezarritako iraunkortasunaren printzipio gidariak kontuan hartuz. Adierazle horiek, alde batetik, planak berak neurtu ahal izango ditu, planaren aurreko, planaren garapeneko eta amaierako errealitatea konparatzeko, eta, bestetik, baita udalerri honetako Tokiko Agenda 21eko prozesuek ere, jarraipen- eta kontrol- adierazleak direlako.

Adierazle horiek kalkulatzeko, modu bereziak daude: aldagai kuantitatiboa, aldagai kualitatiboa, aldagai baten funtzioa edo aldagaia, bere horretan.

Hiriguneko ingurumen-kalitatea (HIK).

- HIK1. Airearen kalitatea hirigunean, HAPOren aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: Eustat.
Airearen kalitate-mailen mapa, udalerrika kalkulatuta. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.
2017. urtea (otsailak 1): kalkulatutako eguneko balioak: NO^2-renak 53.04 µg/m3 eta PM10-renak 15.55 µg/m3, hau da, aire-kalitate ona eta oso ona.

- HIK2. Soinu-kalitatea (%).213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoak, ezarritako kalitate-helburuak baino soinu maila handiagoa jasaten duen biztanle kopurua. Iturria: udala, HAPOren azterketa akustikoa oinarri hartuta.

- HIK3. Inpaktu akustikoa murrizteko jarduketa kopurua edo prebentziozko neurrien edota neurri aringarrien kopurua (oztopo akustikoak, zarata murrizteko zoladurak, bakarlekuak, erabileren kontrola, etab.), HAPO amaitutakoan. Iturria: udala.

- HIK4. Sistema orokorren maila duten titularitate publikoko espazio libreen azalera guztira (parkeak eta berdeguneak) biztanleekiko (m²/biz), HAPO aurretik (5,65 m²/biz.) eta berori amaitu ondoren (6,62 m²/biz. aurreikusten da, planaren denbora-mugan).

Uren kalitatea (UK)

- UK1. Deba ibaiko uren kalitatea, EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipen-sarearen adierazleak oinarri hartuta, plana garatu aurretik eta ondoren.
  Iturria: EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipen-sarea. Urteko emaitzen txostena. Uraren Euskal Agentzia (URA). Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

  2015. urtea. Deba-C, DEB348 Estazioko masaren potentzial ekologikoaren diagnostikoaren laburpena.

ADIERAZLEAK	2011	2015
Makroornogabeak	Ona	Oso ona
Fitobentoak	Ona	Ona
Arrain-fauna	Eskasa	Eskasa
Egoera biologikoa	**Moderatua**	**Moderatua**
Fisikokimikoa	< Ona	Ona
Hidromorfologia	< Oso ona	< Oso ona
Potentzial ekologikoa	**Moderatua**	**Moderatua**

- UK2. Udalerriko ur-eskaria guztira (altako hornidura), biztanleko eta eguneko (l/biztanle/egun), planaren aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: Eustat.
  2015. urtean, 149,99 l/biztanle/egun.

- UK3. Banaketa sareko galerak, uraren eskari osoaren ehuneko gisa (eskari osoaren gaineko %). Iturria: udala.

- UK4. Ingurumen Baimen Bateratua duten enpresa kopurua, planaren aurretik eta plana amaitu ondoren. Iturria: Eusko Jaurlaritza.
  2013an, Galvanizados Arrate S.A. enpresa dago.

- UK5. Kontsumoko uraren osasun-kalifikazioa. Iturria: Osakidetza.
  2015. urtean, aski ona da (3 balioa).

Lurzoruaren erabilera iraunkorra (LEI)

- LEI1. Lurzoruaren artifizializazioaren intentsitatea (%).Bizitegi-erabilerek, jarduera ekonomikoek, azpiegiturek eta ekipamenduek hartzen duten azalera, udalerria guztira hartuta, HAPO aurretik eta amaitu ondoren. Iturria: udala. Artifizializatutako lurzorua (hirigunea) 398.333 m^2-koa da, eta planaren denbora-mugan, 376.514 m^2-ra murriztuko dela aurreikusten da (% 5 baino gehiago murriztuko da).

- LEI2. Lurzoruaren erabileraren intentsitatea, biztanleko dagoen bizitegi-izaerako lurzoruaren arabera, HAPO aurretik eta amaitu ondoren. Iturria: udala. Hektarea bakoitzeko 290 biztanle inguruko zifra proposatzen da aurrera begira; beraz, dentsitate altua da, baina bidezkoa eta egokia.

Biodibertsitatea (BI)

- BI1. Lurzoru hiritarrezinean babes bereziko gisa kalifikatuta dagoen lurzorua (%), HAPO aurretik eta berori onartu ondoren. Gaur egun, berariaz babes berezia duen azalerak 210 hektarea ditu xede, eta planean, babes berezi hori gaur egungo azaleraren bikoitza baino handiagoa izango den azalerara zabaltzea aurreikusten da: 450 hektarea.

- BI2. Zuhaitz autoktonoen baso-azaleraren eta espezie aloktonoen baso-sailei dagokienaren arteko lotura, HAPO aurretik eta amaitu ondoren.
2013. urtean, zuhaitz-azalera guztiaren % 22,7 espezie autoktonoei zegokien, eta gainerako % 77,3 koniferoei.

Baliabideak (Energia) (BE)

- BE1. Instalatutako potentzia fotovoltaikoa (Kw 10.000 biztanleko), HAPOren aurretik, HAPO gauzatu bitartean eta HAPO amaitu ondoren. Iturria: udala.
2015. urtean: 57,81

- BE2. Instalatutako potentzia eolikoa (Kw 10.000 biztanleko), HAPOren aurretik, HAPO gauzatu bitartean eta HAPO amaitu ondoren. Iturria: udala.
2015. urtean: 1,01

- BE3. Instalatutako potentzia hidraulikoa (Kw 10.000 biztanleko), HAPOren aurretik, HAPO gauzatu bitartean eta HAPO amaitu ondoren. Iturria: udala.
2015. urtean: 1014,20

- BE4. Instalatutako eguzki-azalera termikoa (m2 10.000 biztanleko), HAPOren aurretik, HAPO gauzatu bitartean eta HAPO amaitu ondoren. Iturria: udala.
2015. urtean: 8,36

- BE5. Udalerriko energia-kontsumoaren ehunekoa (%), energia berriztagarriei dagokiena, HAPO aurretik, bitartean eta amaitu ondoren. Iturria: udala.

- BE6. Energia-eraginkortasunaren egiaztagiria duten eraikinen edota eraikin-unitateen kopurua, HAPO aurretik eta amaitu ondoren. Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritza.
2013. urtean, ez zegoen bat ere.

- BE7. Bideak eta udal-instalazioak argiztatzeari dagokionez, udalerriaren elektrizitate-kontsumoa (kwh/urte), HAPO aurretik, bitartean eta berori amaitu ondoren. Iturria: udala.

- BE8. Udalerriaren urteko elektrizitate-kontsumoa (kwh/biztanle), HAPO aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: Eustat.
2015. urtean, biztanleko 5.128,53 kwh-koa zen.

- BE9. Urteko elektrizitate-kontsumo ez-industriala (kwh/biztanle), HAPO aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: Eustat.
2015. urtean, biztanleko 1.880,77 kwh-koa zen.

- BE10. Udalerriaren urteko elektrizitate-kontsumoa (kwh/biztanle), HAPO aurretik, eta bitartean eta amaitu ondoren. Iturria: Eustat.
2015. urtean, biztanleko 3.247,76 kwh-koa zen.

Hondakinak (HO)

- HO1. Sortzen diren hiri-hondakinak (kg/biz/egun), HAPO aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: Debabarrenako mankomunitatea.
2009. urtean, urteko eta biztanleko 385,64 kg-koa zen.

- HO2. Gaikako bilketaren ehunekoa (%), HAPOren aurretik, HAPO gauzatu bitartean eta HAPO amaitu ondoren. Iturria: Debabarrenako mankomunitatea.
2014an % 36,51koa zen.

Arriskuak (AR)

- AR1. Hegal-mugimenduen kopurua (lerratzeak, lur-jauziak, etab.) eta horien egonkortasuna kontrolatzeko esku-hartzeak, HAPOren garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: udala.

- AR2. Kutsatuta egon daitekeen lurzorua (areak) HAPOren aurretik, eta HAPO amaitu ondoren berreskuratu edota ikertu direnen ehunekoa (%).Iturria: udala.
2013. urtean, lurzoru horiek 125.388,3 areako azalera dute.

- AR3. Uholde-arriskua duten hiri-erabilerako udalerriko lurren azalera (m²), HAPO aurretik eta berori amaitu ondoren. Emandako IV.4. planoarekin, abiapuntuko egoerari dagokionarekin, alderatuta, 500 urteko birgertatze-aldirako planak hirigunean uholde-orbana nabarmen murrizteko aukera emango lukeela ikusten da.

Biztanleria (BIZ)

- BIZ1. Biztanleriaren hazkunde-tasa (%), HAPO aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: IZFE eta INE.
  2011-2016 epean, urteko % -0,66koa izan da.

- BIZ2. Hazkunde begetatiboaren tasa (‰), HAPO aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: Eustat eta IZFE.
  2015. urtean, ‰ -1,27koa izan zen, eta 2013. urtean, ‰ -1,8ekoa.

- BIZ3. Migrazio-saldoa (pertsona kopurua), HAPO aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: Eustat eta IZFE.
  2001-20012 epean, urteko 10,1 pertsonakoa izan da, eta, epe berean, urteko -22,6 pertsonakoa izan da barneko migrazio-saldoa.
  2015ean, -12 pertsonakoa izan zen, eta barneko migrazio-saldoa -66 pertsonakoa izan zen.

- BIZ4. Zahartze-indizea (%), HAPO aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: IZFE.
  2015. urtean, % 166,4koa izan da.

- BIZ5. Espainiatik kanpo jaiotako biztanleria (%), planaren aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: udala.
  2016. urtean, biztanleria osoaren % 9,43 da.

Ekonomia (E)

- E6. Langabezia-tasa (%), planaren aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: Lanbide.
  2017ko urtarrilan, langabezia-tasa % 16,3koa dan; % 15,3 gizonezkoetan, eta % 17,5 emakumezkoetan.

- E7. Mikroenpresen ehunekoa (0-9 enplegu), enpresa guztiekiko eta horiek sortzen duten enplegu endogenoarekiko (%), HAPO aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: Eustat.
  2015. urtean, enpresa guztien % 90,4ek 10 langile baino gutxiago zituzten, eta enplegu endogenoaren % 40,7 sortzen zuten.

- E8. Industria-establezimenduen batez besteko tamaina (enplegua/industria-establezimendua), HAPO aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: Eustat.
  2015. urtean, industria-establezimenduko 12,1 enplegukoa zen.

- E9. Udalerriko BPGd biztanle bakoitzeko (euro), HAPO aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: Eustat.
  2013. urtean, 21.939 eurokoa zen.

- E10. Oinarrizko Errenta jasotzen duten bizikidetza-unitateak (biztanleen ‰), HAPOren aurretik, garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: Eustat.
  2015. urtean, ‰ 33,2koa zen.

Mugikortasuna eta irisgarritasuna (MI)

- MI1. Bizikleta-bide egituratzailearen edota orokorraren luzera, bidegorriena (km), HAPO aurretik eta amaitu ondoren. Iturria: Udalmap (Eusko Jaurlaritza) eta udala. Gaur egungo ibilbideak 1.700 m inguru ditu, eta 3.400 m gehiago luzatzea aurreikusten da (% 200).

- MI2. Oinezkoen bide egituratzailearen edota orokorraren luzera (m edo km), HAPOren garapena amaitu ondoren. Iturria: udala.

- MI3. Hirigintzako arkitektura-oztopoak, oztopo naturalak edota beste edozein izaeratako oztopoak kentzeko edo gutxitzeko jarduketen kopurua, HAPOren garapena amaitu ondoren. Iturria: udala.

- *Interes kulturaleko elementuak* (IKE)

- IKE1. Alde zaharrean eraikinak edota etxebizitzak leheneratzeko lizentzia kopurua, HAPOren garapenean eta amaitu ondoren. Iturria: udala.

- IKE2. Interes kulturaleko elementuak edo ondare historikoko elementuak leheneratzeko, birgaitzeko edota berritzeko jarduketen kopurua, HAPOren garapena amaitu ondoren. Iturria: udala.

VIII.- INGURUMENEAN IZAN DITZAKEEN ERAGIN ESANGURATSUAK

VIII.1.- PLANEKO PROPOSAMENEN ETA JARDUKETEN ERAGIN ESANGURATSUAK IDENTIFIKATZEKO ETA BALIOESTEKO INGURUMEN-IRIZPIDEAK

Inpaktu hitza gizakiaren ekintzaren ondorioz ingurua aldatzearekin lotzen da, eta ingurumen-faktoreetako batean edo aldatutako faktorearen balioan edota ingurumen-sisteman gertatzen den aldaketa baten bidez adierazten da.

Ingurumen-faktore baten gainean jarduera baten ekintzak duen eraginak identifikatzen du ingurumen-inpaktua, eta bi elementu horiek, hots, ekintzak eta faktoreak, esplizituak izan behar dute. Inpaktua jasan dezaketen ingurune-faktoretzat planak modu esanguratsuan eragin diezaiekeen inguruneko elementuak, ezaugarriak eta prozesuak hartzen dira. Ekintzaren kasuan, ingurumen-inpaktu bat definitzen duen kausa-efektu erlazioan esku hartzen duen alderdi aktiboa izango litzateke.

Aldaketa-eragile bategatik eragina jasango lukeen edo jasan ahal izango lukeen inguruneko elementua da ingurumen-adierazlea, eta berorri esker, plan edo proiektu zehatz baten ondorioz gertatzen diren eraldaketa kopurua balioets daiteke. Horregatik, ingurumen-inpaktuaren adierazlea *"ingurumen-inpaktu baten adierazpen neurgarri"* gisa definituko litzateke.

Planari atxikitako inpaktuak delako lurralde horren okupazioarekin eta eraldaketarekin lotuta daude zuzen-zuzenean, eta eraginak gero eta garrantzitsuagoak izango dira, okupazio hori lurralde horrek duen harrera-gaitasunetik aldentzen doan heinean. Baina plan honen eraginak ez dira soilik negatiboak, lurraldean eragin positiboak izango dituzten jarduketak ere proposatuko dira, eta horiek biztanleen bizi-kalitatean eta, bereziki, ingurumenaren kalitatean eragingo dute.

Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txosten honek −IIT− helburu duen lurraldea Soraluze-Placencia las Armasko udalerria da, eta, zehazki, bizitegien antolamendurako proposamenen, jarduera ekonomikoen, ekipamenduen eta zerbitzuen, mugikortasunaren, irisgarritasunaren eta landa-lurzoruaren eta Deba ibaiaren antolamenduaren proposamenen bidez planak modu zuzenagoan eragiten dieten eremuak.

IIT honetako atal hau lantzeko, ingurumen-faktore eta -adierazle batzuk identifikatu dira aurrez, garapen-proposamenak dituzten eremuek jasango duten aldaketaren neurria eta eragina balioesteko, ekosistemako elementu bakoitza kontuan hartuta. Aipatutako adierazle horiek aukeratzea ez da lan erraza izan, eremu bakoitzean bat egiten duten askotariko ziurgabetasun-iturriengatik, eta, batez ere, plangintzaren maila honetan dagoen informazio eta zehaztasun mailagatik (berorren eraginaren ebaluazioa, behin betiko onarpenaren fasearen, eta, jakina, proiektuaren fasearen aurretiazko informazioa oinarri hartuta); alderdi horrek eragina izan du, baita ere, inpaktuaren izaera balioesteko eta berori kalifikatzeko orduan. Badakigu kasu batzuetan balioespen egokirik ez dugula izango ondorengo faseetara iritsi arte, hots, antolamenduak, mugak, geometriak eta beste alderdi batzuk zehazten diren arte.

Ez da ahaztu behar planen barneko ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoan, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari dagokionez, gerta daitezkeen inpaktu kopuru handienarekin lan egiten dela (askotariko arrisku maila dutenak), eta horien bukaerako neurria ezagutzea sarritan zailagoa dela, lehen aipatutako zehaztapen mailarengatik. Inpaktua gertatuko dela ziurtatzeko ezintasuna dakar horrek, eta baita berorren probabilitatea kalkulatzeko zailtasuna ere –arrisku- eta zalantza-egoerak–. Desberdinak dira biak: lehengo kasuan, kalteak edo onurak dakartzaten gertaera posibleak baina ziurtaezinak

sartzen dira, zehaztasun edo probabilitate handiagoa edo txikiagoa dutenak; eta bigarren kasuan, berriz, ez da ezagutzen efektu posible baten probabilitatea. Proiektuen IIAren kasuan, bereizitako inpaktuak ziurtasun osoz edo probabilitate handiarekin gertatzen dira (ziurtasun-egoerak, arrisku handikoak).

Adierazle eta faktore horiek, modu orokorrean eta lanaren eskala eta une honetan, ingurumenaren eta inguru sozioekonomikoaren gaineko inpaktuak balioesteko aukera eman digute; biak ez daude bereizita, eta kasu batzuetan, baztertu egin da adierazle gehiago sartzea, kaltea garrantzitsua ez dela ulertu delako edo adierazle hori sartzeak bereizitako balioespenik ematen ez duelako eta, gainera, azterlanari argitasuna kentzen diolako.

Esandakoa kontuan hartuta, hauek dira, aztertutako inguruaren ezaugarrien eta garatu beharreko jarduketen arabera, aukeratu diren inpaktu-faktoreak eta -adierazleak:

- Atmosfera. Airearen kalitatea.
- Geologia eta geomorfologia. Interes geologikoa duten eremuak eta guneak; erliebearen formak; higadura-prozesuak eta -arriskuak eta hondakin-sorkuntza.
- Azaleko hidrologia eta hidrogeologia. Ibai-ibilgua; azaleko uraren kalitatea; uholde-arriskua murriztea; eta akuiferoak betetzea eta eraldatzea.
- Lurzorua. Landu gabeko lurzorua galtzea edo suntsitzea (lurzoruaren artifizializazioa); gaitasun agrologiko handiko lurzorua; eta lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruak.
- Landaredia. Landaredia kentzea.
- Fauna. Fauna eta konektibitate ekologikoa.
- Paisaia. Paisaiaren hauskortasuna.
- Biztanleria. Hautsa, eragozpenak eta abar gehitzeak biztanleriarengan duen eragina; eta bizilekuz aldatu beharreko biztanleria.
- Ingurune ekonomikoa. Nekazaritza-sektorea; hustutako industria-enpresak; industria-enpresak birkokatzea.
- Espazio libreak eta zuzkiduretarako espazioak. Espazio librea (plaza); ibaiertzeko espazio publikoa; aisialdirako eta jolaserako espazio publikoa; eta zuzkidura-lurzorua.
- Mugikortasuna, irisgarritasuna eta zerbitzuen azpiegiturak. Aparkalekuak; irisgarritasuna hirigunean; kanpoko sarbideen azpiegitura; eta zerbitzuen azpiegiturak.
- Interes kulturaleko elementuak. Interes kulturaleko ondasunak edota presuntzio arkeologikoko guneak.
- Hirigintza-plangintza. Lurzoruaren hirigintza-sailkapena.

VIII.2.- PROPOSAMENEN INGURUMEN-ERAGINAK ETA BALIOESPENA

Udalerri osoa eta eragina jasan dezaketen eremuen ingurumen-ezaugarriak aztertu eta diagnostikatu ondoren –sakon aztertutako eta hausnartutako lanaren emaitza−, HAPO honek hirigintzako nahiz nekazaritzako erabilerak har ditzaketen eremuetan izan ditzakeen eraginak aztertzera jo da, lurraldean planteatzen dituen proposamenak oinarri hartuta. Horrez gain, lurralde osoaren antolamendu integralerako proposamen bateratua da, iraunkortasun-irizpideak dituena. Eta horiek ebaluatzeko, ingurumen-faktore baten edo batzuen egoera alda dezaketen proposamenak identifikatu dira, eta aldaketa horren izaera zein den eta ingurumen-kalitatean zer inplikazio dituen aztertu da; ondoren, ingurumen-kalitatean gertatuko den aldaketa eta aztertutako eremu horretan eta lurralde osoan izango duen eragina ere balioetsi da.

Azkenik, azpimarratu nahi da ingurumen-eraginak identifikatzeko, kuantifikatzeko, ezaugarritzeko eta balioesteko orduan, abenduaren 9ko 21/2013 Legean, ingurumen-ebaluazioari buruzkoan, definituta dauden kontzeptu teknikoak erabili direla. Helburu

horretarako, horiek negatiboak edo positiboak diren zehaztuko da; ezaugarrien arabera, berriz, zuzenekoak, zeharkakoak, sinpleak, metagarriak, sinergikoak, iraunkorrak, aldi baterakoak, itzulgarriak, itzulezinak, leheneragarriak, leheneraezinak, aldizkakoak, irregularrak, jarraituak eta etenak diren zehaztuko da; eta bateragarri, moderatu, larri eta kritiko gisa balioetsiko dira.

Ondoren, HAPO honen proposamenen ingurumen-eraginak balioetsiko dira, IIT honetako IV. atalean adierazitakoa oinarri hartuta.

1.- Deba ibaiaren antolamendurako proposamenak.

2.- Bizitegi-izaerako lurzoruaren antolamendurako proposamenak.

2.1. Kanoiak.
2.2. Olaldea.
2.3. Txurruka.

3.- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren antolamendurako proposamenak: Amillaga.

4.- Ekipamendu eta zerbitzuetarako lurzoruaren antolamendurako proposamenak.

4.1. Hilerri berria.
4.2. Aisialdiko baratzeak.

5.- Antolamendurako proposamenak mugikortasunaren arloan: Irukurutzetako biribilgunea.

6.- Lurzoruaren antolamendurako beste proposamen batzuk hirigunean:

7.- Beste proposamen orokor batzuk mugikortasunaren eta irisgarritasunaren arloan.

8.- Proposamen orokorrak zerbitzuen azpiegituren arloan.

9.- Landa-lurzoruaren antolamendurako proposamenak.

1.- <u>Deba ibaiaren antolamendurako proposamenak</u>

Elementu horri dagokionez, HAPO honen proposamena ibaia udalerriaren ardatz bihurtzea da, eta hiri-ingurunean eta zehazki hirigunean txertatzea, hiria ibaira "irekiz" biztanleek goza dezaten. Aldi berean, ingurumena hobetzeko jarduketak planteatu dira, inguru hori hondatuta eta aldatuta baitago, eta uholde-arriskua kontrolatzeko jarduketak ere planteatu dira. Horretarako, askotariko irismena duten jarduketak planteatu dira, ibaiko uren kalitatearekin eta ibaiaren ibilbideak berorren ertzetako eraikinekin duen loturarekin, uholde-arriskua murriztearekin eta ibaiertzetako eta ibarretako zenbait tarte leheneratzearekin, birgaitzearekin edota ingurumen aldetik hobetzearekin lotuta. Eta hori guztia domeinu publiko hidraulikoa eta zortasun-eremuak eta polizia-eremuak errespetatuz egingo da, indarrean dagoen legediak eta planek eta kasu bakoitzerako Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak ezarritakoa betez.

Hirigunean ibaia irekitzeko prozesuan, hauek dira garrantzitsuenak: Deba ibaira irekita egongo diren bi plaza berri sortzeko proposamena (Kanoiak eta Olaldea); bi horiekin batera, gaur egungo Erregetxeko aparkalekua ere plaza gisa egokitzea, Plaza Zaharrean jarraipena emanez eta behar den eraisketa egin eta berori ibaira irekiz; ibaiaren bi ertzetan, ibaiertzeko pasealekuei jarraipena ematea (Olaldea, Txurruka, erdiko eremuaren eskuin ertza); eta Olean,

ibaiaren eskuineko ertzean, ibai-parke bat sortzea, udalak jada abian dituen eraiste-lanak amaitu ondoren (eraikin bat soilik falta da eraisteko). Azken espazio horrekin lotuta, Deba ibaiaren ekosistema berreskuratzeko prozesuari garrantzia ematea proposatu da, ibaiko uren kalitatea hobetuz, eta era horretara, gainera, epe ertainera edo luzera, Olearen hego-ekialdera dagoen eremua hirigune ondoko bainu-eremu gisa egokitu ahal izango litzateke, duela urte asko zegoen bezalaxe. Esku-hartze horiek hirigunean espazio libreak antolatzea dute xede, argia eta eguzkia bilatuz, lurraldea laiotza baita berez, udalerria kokatuta dagoen bailaren ezaugarriengatik.

Hirigunean dauden ertzak hobetuko dira, duten egoera ikusita tratamendu zaila badute ere, horretarako aukera ematen duten inguruetan lehendik dauden eraikinak eraitsi eta eraikin berriak ibaiaren ibilgutik atzera eraman ondoren.

Hobekuntza hidraulikorako proposamenek honako hauek biltzen dituzte: ibai-ibilguan bertan bermatuta dauden elementuak eraistea (bi igarobide eta zubi bat), eta horien ordez igarobide berri bat (Atxuritik Santa Anara) eta bi zubi berri (Gabolats eta Baltegieta) egitea, estriburik eta tarteko zutaberik gabe; aldi berean, Igeretako eta Olabarrenako presak beheratzea planteatzen da, jada beheratuta dagoen Oleako presatik beherako uretan, horrek, gainera, arrainen pasabidea errazten baitu eta ibaiaren balio ekologikoa berreskuratzeko neurriak sustatzen baititu.

Ingurumen aldetik hobetzeko, leheneratzeko eta berreskuratzeko proposamenak planteatu dira Deba ibaiak udalerritik igarotzean egiten duen ibilbide osoaren ibarrean eta ertzetan, betiere hori egin daitekeen eremuetan; eta kanalizatu gabeko tarteetan eta arazo hidraulikoak dituztelako esku-hartzea beharrezkoa den tarteetan, orain arte erabili izan direnak baino teknika arinagoak erabiliko dira, horren oldarkorrak ez direnak (ingeniaritza biologikoko teknika bigunak...). Oro har, lehentasuna emango zaio ibaiertzeko espezieak sartzeari eta espezie inbaditzaileak kentzeari, bereziki, berreskuratzeko aukera handiena duten eremuetan, ibaiak udalerritik igarotzean egiten duen ibilbidean ibaiaren gaitasun biologikoa berreskuratzeko estrategia bat ezartzeko asmoz (Uhaska ingurua, adibidez; bertan, hiri-erabilerak ezartzea baztertu da).

Horregatik guztiagatik, HAPOk Deba ibaiaren inguruan izan ditzakeen eragin esanguratsuak POSITIBOTZAT jotzen dira, elementu natural horren hainbat alderditan (ertzak, ibaialdeak, uraren kalitatea, uholdeen arazoa, etab.) modu onuragarrian eragiten baitu. Eraisketa-lan zehatzekin eta obrekin lotuta hiriguneko ingurumenaren kalitateak eta ibaiko uren kalitateak jasan ditzaketen eragin negatibo batzuk ez dira esanguratsutzat hartzen jarduketa multzo honen barnean; dena den, proiektuen eta obren faseetan kontuan hartu beharreko jardunbide egokietarako neurriak proposatuko dira.

2.- <u>Bizitegi-izaerako lurzoruaren antolamendurako proposamenak</u>

2.1. <u>KANOIAK</u>

- <u>ATMOSFERA</u>

<u>Airearen kalitatea.</u> Airearen kalitatea aldatu egingo da obren fasean, partikulen inmisio maila handiagotu egingo baita, eraitsi behar diren eraikinen eta hegalean aparkalekuen eraikina altxatzeko egin behar den indusketaren ondorioz; eta horri ibilgailuen zirkulazioa (kamioiak, makineria, etab.) handitzeak ekarriko dituen kutsatzaileak gehitu behar zaizkio (karbono monoxidoa, nitrogeno oxidoak, anhidrido sulfurosoak, etab.).

Era berean, kokalekuaren ezaugarri topografikoak ez dira sakabanatzearen aldekoak, lurralde hori bailara estu batean kokatuta baitago, mendiz inguratuta.

Horregatik guztiagatik, inpaktua negatiboa, zuzenekoa, metagarria, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Erabilera berriak ezartzeko faseari dagokionez, bereziki bizitegi-izaerako erabilerei, ekipamendu-erabilerei eta aparkaleku-erabilerei dagokienez, gaur egungo egoerarekin alderatuta, ez da balioetsi gehikuntza esanguratsurik izango dutenik.

- GEOLOGIA-GEOMORFOLOGIA.

Interes geologikoa duten eremuak eta guneak. Proposamenak ez dio eragingo interes geologiko ezaguna duen inolako gune edo eremuri, eta, beraz, inpakturik ez dela egongo balioetsi da.

Erliebearen formak. Eremu honen topografiak ez du aldaketa handirik jasango abiapuntuan duenarekin alderatuta. Aparkalekuen eraikin berria altxatzeko behe-hegaleko eremu batek jasango duen eragin txikia aipatu behar da soilik (ebakidura bertikala duen horma); hala ere, ez da pentsatzen eragin esanguratsurik izango duenik, ingurabideak, gaur egungo eraikinak eta udalerrira sartzeko bideak jada eragiten baitiote hegalari.

Higadura-prozesuak eta -arriskuak. San Martzialeko hegalak dagokion horma bertikala egiterakoan jasango duen eragin txiki horrek higadura-prozesu eta -arriskuak gehituko ditu ziur asko, hegal-ingurua baita. Lanaren une honetan esku artean dugun informazioak higadura-prozesu arinak identifikatu ditu hegal horretan; dena den, obrak hasi aurretik egin beharreko azterketa geoteknikoak zehaztuko du benetako arriskua, eta baita ezarri beharreko prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak ere.

Une honetan, inpaktua negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulezina eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta moderatu gisa sailkatuko litzateke.

Hondakin-sorkuntza. Obren fasean, hondakinak sortuko dira, eraikin bat husteak eta beste hiru eraisteak sortuko dituztenak, bai eta hegalaren indusketak (aparkaleku-eraikin berria) eta egin behar den obra berriak (etxebizitzak eta aparkalekuak) sortuko dituztenak ere. Kontuan hartu behar da beste mota bateko hondakinak ere egon daitezkeela, iraganean ezarri ziren jarduerekin lotutakoak (hondakin arriskutsuak). Dena den, hondakin guztiak (hondakin geldoak, hiri-hondakinak edota, halakorik bada, arriskutsuak) gai honen inguruan indarrean dagoen legediari jarraituz kudeatu beharko dira. Horregatik guztiagatik, leku horietako eragina negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta moderatu gisa sailkatuko litzateke.

Erabilera berriak kokatzeko faseari dagokionez, kontuan hartu behar dira etxebizitzetan biziko diren pertsonek sortuko dituzten hiri-hondakin solidoak; hala ere, aurretik dauden zerbitzuek erantzuna ematen diete hondakin horiei jada, etxebizitza berriak aurreikusten badira ere, ez baita biztanleen gorakadarik espero, udalerriaren antolamendurako hipotesietan jasota dagoenaren arabera. Zentzu horretan, eragina negatiboa, zeharkakoa, metagarria, epe ertain eta luzekoa, iraunkorra, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

- AZALEKO HIDROLOGIA

Ibai-ibilgua. Jarduketa-proposamenak ez du jasotzen eragin berririk Deba ibaiaren ibilguari dagokionez (ibilbidearen zati hori bideratuta dago, eta gaur egun dagoen horma mantenduko da).

Azaleko uraren kalitatea. Gerta daiteke obren fasean obretatik datozen solido esekien kopurua handitzea, eta horrek eragina izan dezake Deba ibaiko uren kalitatean, eremutik oso gertu baitago. Eraikin batzuk husteko eta eraisteko unean dago arrisku handiena, eta baita ibaiaren ibilbidearen paraleloan egin behar diren eraikinetan egingo diren lanen unean ere. Beraz, sor daitekeen eragin hori negatiboa, zuzenekoa, metagarria, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria, leheneragarria eta etena izango litzatekeela uste da, eta moderatu gisa sailkatuko litzateke. Ustiapen-fasean, ez da eragin esanguratsurik izango.

Uholde-arriskua murriztea. EAEko barneko arroei dagozkien Uholde Arrisku eta Kalteginen Mapek, Uraren Euskal Agentziak (URA) 2013ko ekainean egindakoek, Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremu bat identifikatu dute Deba ibaiak udalerri honetan egiten duen ibilbidearen zati batean; ES017-GIP-DEB06 kodea du (hasierako koordenatuak: X 548099 eta Y 4780009 eta amaierako koordenatuak: X 546993 eta Y 4780790). 1,54 km inguruko eremu hori Keixeta errekarekin bat egiten duen puntutik Sagarragarekin elkartu arte doa (9,7 Ha inguru), eta, beraz, Kanoien eremua barnean hartzen du. HAPOren berrikuspenaren ildo honetan, Deba ibaiaren gainean dauden elementu batzuk eraisteko proposamenak (bi igarobide eta zubi bat) eta horiek beste batzuez ordezteko (bi zubi eta igarobide bat ibilguan bermatu gabe) proposamenak nahiz zenbait petril eraikitzeko eta mendebaldean errepidearen sestra igotzeko aurreikusitako proposamenak uholde-arriskua murrizten dute, eta, beraz, eragina positiboa, zeharkakoa, epe ertainekoa eta iraunkorra izango litzatekeela uste da.

- HIDROGEOLOGIA.

Akuiferoak betetzea eta eraldatzea. Lurralde honetan, ia ez dago lurzoru alubialak dituen eremurik (ertzetako inguruak), eta gogoratu horrelako luzoruekin normalean akuifero detritikoak deritzenak lotzen direla (oro har, finkatu gabeak, pikor arteko porositatea dutenak, anisotropia handikoak eta azalera topografikotik gertuko maila piezometrikoa dutenak); hala ere, lur azpiak eragina jasango du (hegalaren indusketa), eraitsi beharreko atzeko pabiloiaren ekialdean gaur egun dagoen iturritik oso gertu dagoen eremuan. Alderdi hori kontuan hartuko da eremuaren urbanizazio- eta eraikuntza-lanak egiterakoan, zehazki, dagokion azterketa geoteknikoa egiterakoan.

- LURZORUAK.

Landu gabeko lurzoruak galtzea edo suntsitzea (lurzoruaren artifizializazioa). Jarduketa-proposamenak jada lurzoruak artifizializatuta dauden eremua du xede bereziki; hegalak jasango du eragin txiki bat, eta horiek desagertzea ekarriko du. Horregatik, eragina negatiboa, zuzenekoa, metagarria, epe laburrekoa, iraunkorra, itzulezina, leheneragarria eta jarraitua izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Gaitasun agrologiko handiko lurzoruak. Ez dago eragin esanguratsurik.

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruak. IHOBEk egin eta irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bitartez onartutako Lurzorua Kutsa dezaketen Jarduerak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Kokapenen Inbentarioaren eta erakunde horrek 2014ko urtarrilean eguneratutako datu-basearen arabera (inbentarioa eguneratzeko zirriborroa, 2008az geroztiko aldaketak jasotzen dituena), ezaugarri horiek dituen kokapen bat dago eremu horretan.

Jarduera industriala	20065-00053	S.A. PLACENCIA DE LAS ARMAS	Jardunean	3619,59

Horrelako guneen kokapena zehazteko orduan eta lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutako garbitzeko 1/2005 Legeak, otsailaren 4koak, xedatzen duena betez, ezinbestekoa da dagokion esplorazio-azterketa egitea, erabilera aldatu aurretik lurzoruaren kalitatea benetan ezagutzeko eta kontrolatzeko.

Ezinbestekoa izango da ikerketa hori egitea, aipatutako legeak xedatutakoaren arabera lurzorua kutsatutzat, eraldatutzat edo, hala dagokionean, ez eraldatutzat jotzeko eta haren gainean jarduteko. Ildo horretan, planak mota horretako lurzoruetan duen eragina positiboa, zuzenekoa, epe labur eta ertainekoa eta iraunkorra izango litzatekeela uste da.

- LANDAREDIA

Landaredia kentzea. Kontuan hartu beharreko inguru bakarra hegoaldeko muturrean kokatuta dagoen hegalaren zati txiki bat da. IIT honen testuinguruan landarediari buruz egindako azterketak, Aurrerapenean egindakoa baino eskala handiagoan eta in situ egiaztatu denak, fruitu-arbola txikiak, baratzeak, laharrak eta iratzeak daudela nabarmendu du, gaur egun dagoen pabiloi industrialaren atzean, eta berorren mendebaldeko muturrean, berriz, zuhaitz hostoerorkor gazteak daudela (hurritza, sahatsa, urkia, astigarra, lizarra, gaztainondoa, haltza eta platanoren bat edo beste). Garrantzi handiena duten aleak, haltzak, GI-627 errepidearen ondoan eta hego-ekialdeko muturrean daude txandaka kokatuta, eta horiek eraginik ez dutela izango balioetsi da, eremutik kanpora edo eremuaren ertz-ertzean kokatuta daudelako.

Ondorengo irudian, aparkaleku berriak egiteko eraitsi nahi den eraikinaren atzean dagoen landaredia ikus daiteke xehetasun osoz; eta, beheko irudian, aurreikusitako antolamenduaren gainezarpena ikus daiteke; biak alderatzeko eta esku-hartzearen benetako irismena balioesteko aukera ematen da horrela.

Horregatik guztiagatik, eragina negatiboa, zuzenekoa, sinplea, epe laburrekoa, iraunkorra, itzulezina eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta moderatu gisa sailkatuko litzateke.



2013. URTEA



PROPOSAMENA

- FAUNA.

Fauna eta konektibitate ekologikoa. Mehatxatutako eta babestutako espezierik edo espezie berezirik ez dagoela, esku-hartzea bereziki lurzoru artifizializatuan egingo dela, dagoen landarediari atxikitako fauna balio baxukoa dela eta eragindako eremuaren antzeko habitatak gertu badaudela kontuan hartuta, ingurumen-aldagai horrek ez luke eragin esanguratsutzarik jasango.

- PAISAIA.

Paisaiaren kalitatea. Obren fasean, jarduketak eragin puntual bat izango du paisaian, eta eragin hori zuzenekoa, sinplea, aldi baterakoa, epe laburrekoa, itzulgarria eta leheneragarria litzatekeela ulertu da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke. Hala ere, jarduketa bera hirigunea berritzeko, ezaugarriak berreskuratzeko eta berrantolatzeko lan gisa ere planteatu da, eta, horrela, eremu hori hiriguneko hiri-egituran eta hiri-pasaian hobeto txertatu ahal izango da; beraz, erabilera-fasean, inpaktu hori positiboa, zuzenekoa, sinplea, epe ertainekoa eta iraunkorra izango litzatekeela ulertu da.

- BIZTANLERIA

Soinu maila, hautsa, zirkulazioa eta abar gehitzeak biztanleriarengan duen eragina. Obren fasean, erabilera berriak hartzeko egin beharreko lanek soinu maila, hautsa, eragozpenak eta abar areagotzea ekarriko dute ziur asko, eta inguru horretan bizi den jendeak (batez ere Baltegieta kalean, eta, zehazki, 17., 19., 22., 26., 30., 32. eta 36. zenbakietan bizi direnek, oso gertu daudelako) edo udalerrira sartzeko errepide hori erabiltzen dutenek nahiz inguru horretan lan egiten dutenek jasango dituzte eragin horiek. Bailara estuan eta udalerriko hirigunean kokatuta dagoenez, zaila da eragin hori murriztea. Beraz, eragin hori negatiboa, zuzenekoa, aldi baterakoa, sinergikoa, epe laburrekoa, etena/jarraitua, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Bizilekuz aldatu beharreko biztanleria. Eremu horretan ez da inor bizi, eta, beraz, ez dago inolako eraginik.

INGURUNE EKONOMIKOA

Nekazaritza-sektorea. Batez ere hiri-erabileren eta erabilera industrialen ordez bizitegi-erabilera, aparkalekua, espazio libreak eta zuzkiduratarako ekipamendua ezarriko dira, eta, beraz, nekazaritza-erabilerak ez luke eragin esanguratsurik jasango.

Hustutako enpresa industrialak. Kontrastatu den informazioaren arabera, ez zaio eragingo jardunean ari den inolako enpresari.

- ESPAZIO LIBREAK ETA ZUZKIDURATARAKO ESPAZIOAK.

Espazio librea (plaza). HAPOn proposatutako antolamenduak ibaira irekita egongo den plaza bat sortzea ahalbidetuko du. Jarduketa horri esker, argia eta eguzkia sartuko da hirigunera, eta herritarrek erabiltzeko eta gozatzeko oso inguru erosoa sortuko da, hiriari elementu natural batez, ibaiaz, gozatzeko aukera emateaz gain. Eragin hori positiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe ertainekoa eta iraunkorra izango litzatekeela ulertu da.

Zuzkiduretarako lurzorua. Proposatutako antolamenduak zuzkidura publiko gisa espazio libre bat sortzeko aukera emango du. Eragin hori positiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe ertainekoa eta iraunkorra izango litzatekeela ulertu da.
MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA.

Aparkalekuak sortzea. Kanoietan, eremu horretan kalkulatu den eskaera baino aparkaleku gehiago sortuko dira, udalerri barruko mugikortasun globala errazteko; aparkalekuak udalerriko hirigunera sartzeko sarrera horietako batean egingo lirateke, leku estrategiko batean, hirigunean aparkaleku bila ibiltzea ekiditeko. Hiriguneko aparkalekuen benetako behar horri HAPOk emandako erantzunaren eragina positiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe ertainekoa eta iraunkorra izango litzatekeela ulertu da.

Irisgarritasuna hirigunean. Aurreko egoerarekin alderatuta, oinezkoen irisgarritasuna hobetu egingo litzateke eremuan, eta, beraz, eragina positiboa, zuzenekoa, epe ertainekoa eta iraunkorra izango litzatekeela uste da.

Kanpoko sarbideen azpiegitura. Gaur egun, Kanoien eremura Baltegieta kaletik sartzen da, eta hortik GI-627 errepidera iristen da; errepide hori Maltzagan AP-8 errepidearekin eta AP-1 errepidearekin lotzen da. Beraz, eremu horrek irisgarritasun ona du, eta adierazle horrek ez du eragin esanguratsurik jasango.

- ZERBITZUEN AZPIEGITURAK

Zerbitzuen azpiegiturak. Jarduketaren garrantzia eta hirigunean kokatuta dagoela kontuan hartuta, udalerriko zerbitzuen azpiegituren sistema orokorrak (ur zikinen sarea eta ur-hornidurarako sarea, elektrizitatea, etab.) ez du eragin esanguratsurik jasango.

- INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK

Interes kulturaleko ondasunak edota presuntzio arkeologikoko guneak. Kanoiak izeneko esku-hartzea pabiloi industrial zaharrak berriro erabiltzeko esku-hartze bat da; pabiloi horiek bertan behera utzita daude duela hamar urtetik, hain zuzen, eta lotura handia dute udalerriko historiaren bilakaerarekin. Jarduketak horietako gehienak mantenduko ditu, baina herritarrek

dituzten gabezia batzuk lehentasunezkoak direla ulertuta (espazio libreak, ekipamenduak eta aparkalekuak falta dira), alderdi horiei erantzuna emateko, ezinbestekoa da pabiloi batzuei eragitea. Eraikin horietako bakar bat ere ez dago interes kulturaleko eraikin gisa katalogatuta, baina udalerriaren memoria historikoarekin lotuta daude, eta horixe da horiek kontserbatzearen arrazoietako bat. Horregatik guztiagatik, jarduketa positiboa, zuzenekoa, epe ertainekoa eta iraunkorra litzatekeela ulertu da.



Erabilera gabeko pabiloi industrialak (SAPA).

- HIRIGINTZA-PLANGINTZA

Lurzoruaren hirigintza-sailkapena. Lurzoruaren hirigintza-sailkapenean ez dago aldaketarik, hiri-lurzorua izaten jarraitzen baitu, eta, beraz, ez dago eraginik.

2.2. OLALDEA

- ATMOSFERA

Airearen kalitatea. Airearen kalitatea aldatu egingo da obren fasean, partikulen inmisio maila handiagotu egingo baita, lehendik dauden eraikinak eraistearen eta aparkalekuak hartzeko egin behar den indusketaren ondorioz; eta horri ibilgailuen zirkulazioa (kamioiak, makineria, etab.) handitzeak ekarriko dituen kutsatzaileak gehitu behar zaizkio (karbono monoxidoa, nitrogeno oxidoak, anhidrido sulfurosoak, etab.). Era berean, kokalekuaren ezaugarri topografikoak ez dira sakabanatzearen aldekoak (inguru hori bailara estu batean dago kokatuta, hirigunean...).

Horregatik guztiagatik, inpaktua negatiboa, zuzenekoa, metagarria, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Erabilera berriak ezartzeko faseari dagokionez −bizitegi-izaerako eta merkataritzarako erabilerak−, a priori eta gaur egungo egoerarekin alderatuta, ez da gehikuntza esanguratsurik aurreikusten.

- GEOLOGIA-GEOMORFOLOGIA.

Interes geologikoa duten eremuak eta guneak. Proposamenak ez dio eragingo interes geologiko ezaguna duen inolako gune edo eremuri eta, beraz, ez legoke ingurumen-osagai honekin lotutako inpakturik.

Erliebearen formak. Ez dago eraginik.

Higadura-prozesuak eta -arriskuak. Ez legoke kontuan hartu beharreko eragin esanguratsurik.

Hondakin-sorkuntza. Obren fasean, hondakinak sortuko dira, eraikinak eraisteak eta aparkaleku berria egiteko lur azpian egin beharreko indusketak (bi solairu sestra azpitik) nahiz egin beharreko obra berriak (etxebizitzak, eta beheko aldean, merkataritzarako lokalak eta aparkalekuak) sortuko dituztenak, hain zuzen. Kontuan hartu behar da beste mota bateko hondakinak ere egon daitezkeela, lehendik ezarrita dauden jarduerekin lotutakoak (hondakin arriskutsuak). Dena den, hondakin horiek guztiak, hondakin geldoak, hiri-hondakinak edota, halakorik bada, arriskutsuak, gai honen inguruan indarrean dagoen legediari jarraituz kudeatu beharko dira.

Horregatik guztiagatik, eragina negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulezina eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta moderatu gisa sailkatuko litzateke.

Erabilera berriak kokatzeko faseari dagokionez, etxebizitzetan biziko diren pertsonek sortuko dituzten hiri-hondakin solidoak kontuan hartu behar dira; hala ere, aurretik dauden zerbitzuek erantzuna ematen diote hondakin horiei jada, etxebizitza berriak aurreikusten badira ere, ez baita biztanleen gorakadarik espero, udalerriaren antolamendurako hipotesietan jasota dagoena kontuan hartuta; gauza bera gertatzen da merkataritzarako lokaletan ezarriko diren jarduerekin, eta horiek ere behar bezala kudeatu beharko dira. Zentzu horretan, eragina negatiboa, zeharkakoa, metagarria, epe ertain eta luzekoa, iraunkorra, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

- AZALEKO HIDROLOGIA

Ibai-ibilgua. Jarduketa-proposamenak ziur asko ez du eragin esanguratsurik izango ibaiaren ibilguan, gaur egungo horma bere horretan utziko baita eta zutabeak dauden zatian, zutabe horiek ibilguarekiko duten distantzia berera, horma bat eraikitzea aurreikusten baita. Gaur egungo hormak baino altuera handiagoa izango du, eta lehendik dagoen hegala desagertuko da.





Olaldea Oleako zubitik ikusita (ezkerrean) eta, eskuineko argazkian, Errekalde igarobidetik.

Azaleko uraren kalitatea. Gerta daiteke obren fasean obretatik datozen solido esekien kopurua handitzea, eta horrek eragina izan dezake Deba ibaiko uren kalitatean, eremutik oso gertu baitago. Lehendik dauden eraikinak eta hegala eraisteko unean nahiz horma egiteko unean eta lur azpian egin beharreko indusketaren unean dago arrisku handiena.

Beraz, sor daitekeen eragin hori negatiboa, zuzenekoa, metagarria, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria, leheneragarria eta etena izango litzatekeela uste da, eta moderatu gisa sailkatuko litzateke.

Ustiapen-fasean, ez litzateke eragin esanguratsurik egongo.

Uholde-arriskua murriztea. Eremu hori Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremuen barnean sartzen da, eta, beraz, Deba ibaiaren gainean dauden elementu batzuk eraisteko (bi igarobide eta zubi bat) eta horiek beste batzuez ordezteko (bi zubi eta igarobide bat ibilguan bermatu gabe) plan honetako proposamenek nahiz zenbait petril eraikitzeko eta mendebaldean errepidearen sestra igotzeko proposamenek uholde-arriskua murriztuko dute; horrela, bada, eragina positiboa, zuzenekoa, epe ertainekoa eta iraunkorra izango litzatekeela uste da.

- HIDROGEOLOGIA.

Akuiferoak betetzea eta eraldatzea. Eremu honetan, ia ez dago lurzoru alubialik eta gogoratu horrelako lurzoruekin normalean akuifero detritikoak deritzenak lotzen direla (oro har, finkatu gabeak, pikor arteko porositatea dutenak, anisotropia handikoak eta azalera topografikotik gertuko maila piezometrikoa dutenak).

Akuifero horiek lotura hidraulikoa izan ohi dute horiek zeharkatzen dituzten gainazaleko ibilguekin, eta influentzia/efluentzia harremanak aldakorrak izan ohi dira, gainazaleko ibilguaren sartze-malaren, akuiferoaren eta ibaiaren ur-xaflen altueren, materialen parametro hidraulikoen eta ibilguaren uberkako jalkinen betetze mailaren arabera; hala ere, horiei lotuta dauden putzuek oso errendimendu baxua izan ohi dute.

Eremu horretan, ez da ezagutzen ur-bilgunerik, iturbururik edo akuiferorik; lur emankorra duen eremu txiki bat dago soilik (gainerakoa artifizializatutako eta irazgaiztutako lurzorua da), baina jarduketak lur azpia induskatzea aurreikusten du, sestra azpian aparkalekuak egiteko, eta, beraz, alderdi hori obren unean bertan balioetsi beharko da, dagokion azterketa geoteknikoa idazterakoan.

- LURZORUAK.

Landu gabeko lurzoruak galtzea edo suntsitzea (lurzoruaren artifizializazioa). Jarduketa-proposamena lehendik artifizializatuta dauden lurzoruak dituen eremuan egingo da bereziki, lurzoru naturala duen zati txiki bat salbuespen hartuta; eta aurrez artifizializatu eta berdinduko da berori.

Azken horren kokalekua kontuan hartuta, inguru hiritarra baita nabarmen, eta denboran izan duen eraldaketa (zolatutako guneak daude agerian eta substratuaren azpian...), haren tamaina eta kokapena (lurzorurik gabeko gunez inguratutako zirrikitu bat) kontuan hartuta, eragina ez dela esanguratsua izango balioetsi da.

Lehendik artifizializatuta dauden lurzoruak berriro erabiltzeko jarduketa da bereziki.



2013. URTEA



PROPOSAMENA

Gaitasun agrologiko handiko lurzoruak. Aldagai honi dagokionez, ez da balioetsi eragin esanguratsurik.

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruak. IHOBEk egin eta irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bitartez onartutako Lurzorua Kutsa dezaketen Jarduerak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Kokapenen Inbentarioaren eta erakunde horrek 2014ko urtarrilean eguneratutako datu-basearen arabera (inbentarioa eguneratzeko zirriborroa, 2008az geroztiko aldaketak jasotzen dituena), ezaugarri horiek dituzten hainbat kokapen daude eremu horretan.

Jarduera industriala	20065-00044	ARTZAGA LARRAÑAGA, MOISES	Jarduera gabe	316,00
Jarduera industriala	20065-00045	OYANGUREN JAUREGUI, MIGUEL	Aldatuta	205,80
Jarduera industriala	20065-00046	ROFE LIJADOS	Aldatuta	226,22
Jarduera industriala	20065-00047	TORNIDECO, S.L.	Jardunean	548,72
Jarduera industriala	20065-00048	TORNILLERIA VDA. E. AZCARATE, S.A.	Jardunean	1197,04

Horrelako guneen kokapena zehazteko orduan eta lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutako garbitzeko 1/2005 Legeak, otsailaren 4koak, xedatzen duena betez, ezinbestekoa da dagokion esplorazio-azterketa egitea, erabilera aldatu aurretik lurzoruaren kalitatea benetan ezagutzeko eta kontrolatzeko. Ezinbestekoa izango da ikerketa hori egitea, aipatutako legeak xedatutakoaren arabera lurzorua kutsatutzat, eraldatutzat edo, hala dagokionean, ez eraldatutzat jotzeko eta haren gainean jarduteko. Ildo horretan, planak mota horretako lurzoruetan duen eragina positiboa, zuzenekoa, epe labur eta ertainekoa eta iraunkorra litzateke.

- LANDAREDIA

Landaredia kentzea. Ia ez dago landaredirik, eta dagoen landarediak ez du ia ingurumen-baliorik (landaredi erruderal-nitrofiloa); beraz, ez luke eraginik jasango. Santa Ana kalearen paraleloan dagoen hormaren ezpondan honako landaredi hau dago: sasiakazia gaztea (*Robinia pseudoacacia*), espezie inbaditzailea, huntza eta lahar apur bat (oso puntualki lizar gazteren bat ikusi da); landaredi horrek ere ez luke eraginik jasango.

- FAUNA.

Fauna eta konektibitate ekologikoa. Orain arte adierazi den moduan, Olaldea oso artifizializatuta dagoen eremua da (ez dago ia lur naturalik, eta ondorioz, ezta lotura zuzena duen landaredirik eta faunarik ere ia), eta interes berezia duten espezieen artean, ur-zozoaren presentzia (*Cinclus cinclus*) eta martin arrantzalearena (*Alcedo atthis*) aipatu behar da, Deba ibaiak inguru horretatik igarotzean egiten duen ibilbidearen habitatean, nahiz eta ez den habiarik aurkitu. Jarduketak ez ditu ibaiaren ibilgua eta ertzak gaur egun daudena baino gehiago eraldatuko; hala ere, obren ondorioz inguru horrek aldi baterako eragin bat jasan dezake (zarata, hautsa, etab.); baina espezie horietako aleak ibaian gertuko beste zatiren batera lekualdatu ahal izango dira. Izan dezakeen eragin hori negatiboa, zuzenekoa, aldi baterakoa, sinplea, epe laburrekoa, itzulezina eta leheneragarria litzatekeela ulertu da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

- PAISAIA.

Paisaiaren kalitatea. Obren fasean, jarduketak eragin puntual bat izango du paisaian, eta eragin hori zuzenekoa, sinplea, aldi baterakoa, epe laburrekoa, itzulgarria eta leheneragarria litzatekeela ulertu da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke. Paraleloki, jarduketa bera hirigunea berritzeko, ezaugarriak berreskuratzeko eta berrantolatzeko lan gisa ere planteatu da, eta horrela, eremu hori udalerriaren hiriguneko hiri-egituran eta hiri-pasaian hobeto txertatu ahal izango da; beraz, erabilera-fasean, inpaktu hori positiboa, zuzenekoa, sinplea, epe ertainekoa eta iraunkorra litzatekeela ulertu da.

- BIZTANLERIA

Soinu maila, hautsa, zirkulazioa eta abar gehitzeak biztanleriarengan duen eragina. Obren fasean, lehendik dauden eraikinak eraisteko, lur azpiko aparkalekua egiteko egin beharreko indusketetarako eta eraikin berriak eraikitzeko egin beharreko lanek soinu maila, hautsa, eragozpenak eta abar nabarmen areagotuko dituzte, eta inguru horretan bizi edo lan egiten dutenek jasango dituzte eragin horiek. Beraz, eragin hori negatiboa, zuzenekoa, aldi baterakoa, sinergikoa, epe laburrekoa, etena/jarraitua, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela balioetsi da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Bizilekuz aldatu beharreko biztanleria. Jarduketak inguru horretan bizi direnei eragingo die, horiek etxebizitzak utzi eta beste leku batera joan beharko baitute, obrak bukatu eta berriro itzuli arte. Udalaren iturrien arabera, bertan dauden zazpi etxebizitzetan 18 pertsona daude erroldatuta. Eragina negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria litzatekeela uste da, eta larri gisa sailkatuko litzateke.



Santa Ana kaleko eraikuntzak.

- INGURUNE EKONOMIKOA

Nekazaritza-sektorea. Nekazaritza-erabilerek ez dute eragin esanguratsurik jasango. Egiatan, jarduketa aurretik nekazaritza-erabilerakoak ez diren erabilerak, bereziki industria-erabilerak eta, neurri txikiagoan, bizitegi-erabilerak eta gainazaleko aparkalekuetarako erabilerak, ordeztu egingo dira HAPOren proposamenaren ondoren, eta bizitegi-erabilerakoak, merkataritza-erabilerakoak eta aparkaleku-erabilerakoak izatera pasatuko dira. Baratzeak dituen lursail txikiak jasango duen eragina ez da esanguratsua izango, jarduketa osoa kontuan hartuta.

Hustutako enpresa industrialak. Produktu metalikoak ekoizten dituzten bi enpresek kokaleku hori utzi beharko dute. Hauek dira enpresa horiek: Vda. de E. Azcarate, S.A. eta Tornideco, S.L. Eragina, a priori, negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta larri gisa sailkatuko litzateke.

- ESPAZIO LIBREAK

Ibaiertzeko espazio publikoa eta plaza. HAPOn proposatutako antolamenduak ibaiaren hormaren gainetik barandadun pasealeku bat sortzea ahalbidetuko du, eta mendebaldean amaituko da, plaza publiko berri batean. Jarduketa horri esker, hiriari elementu natural batez, ibaiaz, gozatzeko aukera emateaz gain, argia eta eguzkia sartuko da hirigunera (hego-ekialdera begira), herritarrek erabiltzeko eta gozatzeko oso inguru erosoa sortuz.

Eragin hori positiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe ertainekoa eta iraunkorra litzatekeela ulertu da.

MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA.

Aparkalekuak sortzea. Olaldean, eremu horretan kalkulatu den eskaera baino aparkaleku gehiago sortuko dira; aparkalekuak udalerriko hirigunera sartzeko sarrera horietako baten inguruan egingo lirateke, leku estrategiko batean, hirigunean zirkulazioa ekiditeko eta barneko mugikortasuna, batez ere motorrik gabekoa, sustatzeko.

Hirigunean dagoen aparkalekuen benetako behar horri HAPOk emandako erantzunaren eragina positiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe ertainekoa eta iraunkorra litzatekeela ulertu da.

Irisgarritasuna hirigunean. Antolamendu berriak honako hau proposatzen du: Santa Ana kaleak Olearaino jarraitzea, ibaiaren eskuineko ertza beste ertzarekin lotzea igarobide berri baten bidez, eta Zeletara joateko gaur egun dagoen eskailera berritzea, igogailu publiko bat ere jarriz. Jarduketa horiek sortuko duten eragina positiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe ertainekoa eta iraunkorra litzateke Olaldeako inguru horretan, eta hedaduraz, baita hirigunean ere.

Kanpoko sarbideen azpiegitura. Hirigunea zeharkatu ondoren, Santa Ana kalera iristen da, eta hortik, Oleako zubia igaro ondoren, Errekalde, Errabal, Atxuri eta Baltegieta kaleetara iristen da, eta hortik GI-627 errepidera; errepide hori Maltzagan AP-8 errepidearekin eta AP-1 errepidearekin lotzen da.

Beraz, eremu horrek irisgarritasun ona du, eta egin daitekeen edozein norabide-aldaketak ez dio aldagai horri modu esanguratsuan eragingo.

- ZERBITZUEN AZPIEGITURAK

Zerbitzuen azpiegiturak. Hirigunean duen kokapena eta egin behar den jarduketa mota kontuan hartuta, une honetan ez da ikusten udalerriko zerbitzuen azpiegituren sistema orokorrak (ur zikinen sarea eta ur-horniduarako sarea, elektrizitatea, etab.) eragin esanguratsurik jasango duenik.

- INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK

Interes kulturaleko ondasunak edota presuntzio arkeologikoko guneak. Jarduketa honek ez du eraginik izango, gutxienez ezagutzen denik, interes arkeologiko, historiko eta kulturaleko inolako elementuetan, eta, beraz, ez dago eraginik.

- HIRIGINTZA-PLANGINTZA

Lurzoruaren hirigintza-sailkapena. Lurzoruaren hirigintza-sailkapenean ez dago aldaketarik, hiri-lurzorua izaten jarraitzen baitu, eta, beraz, aldagai horrek ez du eraginik jasango.

2.3. TXURRUKA

- ATMOSFERA

Airearen kalitatea. Airearen kalitatea aldatu egingo da obren fasean, partikulen inmisio maila handiagotu egingo baita, lehendik dauden eraikinak eraistearen eta aparkalekuetarako eta trastelekuetarako egin behar den indusketaren ondorioz; eta horri ibilgailuen zirkulazioa (kamioiak, makineria, etab.) handitzeak ekarriko dituen kutsatzaileak gehitu behar zaizkio (karbono monoxidoa, nitrogeno oxidoak, anhidrido sulfurosoak, etab.). Hori guztia aintzat hartuta eta bailara estu batean kokatuta dagoela kontuan hartuta, eragina negatiboa, zuzenekoa, metagarria, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke. Erabilera berriak ezartzeko faseari dagokionez, a priori eta gaur egungo egoerarekin alderatuta, ez da gehikuntza esanguratsurik aurreikusten.

- GEOLOGIA-GEOMORFOLOGIA.

Interes geologikoa duten eremuak eta guneak. Proposamenak ez dio eragingo interes geologiko ezaguna duen inolako gune edo eremuri eta, beraz, ez legoke ingurumen-osagai horrekin lotutako inpakturik.

Erliebearen formak. Ez dago eraginik.

Higadura-prozesuak eta -arriskuak. Plangintzaren une honetan, ez legoke kontuan hartu beharreko eragin esanguratsurik.

Hondakin-sorkuntza. Obren fasean, hondakinak sortuko dira, eraikinak eraisteak eta lur azpian egin beharreko indusketak (zati bat induskatuta dago dagoeneko) nahiz egin beharreko obra berriek (etxebizitzak, eta beheko aldean, merkataritzarako lokalak, aparkalekuak eta trastelekuak) sortuko dituztenak, hain zuzen. Kontuan hartu behar da beste mota bateko hondakinak ere egon daitezkeela, orain arte ezarri diren jarduerekin lotutakoak (hondakin arriskutsuak). Dena den, hondakin horiek guztiak, hondakin geldoak, hiri-hondakinak edota, halakorik bada, hondakin arriskutsuak, gai honen inguruan indarrean dagoen legediari jarraituz kudeatu beharko dira. Horregatik guztiagatik, leku horietako eragina negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke. Erabilera berriak kokatzeko faseari dagokionez, etxebizitzetan biziko diren pertsonek sortuko dituzten hiri-hondakin solidoak kontuan hartu behar dira (mugatuak dira bestalde), eta baita merkataritzarako lokaletan ezarriko diren jarduerak ere, eta horiek behar bezala kudeatu beharko dira. Zentzu horretan, eragina negatiboa, zeharkakoa, metagarria, epe ertain eta luzekoa, iraunkorra, itzulezina eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

- AZALEKO HIDROLOGIA

Ibai-ibilgua. Gaur egungo bideratze-horma mantenduko litzateke, eta, beraz, ibilguak ez luke eragin esanguratsurik jasango.

Azaleko uraren kalitatea. Gerta daiteke obren fasean obretatik datozen solido esekien kopurua handitzea, eta horrek eragina izan dezake Deba ibaiko uren kalitatean. Eraikinak eraisteko unean nahiz lur azpian egin beharreko indusketaren unean dago arrisku handiena. Beraz, sor daitekeen eragin hori negatiboa, zuzenekoa, metagarria, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria, leheneragarria eta etena izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke. Ustiapen-fasean, ez luke eragin esanguratsurik izango.



2014. URTEA

Uholde-arriskua murriztea. Kanoiak eta Olaldea eremuak bezalaxe, eremu hau Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremuen barnean sartuta dago (ES017-GIP-DEB06 kodea), eta, beraz, Deba ibaiaren gainean dauden elementu batzuk eraisteko (bi igarobide eta zubi bat) eta horiek beste batzuez ordezteko (bi zubi eta igarobide bat ibilguan bermatu gabe) planeko proposamenek uholde-arriskua murriztuko dute; horrela, bada, eragina positiboa, zuzenekoa, epe ertainekoa eta iraunkorra izango litzatekeela uste da.

- HIDROGEOLOGIA.

Akuiferoak betetzea eta eraldatzea. Eremu honetan, ia ez dago lurzoru alubialak dituen eremurik, eta gogoratu horrelako lurzoruekin normalean akuifero detritikoak deritzenak lotzen direla (oro har ez kotsolidatuak, pikor arteko porositatea dutenak, anisotropia handikoak eta azalera topografikotik gertuko maila piezometrikoa dutenak). Akuifero horiek lotura hidraulikoa izan ohi dute horiek zeharkatzen dituzten gainazaleko ibilguekin, eta influentzia/efluentzia harremanak aldakorrak izan ohi dira, gainazaleko ibilguaren sartze-malaren, akuiferoaren eta ibaiaren ur-xaflen altueren, materialen parametro hidraulikoen eta ibilguaren uberkako jalkinen betetze mailaren arabera; hala ere, horiei lotuta dauden putzuek oso errendimendu baxua izan ohi dute. Eremu horretan, ez da ur-bilgunerik, iturbururik edo akuiferorik ezagutzen; ia lurzoru dena artifizializatuta dago, baina jarduketak lur azpia induskatzea aurreikusten du, sestra azpian aparkalekuak eta trastelekuak egiteko, eta, beraz, alderdi hori kontuan hartu beharko da dagokion azterketa geoteknikoa idazterakoan.

PROPOSAMENA



- LURZORUAK.

Landu gabeko lurzoruak galtzea edo suntsitzea (lurzoruaren artifizializazioa). Artifizializatuta dauden lurzoruak dituen eremuan gauzatuko da proposamena; beraz, ez luke eraginik jasango.

Gaitasun agrologiko handiko lurzoruak. Ez legoke eraginik.

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruak. IHOBEk egin eta irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bitartez onartutako Lurzorua Kutsa dezaketen Jarduerak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Kokapenen Inbentarioaren eta erakunde horrek 2014ko urtarrilean eguneratutako datu-basearen arabera (inbentarioa eguneratzeko zirriborroa, 2008az geroztiko aldaketak jasotzen dituena), ezaugarri horiek dituzten hainbat kokapen daude eremu horretan.

Jarduera industriala	20065-00076	BARRANCO TORNILLERIA	Aldatuta	255,25
Jarduera industriala	20065-00077	OSUMA, S.A.	Aldatuta	136,64
Jarduera industriala	20065-00078	PASCUAL CHURRUCA, S.A.	Jardunean	472,07
Jarduera industriala	20065-00079	LA AUXILIAR CUBERTERA	Jarduera gabe	1477,28

Horrelako guneen kokapena zehazteko orduan eta lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutako garbitzeko 1/2005 Legeak, otsailaren 4koak, xedatzen duena betez, ezinbestekoa da dagokion esplorazio-azterketa egitea, erabilera aldatu aurretik lurzoruaren kalitatea benetan ezagutzeko eta kontrolatzeko. Ezinbestekoa izango da ikerketa hori egitea, aipatutako legeak xedatutakoaren arabera lurzorua kutsatutzat, eraldatutzat edo, hala dagokionean, ez eraldatutzat jotzeko eta haren gainean jarduteko. Ildo horretan, planaren eragina positiboa, zuzenekoa, epe labur eta ertainekoa eta iraunkorra litzateke.

- LANDAREDIA

Landaredia kentzea. Ez dago ingurumen-balioa duen landaredirik, eta, beraz, ez dago eraginik.

- FAUNA.

Fauna eta konektibitate ekologikoa. Orain arte adierazi den moduan, Txurruka oso artifizializatuta dagoen eremua da (ez dago ia lur naturalik, eta ondorioz, ezta lotura zuzena duen landaredirik eta faunarik ere ia), eta interes berezia duten espezieen artean, ur-zozoaren presentzia (*Cinclus cinclus*) eta martin arrantzalearena (*Alcedo atthis*) aipatu behar da, Deba ibaiak inguru horretatik igarotzean egiten duen ibilbidearen habitatean, nahiz eta ez den habiarik aurkitu. Jarduketak ez ditu ibaiaren ibilgua eta ertzak gaur egun daudena baino gehiago eraldatuko; hala ere, obren ondorioz inguru horrek aldi baterako eragin bat jasan dezake (zarata, hautsa, etab.), baina espezie horietako aleak ibaian gertuko beste zatiren batera lekualdatu ahal izango dira. Izan dezakeen eragin hori negatiboa, zuzenekoa, aldi baterakoa, sinplea, epe laburrekoa, itzulgarria eta leheneragarria litzatekeela ulertu da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

- PAISAIA.

Paisaiaren kalitatea. Obren fasean, jarduketak eragin puntual bat izango du paisaian, eta eragin hori zuzenekoa, sinplea, aldi baterakoa, epe laburrekoa, itzulgarria eta leheneragarria litzatekeela ulertu da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke. Paraleloki, jarduketa bera hirigunea berritzeko, ezaugarriak berreskuratzeko eta berrantolatzeko lan gisa ere planteatu da, eta horrela, eremu hori hiriguneko hiri-egituran eta hiri-pasaian hobeto txertatu ahal izango da; beraz, erabilera-fasean, inpaktu hori positiboa, zuzenekoa, sinplea, epe ertainekoa eta iraunkorra litzatekeela ulertu da.

- BIZTANLERIA

Soinu maila, hautsa, zirkulazioa eta abar gehitzeak biztanleriarengan duen eragina. Obren fasean, lehendik dauden eraikinak eraisteko, indusketa egiteko eta eraikin berriak eraikitzeko egin beharreko lanek soinu maila, hautsa, eragozpenak eta abar nabarmen areagotuko dituzte, eta inguru horretan bizi edo lan egiten dutenek jasango dituzte eragin horiek. Beraz, eragin hori negatiboa, zuzenekoa, aldi baterakoa, sinergikoa, epe laburrekoa, etena/jarraitua, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela balioetsi da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Bizilekuz aldatu beharreko biztanleria. Ez du eraginik.

- INGURUNE EKONOMIKOA

Nekazaritza-sektorea. Nekazaritza-erabilerek ez dute eraginik jasango. Egiatan, jarduketa aurretik nekazaritza-erabilerakoak ez diren erabilerak, bereziki industria-erabilerak, ordeztu egingo dira HAPOren proposamenaren ondoren, eta bizitegi-erabilerakoak, merkataritza-erabilerakoak eta aparkaleku-erabilerakoak izatera pasatuko dira.

Hustutako enpresa industrialak. Torlojugintzan aritzen den enpresa batek, duela hamarkada asko bertan ezarri zen P. Churruca S.A.-k,kokaleku hori utzi egin beharko du; beraz, eragina, a priori, negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta larri gisa sailkatuko litzateke.

- ESPAZIO LIBREAK

Ibaiertzeko pasealekurako espazio publikoa. HAPOn proposatutako antolamenduak ibaiaren zati horretan pasealeku bat sortzeko aukera emango du; eskailera batzuetatik helduko da pasealekura, eta gertuen dauden eraikinekin dagoenarekin bat egingo du, kota handiagoa izango badu ere. Eragin hori positiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe ertainekoa eta iraunkorra litzatekeela ulertu da.

- MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA
Irisgarritasuna hirigunean. Jarduera honekin lotuta ez da planteatu aldagai horretan eragina izango lukeen aldaketarik, eta, beraz, ez dago balioetsi beharreko eraginik.

Kanpoko sarbideen azpiegitura. Eremutik GI-627 errepidera joateko, Errekalde, Errabal, Atxuri eta Baltegieta kaleetatik joan daiteke; errepide hori Maltzagan AP-8 errepidearekin eta AP-1 errepidearekin lotzen da. Beraz, eremu horrek irisgarritasun ona du, eta egin daitekeen edozein norabide-aldaketak ez dio aldagai horri modu esanguratsuan eragingo.

- ZERBITZUEN AZPIEGITURAK
Zerbitzuen azpiegiturak. Hirigunean duen kokapena eta egin behar den jarduketa mota kontuan hartuta, une honetan ez da ikusten udalerriko zerbitzuen azpiegituren sistema orokorrak (ur zikinen sarea eta ur-hornidurarako sarea, elektrizitatea, etab.) eragin esanguratsurik jasango duenik, eta lehendik dagoen sareak berak erantzun ahal izango dio.

- INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK
Interes kulturaleko ondasunak edota presuntzio arkeologikoko guneak. Ez dago eraginik.

- HIRIGINTZA-PLANGINTZA

Lurzoruaren hirigintza-sailkapena. Lurzoru hiritarrean egingo den jarduketa da, eta ez dago eraginik.

			KANOIAK		OLALDEA		TXURRUKA	
			NEURRIRIK GABE*	NEURRIEKIN*	NEURRIRIK GABE*	NEURRIEKIN*	NEURRIRIK GABE*	NEURRIEKIN*
			OBREN F./USTIAPEN F.	OBREN F./USTIAPEN F.	OBREN F./USTIAPEN F.	OBREN F./USTIAPEN F.	OBREN F./USTIAPEN F.	OBREN F./USTIAPEN F.
INGURUMEN-FAKTOREAK	INGURUNE BIZIGABEA	Airearen kalitatea	B/__	__/__	B/__	__/__	B/__	__/__
		Interes geologikoa eremua edota gunea	__	__	__	__	__	__
		Erliebe-formak	__	__	__	__	__	__
		Higadura-prozesuak eta -arriskuak	M/__	B/__	__	__	__	__
		Hondakin-sorkuntza	M/B	B/__	M/B	B/__	B/B	__/__
		Ibai-ibilgua	__	__	__	__	__	__
		Azaleko uraren kalitatea	M/__	B/__	M/__	B/__	B/__	__/__
		Uholde-arriskua murriztea	__/__	__/POSITIBOA	__/__	__/POSITIBOA	__/__	__/POSITIBOA
		Akuiferoak betetzea eta eraldatzea	Ezezaguna	Ezezaguna	Ezezaguna	Ezezaguna	Ezezaguna	Ezezaguna
		Landu gabeko lurzorua galtzea edo suntsitzea (lurzoruaren artifizializazioa)	B/__	B/__	__	__	__	__
		Gaitasun agrologiko handiko lurzoruak	__	__	__	__	__	__
		Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruak	__/__	POSITIBOA/__	__/__	POSITIBOA/__	__/__	POSITIBOA/__
	INGUR. BIOTIKOA	Landaredia kentzea	M/__	B/__	__	__	__	__
		Fauna eta konektibitate ekologikoa	__	__	B/__	B/__	B/__	B/__
	I.PERTZEP.	Paisaiaren kalitatea	B/__	B/POSITIBOA	B/__	B/POSITIBOA	B/__	B/POSITIBOA
	INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA	Biztanleriak jasango dituen eraginak, soinu maila igotzeagatik, etab.	B/__	__/__	B/__	__/__	B/__	__/__
		Kanporatutako biztanleak	__	__	L/__	B/__	__	__
		Nekazaritza-sektorea	__	__	__	__	__	__
		Hustutako enpresak	__	__	L/__	B/__	L/__	B/__
		Industria-enpresak birkokatzea	__	__	__	__	__	__
		Espazio librea (plaza)	__/__	__/POSITIBOA	__/__	__/POSITIBOA	__	__
		Ibaiertzeko espazio publikoa	__	__	__	__	__/__	__/POSITIBOA
		Aisialdirako eta jolaserako espazio publikoa	__	__	__	__	__	__
		Zuzkidura-lurzorua	__/__	__/POSITIBOA	__	__	__	__
		Aparkalekuak	__/__	__/POSITIBOA	__/__	__/POSITIBOA	__	__
		Irisgarritasuna hirigunean	__/__	__/POSITIBOA	__/__	__/POSITIBOA	__	__
		Kanpoko sarbideen azpiegitura	__	__	__	__	__	__
		Zerbitzuen azpiegitura	__	__	__	__	__	__
		Interes kulturaleko ondasunak edota presuntzio arkeologikoko guneak	__/__	__/POSITIBOA	__	__	__	__
		Lurzoruaren hirigintza-sailkapena	__	__	__	__	__	__

POSITIBOA = Efektu onuragarria edo positiboa. __ Eraginik ez edo eragin esanguratsurik ez plangintza mailan
* Neurri babesleak edota zuzentzaileak
B = Bateragarria, M = Moderatua eta L = Larria

BIZITEGI-LURZORUAREN ANTOLAMENDU-PROPOSAMENEN INGURUMEN-ERAGINAK IDENTIFIKATZEKO ETA BALIOESTEKO MATRIZEA

3.- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren antolamendurako proposamenak: Amillaga.

- ATMOSFERA

Airearen kalitatea. Airearen kalitatea aldatu egingo da obren fasean, partikulen inmisio maila handiagotu egingo baita, eraikinak botatzeko egin behar diren eraiste-lanen ondorioz (dagoeneko zati bat eraitsi da, hondakinak bertan dauden arren) eta hegalean egin behar den indusketaren ondorioz; eta horri ibilgailuen zirkulazioa (kamioiak, makineria, etab.) handitzeak ekarriko dituen kutsatzaileak gehitu behar zaizkio (karbono monoxidoa, nitrogeno oxidoak, anhidrido sulfurosoak, etab.). Era berean, kontuan hartu behar da kokalekuaren ezaugarri topografikoak ez direla sakabanatzearen aldekoak ere (bailara estu batean dago). Horregatik guztiagatik, inpaktua negatiboa, zuzenekoa, metagarria, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Jarduera ekonomiko berriak ezartzeko faseari dagokionez, eta plangintzaren fase honetan zer motatako jarduerak ezarriko diren eta horiek inguruko zirkulazioan zer eragin izango duten ez dela ezagutzen kontuan hartuta, ondoren balioetsi beharko da eragina.

- GEOLOGIA-GEOMORFOLOGIA.

Interes geologikoa duten eremuak eta guneak. Ez dago eraginik.

Erliebearen formak. Jarduketa-eremuaren topografia aldatu egingo da berorren hegoaldeko muturrean, behe-hegaleko eremuari eragingo baitio; hala ere, erliebeak ez luke eragin esanguratsurik jasango.

Higadura-prozesuak eta -arriskuak. Behe-hegalak dagokion ezponda egiterakoan jasango lukeen eraginaren ondorioz higadura-prozesuak eta -arriskuak gehituko liratekeela ikusten da, eta horiek kontrolatu egin beharko dira, bereziki obren fasean, prebentziozko neurriak eta neurri zuzentzaileak jasoko dituen azterketa geoteknikoa egin ondoren. Une honetan, inpaktua negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulezina eta leheneragarria litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Hondakin-sorkuntza. Une honetan balioetsi denez, hondakinak sortuko dira finkatu gabeko eraikinak eraistearen ondorioz (2014ko urriaren erdialdera jarduerarekin lotutako hainbat egitura jada eraitsita zeuden), hegalaren zati txiki batek jasango duen eraginaren ondorioz eta egin behar den obraren eraginez (bereziki pabiloi berriak eta aparkalekua). HAPOren une honetan, ez da ikusten iraganean ezarri ziren jarduerekin lotuta beste mota batzuetako hondakinik izango denik, ez eta Plan Berezia idazterakoan zehaztuko den aparkalekua hartzeko egin beharreko indusketak sortutakorik ere. Dena den, hondakin guztiak gai honen inguruan indarrean dagoen legediari jarraituz kudeatu beharko dira. Horregatik guztiagatik, eragina negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulezina eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Erabilera berriak kokatzeko faseari dagokionez, eta zer motatako jarduerak ezarriko diren ezagutzen ez denez, ondorengo faseetan balioetsiko da hori.

- AZALEKO HIDROLOGIA

Ibai-ibilgua. Jarduketa-proposamenak ez du aurreikusten eraginik, Deba ibaiaren ibilguari dagokionez (ibaia bideratzeko horma mantendu egingo da).

Uren kalitatea. Baliteke Deba ibaiko uren kalitatean eragina izatea, ibaia eremuaren mugan bertan baitago, eta ibilguaren ondo-ondoan eraitsi beharreko eraikin garrantzitsu bat baitago. Izan dezakeen eragina negatiboa, zuzenekoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, metagarria, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Uholde-arriskua murriztea. Plangintzaren une honetan, 100 urteko birgertatze-aldirako uholde-arriskua badela ikusi da, eta arrisku hori ekiditeko neurriak aurreikusi dira (petrilak ezartzea).

- HIDROGEOLOGIA.

Akuiferoak betetzea eta eraldatzea. Lurralde honetan, ia ez dago lurzoru alubialak dituen eremurik, eta gogoratu horrelako luzoruekin normalean akuifero detritikoak deritzenak lotzen direla (oro har, finkatu gabekoak, pikor arteko porositatea dutenak, anisotropia handikoak eta azalera topografikotik gertuko maila piezometrikoa dutenak); hala ere, hegalak eragin txiki bat jasango du (hausturaguneekin bat egiten badute, nolabaiteko iragazkortasuna duten sumendi-materialak). Zalantzazko egoera horren aurrean, ingurumen-alderdi hau obren unean balioetsiko da, dagokion azterketa geoteknikoan.

- LURZORUAK.

Landu gabeko lurzoruak galtzea edo suntsitzea (lurzoruaren artifizializazioa). Jarduketa-proposamena artifizializatutako lurzoruak dituen inguru batean egingo da (hegalak izango duen eragina oso txikia da), eta, beraz, ez legoke eragin esanguratsurik.

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruak. IHOBEk egin eta irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bitartez onartutako Lurzorua Kutsa dezaketen Jarduerak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Kokapenen Inbentarioaren eta erakunde horrek 2014ko urtarrilean eguneratutako datu-basearen arabera (inbentarioa eguneratzeko zirriborroa, 2008az geroztiko aldaketak jasotzen dituena), Amillagako eremuan ez dago ezaugarri horiek dituen kokapenik.

- LANDAREDIA

Landaredia kentzea. Gehienbat artifizializatuta dagoen lurzoruan esku hartuko denez, ez legoke eragin esanguratsurik. Hegaleko zuhaizti gazteek ez dute eraginik jasango.

- FAUNA.

Fauna eta konektibitate ekologikoa. Mehatxatutako eta babestutako espezierik edo espezie berezirik ez dagoela, esku-hartzea bereziki lurzoru artifizializatuan egingo dela, dagoen landarediari atxikitako fauna balio baxukoa dela eta eragindako eremuaren antzeko habitatak gertu badaudela kontuan hartuta, ingurumen-aldagai horrek ez luke eragin esanguratsurik jasango.

- PAISAIA.

Paisaiaren kalitatea. Eremu horren gaur egungo ezaugarriak, aurrez ere deskribatu ditugunak, kontuan hartuta, eta dagoeneko eraikin asko eraitsi dituztela eta hondakin guztiak Amillagan bertan utzi dituztela aintzat hartuta, obren fasean paisaian ez duela eragin esanguratsurik izango kalkulatu da. Eta, gainera, etorkizuneko proiektuak paisaia lurraldean txertatzeko modua zaintzen badu, gaur egungo eta esku-hartzearen aurreko egoerarekin alderatuta, baliteke eragin positiboa gertatzea.



2014. URTEA

- BIZTANLERIA

Soinu maila, hautsa, zirkulazioa eta abar gehitzeak biztanleriarengan duen eragina. Obren fasean, ez litzateke eragin esanguratsurik egongo, hurbileneko ingurunean ez baita inor bizi, eta, bestalde, GI-627 errepidean kamioien zirkulazioa oso puntualki gehituko baita. Ustiapen-fasean, ez dakigu.

- INGURUNE EKONOMIKOA

Nekazaritza-sektorea. Lurzoruaren erabileran ez dago aldaketarik, jarduera ekonomikoetarako erabilera izaten jarraituko baitu.

Industria-enpresak birkokatzea. Hirigunearen erdiko eremurako planak proposatutako garapena errazteko, Olaldea eta Txurruka utzi behar dituzten hiru enpresa hartu ahal izango ditu eremu honek; beraz, eragina positiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe ertainekoa eta iraunkorra litzatekeela ulertu da.

- MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

Kanpoko sarbideen azpiegitura. Gaur egun, GI-627 errepidetik sartzen da eremu honetara; errepide hori Maltzagan AP-8 eta AP-1 errepideekin lotzen da. Beraz, eremu horrek irisgarritasun ona du.

- ZERBITZUEN AZPIEGITURAK

Zerbitzuen azpiegiturak. Une hauetan, Amillagaraino luzatuta daude ur zikinen sare orokorra, linea elektrikoa eta telefono-linea, baina ez ur-hornidurarako sare orokorra, azken hori Mendiolako industrialderaino iristen baita. Ur-hornidurarako sarea iristeko egin behar diren obrak egitea eskatzen du horrek, eta hori eragin positiboa litzateke eremuarentzat; gainera, hartuko duen azalera txikia kontuan hartuta, erabilera berriek udalerriko zerbitzuen azpiegituren sistema orokorrari ez liekete modu esanguratsuan eragingo.

- INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK

Interes kulturaleko ondasunak edota presuntzio arkeologikoko guneak. Ez dago eraginik.



PROPOSAMENA

- HIRIGINTZA-PLANGINTZA

Lurzoruaren hirigintza-sailkapena. Lurzoru honen hirigintza-sailkapena aldatu egingo da; izan ere, aspalditik industria-erabilera hartuta zuen arren, lurzoru hiritar gisa sailkatu zen hasieran, baina berorren antolamendua bertan behera utzi zen. Dena den, aldagai horrek ez du eragin esanguratsurik jasango, berorren egoera araupetzen dela ulertzen baita.

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDU-PROPOSAMENAREN INGURUMEN-ERAGINAK IDENTIFIKATZEKO ETA BALIOESTEKO MATRIZEA

			AMILLAGA	
			NEURRIRIK GABE*	NEURRIEKIN*
			OBREN F./USTIAPEN F.	OBRN F./USTIAPEN F.
INGURUMEN-FAKTOREAK	INGURUNE BIZIGABEA	Airearen kalitatea	B/Ezezaguna	__/Ezezaguna
		Interes geologikoa eremua edota gunea	__	__
		Erliebe-formak	__	__
		Higadura-prozesuak eta -arriskuak	B/__	__/__
		Hondakin-sorkuntza	B/B	__/__
		Ibai-ibilgua	__	__
		Azaleko uraren kalitatea	B/__	__
		Uholde-arriskua murriztea	__	__
		Akuiferoak betetzea eta eraldatzea	Ezezaguna	Ezezaguna
		Landu gabeko lurzorua galtzea edo suntsitzea (lurzoruaren artifizializazioa)	__	__
		Gaitasun agrologiko handiko lurzoruak	__	__
		Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruak	__	__
	INGURU BIOTIKOA	Landaredia kentzea	__	__
		Fauna eta lotura ekologikoa	__	__
	I.PERTZEP.	Paisaiaren kalitatea	__/__	__/POSITIBOA
	INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA	Biztanleriak jasango dituen eraginak, soinu maila igotzeagatik, etab.	__/Ezezaguna	__/Ezezaguna
		Kanporatutako biztanleak	__	__
		Nekazaritza-sektorea	__	__
		Hustutako enpresak	__	__
		Industria-enpresak birkokatzea	__/__	__/POSITIBOA
		Espazio librea (plaza)	__	__
		Ibaiertzeko espazio publikoa	__	__
		Aisialdirako eta jolaserako espazio publikoa	__	__
		Zuzkidura-lurzorua	__	__
		Aparkalekuak	__	__
		Irisgarritasuna hirigunean	__	__
		Kanpoko sarbideen azpiegitura	__	__
		Zerbitzuen azpiegitura	__/__	__/POSITIBOA
		Interes kulturaleko ondasunak edota presuntzio arkeologikoko guneak	__	__
		Lurzoruaren hirigintza-sailkapena	__	__

POSITIBOA = Efektu onuragarria edo positiboa. __ Eraginik ez edo eragin esanguratsurik ez plangintza mailan
* Neurri babesleak edota zuzentzaileak
B = Bateragarria, M = Moderatua eta L = Larria

4.- Ekipamendu eta zerbitzuetarako lurzoruaren antolamendurako proposamenak (EZOZIA).

4.1. HILERRI BERRIA.

Airearen kalitatea. Plangintzaren une honetan, lurraren ezaugarri topografikoetara gehiago edo gutxiago egokituko den islatzen duen proiekturik gabe, obren fasean airearen kalitateari eragingo zaiola uste da, mugituko diren lurren, indusketen eta abarren ondorioz partikula esekien maila igo egingo delako; eta horri ibilgailuen zirkulazioa (kamioiak, makineria, etab.) handitzeak ekarriko dituen kutsatzaileak gehitu behar zaizkio (karbono monoxidoa, nitrogeno oxidoak, anhidrido sulfurosoak, etab.), sakabanatzearen aldekoa ez den (bailara estuan dago) eta hirigunetik gertu dagoen inguru batean. Horregatik guztiagatik, inpaktua negatiboa, zuzenekoa, metagarria, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Erabilera berria ezartzeko faseari dagokionez, hilerri txiki bat dela eta bertan errausketa-zerbitzurik ez dela ezarriko kontuan hartuta, ez luke eragin esanguratsurik jasango, alderdi hori proiektuaren fasean ziurtasun handiagorekin balioetsiko den arren.

- GEOLOGIA-GEOMORFOLOGIA.

Interes geologikoa duten eremuak eta guneak. Jarduketak ez dio eragingo interes geologiko ezaguna duen inolako gune edo eremuri.

Erliebearen formak. Eremu honen topografiak aldaketak jasango ditu, eraginaren tamaina egingo den proiektuaren mende egongo den arren. Abiaburuko premisatzat lurraldearen topografiara ongi egokituko dela eta baliabide gutxiago kontsumitzeko iraunkortasun-irizpideak erabiliko direla hartuta (esate baterako, futbol-zelaiko aparkalekuaren hurbiltasunaren sinergiaz baliatzea aparkaleku berriaren neurriak ezartzerakoan), izan dezakeen eragina negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, iraunkorra, itzulezina eta leheneraezina litzateke, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Higadura-prozesuak eta -arriskuak. Plangintzako une honetan, ezpondak egiteko lurrak mugitzerakoan higadura-prozesuak eta -arriskuak gehitu egingo direla ikusten da, hegalaren zati horrek % 30etik gorako maldak baititu (gehienak % 30tik 50era bitartekoak). Hasiera batean, higadura-prozesu moderatuak dituen eremu gisa balioetsi da, baina jarduketak ziur asko arriskuak areagotu egingo ditu. Izan dezakeen arrisku hori kontrolatu egin beharko da, bereziki obren fasean, prebentziozko neurriak eta neurri zuzentzaileak jasoko dituen azterketa geoteknikoa egin ondoren, arriskua murriztu ahal izateko. Esandakoa kontuan hartuta, inpaktua negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulezina eta leheneragarria litzateke, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Hondakin-sorkuntza. Beste ingurumen-aldagai batzuekin adierazi den moduan, lur-soberakinen bolumena proiektu motaren mende dago. Abiaburuko premisatzat inguruarekin abegitsua izango den proiektu bat izango dela hartuta, izan dezakeen eragina negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria litzateke, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Hilerria abian jartzeko faseari dagokionez, eta udalerrian aurrez ezarrita zegoen erabilera bat lekuz aldatzea besterik ez denez, a priori, ez da uste lehen baino hondakin gehiago sortuko denik; hala ere, gai horren inguruko berariazko legediari jarraituz kudeatu beharko dira.

- AZALEKO HIDROLOGIA

Ibai-ibilguak ez luke eraginik jasango.

- HIDROGEOLOGIA.

Akuiferoak betetzea eta eraldatzea Plangintzaren une hauetan eskura dugun informazioaren arabera, dauden sumendi-materialen portaera hidrogeologikoa iragazkortasun ertainekoa edo txikikoa da. Sumendi-bretxek (laba-jarioaldien artean tartekatutako zerrenda) iragazkortasun txikia dute, porositatearen ikuspegitik; laba-jarioaldiek, berriz, iragazkortasun ertaina dute, porositatearen ikuspegitik, baina mota horretako materialek duten arrisku handiena hausturen presentziarekin lotuta dago (ez da ezagutzen ur-hargunerik, iturbururik edota iturririk eremu honetan).

Osasun-arriskuak dituen jarduera denez, eta EAEko hilotzen sanitate-alderdiei buruzko erregelamendua onartzen duen urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren 44. artikuluarekin bat etorriz, hilerri berriaren baimena lortzeko, ezinbestekoa da lur horri dagokion azterketa hidrogeologikoa izatea. Horregatik, ingurumen-aldagai hori lehen aipatutako azterketa hidrogeologiko hori egindakoan balioetsiko da.

- LURZORUAK.

Landu gabeko lurzoruak galtzea edo suntsitzea (lurzoruaren artifizializazioa). Jarduketa-proposamenak gaur egungo lur emankorraren zati handi bat galtzea ekarriko du, eta, beraz, biologikoki emankorra den zerrenda desagertu egingo da, eta berorren produktibitatea ere galdu egingo da, erabilera aldatu egingo delako. Horregatik, eragina negatiboa, zuzenekoa, metagarria, epe laburrekoa, iraunkorra, itzulezina, leheneragarria eta jarraitua dela balioetsi da, eta moderatu gisa sailkatuko litzateke.

Gaitasun agrologiko handiko lurzoruak. Ez dago eraginik.



2013. URTEA

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruak. Ez dago eraginik.

- LANDAREDIA

Landaredia kentzea. Hilerri berria ezartzeak lehendik dagoen landarediaren zati bat kentzea ekarriko du, batez ere belardiak, *garaiera txikiko sega-belardi pobreak*, lehentasunik gabeko interes komunitarioko habitat gisa identifikatutakoak; hala ere, mota horretako habitata ugaria da udalerrian eta Gipuzkoan. Zuhaitz ale batzuk ere badaude eremuaren iparraldeko muturreko ertzean eta Legarda baserrira doan bidean, eta, kokatuta dauden lekuarengatik, ertzean baitaude, eta antolamendu abegitsu batekin, horietako gehienei eusteko aukera izan daiteke. Baina belardian sakabanatuta dauden haritzek (*Quercus robur*) eragina jasango dute ziur asko. Horregatik guztiagatik, eragina negatiboa, zuzenekoa, sinplea, epe laburrekoa, iraunkorra, itzulezina eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta moderatu gisa sailkatuko litzateke.

- FAUNA.

Fauna eta konektibitate ekologikoa. Makineria eta obrako ibilgailuak sartzeak eta lurrak mugitzeak anfibioei, narrastiei eta mikrougaztunei eragingo die batik bat, mugitzeko gaitasun txikiagoa dutenez, eta hegaztiek, mugikortasun handiagoa dutenez, inguruko eremuetara joko dutela pentsatzen da. Mehatxatutako eta babestutako espezierik edo espezie berezirik ez dagoela, dagoen landarediari atxikitako fauna balio baxukoa dela eta eragindako eremuaren antzeko habitatak gertu badaudela kontuan hartuta, ingurumen-aldagai horrek ez luke eragin esanguratsurik jasango.

- PAISAIA.

Paisaiaren kalitatea. Hilerri-erabilera berriak Ezoziko nekazaritza-pasaiaren mosaikoan (belardiak eta baso-sailak) elementu berri bat sarraraziko du, gaur egungo futbol-zelaiaren mugakide den eta Mendiolako industrialdetik eta udalerriko hirigunetik gertu dagoen eremuan. Udalerritik igarotzen diren GI-3.652 errepidetik eta AP-1 eta GI-627 errepideetako zenbait puntu zehatzetatik ikusten da gehien (orografiak eta Mendiolako pabiloi industrialek gehiago ikustea eragozten dute), bai eta Irure auzoko zenbait puntutatik ere (behe-hegalean kokatu dagoenez, bailararen ezkerreko aldetik gutxiago ikusten da). Horregatik guztiagatik, obren fasean nahiz erabilera ezartzeko unean, paisaiak jasango duen eragina zuzenekoa, sinplea, aldi baterakoa/iraunkorra, epe laburrekoa, itzulezina, leheneragarria/leheneraezina eta jarraitua litzatekeela balioetsi da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

- BIZTANLERIA

Soinu maila, hautsa, zirkulazioa eta abar gehitzeak biztanleriarengan duen eragina. Obren fasean, erabilera berria hartzeko egin beharreko lanek soinu maila, hautsa, eragozpenak eta abar areagotzea ekarriko dute, kamioien eta makineria astunaren zirkulazioa gehitzearen, indusketen eta abarren ondorioz. Gerta daitekeen eragin hori gertuko baserrietan bizi direnek jasango lukete, Ezoziko landa-izaerako herrigune txikian eta Ezoziko Amabirjinaren etorbidean bereziki, bai eta futbol-zelaia erabiltzen dutenek ere. Beraz, eragin hori negatiboa, zuzenekoa, aldi baterakoa, sinergikoa, epe laburrekoa, etena, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela balioetsi da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Erabilera-fasean, ingurumena eta pertsonen osasuna kontrolatu beharko dira, osasunaren aldetik arriskuak dituen ekipamendua baita.

- INGURUNE EKONOMIKOA

Nekazaritza-sektorea. Ekipamendu hori ezartzeak nekazaritza-erabilera desagertzea dakar (larreak bereziki), lurzoru horren bokazioarekin eta inguruarekin bat datorren erabilera, hain zuzen; eta, beraz, erabilera hori desagertzean, produktibitate ekologikoa eta nekazaritza-produktibitatea galduko lirateke. Baina, bestalde, nekazaritza-erabilera nahikoa zabalduta dago udalerrian, eta hirigunearen ertzean dagoen eremu txiki bati eragiten dio, futbol-zelaiaren eta GI-3653 errepidearen ondoan dagoenari. Horregatik, eragin hori negatiboa, zuzenekoa, sinplea, iraunkorra, epe laburrekoa, itzulezina, leheneraezina eta jarraitua izango litzatekeela balioetsi da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

- ZUZKIDURETARAKO ESPAZIOAK

Zuzkiduretarako lurzorua. Udalerriko hilerri zaharra Ezoziko eremu horretara lekualdatzeko proposamenak zuzkidura-erabilerara edo ekipamendu-erabilerara zuzendu ahal izango litzatekeen lurzorua libre uzteko aukera ematen du; hezkuntza-erabilerara zuzentzeko aukera aztertu da batez ere (eskola haditzeko aukera izan daiteke). Eragin hori positiboa, zuzenekoa, epe luzekoa eta iraunkorra litzateke.



- AZPIEGITURAK ETA IRISGARRITASUNA

Kanpoko sarbideen azpiegitura. Eremu horretara GI-3653 errepidetik sartzen da gaur egun, eta Ezoziko Amabirjinaren etorbidearekin lotuta dago zuzenean; bide horrek hirigunera eramaten du, eta hortik GI-627 errepidera. Azpiegitura horiek badaudenez eta horiek eremura sartzeko aukera ematen dutenez, ez litzateke eragin esanguratsurik egongo aldagai horrekin lotuta. Erabilera-fasean eta irisgarritasunari dagokionez, inguru horretan bizi den jendeak eta futbol-zelaiaren erabiltzaileak ez lukete eraginik jasango, ez baita egunero erabiltzen den ekipamendua, eta ibilgailu kopurua ere puntualki gehituko litzateke, soilik egun jakin batzuetan;

gainera, hirigunetik gertu dagoenez, oinezkoek ere erraz iristeko aukera izango lukete. Azken alderdi hori kontuan hartu beharko du proiektuak, Ezozirako bide zaharra berreskuratzea ere barnean hartuta.

Zerbitzuen azpiegiturak. Urbanizatuta dauden eremuetatik gertu dagoela eta erabilera horrek baliabideen kontsumo handia ez duela eskatzen kontuan hartuta, une honetan ez da ikusten udalerriko zerbitzuen azpiegituren sistema orokorrak (ur zikinen sarea eta ur-hornidurarako sarea, elektrizitatea, etab.) eragin esanguratsurik jasango duenik.

- INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK

Interes kulturaleko ondasunak edota presuntzio arkeologikoko guneak. Ez dago eraginik.

- HIRIGINTZA-PLANGINTZA

Lurzoruaren hirigintza-sailkapena. Lurzoruaren hirigintza-sailkapenean ez dago aldaketarik, lurzoru hiritarrezina izaten jarraitzen baitu; beraz, ez dago eraginik.

4.2. AISIALDIKO BARATZEAK

- ATMOSFERA

Airearen kalitatea. Plangintzaren fase honetan eta jarduketa nola ulertzen den ikusita, ez luke eragin esanguratsurik izango airearen kalitatean, ez obren fasean, ez eta erabilera-fasean ere.

- GEOLOGIA-GEOMORFOLOGIA.

Interes geologikoa duten eremuak eta guneak. Ez dago eraginik.

Erliebearen formak. Une honetan jarduketa ulertzen den moduan, eremuaren topografiak ez luke eragin esanguratsurik jasango, lur laua lortzeko egin beharreko egokitze-lanengatik (terrazadun eraikin mailakatuak), eta, beraz, behe-hegalak ez luke kontuan hartu beharreko eraginik jasango.

Higadura-prozesuak eta -arriskuak. Une honetan, balioetsi da terraza txiki horiek eta dagozkien horma txikiak egitean higadura-arriskuak areagotu egin daitezkeela eremu horretan, nahiz eta terrazak egiteko teknika iraunkorrak erabili. Terraza txikiak izango lirateke, ez guztiz horizontalak, eta, ezpondak baino gehiago, horma txikiak erabiliko lirateke, horrebenste lur ez erabiltzeko. Arrisku hori berariaz kontrolatu beharko da, eta dagozkion prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak aplikatuko zaizkio, obrak hasten diren unetik. Horregatik guztiagatik, sor daitekeen eragina negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulezina eta leheneragarria izango da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Erabilera-fasean edo ustiapen-fasean, ezponden mantentzea eta egonkortasuna kontrolatu beharko dira, eta baita egon daitezkeen higadura-arriskuak ere, halakorik balego.

Hondakin-sorkuntza. Ziur asko, obren faseko lur-soberakina terraza horietan jarri ahal izango litzateke, eta, beraz, eragina ez litzateke esanguratsua izango. Erabilera-faseari dagokionez, ez lirateke esanguratsuak izango fase horretan ere, are gehiago, horietako asko jatorri organikokoak izango direla eta ongarri moduan erabili ahal izango direla kontuan hartuta.

- AZALEKO HIDROLOGIA

HAPOren fase honetan, ez da pentsatzen inolako ibilgurik eragin esanguratsurik jasango duenik. Baratzeen eta Arkaitzetako errekaren arteko distantzia eta eremutik kanpo duen kokapena kontuan hartuta eta gainera berorren eskuineko ertzean dagoen zuhaitz-landarediak pantaila-lanak egiten dituenez, ur-ibilgu honek ez luke eragin esanguratsurik jasango.

- HIDROGEOLOGIA.

Akuiferoak betetzea eta eraldatzea. Une hauetan eskuan dugun informazioaren arabera, dauden sumendi-materialen portaera hidrogeologikoa iragazkortasun ertainekoa edo txikikoa da. Sumendi-bretxek (laba-jarioaldi artean tartekatutako zerrenda) iragazkortasun txikia dute, porositatearen ikuspegitik; eta laba-jarioaldiek, berriz, iragazkortasun ertaina dute, porositatearen ikuspegitik. Horrelako materialek duten arrisku handiena hausturen presentziarekin lotuta dago, eta une honetan ez da ezagutzen horrelakorik (ez da ezagutzen failarik edo beste mota bateko hasturarik eremuan, ez eta ur-hargunerik, iturbururik edota akuiferorik ere).

Horren guztiaren ondorioz, eta hartuko duen erabilera iraunkortasun-irizpideak kontuan hartuta garatuko dela ulertuta, osagai horrekin lotutako arrisku esanguratsurik ez dela izango pentsatzen da.

- LURZORUAK.

Landu gabeko lurzoruak galtzea edo suntsitzea (lurzoruaren artifizializazioa). Jarduketa-proposamenak lur emankorraren zati txiki bat galtzea ekarriko du ziur asko (lurra lantzeko lanabesak gordetzeko etxola, hegalean terrazak egiteko lanak...), baina, jarduketa oro har hartuta, ez litzateke eragin esanguratsurik izango, eta, are gehiago, jarduketa berean berriro erabili ahal izango dela pentsatzen da.

Gaitasun agrologiko handiko lurzoruak. Ez dago eraginik.

- LANDAREDIA

Landaredia kentzea. Erabilera berria ezartzearen ondorioz, belardiak, laharrak eta iratzeak kenduko lirateke, eta baita horien artean tartekatuta dauden haritz kandudunen aleren bat ere. Zuhaitz gazteek (astigarra, hurritza, haritza, lizarra, ereinotza...) eta hego-ekialdeko muturrean dauden pinuek, eremuaren barnean zein kanpoan eta, oro har, eremuaren ertzean daudenek, ez lukete eraginik jasango. Horregatik guztiagatik, eragina negatiboa, zuzenekoa, sinplea, epe laburrekoa, iraunkorra, itzulezina eta leheneragarria izango litzatekeela balioetsi da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

- FAUNA.

Fauna eta konektibitate ekologikoa. Makineria eta obrako ibilgailuak sartzeak eta lurrak mugitzeak anfibioei, narrastiei eta mikrougaztunei eragingo die batik bat, mugitzeko gaitasun txikiagoa dutenez, eta hegaztiek, mugikortasun handiagoa dutenez, inguruko eremuetara joko dutela pentsatzen da. Mehatxatutako eta babestutako espezierik edo espezie berezirik ez dagoela, dagoen landarediari atxikitako fauna balio baxukoa dela eta eragindako eremuaren

antzeko habitatak gertu badaudela kontuan hartuta, ingurumen-aldagai horrek ez luke eragin esanguratsurik jasango.

- PAISAIA.

Paisaiaren kalitatea. Terrazak egiteko teknika iraunkorrak erabiliko direla, eragindako azalera txikia dela, ezarriko diren baratzeen erabilera beste nekazaritza-erabilera batzuen ondoan kokatzen dela, paisaiaren hauskortasuna txikia dela, gutxi ikusten dela eta aspalditik udalerri honetako hegalek higadura geldiarazteko horma txikiak dituztela kontuan hartuta, ez litzateke kontuan hartu beharreko eragin esanguratsurik egongo.

- BIZTANLERIA

Soinu maila, hautsa, zirkulazioa eta abar gehitzeak biztanleriarengan duen eragina. Erabilera hori ezartzeak ez luke biztanleengan eragin negatiborik izango.

- INGURUNE EKONOMIKOA

Nekazaritza-sektorea. Nekazaritza-erabileren arteko ordezkatze bat da, hots, belardiak baratzeez ordezkatzen dira; beraz, ez luke eragin esanguratsurik izango.

- ESPAZIO PUBLIKOAK

Aisialdirako eta jolaserako espazio publikoak. Ezoziko eremuan aisialdiko baratzeak ezartzeko proposamenak soraluzetarren gozamenera zuzendutako zuzkiduren azalera handiagotuko luke; gainera, ezaugarri horiek dituzten espazio gutxi daude udalerrian, eta, beraz, HAPOren eragina positiboa, zuzenekoa, epe ertainekoa eta iraunkorra litzateke.

- AZPIEGITURAK ETA IRISGARRITASUNA

Kanpoko sarbideen azpiegitura. Eremu horretara GI-3653 errepidetik sartzen da gaur egun, eta Ezoziko Amabirjinaren etorbidearekin lotuta dago zuzenean; hortik hainbat kaletatan zehar hirigunera iristen da, eta hortik GI-627 errepidera. Azpiegitura horiek daudela, hirigunetik gertu dagoela eta oinez mugitzeko aukera ematen duela kontuan hartuta, aldagai horren eragina ez litzateke esanguratsua izango.

Zerbitzuen azpiegiturak. Horrelako zerbitzuak dituzten urbanizatutako eremuetatik gertu dagoela, hartzen duen azalera txikia dela eta erabilera horrek baliabideen kontsumo handia ez duela eskatzen kontuan hartuta, une honetan ez da ikusten udalerriko zerbitzuen azpiegituren sistema orokorrak (ur zikinen sarea eta ur-hornidurarako sarea, elektrizitatea, etab.) eragin esanguratsurik jasango duenik.

- INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK

Interes kulturaleko ondasunak edota presuntzio arkeologikoko guneak. Ez dago eraginik.

- HIRIGINTZA-PLANGINTZA

Lurzoruaren hirigintza-sailkapena. Lurzoruaren hirigintza-sailkapenean ez dago aldaketarik; lurzoru hiritarrezina izaten jarraitzen du, eta, beraz, ez dago eraginik.

EKIPAMENDU ETA ZERBITZUETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDU-PROPOSAMENEN INGURUMEN-ERAGINAK IDENTIFIKATZEKO ETA BALIOESTEKO MATRIZEA

			HILERRI BERRIA		AISIALDIKO BARATZEAK	
			NEURRIRIK GABE*	NEURRIEKIN*	NEURRIRIK GABE*	NEURRIEKIN*
			OBREN F./USTIAPEN F.	OBREN F./USTIAPEN F.	OBREN F./USTIAPEN F.	OBREN F./USTIAPEN F.
INGURUMEN-FAKTOREAK	INGURUNE BIZIGABEA	Airearen kalitatea	B/__	__/__	__	___
		Interes geologikoa eremua edota gunea	—	—	—	—
		Erliebe-formak	B/B	B/__	__	__
		Higadura-prozesuak eta -arriskuak	B/__	B/__	B/__	__/__
		Hondakin-sorkuntza	B/B	__/__	__	__
		Ibai-ibilgua	__	__	__	__
		Azaleko uraren kalitatea	__	__	__	__
		Akuiferoak betetzea eta eraldatzea	Ezezaguna	Ezezaguna	—	—
		Landu gabeko lurzorua galtzea edo suntsitzea (lurzoruaren artifizializazioa)	M/__	B/__	__	__
		Gaitasun agrologiko handiko lurzoruak	—	—	—	—
		Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruak	—	—	—	—
	INGUR. BIOTIKOA	Landaredia kentzea	M/__	B/__	B/__	B/__
		Fauna eta lotura ekologikoa	__	__	__	__
	I.PERTZEP.	Paisaiaren kalitatea	B/B	B/__	__	__
	INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA	Biztanleriak jasango dituen eraginak, soinu maila igotzeagatik, etab.	B/Ezezaguna	B/Ezezaguna	—	—
		Kanporatutako biztanleak	__	__	__	__
		Nekazaritza-sektorea	B/__	B/__	__	__
		Hustutako enpresak	__	__	__	__
		Industria-enpresak birkokatzea	—	—	—	—
		Espazio librea (plaza)	__	__	__	__
		Ibaiertzeko espazio publikoa	__	__	__	__
		Aisialdirako eta jolaserako espazio publikoa	—	—	__/__	__/POSITIBOA
		Zuzkidura-lurzorua	__/__	__/POSITIBOA	__	__
		Aparkalekuak	__	__	__	__
		Irisgarritasuna hirigunean	__	__	__	__
		Kanpoko sarbideen azpiegitura	—	—	—	—
		Zerbitzuen azpiegitura	__	__	__	__
		Interes kulturaleko ondasunak edota presuntzio arkeologikoko guneak	—	—	—	—
		Lurzoruaren hirigintza-sailkapena	—	—	—	—

POSITIBOA = Efektu onuragarria edo positiboa. __ Eraginik ez edo eragin esanguratsurik ez plangintza mailan
* Neurri babesleak edota zuzentzaileak
B = Bateragarria, M = Moderatua eta L = Larria

5.- Antolamendurako proposamenak mugikortasunaren arloan: Irukurutzetako biribilgunea

- ATMOSFERA

Airearen kalitatea. Airearen kalitatea aldatu egingo da obren fasean, partikulen inmisio maila handiagotu egingo baita, batez ere hegalari eragingo zaiolako; beraz, inpaktua negatiboa, zeharkakoa, metagarria, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria litzatekeela ulertu da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Biribilgunearen ustiapen-fasean edo erabilera-fasean, ibilgailuen zirkulazioaren ondoriozko kutsatzaileak ez lirateke modu esanguratsuan gehituko (karbono monoxidoa, nitrogeno oxidoak, etab.), Debako korridoreko tarte honetan gaur egun hautemandakoarekin alderatuta.

- GEOLOGIA-GEOMORFOLOGIA.

Interes geologikoa duten eremuak eta guneak. Ez dago eraginik.

Erliebearen formak. Lurraren topografia aldatu egingo da puntualki hegalaren ertzean, ezponda berria egiten denean; hala ere, oro har, ez litzateke esanguratsua izango, gaur egungo GI-627 errepidearen trazadurarako aurrez jasan zuen eraginaren ondorioz.

Higadura-prozesuak eta -arriskuak. Ezponda berria egiteak higadura-arrisku gehiago sor ditzake hegalean, hegalak malda handia baitu; baina berorren benetako irismena proiektuaren fasean ezagutuko da, dagozkion ezaugarri geoteknikoei eta geologikoei buruzko azterketa egiten denean. Oraingoz, izan dezakeen eragin hori negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulezina eta leheneragarria litzatekeela uste da, eta moderatu gisa sailkatuko litzateke.

Hondakin-sorkuntza. Obren fasean, lur-soberakina sortuko da, eta hori behar bezala kudeatu beharko da; oraindik zenbatekoa izango den eta zer helburu edo kokaleku izango duen ezagutzen ez den arren, gerta daitekeen eragin hori negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria, leheneragarria eta jarraitua litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

- AZALEKO HIDROLOGIA

Ibai-ibilgua. Deba ibaiaren ibilguak ez du eraginik jasango (ibaia bideratzeko gaur egungo horma mantendu egingo da).

Ibaiertza. Aurrez zegoen errepidearen ibilbidea Deba ibaiaren ibilgura gerturatzen zen hein handi batean; horixe erakusten digute GI-627 errepidearen harrizko petril zaharrak eta 1954ko aireko argazkiak. Une honetan, eragina jasango duen ibaiertzeko azalera duela urte batzuk eragindakoa baino txikiagoa izango dela aurreikusi da, eta, beraz, eragina ez litzateke esanguratsua izango.

Uraren kalitatea. Obren fasean, kontua handiz egin beharko dira lanak, lurren mugimenduek, batzuetan oharkabetasunagatik eta kontrol ezagatik, ur-ibilguen kalitateari eragiten baitiote; gauza bera gerta daiteke makineria astunaren olio- eta koipe-isuriekin ere, arretaz eta ingurumena zainduz lan egiten ez bada. Kasu honetan, gerta daiteke obren fasean obretatik datozen solido esekien kopurua handitzea, eta horrek eragina izan dezake Deba ibaiaren uraren kalitatean, eremutik oso gertu baitago. Une honetan, gerta daitekeen eragin hori negatiboa, zuzenekoa, metagarria, sinergikoa, epe laburrekoa, aldi baterakoa, itzulgarria eta leheneragarria litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Uholde-arriskua murriztea. Ibaiaren ertzeko eremu hau ez dago URAk udalerri honetan identifikatutako Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremuen barnean, baina EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPk uholde-arrisku bat ezartzen du, eta hori, ahal den neurrian, murriztu egin beharko da, dagokion proiektua izapidetzerakoan.

- HIDROGEOLOGIA.

Akuiferoak betetzea eta eraldatzea. Plangintzaren une hauetan eskura dugun informazioaren arabera, dauden sumendi-materialen portaera hidrogeologikoa iragazkortasun ertainekoa da.

Lehengo horiek duten arrisku handiena hausturen presentziarekin lotuta dago, eta une honetan, ez da horrelakorik hauteman. Bestalde, ez da ezagutzen ur-hargunerik, iturbururik edo akuiferorik, eta hori kontuan hartuta eta jarduketa mota eta biribilgunea egingo den lurraldearen gaur egungo ezaugarriak kontuan hartuta, adierazle hori ez litzateke esanguratsua izango.

- LURZORUAK.

Landu gabeko lurzoruak galtzea edo suntsitzea (lurzoruen artifizializazioa). Jarduketa-proposamenaren ondorioz, GI-627 errepideko bihurguneari dagokion lur-berdinketa (betelana) estaltzen duen lurzoruaren geruza fina galduko da, zoladura agerian duen eremuan eta GI-627 errepideak gaur egun hartzen duen bidearen eremuan salbu. Ingurumenaren ikuspegitik, hegaleko eremuko lurra galtzea soilik hartuko litzateke eragin esanguratsu gisa. Horrela, beraz, eragina negatiboa, zuzenekoa, sinplea, epe laburrekoa, iraunkorra, itzulezina eta leheneragarria izango litzatekeela uste da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Gaitasun agrologiko handiko lurzoruak. Hegaleko lurzoruak gaitasun agrologiko txikikoak dira, eta bihurgune zaharraren zoladura estaltzen dutenak ere balio handikoak ez direla balioetsi da.

- LANDAREDIA

Landaredia kentzea. Biribilgune berria ezarriz gero, hegaleko pinuak eta landaredi erruderal-nitrofiloa kenduko litzateke, eta baita Deba ibaiaren ezkerreko ertzean dagoen zuhaizti gaztea, platanoz eta urkiz basotutakoa, ere. Meandro ertzeko zuhaiztia eta hegoaldeko muturrean kokatuta dagoena (haltzak) mantendu egingo lirateke. Horregatik guztiagatik, eragina negatiboa, zuzenekoa, sinergikoa, epe laburrekoa, iraunkorra, itzulezina eta leheneragarria izango litzatekeela balioetsi da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.



2013. URTEA

- FAUNA.

Fauna eta konektibitate ekologikoa. Makineria eta ibilgailuak sartzeak eta lurrak mugitzeak anfibioei, narrastiei eta mikrougaztunei eragingo die batik bat, mugitzeko gaitasun txikiagoa dutenez, eta hegaztiek, mugikortasun handiagoa dutenez, inguruko eremuetara joko dutela pentsatzen da. Mehatxatutako eta babestutako espezierik edo espezie berezirik ez dagoela, dagoen landarediari atxikitako fauna balio baxukoa dela eta eragindako eremuaren antzeko habitatak gertu badaudela kontuan hartuta, ingurumen-aldagai horrek ez luke eragin esanguratsurik jasango.
- PAISAIA.

Paisaiaren kalitatea. Bailararen eremu honetan, paisaiaren kalitatea ez da oso altua: antropizatutako paisaia da, hainbat pabiloi industrial daude, zubi bat eta GI-627 errepidea ere badaude, eta ez da gehiegi ikusten, malda handiko hegalez inguratuta baitago eta ibaiak udalerritik igarotzean egiten dituen meandro horietako batean kokatuta baitago. GI-627 errepidetik ikusten da gehien, proiektatutako biribilgunea kokatuko den lekutik, hain zuzen.
Horregatik guztiagatik, obren fasean nahiz erabilera berria ezartzeko unean, paisaiak jasango duen eragina zuzenekoa, sinplea, aldi baterakoa/iraunkorra, epe laburrekoa, itzulezina, lehenengarria/lehenengaezina eta jarraitua izango litzatekeela balioetsi da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.



PROPOSAMENA

- BIZTANLERIA

Soinu- maila, hautsa, zirkulazioa eta abar gehitzeak biztanleriarengan duen eragina. Obren fasean, erabilera berria hartzeko egin behar diren lanek soinu maila, hautsa eta eragozpenak (zirkulazioa moztea...) areagotzea ekarriko dute, eta udalerrira hegoaldetik sartzeko GI-627 errepidea erabiltzen dutenei eragingo die bereziki. Berorren inguruan ez dela inor bizi aipatu behar da, eta eragina jasan dezaketen pertsonak ibaiaren bestaldeko ertzean bizi direla, Zuloaga eta Agirre baserrietan. Beraz, eragin hori negatiboa, zuzenekoa, aldi baterakoa, sinergikoa, epe laburrekoa, etena, itzulgarria eta leheneragarria izango litzatekeela balioetsi da, eta bateragarri gisa sailkatuko litzateke.

Biribilgunearen erabilera- edo ustiapen-fasean, ez dago kontuan hartu beharreko eragin esanguratsurik gaur egungo egoerarekin alderatuta.

- INGURUNE EKONOMIKOA

Nekazaritza-sektorea. Jarduketa horren ondorioz, nekazaritza-erabilerak eragin txiki bat jasango luke (baso-erabilera produktiboa, *pinus radiata*), lurzoru horren bokazioarekin eta inguruarekin bat datorren erabilerak, hain zuzen; eta, beraz, erabilera hori desagertzean, produktibitate ekologikoa eta nekazaritza-produktibitatea galduko lirateke. Baina, bestalde, nekazaritza-erabilera hori nahikoa zabalduta dago udalerrian, eta hirigunearen ertzean eta GI-627 errepidearen ondoan dagoen eremu txiki bati eragiten dio. Beraz, eragin hori ez litzateke esanguratsua izango.

- AZPIEGITURAK ETA IRISGARRITASUNA

Kanpoko sarbideen azpiegitura. Biribilgune berriak GI-627 errepidetik udalerrirako sarrera hobetuko du, eta, aldi berean, hiriguneko bide-eraztunean autoen zirkulazioa modu esanguratsuan murriztuko du, Soraluze-Placencia de las Armasera sartzeko eta bertatik irteteko herritar eta langile askok ez dutelako udalerri osoa zeharkatu beharrik izango, gaur egun egiten duten bezala. Beraz, eragina positiboa, zuzenekoa, epe ertainekoa eta iraunkorra litzateke.

Zerbitzuen azpiegiturak. Jarduketa mota eta urbanizatutako eremuetatik gertu dagoela kontuan hartuta, eragin hori ez litzateke esanguratsua izango.

- INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK

Interes kulturaleko ondasunak edota presuntzio arkeologikoko guneak. Ez dago eraginik.

- HIRIGINTZA-PLANGINTZA

Lurzoruaren hirigintza-sailkapena. Lurzoruaren hirigintza-sailkapenean ez dago aldaketarik, eta, beraz, ez dago eraginik.

MUGIKORTASUN-PROPOSAMENAREN INGURUMEN-ERAGINAK IDENTIFIKATZEKO ETA BALIOESTEKO MATRIZEA

			IRUKURUTZETAKO BIRIBILGUNEA	
			NEURRIRIK GABE*	NEURRIEKIN*
			OBREN F./USTIAPEN F.	OBREN F./USTIAPEN F.
INGURUMEN-FAKTOREAK	INGURUNE BIZIGABEA	Airearen kalitatea	B/__	__/__
		Interes geologikoa eremua edota gunea	__	__
		Erliebe-formak	__	__
		Higadura-prozesuak eta –arriskuak	M/__	B/__
		Hondakin-sorkuntza	B/__	__/__
		Ibai-ibilgua	__	__
		Ibaiertza	__	__
		Azaleko uraren kalitatea	B/__	__/__
		Uholde-arriskua murriztea	__	__
		Akuiferoak betetzea eta eraldatzea	__/__	__/__
		Landu gabeko lurzorua galtzea edo suntsitzea (lurzoruaren artifizializazioa)	B/__	B/__
		Gaitasun agrologiko handiko lurzoruak	__	__
		Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruak	__	__
	INGUR. BIOTIKOA	Landaredia kentzea	B/__	B/__
		Fauna eta konektibitate ekologikoa	__	__
	I.PERTZEP.	Paisaiaren kalitatea	B/B	B/__
	INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA	Biztanleriak jasango dituen eraginak, soinu maila igotzeagatik, etab.	B/__	B/__
		Kanporatutako biztanleak	__	__
		Nekazaritza-sektorea	__	__
		Hustutako enpresak	__	__
		Industria-enpresak birkokatzea	__	__
		Espazio librea (plaza)	__	__
		Ibaiertzeko espazio publikoa	__	__
		Aisialdirako eta jolaserako espazio publikoa	__	__
		Zuzkidura-lurzorua	__	__
		Aparkalekuak	__	__
		Irisgarritasuna hirigunean	__	__
		Kanpoko sarbideen azpiegitura	__/__	__/POSITIBOA
		Zerbitzuen azpiegitura	__	__
		Interes kulturaleko ondasunak edota presuntzio arkeologikoko guneak	__	__
		Lurzoruaren hirigintza-sailkapena	__	__

POSITIBOA = Efektu onuragarria edo positiboa. __ Eraginik ez edo eragin esanguratsurik ez plangintza mailan
* Neurri babesleak edota zuzentzaileak
B = Bateragarria, M = Moderatua eta L = Larria

6.- Lurzoruaren antolamendurako beste proposamen batzuk hirigunean:

Hiriguneko gainerako eremuetan, oso jarduketa zehatzak planteatzen ditu planak. Gehienbat berriro urbanizatzeko lanak edo bizitegi-izaerako eraikinak birgaitzeko lanak nahiz ordezteko lanak dira, bai eta eraikuntza berri bat ere orube zehatz batean.

Urbanizazio-lanen artean, errepideak berrantolatzearekin lotutako lanak eta hirigunean mugikortasuna sustatzeko oinarrizko elementuak gauzatzearekin lotutakoak daude, bai eta ibaiaren ertzetan pasealekuak egitea ere; proposamen horiek mugikortasunari eta irisgarritasunari eta Deba ibaiaren antolamenduari dagozkien ataletan deskribatuta daude.

Plana gauzatzearen ondorioz egingo diren beste eraikuntza-lan batzuk lehendik finkatuta dauden eraikinen birgaitze-lanak dira, bereziki Alde Zaharra eremuan; lan horiek alde historikoko Plan Bereziaren arauak betez egingo dira, HAPO ezartzearen ondorioz izan ditzakeen berregokitzeak kaltetu gabe. Baina Gabolats, Baltegieta-Zupidebarrena edota Atxuri-Errabala eremuetan ere egingo dira, besteak beste.

Esku-hartze zehatz horien artean kontuan hartu behar dira honako hauek ere: Baltegieta-Iturburu eremuaren ipar-mendebaldeko muturrean kokatuta dagoen eraikina ordeztuko da, Txurrukenan dagoen Telefonikako eraikinaren erabilera aldatuko da aldi baterako, eta Errekalde Goikoa eremuan, Oleako zubiaren ondoan, udalaren jabetzakoa den orubean eraikiko da.

Era berean, Mendiolako eremu industrialean gauzatu gabe dagoen oruberen batean eraikitzea aurreikusten da, eremuan finkatuta dauden eraikuntza-ereduei jarraituz.

Eraikuntza-lan berriei dagokienez, berariaz aipatzen dira hemen Erregetxen aurreikusten diren ekipamendu berrien eraikinak (horrela, plaza udalerriko hiri-espazio nagusia izateko antolaerari amaiera emango litzateke, portxe bat ere eginez), bai eta Atxurin aurreikusten direnak ere (zahar etxea handituko litzateke, lehendik dauden eraikinen irisgarritasun-baldintzak hobetuz). Obra horiez gain, hilerria ere eralda daiteke, eta ekipamendu publikoko eraikinak ezar daitezke bertan.

Eraisketak xede dituzten lanak ere aipatzen dira hemen, eta, horiekin batera, espazio publikoak berreskuratzeko lanak, oro har, hainbat ibilguren ertzetan egingo direnak (Olea, Loralde, Alde Zaharra...).



Beraz, deskribatutako jarduketen balioespen bateratu bat egin ondoren, ikur POSITIBOA duten eragin esanguratsuak sortuko direla hirigunean balioetsi da, eta sor daitezkeen eragin negatiboek airearen kalitateari eta giroko soinuari eragingo dietela; hondakin geldoak ere sor daitezke (erabilerarik gabeko orubeak daude), baina horiek ez dira esanguratsuak izango. Dena den, proiektuaren eta obren faseetan kontuan hartu beharreko praktika egokietarako neurriak proposatuko dira.

7.- Beste proposamen orokor batzuk mugikortasunaren eta irisgarritasunaren arloan.

Irisgarritasun-plana (2003) eta Izartu I. eta II. planak (2001 eta 2004) gauzatu ondoren, udalerrian eta, zehazki, hirigunean mugikortasun- eta irisgarritasun-baldintzak nabarmen hobetu badira ere, gai honetan arazo handi samarrak hautematen dira oraindik, eta, horregatik, beharrezkoa da gai horretan azken urteotan abiarazi diren ekintzei jarraipena ematea, arazo horiei irtenbidea aurkitu ahal izateko.

Horrela, planak garraio publikoarekin lotutako neurriak sustatzeaz gain, Deba bailarako bizikleta-bideari jarraipena emateko irtenbidearen antolamendua ere jasotzen du; Bergaratik Soraluze-Placencia de las Armasko hirigunera eta Maltzagara arte doa bizikleta-bide hori, azken horretako bide-zatia ere barne hartuta; eta sare horrek Eibar eta Elgoibar aldera jarraipena izatea lortu nahi da; izan ere, berorren ibilbidean malda txikiak lor daitezkeenez eta herriguneen arteko distantziak aintzat hartzekoak direnez, bizikleta garraio-aukera egokia bihur daiteke bidaien ehuneko esanguratsu baterako. Horretarako, utzita baina gaur egun oraindik hortxe jarraitzen duen trenbidea erabiliko da, horrela, trenbideari balioa emanez.

Bestalde, Plan Orokorraren denbora-mugan, bailara honetako garraiobide publiko gisa trenbidea berreskuratzeko aukera baztertu egin da, arloko ikuspegi horretatik proposatzen dena ikusita, nahiz eta Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planean aurreikuspen hori jasota dagoen; era berean, errepide-azpiegitura berrien antolamendua ere baztertu egin da, baina AP-1 autobidearen eta GI-627 errepidearen ibilbideak finkatu dira. Mugikortasunaren arloan esku hartzeko proposamenak, beraz, errepide horretatik hirigunerako sarrera eta hiriguneko hiri-eraztuna hobetzera bideratuta daude, ezinbestekoa baita.

Bide-eraztun horri dagokionez, beharrezkoa da Baltegietan zubi berri bat egitea. Zubi berri horrek eraztunaren luzera % 20 murrizteko aukera ematen du, eta, are garrantzitsuagoa, hiri-eraztun horrek ez du interferentziarik izango GI-627 errepidearekin. Horrez gain, zubi horrek gaur egungo Sagar errekako igarobidea kentzeko aukera ematen du, Deba ibaiaren bi ertzak inolako oztoporik gabe oinezkoentzako lotuz. Nahiko esku-hartze zehatza eta xumea da, eta abantaila bereziak eskaintzen ditu, hainbat helbururi erantzuna ematen dio, eta berorren gauzapenean askotariko eragile publikoek parte har dezakete. Eraztuna Gabolats eta Etxaburueta kaleek osatzen duten zeharkako sarearekin osatzen da, bai eta Gabolats kaleko zubiekin −arrazoi hidraulikoek bultzatuta horiek ordeztea beharrezkoa denez, beroriek ordeztea eta zabaltzea ere proposatu da− eta Zubi Nagusiarekin ere.



ZUBI BERRIA BALTEGIETAN

Hiriguneko bide-sarean, Santa Ana kalearen ardatza behin betiko osatzea proposatzen du planak, eta Oleako zubiraino egokiro luzatzea. Horretarako, bidearen jarraipena Deba ibaiaren aurrealdean antolatzea aukeratu da, eta, gaur egun udalak aurreikusita duenaren arabera, Gabolats-Santa Ana ardatza aldibereko kale izatea aurreikusten da, ibilgailu motordunen aurrean oinezkoei lehentasuna emanez, behin-behineko luzetarako aparkamendua eta bizikleten zirkulazioa aurreikustea kaltetu gabe. Era berean, udalerriaren ezaugarriak berreskuratzeko lehentasunezko ekintza da, eta erdian dagoen gune baten gaineko jarduketa da. Horrek modu positiboan eragingo du Deba ibaiaren ezkerreko ertz guztian, Zubi Handitik beherako uretan.

Oinezkoentzako bideen sarea osatu eta hobetzea proposatzen du planak, irisgarritasun unibertsalerako bete beharreko baldintza guztiez hornituz. Horrela, beste ekintza batzuen artean, udalak abian jarri duen igogailu publikoen sistema finkatu da, eta Olaldea eta Zeleta artean igogailu gehigarri bat ezartzea proposatu da; bestalde, Sagar erreka eta Errekaldeko oinezkoentzako igarobideak aldatzea planteatu da, ez baitituzte irisgarritasunaren ikuspegitik baldintzak egokiro betetzen; lehenengoaren kasuan, erantzun hobea emango zaio Baltegieta kalearen amaieran proposatzen den zubi berriaren bidez, eta, bigarrenaren kasuan, Atxuriko plazaren aurreko igarobide berriaren bidez.

Bestalde, oinezkoentzako lekua berreskuratzeko proposamena ere egin da, bereziki, hirigunea Deba ibai aldera irekiz; ildo horretatik, Erregetxeko aire libreko aparkalekua kentzeko proposamena ere nabarmendu da −salbuespen modura txandakatze-erregimenean erabilgarri dauden aparkalekuei eutsiz−; 45 aparkaleku kentzea adieraziko luke horrek.

Aparkalekuen hornidura zabaltzeko, bi proposamen berezi ere egin dira; aparkatzeko bi eraikin handi sortuko lirateke GI-627 errepidetik hirigunera sartzeko ibilgailuentzako lotuneen ondoan: bata, Santa Anan (200 autorentzako lekua luke, baina aukera hau gauzatzeko lehendik dauden 45 aparkaleku kendu behar dira); eta bestea, Baltegietan (180 aparkaleku inguru). Aurrez egindako salbuespena aintzat hartuta, lehendik dagoen aire libreko aparkalekuari eutsi egiten zaio, bide-eraztunari lotutakoari bereziki, bai eta Gipuzkoa etorbidearen ondoan dagoenari ere, eta udala aztertzen ari den ekimenen bidez berori hedatzeko aukera ere badago; eta aparkalekua finkatu da Olean eta industrialdeetan ere.

Espazio libreetara itzuliz, planak hiru plaza handi sortu nahi dituela hirigunean azpimarratzen da; udalerri osoaren zerbitzura egoteko leku estrategikoetan kokatuko dira, eta ibaira irekita egongo dira, argia bilatzeko. Erregetxen egingo den jarduketa da bat, aurrez aipatu dena, eta lehendik dauden eraikinak eraitsi ondoren egingo dira beste biak, bi plaza antolatuz: bata, Olaldean, Santa Ana kaletik gertuen dagoen eremuan egingo da, eta bestea, Kanoietan, Gabolatseko zubiaren ondoan.

Beraz, deskribatutako jarduketen balioespen bateratu bat egin ondoren, ikur POSITIBOA duten eragin esanguratsuak sortuko direla hirigunean balioetsi da, eta sor daitezkeen eragin negatiboek airearen kalitateari eta giroko soinuari eragingo dietela, eta hondakin geldoak ere sor daitezkeela, nahiz eta ez diren esanguratsuak izango; dena den, proiektuaren eta obren faseetan kontuan hartu beharreko praktika egokietarako neurriak proposatuko dira.

Oro har hirigunea eta, bereziki, bertako zuzkidura publikoak berriro urbanizatzeko eta birgaitzeko esku-hartzeek behin eta berriz aipatu den behar bati erantzuten diote.

8.- Proposamen orokorrak zerbitzuen azpiegituren arloan.

Udalerriak dituen zerbitzu-azpiegituren sarearekin lotuta, ez da hauteman eskari edo gabezia esanguratsurik.

Ur-horniduraren arloan, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren aldeko txostena dago, proposatutakoa garatzeko behar adina ur erabilgarri badagoela justifikatzen duena; eta, oro har, gaur egungo hiriguneko sarea hobetzea planteatu da, Amillagaraino luzatuz eta landa-inguruaren hornidura-baldintzak hobetuz, eta lehendik dauden ur-bilguneen sistema berreskuratzea.

Ur zikinen sareari dagokionez, pixkana tokiko sarea berritzea proposatu da, eta hirigintzako jarduketak aukera ematen duen tokietan, euri-urak eta hondakin-urak bereizteko sistema bat ezartzea aurreikusi da; aldaketa hori egin ezin den tokietan, gaur egungo sareei eutsiko zaie, azken zatietan gainezkabideetatik pasaraziz. Ildo beretik, hiri-sarea hirigunetik gertueneko baserrietara hedatzeko aukera ere balioetsiko da.

Energia elektrikoaren arloan, gaur egungo sarea finkatuko da, transformazio-zentro berriak ezartzeko sor daitekeen beharra kaltetu gabe, eta gaur egungo aireko lineetatik doazen zati batzuk lurperatzeko aukera ere aintzat hartuko da.

Kale-argiteriari dagokionez, tokiko sare eraginkorrago bat ezarriko da, eta "smart cities" programa beste zerbitzu batzuetara ere hedatuko da.

Telekomunikazioen arloan, azpiegiturak bateragarri eginez sinergiak bilatzeko ahalegina egingo da. Ildo beretik, udalerrian antenen ezarpena eta, bereziki, telefonia mugikorreko zerbitzuena arautzeko esku hartuko da.

Deskribatutako jarduketak balioetsi ondoren, arlo horretan proposatu diren ekintzen ondorioz, ikur POSITIBOA duten eragin esanguratsuak sortuko direla hirigunean balioetsi da.

9.- Landa-lurzoruaren antolamendurako proposamenak.

HAPO honek landa-lurzoruan aurreikusten dituen proposamenek ekosistema naturala zaintzen dute, balio ekologiko handieneko eremuak babesten baitituzte; gainera, lurzoru hiritarrezina berorren baliabideekin, balioekin, erabilerekin eta gaitasunekin bat etorrita antolatzen eta zonakatzen dute. Halaber, ekintza positiboko neurriak planteatzen dira ingurumenaren ikuspegitik degradatuta, hondatuta edo aldatuta dauden eremu edo espazioetarako.

Soraluze-Placencia de las Armas udalerriko lurzoru hiritarrezina zonakatzeko eta antolatzeko proposamen horiek Antolamendu Eremuen eta Baldintzatzaile Gainjarrien mugaketatik abiatuta zehaztu dira, eta berorien erabilerak eta jarduerak arautu dira, aurreko paragrafoan jasotakoarekin eta Aurrerapenaren fasean adierazitakoarekin bat etorriz.

Zonakatzea zehazteko, ingurumen-organoak erreferentziazko agirian adierazitako irizpideak kontuan hartu dira, ingurumen-unitateak, landaredia eta lehen aipatutako aldagai guztiak ere aintzat hartuz. Hona hemen helburu horretarako eguneratutako landarediaren planoaren irudia.



9.1.- ANTOLAMENDUKO EREMUAK.

9.1.1.- Babes bereziko landa-eremua.

Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru natura-intereseko eremua dugu hemen; Euskal Autonomia Erkidegoko Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekiko 36. zenbakian jasota dago. Ingurumenaren ikuspegitik balio handiko lurraldea da honako hau (balio botanikoa, paisaia-balioa, aisialdi-balioa, balio kulturala eta historikoa, etab.), Informazioa eta Diagnostikoa dokumentuan aipatu denez, eta Soraluze-Placencia de las Armas, Elgoibar, Azkoitia eta Bergarako udalerriak hartzen ditu berorrek. Debagoieneko, Debabarreneko, eta Urola Kostako Lurraldearen Zatiko Planek natura-intereseko eremu gisa identifikatzen dute eremu hau.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin (LAG) bat etorrita, bai eta EAEko natura babesteko 16/94 Legearekin ere, eremu horretarako Antolamendu eta Kudeaketa Plana (AKP) landuko da, deskribatutako balioak babesten eta mantentzen direla bermatzeko; plan horretan, eremu hori 16/94 Legean zehaztutako babes-irudiren baten barnean antolatzeko aukera balioetsiko da. Plan horrek zehaztuko du gaur egun dauden ingurumen-balioak zaintzeko, hobetzeko edota leheneratzeko zer jarduketa egin behar diren, eta tokiko populazioen edo eragin-eremuen garapen iraunkorra sustatuko du, halaber. Hala ere, ez da planteatu ezinbestean formulatu beharko denik; eremu horren Antolamenduko Plan Berezi bat ere izapidetu daiteke, eta horrek, jakina, udalaz gaindiko irismena izan behako du.

Jarduketarako jarraibideak eta arauak zehaztuko dituen plana garatzen ez den bitartean, Plan Orokorrean esku-hartze antropikoa mugatzea proposatzen da, eta inguru horrek aurretiaz duen egoera bere horretan mantenduko da; inguruan aprobetxamenduren bat egonez gero, jarduera hori iraunkortasunaren ikuspegia kontuan hartuta garatuko da, eta erabilitako baliabidea berritzen dela bermatuko da. Bertako zuhaitz-masak mantenduko dira, bereziki pagoenak, eta zuhaiztiak mozteko eta bakanketak edo garbiketak egiteko zereginak sustatuko dira, espezie horiek berroneratzeko halakoak egitea egoki dela irizten denean. Eremu honetan, txilardi lehor europarrekin lotutako interes komunitarioko eremuak nabarmentzen dira (EU 4030 Kodea), bai eta Elosua-Plazentzia Estazio Megalitikoaren interes kulturala ere, Ondasun Kultural gisa kalifikatutakoa, Multzo Monumental kategorian, ekainaren 24ko 137/2003 Dekretuaren arabera; eta paisaiaren balioa ere bai (gailurren lerroak eta inguru hurbilak ikuspegi interesgarriak eskaintzen ditu, Deba bailaran eta inguruan berorren kokapena identifikatzearekin bat). Eibarko Lurraldearen Zatiko Planak (Debabarrena) mendiko larreen eremu bat ezartzen du mendilerro osoan zehar, eta, beraz, ezarpen hori kontuan hartu beharko da Antolamendu eta Kudeaketa Planean.

Gaur egun dauden habitaten eta ingurumen-balioen babesarekin bateragarriak diren erabilerak onartuko dira soilik, eta berariaz debekatuko da berorien bestelakotzea, aldaketa edota desagerpena ekar dezakeen jarduketa oro. Natura-intereseko eremu horri interes publiko edo sozialeko jarduketaren batek eragingo balio, EAEko ingurumena babesteko 3/1998 Lege orokorrak, otsailaren 27koak, 51. artikuluan jasotakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren azterketa egin beharko da eta eskumena duen administrazioari dagokion baimena eskatu beharko zaio.

Eibarko Lurraldearen Zatiko Planak (Debabarrena) honela sailkatu du eremu hori: Aisialdiko Eremu Naturala, Udalaz Gaindiko Eskualde Eremua (Elgoibar eta Soraluze-Placencia de las Armas); sailkapen horren arabera, etapak, lehentasunak eta baliabideen eskuragarritasuna kontuan hartuko dituen plan baten arabera programatu eta garatu beharko da inguru hori, eta modu bateratuan kudeatu beharko da. Ildo berean, ekipamendu eta zerbitzuen maila jakin bat izan beharko duela ere eransten du, eta zehaztapen horiek guztiak ere aintzat hartu beharko dira Antolamendu eta Kudeaketa Planaren lanketan.

2014ko irailaren 2ko erreferentziazko agirian, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak igorritakoan, jasotzen denaren arabera, Babes Bereziko Eremu horien barnean sartzen dira HAPO honetako Aurrerapen dokumentuan Interesekoak diren Zuhaitz Autoktonoen Eremuak deritzenak. Harizti-baso mistoak, *Ilex* eta batzuetan *Taxus* basopeak dituzten pagadi azidofilo atlantikoak (9120 kodea); *Quercus ilex* baso txikiak (9340 kodea); *Castanea sativa* baso txikiak (9260 kodea); *Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior* haltzadiak eta lizardiak (91EO* kodea), eta hemengo landarediz osatutako orlak eta heskaiak dira bereziki. Balio edo ahalmen ekologiko handia duten formazioak dira, nabarmen murriztu direnak, bai nekazaritzako beste erabilera batzuen presioaren ondorioz (baso-berritzeak, belardiak, etab.), bai nekazaritzakoak ez diren beste erabilera batzuen ondorioz. Lurralde honek izan dezakeen landarediaren *lekukoak* dira, eta oso lurralde estua hartzen dute udal-barrutiko lurren artean, eta kasu batzuetan, interes komunitarioko habitatak dira.

Honen barnean sartzen da Kurutzeko Gaina edo Kurutzetako Gaina ere, eta Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planean natura-intereseko gunetzat hartzen da inguru hori, ingurunearen ikuspegitik dituen ezaugarriak inguru honen barnean sartzen diren gainerako orbanen oso antzekoak direla ulertu baita. Plangintzarako dokumentu honek doitu egin du berorren azalera, eta, horregatik, ez dator bat zehatz-mehatz Lurraldearen Zatiko Planeko mugekin. Horren

arrazoia zera da: alde batetik, pinu-sailen ertzetako guneak eta haritz amerikarrez osatutako sailen ertzetako guneak kanpoan uztea, hasiera batean babestu beharrekotzat jo arren; eta, bestetik, orban horren mugan dauden eta antzeko ezaugarriak dituzten beste masa batzuk txertatzea. Horrez gain, Deba ibaiaren eskuin ertzeko hegalari dagokion gainazala ez bertan sartzea egoki ikusi da, interesik ez duen landaredia delako (pinua, nagusiki); eta eskuin hegaleko ibaiertzeko landarediaren barnean interes handiagoa duena babesten da jada, interes komunitarioko eremuen barnean jasotzen denez. Kartografiatutako orbana nahiko homogeneoa da, pinus radiata zuhaitzez osatutako gune txiki baten kasuan izan ezik, eta interesgarria litzateke ale horiek moztu eta basoa berritzea, hemengoak diren antzeko espezieak erabiliz.

Landare-orban horiek nahiko ondo gordeta eta zainduta daude, salbuespenak salbuespen, nahiz eta horietako batzuek hobetzeko eta ingurumenaren ikuspegitik leheneratzeko jarduketaren bat behar duten, klimax-basorantz bilaka daitezen (degradatutako ertzak dituzten eremuak, soilguneak, baso-landare aloktonoak tartean, basopearen gehiegizko garapena, etab.).

Interes komunitarioko gainerako habitatei dagokienez, esan behar da garaiera txikiko sega-belardi pobreak (6510 kodea), txilardi lehor europarrak (4030 kodea) eta larre lehor erdi-naturalak (6210 kodea) −horietako batek ere ez du lehentasunik− ez direla Babes Bereziko Eremuan sartu, Soraluze-Placencia de las Armasko lurraldearen antolamenduko irizpideengatik hertsiki. Erabaki hori hartzeko arrazoiak askotarikoak dira, besteak beste: higadura-arrisku handia eta oso handia duten lurzoruak (baliabide ez berriztagarria) babestearen beharra nahiz belardi-erabilerarako bokazio handia duten lurzoruei eustea, abeltzaintza-jardueraren garapena eta udalerriko abeltzaintzako ustiapenen jarraipena sustatzeko. Habitat horiek, bestalde, ugariak dira udalerrian nahiz Gipuzkoako lurralde osoan.

9.1.2.- Nekazaritza eta abeltzaintzako landa-eremua eta landazabala.

EAEko Nekazaritza, Basoak eta Ingurune Naturala Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren arabera, bi azpieremu zehaztu dira:

- Balio estrategiko handia:
Hiri-erabileretatik at mantendu diren eta gaitasun agrologiko handiena duten lurzoruak bi orban dira (IV mota agrologikoa), eta udalerriaren hegoaldean daude kokatuta, Itzioetxeko-Itzio eta Saloguengañekoa baserrien inguruan, Irure auzoan. Nekazaritza-sektorearen ikuspegi estrategikotik lehentasuna du inguru horiek gordetzeak eta zaintzeak.

- Trantsizioko landa-pasaia.

Azpieremu-tipologia hau erabilera-gaitasun moderatuko edo baxuko lurzoruei dagokie, nagusiki maldek (kasu askotan % 30etik gorakoak), drainatzeek eta ezaugarri kimikoek ezarritako mugen ondorioz. Eremu horiek, oro har, oso hauskorrak dira hainbat erabileratarako, kokapen topografikoaren eta sakonera, ur-erreserba eta ugalkortasun txikiaren ondorioz.

Soraluze-Placencia de las Armas udalerriko lur malkartsuen ezaugarriak aintzat hartuta eta nekazaritzarako nahiz abeltzaintzarako erabileretarako zuzentzeko lurrak behar direla kontuan hartuta, gaur egun larre eta baratzeetarako erabiltzen diren eremuen izaerari eusten saiatu gara zonakatze-proposamen honetan, malda handiko inguruetan ez daudenean edo higadura-prozesu larri edo muturrekoen mende ez daudenean bederen (Ezoziko eta San Andresko hegaleko hainbat inguru baztertu dira, arriskua minimizatzeko), kasu zehatz batzuk salbu.

Sega-belardiak, Habitat Zuzentarauan interes komunitarioko habitat gisa sailkatuta daudenak, azpieremu honen barnean txertatu dira kasu gehienetan, eta ez dira intereseko landareditzat hartu, udalerri honetako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapen askok lurzoru horien beharra baitute beren jarduera garatzen jarraitzeko. Hala ere, plan honek azpieremu horren barnean txertatzen baditu eta lur horien bokazioarekin bat etorriko den erabilera arautzen badu, babestu egingo ditu hein batean, abeltzaintzako ustiapenak eta horrelako habitata garatzea errazten duten teknikak sustatzen baitira. Ez dugu ahaztu behar belardi horien jatorria artifiziala dela, eta baserritarrak eta belarjaleek zeregin garrantzitsua betetzen dutela horiek babesteko orduan, azken horiek lur hori zapaltzen eta ongarritzen baitute.

Edozein modutan ere, azpieremu honen barnean jasotako eremu gehienak erabiltzeko orduan zainketa berezia behar duten lurzoruei dagozkie, lehenago adierazitako ezaugarrien ondorioz, eta oso garrantzitsua da alderdi hori azpimarratzea. Alde horretatik, udalerri honetako paisaiak lehenagotik ere lurzoru hauek babesteko ahalegina egin dela erakusten du, harrizko hormatxo txikiak ikusten baitira, batez ere Deba ibaiaren eskuin aldeko hegaletan, Ezozi eta San Andres auzoetan, eta, puntualki, Txurruka eta Irure auzoetan; eta baso-unada txikiak ere ikusten dira, belardiekin mosaikoa osatuz.

Aipatutako irizpide horien ondorioz, kategoria honen barnean txertatutako eremuak ez datoz guztiz bat ez Eibarko Lurraldearen Zatiko Planean (Debabarrena) jasotakoekin, ez eta Nekazaritza, Basoak eta Ingurune Naturala Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean jasotakoekin ere –bi horietan jasotakoak ere ez dira berdinak–, baina gehiago hurbiltzen dira azkeneko horretan jasotakoetara eta zehaztu egin dira.

9.1.3.- Basogintzako landa-eremua.

Lurraldearen ezaugarri topografikoek udalerriko hainbat eremu baso-erabilerara zuzentzea ekarri dute, gaur egun erabilera hori ez badute ere. Malda handiko eremuak dira, erabilera-ahalmen txikia dutenak, eta higadura-prozesu garrantzitsuak dituzte. Horrelakotzat hartzeko lehentasuna izan duten irizpideak naturaren eta ekoizpenaren ikuspegitik balioa duten eremuok babestearekin lotuta daude, eta, horregatik, jarduera mota hori hartzeko duten gaitasun horretara zuzendu dira.

Baso-erabilera duten esparru guztiak eremu bakar batean biltzen dira; izan ere, ekoizpen-funtzioa eta babes-funtzioa lotuta daude elkarrekin, nahiz eta komeni den % 50etik gorako maldetan baso-erabilera sustatzea, beroriek babesteko, eta matarrasen erabilera zokoratzea. Ildo horretatik, ustiapenei lotutako baso-berritzeek, lehen fase batean, zeregin egokia betetzen dute, ingurua zaindu eta gordetzeko bidea ematen baitute, baina ondo egonkortuta edota, areago, paisaian ondo integratuta dauden gune batzuei eraso larriak edo kalteak eragin diezazkiekete matarrasek edo baso-soilketek, bai ikuspegi ekologikotik eta bai fisiografikotik, eta, ustiatu ondoren, urak lur horiek higa ditzake, arazo larriak eraginez, masa-mugimenduak sorraraz daitezke eta inguru horren egitura ekologikoa ere nabarmen pobretu daiteke. Gainera, baso-erabilerak baso-pistak irekitzea eta gero horiek mantentzeko lanak egitea eskatzen du (askotan ez zaie jaramonik egiten), eta malda handiko inguruetan lur-mugimenduak eragiten ditu horrek, ibai-ibilguak aldatzen ditu, drainatzeko obrak ez dira nahikoa izaten, eta nabarmen eragiten zaio paisaiari; eta, batzuetan, ustiaketa horietan erabiltzen diren makinetatik datozen olioak inolako kontrolik gabe isurtzen dira.

Hertsiki ingurumenari lotuta dauden gogoeta horietan, higadura-arrisku handia edota % 50etik gorako malda duten eremuetan hemengo espezieak landatzeko aukera sustatu beharra azpimarratu da, eta kontuan hartu behar da udalerri honetako lurren zati handi batek ezaugarri horiexek dituela. Gaur egun dauden espezie aloktonoko baso-masen ordez poliki-poliki bertako espezieak sartzeko apustua Soraluze-Plancencia de las Armasko paisaiaren aniztasuna bultzatzeko eta sustatzeko asmoz ere egiten da; izan ere, gaur egun, pinuaren, pinu zuriaren eta beste antzeko konifero batzuen monolaborantza da nagusi.

Administrazioak neurri horiek sustatzen ditu lurzoru publikoetarako, nahiz eta ez den proposatu izaera orokorrarekin egoera horretan dauden gainerako lurzoruetara hedatzea. Xede horretara bideratutako "Baso Bidez" programaren barnean, udalak jada zenbait ekimen sustatu dituela azpimarratu behar da.

Ingurumenaren erabilera eta kudeaketa zuzena sustatzeak, aldi berean, ingurumenaren arloko ziurtagiria lukeen zura lortzeko aukera emango luke, eta ustiaketa horiek merkatu berriei zabalduko lizkiekete ateak ("eskari berdea").

9.1.4.- Azaleko urak babesteko landa-eremua.

Ibai-ibilguen multzoak (Deba ibaia eta berorren ibaiadarrak) eta berorien babes-ertzek osatzen dute, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak (isurialde kantauriarra) xedatzen duenaren ildotik. Beraz, eduki hidraulikoari begira, Debaren ibilgua, udal-barrutian sartzen den unetik (gutxi gorabehera 24,4 KP) Egorekin bat egin arte (19,4 KP), IV. mailakotzat hartzen da: $200 < A \leq 400$ km². Sagarraga erreka, ezker eretzetik, eta Ipintza, Keixeta eta Orroaga, eskuin ertzetik, 0 mailakoak dira, eta berorien arro isurlea 1etik 10 km²-ra artekoa da ($1 < A \leq 10$ km²). Gainerako ibai-ibilguak 00 mailari dagozkio, eta, beraz, 1 km²-tik beherako arro isurlea dute, eta Lurraldearen Arloko Plan honetan isurketa-urtzat hartzen dira. Azaleko uren inguru horietan, jabari publiko hidraulikoa errespetatuko da, bai eta horien zortasun- eta kontrol-eremuak ere, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak, uren legearen testu bateratua onartzen duenak, Plan Hidrologikoak eta EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak diotena betez.

Deba ibaiaren ibilgua hondatuta eta aldatuta dago ingurumen aldetik, eta, beraz, beharrezkoa da ingurumen aldetik berreskuratzeko eta hobetzeko jarduketak sustatzea, ibaia hirigunetik igarotzen den zatian bereziki.

Era berean, Deba ibaia Soraluze-Placencia las Armasko hirigunetik igarotzen den zatiaren ertzak zaintzeko beharra ere jasotzen da hemen, bereziki Oleako presaren inguruari dagokionez, 2014. urtean ur-zozoaren presentzia (*Cinclus cinclus*) eta martin arrantzalearena (*Alcedo atthis)* hauteman baita; Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen EAEko Katalogoan, interes bereziko espezietzat hartzen dira horiek.

9.1.5.- Ingurumenaren aldetik hobetzeko eremuak.

Hauek dira nagusiki:

a) Harizti azidofiloko eta baso mistoko arboladi gaztea edota degradatua duten zenbait eremu.
b) Udal-barrutiaren ipar-mendebaldean dagoen Maltzagako harrobi inaktiboari dagokion eremu txikia (leheneratze ekologikoko eremua).

c) Gaztañazuloako behe-ibarrean dagoen eremu hondatua, Arregibaso baserritik gertu dagoena (Irure auzoa), GOL enpresaren (Alfa Taldea) hondakindegi zaharra izan zena; gaur egun oraindik jendea hondakinak botatzera joaten da bertara. Hondakindegi zahar horretan, bereziki ertzeko eremuetan, modu naturalean leheneratzeko ahalmen garrantzitsua duten gune batzuk daude; erdiko gunea egoera okerragoan dago.
d) AP1 autobideko (Eibar-Vitoria/Gasteiz) obren eraginpeko eremuak, eta udalerriaren ipar-mendebaldean kokatuta daudenak.

9.2.- BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK.

9.2.1.- Korridore ekologikoa.

Lurralde honetan dago Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru lotunea, Gorostiagarekin batera, Izarraitz eta Aizkorri-Aratz inguru edo guneen konexio-elementua: Soraluze-Placencia de las Armasen ekialdean, halaber, R-9 eskualde-korridore ekologikoaren eremu bat dago (adierazitako lotune horren inguruko lurretan, Txurruka auzoko Aizpuruzabalako eta Ozetagañako inguruetan), eta inguru edo gune horien arteko lotura errazten du horrek.

EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen dokumentuan biltzen den eremuari dagokionez, Karakate-Irukutzeta-Agerre Buru lotuneari dagokion eremuaren mugetan zenbait kontu doitu dira, Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planean eta HAPO honetan biltzen diren mugei egokitzeko.

9.2.2.- Faunaren ikuspegitik interesa duten eremuak.

Bat dator Sagarraga errekan, haltzadien presentzia duen ibai-ibilguan, kokatutako karramarro autoktonoaren −*Austropotamobius pallipes*− intereseko eremuarekin; espezie hori galzoriko espezieen barnean sartuta dago, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen EAEko Katalogoan.

9.2.3.- Floraren ikuspegitik interesa duten eremuak.

Bat dator gorostiz (*Ilex aquifolium)* osatutako sareta batekin (UTM 1 km x 1km); espezie hori interes bereziko kategoriakoen artean sartuta dago, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen EAEko Katalogoan.

9.2.4.- Interes geologikoko eremuak.

Interes geologikoko eremuak (IGE) bat datoz Arzabaletako sumendi-harriekin; Igarate-Mendiolako taula-formako gorputzekin; Maltzagako laba-jarioaldi trakitikoekin; Argarateko pillow-labekin; Arkaizko pillow-labekin eta Karakateko ebakidura bolkanikoarekin.

9.2.5.- Paisaia babesteko eremuak.

Aztergai dugun esparru honetan, ez dago izaera bereziko paisaiarik katalogatuta, ez eta paisaia- edo kultura-mugarririk ere, nahiz eta udalerri honen iparraldeko esparru txiki bat Arrateko Santutegiaren ikusizko eragin-eremuan sartzen den (Eibarren dagoen eta Soraluze-Placencia de las Armasko arroak mugakide duen ikus-arroan, 186 zenbakikoan, kokatuta dagoen paisaia- eta kultura-mugarria).

Bestalde, Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru natura-intereseko eremuan sartzen den Soraluze-Placencia de las Armasko paisaia ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko paisaia berezi eta nabarmenen katalogo irekian (aurreproiektua), baina honako dokumentu honetan txertatu dira bereziki bertako gailurren lerroa eta gertueneko ingurua, paisaiaren ikuspegitik balio handia duenez babestu beharreko paisaia delako (mendikatetik izugarrizko bistak daude, eta Gipuzkoako lurretan duen presentzia ere ez da nolanahikoa). Modu bertsuan, Debaren beste ertzeko inguru kakumenalak ere sartzen dira, hegal aldeetako *uharteak* eta Deba eta Sagarraga bailaren artean kokatutako Artegieta ingurua barnean hartuta, irradiazio-lainoa den egunetan paisaian oso modu berezian agertzen baita. Ia udal-barruti osoa hartzen duen ikus-arroaren ikusgarritasun handieneko lurraldea babesteko proposatzen da hori guztia.

9.2.6.- Interes kulturaleko eremua.

137/2003 Dekretuak, ekainaren 24koak, dioenez, Elosua-Plazentzia Estazio Megalitikoak Ondasun Kultural kalifikazioa du, eta Multzo Monumental kategoria. Estazioa 15 monumentu megalitikok osatzen dute, eta Karakate-Irukurutzeta-Agirren Buru mendikatean sakabanatuta daude monumentu horiek (Azkoitiko, Bergarako, Elgoibarko eta Soraluze-Placencia de las Armasko udal-barrutiak). Hauek dira monumentuok: Atxolin, Iruiya, Aitzpuruko Zabala, Irukurutzeta, Keixetako Egiya Hegoa eta Agerreburu trikuharriak, eta Aizkoin, Atxolin Txiki, Naasiko Goena, Pagobedeinkatu, Gizaburua, Keixeta, Keixetako Egiya Iparra, Kutzebakaar eta Maurketa tumuluak. Zerrenda horretako zortzi aztergai dugun eremuaren barnean kokatzen dira (lehen hiru trikuharriak eta lehen bost tumuluak).

Hiru babes maila daude: babes bereziko eremua, babes ertaineko eremua eta oinarrizko babes-eremua; eta azken horixe da perimetro-mugak ezartzeko aintzat hartu dena, estazio horretako monumentu megalitiko guztiak unitate bakar batean bilduta. Erabilera horien araudia 137/2003 Dekretura egokituko da.

Inguru hori Trikuharrien Ibilbidearen barnean sartzen da, PR-GI 94 deritzonaren barnean, eta 20 kilometroko ibilbidea hartzen du.

9.2.7.- Ingurumenaren aldetik hobetzeko, leheneratzeko edota berreskuratzeko eremuak.

Hauek dira nagusiki:

a) Deba ibaiaren ibilgua, udalerri honetatik igarotzen den tartean, bai ibilgua bera eta bai ibaiertzak, oso hondatuta eta degradatuta daudelako. Egin beharreko jarduketek hainbat lan hartu behar dituzte barnean, ibaiertzetako espezieak landuz inguru horiek berreskuratzea eta ingurumenaren aldetik hobetzea, landa-ingurunetik igarotzen den zatian espezie inbaditzaileak erauztea edota hondatu eta dregadatutako zatiak leheneratzea, elementu natural horiek Soraluze-Placencia de las Armasko bizitzan eta paisaian txertatzeko xedez. Lehentasuna duten ekintzak dira, inguru hori ingurumenaren aldetik nahiko hondatuta baitago, eta hirigunetik pasatzen den zatian udalerriko espazio libre hiritar nagusi izan dadin ibaiaren balioa indartzea interesgarri jo baita.

b) Erreken ertzak, ertz horietako gehienek ezaugarri zituzten ibaiertzeko landareak (haltza eta lizarra nagusiki) galdu baitituzte, edo landare-lerro mehe batera murriztuta gelditu baitira.

9.2.8.- Uholdeak jasan ditzaketen eremuak.

EAEko barneko arroei dagozkien Uholde Arrisku eta Kalteginen Mapek, Uraren Euskal Agentziak (URA) 2013ko ekainean egindakoek, Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremu bat identifikatu dute Deba ibaiaren ibilguan, udalerriko tarte hiritarrari dagokiona; ES017-GIP-DEB06 kodea du (hasierako koordenatuak: X 548099 eta Y 4780009 eta amaierako koordenatuak: X 546993 eta Y 4780790).

1,54 km inguruko eremu hori Keixeta errekarekin bat egiten duen puntutik Sagarragarekin elkartu arte doa (9,7 Ha inguru).

Gaur egun, zati honetan Deba ibaiak izan beharreko tratamendurako soluziorik egokienak aztertzen ari dira, eta azterlan horren emaitzak eta dokumentu hau izapidetzeko prozesutik ateratzen direnak kontrastatzea aurreikusten da. Zerbaitegatik hartzen da dokumentu honen oinarrizko helburu gisa Deba ibaia modu esanguratsuan hobetzea eta Soraluze-Placencia de las Armasko udalerriari egingo dion ekarpena aintzat hartzea.

9.2.9.- Higa daitezkeen edo higadura-arriskua duten eremuak.

Higadura hidriko laminarrak, USLE REAL ereduaren arabera kalkulatu denak, argi islatzen du garrantzi handia dutela udalerri honetan higadura-prozesuak jasateko arrisku moderatua, larria, oso larria edo muturrekoa duten eremuek; eta eremu horietako erabilerak eta beroriek egokitzeko eta kudeatzeko teknikak kontrolatu beharra dagoela adierazten du horrek. Lurralde honen ezaugarriak eta azkar hazten diren baso-sailek hartzen duten hedadura handia aintzat hartuta, erabiltzen diren teknikak ondo zaintzeak lehentasuna izan behar duela azpimarratu da; eta arrisku handieneko inguruak haziera motelagoko espezieetara orientatu beharra ere azpimarratu da, berritu ezin den baliabide den aldetik lurra babestu ahal izateko.

Higadura-arrisku handiena duten tokiak Deba ibaiaren bi ertzetako behe-hegaletan kokatzen dira, bai eta Deba ibaiaren eskuin ertzeko hegaletan ere, batez ere Ezoziko eta San Andresko auzoetan.

9.2.10.- Akuiferoen kutsadura izateko arriskua duten eremuak.

Ez da hauteman horrelako ezaugarriak dituen eremurik.

9.3.- ANTOLAMENDURAKO BALDINTZAK ARAUTZEA.

Planak, bestalde, gune eta eremu horietako bakoitzean erabilerak ezartzeko baldintzak arautzen ditu, beroriei dagozkien Hirigintza Arau Orokorretan.

Lurzoru hiritarrezinaren barnean sailkatutako udalerriko lurraldearen azalera zabalean planak izango dituen eraginak positiboak izango dira beti, hartu diren erabakiek ingurua babestea baitute xede eta, horrez gain, landa-lurzoruak naturaren, paisaiaren eta produkzioaren ikuspegitik dituen balioak gorde eta zaintzea sustatzen baitute; horrez gain, ingurumenaren ikuspegitik hondatuta, degradatuta eta kaltetuta dauden eremuak berreskuratzea, leheneratzea edota hobetzea ere sustatzen dute. Urbanizaziotik babestu egin dira baliabide horiek, baina biztanleek beroriez gozatzeko aukera dute, balio horien kokagune den lurraldearen balio

potentzial intrintsekoaz jabetzeko beharrezkoa baita horiek ezagutzea, bai eta beroriez gozatzea eta, modu egoki batean, dagokien balioa ematea ere. Praktikan, Euskal Herriko historiaurrea ezagutzeko ibilbidearekin (Karakate-Irukurutzeta mendikatea), balio geologikoekin eta beste balio batzuekin lotutako aisialdiko eta turismoko jarduerak ezartzea sustatuko da.

Ildo horretan, Hiri Antolamenduko Plan Orokor honek landa-ingurunerako gauzatutako zonakatze- eta garapen-proposamenak lurraldea osorik hartuta egin den analisiaren emaitza dira, eta abiaburuko ideia hauxe izan da: ingurumen-balioa duten eremuak babestuko eta kontserbatuko direla bermatzea (Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru natura-intereseko eremua; Kurutzeko Gaina natura-intereseko gunea; interesekoak diren landaredi-masak; ibai-sarea; nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak, eta baso-erabilerak; balio agrologiko handiko lurzoruak; korridore ekologikoak; paisaia; interes kulturaleko eremuak; faunaren, floraren eta geologiaren ikuspegitik interesa duten eremuak; eta baita lurzorua bera ere, baliabide ez berriztagarria den aldetik), ingurumen-arriskuak kontrolatzea (higadura, uholdeak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, biodibertsitatea hondatzea, zarata, etab.), eta bertako elementu eta balio bereiziei ez eragitea. Aldi berean, denboraren joanak hondatu, degradatu edota kaltetu dituen eremuen gainean ekintza positiboak abiarazi beharra balioetsi da.

Bestalde, berariaz Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan zehaztutakoarekin bat etorriz, argi adierazi da lurzoru hiritarrezinean erabilera autonomoa izango duten etxebizitzak eraikitzea debekatuta dagoela. Hori horrela izanik ere, sakabanatutako baserrien (herena baino gehiago hutsik) baldintzatzaileak arautzen ditu Plan Orokorrak, eta lehendik dauden eraikinetan, eraikin bakoitzean mugatzat bi etxebizitza ezartzea proposatu da.

Bestalde, ez da identifikatu landa-izaerako herrigune izateko eskatzen diren baldintzatzaileak betetzen dituen kokagunerik, lurzoruari eta hirigintzari buruzko legediak horretarako aurreikusten duenarekin bat etorriz. Hala ere, Ezozian eta San Andresen, inguru horietan Debabarreneko Lurraldearen Zatiko Planak lurraldeari ematen dion lurraldeko sargune izaera egiaztatu da.

Landa-lurzoruaren lur-zatiketak lur-jabetza txikien eredu bati erantzuten diola ikusi da, eta zatiketa handiagoak egiteko aukerak mugatu ahal izateko neurriak proposatu dira.

Lurzoru hiritarrezinean hirugarren sektoreko erabilerak eta ekipamenduak ezartzeko aukera ematen du planak, eta Hirigintzako Arau Orokorren bidez arautuko dira, baina horiekin lotuta egin daitezkeen eraikin eta instalazio berriek aginduzko Plan Berezia beharko dute.

Azkenik, landa-ingurunean identifikatutako eremuei ingurune hori gurutzatzen duten foru-sareko errepideei dagozkienak erantsi zaizkiela gaineratu da.

Ez da proposatu udalak dagokion espedientean identifikatu eta arautzen dituen landa-errepideei zona edo eremu maila esleitzea, beharrezko ikusiz gero landa-ingurunearen antolamenduan gainjarritako baldintzatzaile gisa hartuko direla ulertuta; beraz, ez dira inguru horretako oinarrizko egituran txertatu.

Landa-lurzoruan planteatutako proposamen horiek ez dute nekazaritzaren sektorean eragin negatiborik izango, oro har, ez eta bereziki nekazaritza eta abeltzaintzako nahiz basogintzako ustiapenetan ere. Are gehiago, balio agrologiko handiko lurzoruek eraginik ez jasateaz gain, HAPO honek udalerriaren hegoaldean dauden bi orban maila horretako lurzorutzat hartzea planteatu du, nekazaritzakoak ez diren erabileretatik babesteko.

Horregatik guztiagatik, HAPO honek landa-lurzoruan eta lurzoru hiritarrezinean izan ditzakeen eragin esanguratsu guztiak POSITIBOAK dira, deskribatutako eta aztertutako ingurumen-aldagai guztietan (airea, lurzorua, landaredia, intereseko habitata, fauna, ura, paisaia, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapenak, ingurumen alderditik sentiberak diren eremuak, ingurumen-arriskuak, aisia, etab.) modu onuragarrian eragiten baitute.

10.- Planaren eragin globala.

Lurralde osoa eta aurreikusitako helburuak kontuan hartuta ingurumen-eraginak sortuko dituzten ekintzak banan-banan aztertu eta balioetsi ondoren, HAPO honetako proposamenen garapenak Soraluze-Placencia de las Armasko udalerrian sortuko duen eragin globala guztiz BATERAGARRIA da (ingurumenari gutxi edo oso gutxi eragiten dio), eta, are gehiago, ONURAGARRIA izango da, kasu askotan.

IX.- NATURA 2000 SAREKO LEKUETAN IZANGO DUEN ERAGINAREN EBALUAZIOA

43/92/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta basa animaliak eta landareak babesteari buruzkoa, oinarri hartuta garatu zen Aurrerapenaren Informazioa eta Diagnostikoa dokumentuan aipatu den moduan (2014ko martxoa), Soraluze-Placencia de las Armasko udalerrian ez dago Natura 2000 Europako Sarean sartuta dagoen espazio naturalik (Erkidegoko Intereseko Tokiak, Babes Eremu Bereziak edo Hegaztientzako Babes Eremu Bereziak).

Beraz, HAPO honetan jasotako erabakiek ez dute eragin-trukerik aipatutako sare horretan sartuta dauden espazioekin, eta, beraz, ez zaie zuzenean eragingo. Horrez gain, sare horretan sartutako espazioak udalerritik nahiko urrun daudela ere azpimarratzen da.

X.- IRTENBIDEEN HAUTAKETA-PROZESUAREN LABURPENA

2014ko martxoan plangintzaren Aurrerapena formulatu zenean, hainbat antolamendu-irtenbide planteatu ziren, hautemandako arazoari erantzuna emateko eta, horren arabera, udal proiektua zehazteko. Ondoren, horiek azalduko ditugu, onartutako proposamenen hautaketa zein izan den zehaztuz; hautaketa horretan, lehentasuna eman zaie ingurumen-iraunkortasunaren eta iraunkortasun ekonomiko eta sozialaren esparruetako irizpideei, gaur egungo egoera eta udalerriaren beharrak kontuan hartuta. Ikusi denez, planak azkenik proposatu eta onartu duen hiri-ereduak ingurumen-aldagaia abiapuntuko premisatzat hartu du, planaren ia proposamen eta ekintza guztiak lehendik artifizializatuta dauden eremuetako lurraldeetan garatuko baitira, eta, era berean, antzeko izaera izango duten beste batzuk formulatu ditu udalerri osorako, udalerriko beste inguru batzuk ingurumen aldetik babesteko, kontserbatzeko, berreskuratzeko eta hobetzeko. Bi proposamen jakin dira soilik lurzoru naturalean edo artifizializatu gabean egingo liratekeenak: bata, ekipamendu bat ezartzeko (hilerri berria), eta, bestea, aisialdiko baratzeak hartzeko; azken erabilera horrek, gainera, berriztagarria ez den baliabide hori kontserbatzeko aukera emango du. Gainera, horren guztiaren ondorioz, hiri-eremuaren azalera nabarmen murriztuko da.

X.1.- Deba ibaiaren eta ibaiertzen antolamendua.

HAPO honek hirigunea ibaira zabaltzeko apustua egin du, bai hirigunean eta bai landa-ingurunean ibai-ibilgua eta ibaiertzak babesteaz gain; ingurumenaren ikuspegitik hobetzeko neurriak ere sustatzen ditu. Horretarako, baztertu egin dira: "0" irtenbidea, uholde-arriskuaren aurrean esku hartzea ezinbestekoa baita; indarrean dauden Arau Subsidiarioek bere garaian proposatu zuten antolamendu-irtenbidea, azken 15 urteotan egin ez dena; eta URAk 2006. urtean sustatu zuen proiektuari dagokiona, hiriguneko presak kentzea aurreikusi baitzuen, eta ondorioz, uharteak kentzea baitzekarren horrek, bai eta hiriguneko zatian ibilguan ura izango zela bermatuz presek sortutako ur-planoak kentzea ere, ibaiaren uberka guztiz aldatuz.

Aitzitik, Aurrerapeneko D.B irtenbidea aukeratu da: Oleako presaz behera hurrena daudenen altuera murriztean datza aukera hau, halaxe egin baitzen Oleako presarekin ere; baina eutsi egiten zaie beroriei, uholde-arriskua minimizatuz, faunaren igarobidea bultzatuz, oinordetzan jasotako ondare kulturalari eutsiz eta udan hirigunean eta tokiko paisaian ur-planoak finkatuz. Soraluze-Placencia de las Armasko Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremuaren inguruan lanean ari den Uraren Euskal Agentziarekin (URA) hainbat irtenbide kontrastatu ondoren planteatu da proposamen hori.

Testuinguru horretan, Deba ibaiaren eskuin ertz osoan ertzeko pasealeku baten antolamendua sustatzea proposatzen du HAPO honek; horretarako, ezkerraldean azken eraikinak gauzatzerakoan eman diren irtenbideak aplikatuko dira (Errabala, 3 eta 5, eta Baltegieta, 32 eta 34); eta lehendik dauden eraikinak finkatzeko ahalegina egingo da bi ertzetan, salbuespenen bat egingo den arren. Hori guztia jabari hidraulikoa errespetatuz egingo da, eta uholde-arriskua murrizteko ahalegina egingo da, aplikagarri diren araudiarekin eta planekin bat etorriz.

X.2.- Bide-antolamendua, mugikortasuna eta irisgarritasun unibertsala.

Gaur egun dagoen bide-sarea finkatzeko proposamena berrestea aukeratu da, eta, beraz, baztertu egin da bide- edo trenbide-azpiegitura berriak egitea; eta GI-627 errepidetik hirigunera iparraldetik eta hegoaldetik sartzeko bideak hobetzera eta Deba ibaiko bizikleta-bidea Maltzagaraino luzatzera mugatuko dira esku-hartzeak. Hirigunean mugikortasuna hobetzeko jarduketa bat ere egingo da: bide-eraztuna, aparkalekuak, zubi eta igarobide berriak, ibaiertzeko pasealekua, kale eta plaza berriak, puntu beltzak eta arkitektura-oztopoak kentzea, eta igogailu publiko berri baten aurreikuspena.

Beraz, alde batatik, Aurrerapenean proposatutako VB irtenbidea aukeratu da, irtenbide horrek bide-eraztunaren luzera murrizteko aukera ematen baitu, eraztun horretan bi zirkulazio-noranzkoen artean aukeratzea ahalbidetzen baitu, eta, horrela, eraztuna guztiz hiritar bihurtzen baitu. Bestetik, Santa Ana kaleari ibaiaren ondoan jarraipena ematea jasotzen duen irtenbidea ere aukeratu da, irtenbide horrek pasealeku eguzkitsu bat sortzea eta Deba ibaiaren ibilgutik eraikuntzei tarte gehiago ematea jasotzen baitu. Eta zahar etxerako sarrerako kaleari jarraipena emanez igarobidea egitea jasotzen duen irtenbidea ere hautatu da, eta, berorren arabera, igarobide ireki bat (estali gabekoa) egingo litzateke, kokapen estrategikoagoan.

X.3.- Hiri-eraldaketarako esku-hartzeak.

Alde zaharrari balioa emateko helburua finkatu da, alde zaharra birgaitzeko indarrean dagoen Plan Berezian jasotako helburuekin bat etorriz, nahiz eta bertan zenbait berregokitzapen planteatu daitezkeen; ildo horretatik, ibaiaren aurreko aldean dauden eraikinak finkatzeko

proposamena aukeratu da, salbuespen puntualen batekin, askotariko beste hainbat eraikin antolamendutik kanpo uzteko proposamen aurrean.

Erregetxen esku hartzeko proposamena onartu da; horrela, gaur egun aparkalekurako dagoen azaleran plaza bat egingo da, eta aukera gehiago eskainiko dituen alturako ekipamendu-eraikin bat egingo da bertan (EA irtenbidea), inguruko eraikuntza-profilean behar bezala txertatuz, betiere. Plaza hori Plaza Zaharrari jarraitutasuna emanez antolatu da, eta, aldi berean, ibaira gehiago zabaldu nahi da, hiriguneko espazio libre publiko nagusi bihurtuz.

Bigarren plaza berri bat egitea ere aukeratu da, hau ere Deba ibaira zabalduta, Olaldean, Santa Ana kalearen luzapenean, hegoalderantz pasealeku batekin jarraitutasuna emanez (Aurrerapeneko AB irtenbidea). Proposamen honen interes estrategikoak lehentasuna du, besteak beste, lehendik dauden eraikin industrial batzuei eusteko planteamenduaren aurrean ("0" irtenbidea) edo kalea hegalaren ondoan jarraitzeko proposamena jasotzen duen AA irtenbidearen aurrean.

Hirugarren plaza bereizi bat antolatzea ere aukeratu da, ibaiaren aurrean, ibaiaren ezkerreko ertzean, Gabolats zubiaren ondoan; horretarako, zubi horretatik gertuen dauden kanoi-fabrika zaharraren pabiloiak eraitsiko dira, baina ibaiaren aurreko aldean daudenak finkatzea proposatu da, kokagune horren memoria historikoa kontuan hartuta, eta bizitegi-izaerako erabileretara zuzenduko dira bereziki. Beraz, CA eta CC irtenbideak baztertu egin dira, eta Aurrerapenean CB gisa identifikatuta dagoena garatzen duen irtenbidea aukeratu da.

Era berean, gaur egun Pascual Churruca enpresa kokatuta dagoen azpieremua bizitegi-izaerako erabileretarako berrantolatzeko proposamena ere onartu da.

Ildo horretako esku-hartze batek esklusiboki lehendik dagoen lurzoru hiritarraren barnean, jada artifizializatuta dagoenean, jardutea adierazten du, eta, beraz, Plan Orokor honek hartzen duen denbora-mugan hiri-eremua hedatzea saihestuko luke. Baina hori bai: eskaintzan planteatu den zurruntasun-koefiziente txikia ikusita, kudeaketak eraginkorra izan behar du nahitaez, eta planteatutako eskaintza merkaturatu behar da; horrek, gure ustez, ekimen publikoaren arloko dosi garrantzitsuak eskatzen ditu, batez ere Santa Ana eremuan.

Bestalde, jada azaldu denez, proposamenean hiri-eremua ez hedatzea ez ezik murriztea ere proposatzen da, Olearen hego-ekialdeko muturrean, Arau Subsidiarioetan aurreikusitako zubia egiteko helburua baztertu egin baita, bai eta kanoien parkean ere, udal-izaerako lurretara murriztu baita.

X.4.- <u>Jarduera ekonomikoei dagokien lurzoruaren antolamendua</u>.

Lehendik dauden industria-garapenak finkatzea aukeratu du proposamenak, eta ez du aurreikusi helburu horretarako lurzoru berrien artifizializaziorik.

Baina jarduera ekonomikoetarako lurzorua prestatzea erabaki da, udalerriaren hirigunearen erdian aurreikusitako esku-hartzeek eragingo dieten jarduerak bertan kokatu ahal izateko, batez ere. Esku-hartzearen ildo horretan, baztertu egin dira Mendizabal, Agate eta Uhaska inguruetan Aurrerapenean aurreikusitako berrantolamendurako irtenbideak; eta Amillagako eremua (lehen Agate) berritzea onartu da, ingurumenaren ikuspegitik hobetzeko premia larria baitu.

X.5.- Espazio libreen antolamendua.

Egin den diagnostikoan nahiz Alkarrekin prozesuan udalerriari begira hautemandako beharren artean, espazio publikoak hobetu beharra jaso da. Horien urritasuna oso nabarmena da, eta, beraz, ez da arazo kuantitatiboa, hertsiki kualitatiboa baizik.

Erregetxeko, Olaldeako eta Kanoietako plazek, aurreko X.3 atalean aipatu diren horiek, behar bezala erantzuten die behar horri. Gainera, hiru zuzkidura horiek hirigunean modu orekatuan kokatuta daude, eta hori oso garrantzitsua da.

Modu osagarrian, lurzoru hiritarrezinean sustapen eta jabari publikoko baratzeak antolatzeko aukera planteatu da, Ezoziko bidearen ondoan.

X.6.- Ekipamenduen antolamendua.

Oro har, lehendik dauden ekipamenduen lursailak finkatzea planteatu da, nahiz eta horien erabilerak berriro antola daitezkeen; horrela, Erregetxeko plazaren aurrean ekipamenduen lursail bat antolatzea aurreikusi da, ekipamenduen eskaria hartzeko egokia baita eta, besteak beste, eguneko zentroa, musika-eskola edo zuzkidura-bizitokiak har baititzake.

Epe erdi edo luzera gaur egungo hilerria lekuz aldatzeko eta Ezozira eramateko irtenbidea ere onartu da; hilerriak hartzen duen lurzorua libre geldituko litzateke horrela, eta, besteak beste, irakaskuntza-zuzkiduren beharrei erantzuna emateko eskuragarri geratuko litzateke. Ildo berean, gaur egungo hilerria hedatzeko proposamena, indarrean dauden Arau Subsidiarioek aurreikusten dutena, baztertu egin da.

Horrekin guztiarekin batera, eta gaur egungo instalazioei probetxu hobea ematearekin batera (kiroldegiaren estalkia berritzea, aurrean pistak egitea...), ekipamenduen kokapena berriro antolatu ahal izango da udalerrian, herritarrei zerbitzu hobea emateko eta gizarte-, laguntza- eta kultura-jardueren (ekimen publikokoak nahiz pribatukoak), irakaskuntza-jardueren, kirol-jardueren eta oro har aisialdiarekin lotutako jardueren funtzionamendu egokia bermatzeko.

X.7.- Zerbitzuen azpiegituren antolamendua.

Kale-argiteriari dagokionez, bereziki tokiko sare eraginkorrago bat ezartzeko proposamena onartu da, eta "smart cities" programa beste zerbitzu batzuetara ere hedatuko da.

X.8.- Landa-ingurunearen antolamendua.

Formulatu den proposamenak ez du landa-inguruko lurzoruaren artifizializazioa ekarriko, ez eta lurzoru hiritar edo hiritargarri gisa kalifikatzea ere, eta horrek sor ditzakeen tentsioak baztertuko dira, beraz; indarrean dauden Arau Subsidiarioetan jasota dagoen lurzoru hiritarrezinaren azalera hedatuko du gainera, berorren iraunkortasuna sustatzeko erabilerak arautuko baditzake ere. Helburu horretarako, Aurrerapenean hasiera batean planteatutako zonakatze globalaren proposamena berregokitzea erabaki da, ingurumen-organoak igorritako erreferentziazko agirian planteatutako irizpideak eta aholkuak kontuan hartuta.

XI.- HAPO APLIKATZEAREN ONDORIOZ INGURUMENAK JASAN DITZAKEEN ERAGIN NEGATIBOAK PREBENITZEKO, MURRIZTEKO ETA INDARGABETZEKO AURREIKUSITAKO INGURUMEN-INTEGRAZIORAKO NEURRIAK

HAPO hau berrikusteko prozesuaren hasiera-hasieratik, kontuan hartu da ingurumen-aldagaia, eta garapen berrietarako jada aldatuta dauden eta balio txikiena duten eremuak aukeratu dira, bai eta bateragarrienak direnak ere; edota ingurumenaren ikuspegitik babestu, kontserbatu eta berreskuratu behar diren ingurumen-balioak identifikatu dira; beraz, HAPO honen baterako eragin negatiboa oso txikia eta bateragarria da udalerriarentzat. Hori horrela da, plangintzak eragin negatiboak soilik ez dituela sortuko ulertzen baita, nahiz eta batzuetan horixe pentsatuko zen; are gehiago, abiapuntutzat definitutako helburuen arabera, planaren denbora-mugan udalerria bere osotasunean ahalik eta iraunkorrena izateko onuragarriak izan daitezkeen eraginak sustatu ahal izango dira eta sustatu beharko dira.

Dena den, HAPO honen edukia betetzeko, dagozkien Hirigintza eta Eraikuntza Proiektuak idatziko dira bereziki, eta, zehatzago, Hirigintzako Garapen Planak idatziko dira; eta, azkenik, horiek egikaritzeko lanekin gauzatuko dira. Horrek guztiak HAPO honek planteatutako jarduketek edo proposamenek ingurumenean izan ditzaketen eragin negatiboak saihesteko, murrizteko edo zuzentzeko hemen jasotzen diren prebentzio-neurri edo neurri zuzentzaileak hartzea eskatzen du. Era berean, egokitzat jo da jardunbide egokietarako neurri batzuk hartzea, jatorriko eragin arinak murrizteko edo kentzeko aplika daitezkeenak, hain zuzen. Eta hori guztia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak 2014ko irailaren 2an igorritako erreferentziazko agirian jasotako neurriak, oharrak eta aholkuak kontuan hartuta. Neurri horiek, era berean, udalerriko herritarren bizi-kalitatean eta osasunean eragingo dute.

Airearen kalitatea eta soinu-ingurunea babesteko irizpideak

- Proiektuaren eta obren mailan, hautsa eta kea sortuko dituzten iturriak kontrolatzeko neurriak aurreikusiko dira (ureztatzea, xurgatzeko gailuak, pilatutako materialak edota kamioietan garraiatutakoak estaltzea, zulaketarako ekipamendu modernoak, etab.), bai eta zarata kontrolatzeko neurriak ere (ekipamendu eraginkorrak, soinu maila txikikoak eta egoera onean daudenak, ordutegia arautzea, etab.); era berean, zirkulazioa kontrolatuko da, bereziki eraiste-lanetan, indusketetan, lurrak mugitzerakoan, materialen zamalanetan eta garraioan, dagokion araudia betetzeaz gain (524/2006 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, zenbait makina aire zabalean erabiltzearen ondorioz ingurunean sortzen diren soinu-emisioak arautzen dituena, etab.).

- Errekuntza-motorrekin lotutako kutsatzaileen kontrola lan-eskala honetatik kanpo dagoen politika bati dagokio, baina HAPO honek irisgarritasun eta mugikortasun iraunkorrarekin lotuta proposatu dituen neurri batzuek airearen kalitatearen eta zarataren murrizketan alde jokatuko dute, hala nola abiadura kontrolatzeak, garraio publikoaren eta bizikletaren erabilera sustatzeak, bideak berrantolatzeak, loturak hobetzeak eta abarrek.

- Udalerri honetako hirigintza-plangintzak kontuan hartuko ditu eremu akustikoei aplikagarriak zaizkien kalitate akustikoko helburuak, 2003ko azaroaren 17ko 37/2003 Legean, zaratari buruzkoan, eta berorren garapen-araudian jasota daudenak; bereziki, aintzat hartuko ditu 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, eta 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa; eta, modu esplizituan, kontuan hartuko du eremu akustikoen mugaketa, dekretu horrek ezarritakoaren arabera, bai eta lurzoruan nagusi

den erabilera, eremu akustikoetarako ezarritako kalitate-helburuak eta zarata-fokuen igorpen-mugak ere. Aipatutako dekretu horren III. tituluaren arabera, lehendik urbanizatuta dauden edo etorkizunean garatuko diren eremuetan zaratari dagokionez aplikagarri diren kalitate akustikoko helburuek (KAH) ez dute gainditu behar dekretu horretako I. eranskineko 1. zatiaren A taulan ezarritako balioa. Etorkizunerako hirigintza-garapenak aurreikusita dituzten eremu akustikoetan −hirigintza-erabileren kalifikazio berriak dituzten eremuak barne−, kanpoko espazioko kalitate-helburuek eremu urbanizatuetakoek baino 5 dBA gutxiago izan behar dituzte.

Bestalde, etxebizitzetara edo bizitegi-, osasun-, hezkuntza- edo kultura-erabileretara bideratutako eraikuntzen barneko espazioan aplikatu behar diren KAH horiek I. eranskineko 1. ataleko B eta C tauletan xehatuta daudenak dira.

Aurreko guztiarekin bat etorriz, HAPO honetan aurreikusitako garapenen ondoriozko Hirigintza eta Eraikuntza Proiektuek kontuan hartu behar dituzte eremu akustikoei aplikagarriak zaizkien kalitate akustikoko helburuak. Halaber eta lurzoruaren erabilera xehatuak ezarriko diren hirigintza-garapeneko planak izapidetzerakoan (Plan Bereziak), eremu akustikoen mugaketa egingo da. Era berean, plangintza orokorrean ondoren egiten diren aldaketek, berrikuspenek eta egokitzapenek lurzoruaren erabilera aldatzea jasotzen badute, ezinbestekoa izango da udalerriko zonakatze akustikoa ere berrikustea.

Hori guztia, bestalde, Plan Orokorraren testuinguruan zarataren arloan egindako azterketekin, memoriaren 3. eta 4. eranskinetan jasota daudenekin, bat etorriz egingo da.

- "21.1 Txurruka" azpieremua eta "25. Cañones" deiturikoetako bizitegi-garapeneko eremu berrietan kalitate akustikoaren helburuak ez betetzeak (2015eko Zarataren Mapa), eremu horiek Babes Akustiko Bereziko Zonatzat aurretik izendatzea justifikatzen du, honako gutxieneko eduki honekin:

a) Aipaturiko zonaren mugapena.
b) Soinu-fokuen eta horien ekarpen akustikoaren identifikazioa.
c) Dagokion plan zonalaren zehaztapena

Baldintza horietan, eta plan zonalak egiteko esparruan zehaztapen zehatzagoa eta osoagoa egitearen kalterik gabe, honako hau xedatzen da aipaturiko Txurruka eta Cañones azpieremu horietarako:
a) Goragune formako perimetroko zonak lorategi bihurtzea, ahal izanez gero, gorenean zuhaitz- edo zuhaixka-landareak jarrita.
b) Eraikinak helburu akustikoak betetzen lagunduko duten baldintzetan antolatzea (eraikinen antolamendua eta erabileren eta etxebizitzetako espazioen banaketa).
c) Aipaturiko azpieremuaren eta eremuaren alboko bide-sarean igarotzen den trafikoaren abiadura murriztea.

- Egungo eta etorkizuneko jarduera ekonomikoek udal-ordenantzak eta -araudiak bete beharko dituzte, bai eta ingurumenaren arloko araudi espezifikoa ere (ez bakarrik aireari dagokiona, baita zaratari, urari, hondakinei eta abarri dagozkienak ere).

<u>Hondakinak zuzen kudeatzeko irizpideak.</u>

- Obren fasean, hondakin solidoak metatzeko eremu bereziak zehaztuko dira.

- Obren fasean nahiz erabilera berriak ezartzeko fasean, askotariko izaera duten hondakinak sortuko dira (hondakin geldoak, hiri-hondakinak, arriskutsuak, etab.), eta gai horren inguruan indarrean dagoen legediari jarraituz kudeatu beharko dira.

- Planean planteatu diren proposamenak zer motatakoak diren kontuan hartuta, azpimarratu beharra dago eraisketetatik, eraikuntzetatik eta eraikinak berritzeko edo leheneratzeko lanetatik sortutako hondakinak zuzen kudeatu beharra dagoela; aurrez hondakinak motaren arabera sailkatu eta bereiziko dira, bereziki arriskutsuak eta toxikoak direnak behar bezala etiketatuz; azken horiek olanetan ondo-ondo bilduta edo edukiontzietan, paletetan edo ontzi egokietan sartuta kenduko dira, garraiatzerakoan jariorik gerta ez dadin. Xede horretarako izendatutako eremuetan utziko dira, aterpean eta behar bezala irazgaiztuta, eta horien gaikako bilketa egingo dela eta baimendutako hondakin-kudeatzaileei entregatuko zaiela bermatuko da. Ez dira nahasiko mota desberdinetako hondakinak; garraiatu beharreko lekuaren arabera sailkatuko dira (berriztatzera edo hondakindegira), eta bidaia bakoitzean kargatuko diren bolumenak doituz garraiatzeko moduak optimizatuko dira. Dena den, eraikuntza- eta eraiste-hondakinen sorkuntza eta kudeaketa 11/2012 Dekretuak, ekainaren 26koak, jasotakoa betez egingo da.

- Garapen-proiektuetan ahalegin berezia egingo da lurren balantzea ahalik eta orekatuena izan dadin, ildo horretatik eremutik kanpo utzi beharreko soberakin esanguratsurik eragin ez dezan eta mailegu handien beharrik ere izan ez dadin. Edozein kasutan ere, sor daitezkeen lur-soberakinak 49/2009 DEKRETUAk, otsailaren 24koak, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, ingurumen aldetik sentiberak diren eremuei eragitea saihestuz (3/1998 Legearen 51. artikulua, II. kapitulua).

- EAEko hilotzen sanitateari buruzko erregelamendua onartzen duen 202/2004 Dekretuak, urriaren 19koak, 44. artikuluan dioenarekin bat etorriz, hilerri berriaren poroposamenean (Ezozia), zaborrak eta gainerako hondakinak botatzeko eremu bat egokituko da, eta aipatutako dekretuak hilerri berrien prestaketari buruz ezartzen dituen neurri guztiak beteko dira, hondakin motak behar bezala kudeatzeko neurriak betetzeaz gain (hilotzak hilobitik ateratzean sortzen diren hondakin solidoak, hilotzak usteltzean sortzen diren likidoak, lore-hondarrak, etab.).

- Etorkizuneko aisialdiko baratzeetako baratzezainei ikastaroren bat emateko aukera kontuan hartuko da, Ezoziko eremuan aplika dezaten; ikastaro hori konpostaje ekologikoari eta berorren abantailei, konpost-ontzien mantentze-lanei eta barazkien laborantza eta erabilera ekologikoaren bidez lurraren konpostajea egiteak esan nahi duenari buruz izango litzateke, hain zuzen.

<u>Ibai-sistemak babesteko irizpideak, azaleko eta lur azpiko uren kalitatea eta uholde-arriskua barnean hartuta.</u>

- Pasoko zortasun-eremuak aldi baterako eta etengabe okupatzea eta uraren ibilgua aldatzen duten edo ibaiertzeko eremuei edo ibaiertzeko intereseko landarediari eragiten dioten jarduketak saihestuko dira, bai eta makineriaren joan-etorria ere ibaien eta erreken ibilguetan; horretarako, gaur egun dauden pasoko eremuak erabiliko dira. Ustekabean gerta daitekeen edozein aldaketak berehala leheneratu beharra ekarriko du.

- Udalerriko ibai-sare osoaren ertzak ingurumenaren aldetik hobetzeko eta leheneratzeko jarduketak sustatuko dira, bereziki, Deba ibaiaren ertzen kasuan, oso hondatuta baitaude; ibaiertzeko espezieak sartuko dira, espezie inbaditzaileak kenduko dira eta ibaiertzak

ingurumenaren aldetik leheneratu edota hobetu egingo dira, faunaren zeharkako nahiz luzetarako (presak jaistea) irazgaizkortasuna sustatzeko.

- Gaur egun dauden elementuak eraitsi ondoren horien ordez hirigunean bi zubi eta igarobide bat egiteko proposamenak jabari publiko hidraulikoari eragin gabe gauzatuko dira, ibaian estriburik eta tarteko zutaberik egin gabe; inguru horretan dagoen arazo hidraulikoa hobetzeko ere lagungarri izango da hori.

- Ibaiaren ertzean pasealeku berriak sortuz hondatuta dauden ertzak leheneratzeko jarduketa guztiak sustatuko dira (Olaldea, Txurruka...); horien artean, azpimarratzekoa da Deba ibaiaren ertzean Oleako zubitik Gila zubiraino joango dena, eta ibaiaren ertzetik Gabolats zubiraino iritsiko dena. Aldi berean, Olaldea eremua berritzeko esku-hartze berezi bat ere formulatu da, eta Deba ibaiaren aurreko hirigunean neurri handiko espazio publiko bat berreskuratuko da horrela.

- Uholde-arriskua murrizteko behar diren neurriak ezarriko dira. Bereziki, Uholde Arrisku Potentzial Esanguratsuko Eremuetan kokatuta dauden garapen-proposamenak (Kanoiak, Olaldea, Txurruka eta hirigunean ibilgutik gertuen kokatuta dauden jarduketa zehatz batzuk) azpimarratzen dira, Plan Orokor honen irizpideei jarraituz eta horretarako beharrezkoak diren behin-behineko azterketa gehigarriak kontuan hartuta, nahiz Euko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak finkatutako irizpideei jarraituz.

- HAPO hau indarrean dagoen bitartean oraindik gelditzen diren ertz natural urri horietan uholde-arriskua kontrolatzeko egin daitekeen edozein obra ingeniaritza biologikoko teknika bigunak lehenesten dituzten neurriak hartuz egingo da.

- Deba ibaiaren ibilguaren inguruan kokatuta dauden garapen berriekin lotutako obrak kontuz egin beharko dira, ibaitik gertu daudelako, eta ezinbestekoa izango da dagozkien proiektuetan eragina saihesteko edo murrizteko beharrezko neurriak jasotzea. Modu berezian, honako hauek kontrolatu behar dira:

a) Eraikinen eraispenak, bereziki eraikinaren hormak ibilgura arte luzatzen direnean, bideratze-hormak baitira. Lan horiek kontu handiz egingo dira, baliabide eta teknika zehatzak erabiliz, ertzak desegonkortu ez daitezen eta ibai-ohea eraitsitako materialarekin kutsa ez dadin (Olaldea, Txurruka, Kanoiak, etab.).
b) Bideratze-horma berriak egiten badira eta hirigunean uholde-arriskua murrizteko neurriak hartzen badira, jada oso hondatuta dauden ibilguari eta ibaiertzei ahalik eta gutxien eragin diezaieten ahalegin berezia egingo da, eta bioingeniaritzako tekniken bidez edota abiapuntuko egoera kontuan hartuta beste neurri positiboren baten bidez ertzak zati batean leheneratzeko aukera ere kontuan hartuko da.
c) Olaldean eta Txurrukan egingo den edozein jarduketak Deba ibaiaren ekosistemari eutsi beharko dio, interes bereziko espeziekoak diren ur-zozoa eta martin arrantzalea hateman baitira bertan. Ez da komeni espezie horiekin lotuta dagoen habitata aldatzea, eta, beraz, ibaiari lotutako harrizko eraikuntzei eutsi behar zaie, hala nola Oleako presari; ez da komeni, ezta ere, inguru horretan ibai-ohea aldatzea, ez ertzak kentzea, ez agregatuak kentzea eta abar ere. Espezie horiek ur garbiak eta sakonera gutxikoak behar dituzte; ur-zozoaren kasuan, beharrezkoa du ertzetan harkaitz ugari eta etengabeko ur-jauzi txikiak eta azkarrak izatea, baina ez du beharrezko ibaiertzean landaredia izatea. Martin arrantzaleak, ordea, horixe behar du. Lehendik dauden eraikin zaharrak berritzerakoan, aintzat hartu behar da juntatu gabeko hutsuneak uztea harrien

artean, edo habia-kaxak ezartea. Eragin handiena izango duten obrak habia egiteko garaian ez egiteko ahalegina egingo da martxoa-maiatza/ekaina).

d) IIbaiaren inguruko eremuetan indusketak egin behar direla aurreikusten denean, hartu beharreko neurriak hartuko dira, egon daitezkeen baliabide hidrikoak kontrolatu ahal izateko.

- Obren fasean, basogabetzeen, indusketen, ezponden, zabalguneak betetzeko lanen eta abarren ondorioz ur-ibilgura lurrak isurtzea saihesteko beharrezko neurriak hartuko dira. Drainatze-sarera material xeheak isurtzea minimizatzeko eta solidoak arrastan joan daitezkeela kontuan hartuta, jalkin-hesiak instalatzea balioetsiko da (behin-behineko obrak), bai eta erreken eta aldizkako ibilguen jarraipen-kontrola egitea ere. Garrantzitsua da disolbatutako solidoak ibai-ibilguetara ez iristea, eta, halakorik gertatuz gero, ahalik eta solido eta mantenugai gutxien dituztela iristea. Drainatze-sarera material xeheak isurtzea minimizatzeko, urak bideratzeko gailuak eta jalkinak atxikitzeko sistemak proiektatuko dira, obren ondorioz kutsatutako urak horietan jaso ahal izateko.

- Ezpondetako jariatzeen ondoriozko urak nahiz lurzoru naturalaren eta betelanen artean sortutako ibilbideetako urak bildu eta bideratuko dira, jariatze-sistema berriak sortzearen ondorioz ur horiek lurzorua higa ez dezaten (Kanoiak, Amillaga, Ezoziko proposamenak, Irukurutzetako biribilgunea).

- Makineriek guztiz irazgaiztutako plataformak izango dituzte, eta, halaber, hondakinak biltzeko sistemak izango dituzte; ibilgailuak erregaiz hornitzeko, olioa aldatzeko eta bestelakoetarako, plataforma horiek erabiliko dira. Beste instalazio osagarri batzuek azaleko drainatze-sistemak izango dituzte, edozein isuri lurrean irazgaizi aurretik dekantazio-putzuetara bideratzeko. Makineria eta behin-behineko instalazioak natura eta fauna interes handiena duten eremuetatik eta ibai-ibilguetatik urrun kokatuko dira.

- Ibai-ibilguen ondoko lur azpiko azpiegitura linealen kasuan (kolektoreak, ur-hodiak, gasbideak, telekomunikazio-sareak, etab.), EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPn ezarritako atzerapen-erregimena aplikatuko da, eta udalerriko azpiegitura lineal orokorrekin behar bezala lotuko dira.

- Ur zikinen sarea eta euri-urena bereizita egongo dira. Hondakin-urak hodi biltzaile orokorretara joango dira, Ur Zikinen Araztegian husteko. Hondakin toxikoak dituzten hondakin-ur industrialek bilketako edota tratamenduko sistema espezifikoak izan behar dituzte (olioak dituzten hondakin-uren kontrola, etab.). Ezin izango da isuri toxikorik sartu kolektore orokorren sarera.

- Lurzoru hiritarrezinean, ur zikinen sarearekin lotu ezin denez, ura arazteko sistema autonomoak ezarriko dira, eraikuntzetarako eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretarako, eta ez da eraikuntza-lizentziarik emango arazketa-sistema horiek ongi funtzionatzen dutela bermatu arte.

- EAEko hilotzen sanitateari buruzko erregelamendua onartzen duen 202/2004 Dekretuak, urriaren 19koak, 44. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz, hilerri berriaren eremuan (Ezozia) azterketa hidrogeologiko bat egingo da; azterketa horretan, besteak beste, honako alderdi hauek jasoko dira: azal freatikoren sakonera, lur azpiko ur-korronteen norabidea eta urez asetako eremuaren lodiera; horiez gain, lur azpiko urek jasa dezaketen eragin-arriskuari buruzko iritzi global bat ere barnean hartuko du.

Erabilera-fasean, ingurumena eta pertsonen osasuna kontrolatu beharko dira, osasun-arriskuak dituen ekipamendua baita; azpimarratzekoak dira usain desatseginak saihesteko gorpuzkinen zati organikoen mineralizazioen kontrola, azaleko uren edota lur azpiko uren kutsaduraren kontrola, eta abar.

- Gaur egungo hilerria ixteko unean, aipatutako 202/2004 Dekretuak, urriaren 19koak, 48., 49. eta 50. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

- Nekazaritzako jarduerei dagokienez, arreta berezia jarri beharko dute tratamendu herbizida eta fitosanitarioen erabileran eta aplikazioan edo ongarritzerakoan, baliabide hidrikoak eta oro har ingurumena kutsatzeko moduko dosiak saihestuz eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerek sortzen dituzten hondakinak kontrolatuz (txizak, simaurrak, fitosanitarioak, etab.); horretarako, nekazaritza-lanetan egoki jarduteko kodean (Eusko Jaurlaritzaren 112/2011 Dekretua, ekainaren 7koa) eta abeltzaintza-ustiapenen arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak xedatzen dituen 515/2009 Dekretuan, irailaren 22koan, jasotako irizpideei jarraitzea komeni da; bai eta jarduerako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duen 165/1999 Dekretuan, martxoaren 9koan, jasotako irizpideei jarraitzea ere.

- Plangintzaren berrikuspen honetatik eratorritako jarduketek jabari publiko hidraulikoari eragiten badiote, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzaren administrazio-baimena beharko dute; baimen hori Ingurumen Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoaren bidez izapidetuko da.

Lurzorua babesteko irizpideak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak eta higadura-arriskua barnean harrtuta.

- Obrek eragindako azalera zedarriztatuko da, beharrezkoari baino lur-eremu gehiagori ez eragiteko, eta neurri horrek bertan dauden beste ingurumen-balio batzuk babesteko aukera ere emango du; eragindako lur-eremua, ahal den neurrian, erabilera berria izango duen plataformak hartuko duen azalerara mugatuko da, edo, hala dagokionean, lurzoruak geruza emankorra galduta zuen inguruko eremuetara. Garrantzitsua da ertzetako lurrak trinkotzea saihestea, eta, horretarako, lur horiei ez eragitea da egokiena.

- Lehentasuna emango zaio lehendik dauden errepideak eta bideak erabiltzeari, eta obrek eragiten dietenak konpondu egingo dira.

- Ustekaberen batengatik, instalazio osagarriak kokatzeagatik eta abarrengatik esku-hartzearen edo jarduketaren eremu perimetraletik kanpo dagoen lurzoruak eraginik izaten badu, berregokitu egingo da.

- Obrak hartuko duen azaleran edota elementu osagarriek hartuko dutenean dagoen landare-lurren goiko geruza kenduko da, eta xede horretarako aurreikusitako inguru batean bilduko dira horrelakoak; toki horretan pilatuta dauden bitartean, behar bezala zainduko dira, aurrerago, eragindako eremuko lurra leheneratzeko eta berriz ere landarez hornitzeko erabili ahal izateko. Geruzak ez nahasteko ahalegina egingo da, geruza emankorrenen propietateak barreia ez daitezen. Landare-lurren soberakinik badago, plan honetako beste proposamen batzuetan edo degradatutako eremuak leheneratzeko erabiliko da (hondakindegietan, esaterako).

- Hegalen sisteman eragiten duten jarduketetan, lur beltza babestuko da, lurzoruan botatzen denetik erein arte, eta aldatu gabeko lurretatik basogabetuetarako eta plataformatik ezpondetarainoko jariatzeak modu berezian zainduko dira. Hegalek eragin puntual bat izango

dute Kanoietan, Amillagan, Irukurutzetako biribilgunean eta Ezozian (hilerri berria eta aisialdiko baratzeak).

- Modu berezian, Ezoziko proposamenetan, proiektu bakoitza erabilera berria lurraldearen topografiara egokitu dadin arduratuko da. Hilerri berrian, bideetarako horma txikiak egiteko aukera, futbol-zelaitik gertu dagoen aparkalekuaren sinergiaz baliatzeko eta horrela aparkaleku txikiagoa diseinatzeko aukera, eta beste aukera batzuk kontuan hartu dira. Aisialdiko baratzeen kasuan, hegalean terrazak teknika iraunkorrekin egitea sustatuko da; terraza horiek ez dira guztiz horizontalak izango, eta, ezpondak baino gehiago, horma txikiak erabiliko dira, horrenbeste lur ez erabiltzeko, etab.

- Higa daitezkeen edo higadura-arriskua duten eremuetan, ahaleginak egingo dira basogabetzea, azaleko eta azpiazaleko drainatze-sareak aldatzea eta landaredia desagertzea saihesteko; zuhaitzik gabeko eremuen basoberritzea sustatuko da, eta, helburu hori lortzeko, abeltzaintza-erabilera baldintzatuko da. Soraluze-Placencia las Armasen, malda eta higadura-arriskua duten eremu asko daude, eta, beraz, komenigarria da, oro har eta batez ere Deba ibaiaren eskuin ertzeko hegaletan, lurzorua modu egokian erabiltzea eta lurzorua leheneratzeko eta mantentzeko teknika eta praktika iraunkorrak behar bezala erabiltzea (hesiak, zuhaitzak edo sastrakak haizearen norabidearekiko eta lurraren aldaparekiko zeharka jarrita, harrizko hesiak, eremu sentikorrenetan gehiegizko larreratzea eta batik bat ahuntz edo ardiak kontrolatzea, basoberritzea, etab.).

- Baso-jarduera, proposatutako eremuetan, baso babesleak haztera bideratuko da, baliabide edafikoen kontserbazioa bermatzeko, eta poliki hazten diren zuhaitzak ezartzea sustatuko da, eta belar-sastraken garbitze estentsiboak eta lur-mugimenduak ahalik eta gehien mugatuko dira. Eskuz eta ez makinaz landatzeari eta mozte-metodo progresiboei lehentasuna emango zaie, eta hala nola bakanketak, arboladiak moztea eta bakantzeak sustatuko dira, erabateko mozketaren aurretik; hori guztia, baimenak emateko unean gai horren inguruan eskumena duen agintaritzak ezartzen duena kaltetu gabe.

- Baso-erabilerako eremuetan, hobe da % 50tik gorako maldetan poliki hazten diren espezieekin basoberritzea (baso-erabilera babeslea), lurzorua babesteaz gain, paisaiaren aniztasuna bultzatuko eta sustatuko baitu horrek.

- Baso-erabileraren ustiapen iraunkorra sustatuko da (pista berriak irekitzea kontrolatuko da, ondoan dauden lursailetan mozketak aldi berean egingo dira, euri gehieneko garaian zuhaitz-mozketak saihestuko dira, genetikoki hobetuta dauden espezieak erabiliko dira, etab.).

- Landa- eta baso-bide berriak egitea kontrolatuko da, eta, horretarako, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin beharko da aurrez, 3/98 Legearen arabera. Baso-bide berri horiek % 15etik gorako maldak saihesten dituzten ibilbideak izango dituzte, paisaia-inpaktuak saihesteko muga hori salbuespen gisa gainditu badaiteke ere; eta ura botatzeko eta ezpondak finkatzeko mekanismoz hornituta egongo dira, lurzoruaren gehiegizko galerak saihesteko.

- Lurzorua Kutsa dezaketen Jarduerak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Kokapenen Inbentarioan (IHOBE) jasotako lursailetan egin behar diren garapen-proiektuen kasuan (Kanoiak eta Olaldea), dagokien esplorazio-azterketa egin beharko da, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legeak, otsailaren 4koak, xedatzen duenarekin bat etorriz, erabilera aldatu aurretik lurzoruaren kalitatea ezagutzeko. Ikerketa hori ezinbestekoa da lurzoruaren kalitatea kutsatuta, eraldatuta edo, hala badagokio, eraldatu gabe dagoela adierazi

ahal izateko, aipatutako legeak ezartzen duenaren arabera, eta, horrela, lurzoru horretan jardun ahal izateko. Ezaugarri horiekiko kokaguneak dituzten esku-hartze eremu bakoitzaren hirigintza-fitxetan, eragindako lursailaren kokapena, 1/2005 Legearen arabera eremuan izan dezakeen aplikagarritasuna, eta hark ezarritako xedapenak betetzeak ekar ditzakeen betebeharrak eta kargak jasoko dira.

- Gainera, HAPOren araudi orokorrean, nahitaezkoa da *Lurzoruaren Kalitatea Adierazteko* prozedura betetzea jarduera bat ezarri edo handitzeko eta lur-mugimendua egikaritzeko lizentzia lortu aurretik, 1/2005 Legeak, otsailaren 5ekoak, 17. artikuluan aintzat hartutako kasuetan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten Soraluze-Placencia de las Armasko lurzoruak oro har hartuta, eta HAPO honetako proposamenen batekin lotuta dauden edo ez dauden kontuan hartu gabe. Era berean, horiek guztiak lurzoruaren inbentario batean txertatzea komeni dela azpimarratzen da, denboran izan ditzaketen aldaketak bertan jaso ahal izateko.

- Aipatutako inbentario horretan txertatu gabe dauden eremuen edo lursailen kasuan, obrak egiten diren bitartean kutsaduraren zantzuak hautematen badira, gai horren inguruan eskumena duen agintaritzari jakinarazi beharko zaio (IHOBE).

<u>Landaredia eta fauna babesteko eta eraginak gutxitzeko irizpideak.</u>

- Proiektuaren eta obren faseetan, antolamendua zaindu egingo da, lehendik dagoen eta ingurumen-balioa duen landarediak, eremukoak nahiz ertzetakoak, eraginik jasan ez dezan, edo ahalik eta eragin txikiena izan dezan; planoan adierazi beharko da berariaz, bai eta soildu beharreko eremua ere, obra hasi aurretik bertan seinaleak jarri ahal izateko. Alderdi hori kontuan hartuko da bereziki:

a) Irukurutzetako biribilgunean, ibaiertzean dagoen landaredi urriari eta hego-ekialdean kokatuta dauden haltzei ez eragiteko.

b) Ezoziko hilerri berriaren proposamenean, ipar-mendebaldeko muturrean, Legarda baserrirako bidean kokatuta dagoen zuhaitz-landareari eta eragindako lursailean bereizita kokatutako haritz kandudunen zuhaiztiari ez eragiteko; eta hilerri berria ahal den neurrian antolamendu berrian txertatzeko ahalegina egingo da.

c) Ezoziko aisialdiko baratzeen inguruan, hegoaldeko muturrean, errekaren behe-ibarretik gertu (eremutik kanpo) kokatuta dagoen landarediari ez eragiteko eta bereizita dauden zuhaitz urriak jarduketan txertatzeko.

d) Kanoietan, eraisteko dagoen pabiloiaren atzean kokatuta dagoen hegaleko landarediari eta, bereziki, GI-627 errepidetik gertu dauden eta ingurumen-balio handiena duten zuhaitzei (haltzak) ahalik eta gutxien eragiteko.

- Olaldean, Santa Ana kaleko horman dagoen ezpondako sasiakazia kentzea planteatu da.

- Oso kontuz jokatuko da, makineriak alboko eremuetako zuhaitz-landarediari sor diezazkiokeen ustekabeko kalteak saihesteko (Kanoiak, Ezozia eta Amillaga).

- Landaredia leheneratu behar den eremuetan, lehenengo, morfologia-alderdi funtzionalak, baldintza edafikoak, malda, drainadura, paisaia-ingurunea, lekuaren erabilera soziala eta abar kontuan hartuko dira, eta, gero, aukeratutako landaredia ezarriko da, ereintza bidez, landatuz edo bietara. Espezieak aukeratzerako orduan, kasuen arabera irizpide hauek batetaratuko dira: irizpide estetikoak, ikusizko inpaktu gehien duten egiturak edo lorategiak paisaian egoki txertatzeko mota zehatz batetako landareak erabiltzea aholkatzen dutenak, eta denbora-epe nahiko laburrean landareztatzea lehenesten duten irizpideak.

- Landareak berrezartzean edo leheneratzean (ezpondak, ibai-ibilguen eta ibaiertzen inguruko eremuak, lorategiak, ertzeko eremu kaltetuak...), koherentzia ekologikoan eta lurraldearen paisaian oinarritutako irizpideak hartuko dira kontuan (bereziki zuhaitz, zuhaixka, sastraka eta belar espezie autoktonoak, lurraldean arrakastaz hazteko aukera izango dutenak), bai eta funtzionaltasuna ere, obren ondorioz sortutako zoru biluziak kontrolatzeko edo aurrez zuten egoera hobetzeko.

- Landatu eta erein ondoren, horiek kontrolatzeko epe bat zehaztuko da eta mantentze-lanak egingo dira, landatu eta ondorengo bi urteetan gutxienez, eta, batez ere, gehien ikusten diren edo sustraitzeko zailtasunak ematen dituzten eremuak hartuko dira kontuan.

- Harizti-baso mistoaren eta ibaiertzeko landarediaren orbanen egoera hobetzera bideratutako jarduketak bultzatu eta sustatuko dira, eta lurzoru hiritarrezina zonakatzeko eta antolatzeko proposamenean ingurumen aldetik hobetzeko eta leheneratzeko eremu gisa jasota dauden eremuak hobetzera eta leheneratzera bideratutako jarduketak ere bultzatuko dira.

- Ingurumen-balioa duten zuhaitzak galtzeko arriskua murrizteko eta ustekabean galdu direnei erantzuteko, neurri konpentsatzaile gisa moztu diren espezieetako edo antzeko espezieetako ale kopuru bera landatuko da, eta, ahal den neurrian, eremu beretan edo hurbileneko inguruetan egingo da hori, edota, bestela, hondatuta edo aldatuta dauden udalerriko eremuetan, horrela, ingurumenaren aldetik gune horiek leheneratzen laguntzeko. Ertzeko eremuetan dauden zuhaitz autoktonoen masen zabalera ere handitu daiteke, adibidez, hurbileko beste landaredi-orban batzuekin lotzeko eta, horrela, korridore ekologikoen sorrera sustatzeko.

- Lurzoru hiritarrezinean nekazaritzako lursailak itxi behar badira, fauna basatiaren zirkulazio librea ez eragozteko moduan itxiko dira.

- Lurzoru hiritarrezinean bide berri bat proiektatzen bada eta interes bereziko espezieak igarotzen diren eremuekin topo egiten badu, fauna igarotzeko igarobide artifizialak egitea beharrezkoa den aztertuko da.

- Interes bereziko espezieetako faunaren presentzia duten eremuetan, espezie horien ugalketa-garaian jarduketarik ez egiteko ahalegina egingo da.

- Florako eta faunako mehatxatutako espezieak babesteko modua Euskal Herriko naturaren kontserbazioari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen arabera arautuko da.

<u>Paisaia babesteko eta obrak eta espazio degradatuak edo beren ingurunean gaizki txertatutakoak paisaian integratzeko irizpideak</u>

- Soraluze-Placencia de las Armasko hainbat eremu paisaia babesteko eta ingurumen aldetik hobetzeko eremutzat hartzea.

- Proiektuaren mailan diseinua zainduko da (antolamendua, trazadura, ezpondak, etab.), jarduketa bakoitza paisaian ahalik eta arrakasta handienarekin txertatzeko, prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaile espezifikoak hartuz; aldi berean, jarduketa aurretik eremu horietan dauden hondatutako elementuak leheneratzea eta hobetzea balioetsiko da (ekintza positiboak eta onuragarriak sustatzea).

- Erabilera berriei (bizitegi-erabilerak, jarduera ekonomikoetakoak, ekipamenduetakoak, etab.) lotutako eraikinek eta egiturek estetikoki harmonikoa izango den multzo bat osatu behar dute, paisaiaren ikuspegitik bere ingurunean eta, oro har, udalerriaren paisaian egoki txertatzeko. Modu berezian zainduko da eraikuntzen tipologiari eustea eta berori errespetatzea (altuerak, egiturak eta koloreak), bai finkatutako hirigunean, bai landa-ingurunean, eraikin berriak egoki txertatuz.

- Ezozian aisialdiko baratzeak sortzeko proposamenaren proiektuaren fasean, hegalean terrazak egiteko diseinua zainduko da (terrazak egiteko teknika iraunkorrak), lehen ere adierazi dugunez. Besteak beste, lurzoruaren morfologia naturalera egokituko da ahalik eta gehien, lur-mugimenduak murriztuko dira, jariatzea kontrolatuko da eta artifizializatutako formak ez sartzea balioetsiko da, guztia, ingurune horretan baratzeak txertatzeko xedez. Erabilera- eta ustiapen-faseetan, ezponden egonkortasuna eta higadura-arriskua zaindu eta egiaztatuko dira batez ere.

- HAPOko hainbat proposamen hiri-eremuaren ezaugarriak berreskuratzeko eta leheneratzeko jarduketa gisa ulertzen dira aldi berean (Kanoiak, Olaldea, etab.), eta, beraz, garapen-plangintzetan (Plan Berezia Amillagan eta Olaldean, etab.) edo Obra eta Urbanizazio Proiektuetan, inguru horiek dagozkien ingurunean hobeto txertatzeko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira. Hauek dira, besteak beste, jarduera horiek: ingurumen ikuspegitik Deba ibaiaren ertzak berreskuratzea eta leheneratzea, oinezkoentzako edota bizikletentzako ibaiertzeko bidea, ibaiaren bi ertzak lotuko dituen igarobideak egitea, espazio libreak sortzea, etab.

- Soraluze-Placencia de las Armasko alde zaharra osotasunean birgaitzeko jarduketak sustatuko dira.

- Paisaia leheneratzeko jarduketetarako, espezie autoktonoak eta paisaiaren antzeko formak erabiliko dira bereziki, jarduketa geometrikoak baztertuz eta ertz zehaztugabeko basoberritzeak eta landaketak eginez. Obren unean soildutako azaleren irizpide ekologikoak, paisaia-irizpideak eta higadura kontrolatzeko irizpideak kontuan hartuko dira. Zuhaitz autoktonoen formazio linealak inguruko landaredi naturalarekin lotzeko ahalegina egingo da.

- Topografia aldatu behar den kasu puntualetan, birmoldatu egingo da, topografia naturalari ahalik eta gehien egokitzeko. Hobe da ezpondetan, batez ere ertzetan, profil irregularrak, zimurtsuak eta biribilak erabiltzea, ertzak saihestuz; eta, ahal den guztietan, ezpondaren azalera material finekin eta ibilbidetik bertatik hartutako landare-lurrekin estaliko da. Ezpondei forma ematerakoan, lurbetetzeen ertzen eta lurzoruaren arteko elkargunea maldak pixkana aldatuz gara dadin ahalegina egingo da; horrela, elkargune hori pixkanakoa izango da, eta ahalik eta forma naturalenak lortu ahal izango dira. Ezponda horiek egonkortu behar badira, egonkortzeko teknika "biziak" erabiliko dira (zurkaiztuz, egurrezko egiturak edo horma berdeak erabiliz, etab.).

- Proiektuek eta proiektuarekin lotutako jarduketek eragindako azalera leheneratu egingo da, eta bukalanak zehatz egingo dira, sakonki garbituz eta obrak ongi errematatuz.

- Linea elektrikoak, ahal izanez gero, lur azpian ezarriko dira, eta bestela, aukerak aztertu ondoren, inguruan ahalik eta inpaktu txikiena eragingo duten moduan ezarriko dira.

- Landa- eta baso-bide berrien sorkuntza ahalik eta gehien minimizatuko da, eta beste aukerarik ez dagoela egiaztatuko da; aurrez ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin beharko da, 3/98 Legearen arabera.

- Eraikinak eta aisialdiko baratzeen erabilerak Araudi Orokorraren bidez arautuko dira, paisaian duten eragina murrizteko.

Urbanizazioari, eraikuntzaren antolamendu espazialari eta eraikuntza-baldintzei lotutako iraunkortasun-irizpideak (Urbanizazio eta Eraikuntza Proiektuetan kontuan hartzekoak bereziki)

- Ahal den heinean, eremu zolatu irazgaitzak mugatu egingo dira, eta lurrak modu naturalean iragazteko duen ahalmenari eustea sustatuko da; aldi berean, lorezaintza autoktonoa diseinatzeko edo ura aurrezteko irizpideak txertatuko dira. Oinezkoentzako eta ibilgailuentzako espazioetan, euri-ura iragazten duten materialak erabiltzea komeni da. Garapen berriak dituzten lurzoru artifizializatuko hiri-eremuetan, ahal den neurrian irazgaiztutako azalera murriztuko da.

- Hiri-hondakinak gaika biltzeko espazio egokiak aurreikusiko dira.

- Eraikin berriak ingurunean txertatzeko modua egingo da, eta, horretarako, zorrotz zainduko dira altuerak, bolumenak, materialak eta abar, udalerriko eta bereziki landa-eremuko eraikuntzaren eta paisaiaren tipologiarekin bat etor daitezen, paisaiari buruzko atalean azaldu den moduan.

- Diseinuek eta antolamenduek kontuan hartuko dute eguzkialdia, aireztapena (ahal izanez gero gurutzatua) eta haize- edo euri- babesak aprobetxatzea. Eraikuntza berrien orientabideak kontuan hartuko ditu eguzkiaren argia atzitzeari buruzko eraginkortasun-irizpideak (berogailuen eta elektrizitatearen kontsumo txikiagoa, batez besteko tenperatura handiagoa, etab.).

- Eraikinen barne-espazioak antolatzerakoan, eguzkiaren argiztatze- eta aprobetxamendu-baldintzak optimizatuz banatuko dira, batez ere jende gehien hartzen duten espazioetan, eta, atsedenaldiko eremuetan (logelak), kanpoko zarata murriztuz antolatuko dira.

- Isolamendu akustikoa berariaz zainduko da kutsadura akustikoa duten eraikinetan, halakorik badago.

- Eraikinetan erabiliko diren eraikuntza-materialetan, ahalegina egingo da isolamendu termiko handikoak eta iraunkorrak erabiltzeko eta kutsatzen ez duten materialak edo ahalik eta gutxien kutsatzen dutenak erabiltzeko. Ahal izanez gero, erraz birzikla daitezkeen materialak erabiliko dira, eta birziklatutako materialak ere erabil daitezke, dagokien kalitate-bermea eta ingurumen-egiaztagiriak badituzte.

- Eraikinetan, ura eta energia-kontsumoa aurrezteko sistema sustatuko da, eta eguzki-atzigailuak eta metagailuak erabiliz, etxeko ur beroz hornitzeko sistema mistoak ezartzeko aukera aztertuko da.

- Espazio publikoetan, kontsumo txikiko argiztatze-sistemak erabiliko dira, hots, argi-kutsadura saihesten dutenak.

- 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, eraikuntzaren kode teknikoa onartzekoa dena, eta ondorengo aldaketak, eta 235/2013 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, eraikuntzen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duena, beteko dira.

Mugikortasunari eta irisgarritasunari buruzko iraunkortasun-irizpideak

- Udalerriko gaur egungo bide-sarea finkatuko da, errepide berriak egitera bultzatu gabe.

- Ibilgailuak sare horretatik udalerrira eta udalerriko hirigunera iristeko baldintzak hobetuko dira, hirigunearen iparraldetik nahiz hegoaldetik udalerrira sartzeko mugimendu guztiak lur berriak artifizializatu gabe eta behar bezala konponduz (Irukurutzetako biribilgune berria eta Mendiolako bidegurutzeko jarduketa).

- Hiriguneko bide-eraztuna finkatuko eta hobetuko da, Kanoietako zubi berriaren garrantzia azpimarratuz, eta bertatik gertu dagoen igarobidea kenduko da, irisgarritasun-baldintza desegokiak dituelako.

- Hirigunean, oinezkoen mugikortasuna hobetuko da, iparraldean (Kanoietako plaza) eta hegoaldean (Olaldeako plaza) espazio libreak sustatuz; eta hirigunean, Deba ibaiaren bi ertzeen artean, iragazkortasuna eta irisgarritasuna nabarmen hobetuko dira, Gabolatsen lehengo zubiaren ordez zubi berria eginez, eta igarobide berri bat eginez Errekalde eta Olaldearen artean; azken horrek lehen dagoen igarobidea ordeztuko du.

- Kaleen bilbea osatu eta hobetuko da, eta hierarkizatu egingo da, berariaz oinezkoentzako eta txirrindularientzako bideak gordez. Orduko 30 kilometroko abiadurako eremuak mugarriztatzeko aukera balioetsiko da.

- Erregetxeko espazioa oinezkoentzako plaza gisa berreskuratuko da, aparkaleku erabilera utzita.

- Deba ibaiaren ezkerreko ertzean, hirigunea ibaira irekitzeko jardueren antzeko esku-hartzeak planteatu dira Kanoietan eta Txurrukan, eta beste esku-hartze bat ere planteatu da ibaiaren eskuineko ertzean, Olaldea eremuan.

- Bizikleta-bidea osatzea aurreikusi da, Bergaratik Maltzagara arte doan bideari, hirigunean sartu eta udalerria zeharkatzen duen bideari, jarraipena emanez eta lurzoru industrialei berehalako zerbitzua emanez (Mendizabal, Mendiola, Amillaga...).

- Hirigintza-oztopoak kentzea planteatu da, zahar etxera iristeko igogailu berri bat eginez; beste igogailu bat ere egingo da, izaera publikokoa, Olaldeako plaza berria, Errekaldeko igarobidearen aurrean, goiko eremuekin bat egingo duena: Zeleta, Estaziño…

- Hirigunean aparkalekuak egitea proposatu da, gaur egungo gabeziari erantzuteko.

Inguru sozioekonomikoari dagozkion irizpideak.

- Pertsonei eta enpresei zuzen-zuzenean eragiten dieten proposamenetan, dagozkien birkokatzeak behar bezala kudeatu beharko dira udalerrian bertan eta obrak hasi aurretik (Olaldea eta Txurruka eremuak, eta baita Olea 2, Loralde 2 eta 4, eta beste batzuek ere).

- Soinu maila kontrolatuko da hirigunean kokatuta dauden obretan, eta, bereziki, Plaentxi ikastetxetik eta Bigarren Hezkuntzako Institututik gertu kokatuta daudenetan, ahal denean eta arrazoizkoa den neurrian, eskola-ordutegia errespetatuz; Mesedeetako Amaren Egoitzaren kasuan, bertan bizi direnei traba gutxien egiten dien ordutegia errespetatuko da.

- Obren fasean, materialen garraioa egoki programatzea komeni da, zirkulazioari ahalik eta gutxien eragiteko (ordutegiak, ibilbideak, etab.), bereziki, hirigunean kokatuta dauden eremuetan. Era berean, beharrezkoak diren seinaleak jarriko dira, errepideko segurtasuna areagotzeko.

- Bereziki zaratatsuak diren obrek, zerbitzu-mozketek, kaleen norabide-aldaketek, zirkulazio-mozketek eta abarrek eragiten dieten biztanleei aurrez emango zaie horien berri.

- Obretako bideak etengabe ureztatuko dira, partikula esekien maila igotzeak eragindako inpaktua gutxitzeko (besteak beste, uztak balioa galtzea, arnasbideetan eragindako kalteak eta abar).

- Landa-lurzoruan eta babestutako lurzoruan garatzen diren jardueren erabilera iraunkorra sustatuko da, baso- eta abeltzaintza-jarduerei dagokienez bereziki, udalerrian horiek duten garrantzia kontuan hartuta.

- Etxebizitzak eraikitzeak udalerriko biztanleriaren dinamikan eragin onuragarria izango du, baina, zahartze-indize altuak dituenez adinaren araberako biztanleria-egituran eragina izan dezan, ezinbestekoa da etxebizitzaren arloan esku-hartze publiko bat garatzea, gazteek erosita nahiz alokairuan etxebizitza bat lortzeko aukera izan dezaten.

- Gero eta zaharragoa den biztnaleria-egiturak Mesedeetako Amaren Egoitzaren gaitasuna hedatzeko aukera planteatzen du, gaur egungo eta etorkizuneko adinekoei erantzuna eman ahal izateko.

- Landa-ingurunean dauden eraikinen eta instalazioen inbentario-errolda eguneratua egingo da, horietan baimendutako jarduerekiko duten lotura eta berorien egoera etengabe ezagutu ahal izateko.

<u>Interes kulturaleko elementuekin lotutako irizpideak</u>

- Euskal kultura-ondareari buruzko 7/1990 Legearen xedapenak bete behar direla ahaztu gabe, HAPO honen berriksupenak Soraluze-Placencia de las Armasko ondare arkeologikoa eta historiko-arkeologikoa babesten duen katalogo bat jasotzen du, eta ondare hori kontserbatzera, berreskuratzera eta leheneratzera bideratutako jarduketa oro sustatzen du.

- Udalerrian, interes kulturaleko ondareen zerrenda zabal bat dago, eta horiek babestu eta kontserbatzeaz gain, proiektatu egin behar dira ezagut ditzaten eta horiekin batera udalerria ere ezagutaraz dadin; eta, bateragarria den kasuetan, horiek har ditzaketen erabilera berrien bidez eta ingurunean eta hirigunean txertatuz, dagokien balioa eman behar zaie.

- Soraluze-Placencia de las Armasko hirigunean garatu beharreko jarduketei dagokienez, kontuan hartu behar da eremu hori gune arkeologiko gisa sartuta dagoela Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean, Multzo Monumental kategorian (Kultura Sailaren Agindua,

1998ko otsailaren 12koa); alde historikoko Plan Bereziaren arauak betez egingo dira jarduketa horiek, HAPO ezartzearen ondorioz izan ditzakeen berregokitzeak kaltetu gabe.

- HAPO hau indarrean dagoen bitartean izaera arkeologikoa izan dezakeen zerbait aurkituz gero edo babestutako ondareetan aldaketarik gertatuz gero, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamentuari jakinaraziko zaio, dagokion neurriak ezar ditzan.

- Hiriguneko eta landa-inguruneko ibilbideak proposatu behar dira, intereseko lekuei balio emango diotenak, ingurunea hobeto ezagutu eta inguruneaz gehiago gozatu ahal izateko.

XII.- KARTOGRAFIA.

Plan Orokorrak planoen dokumentua ere jasotzen du, eta horietako askok ingurumen-iraunkortasunari buruzko txosten honetan jasotakoari erantzuna edo arrazoia ematen diote.

Horrela, udalerriaren zonakatze globalari (II. 1 planoa), udalerriko mugikortasunerako sareen zehaztapenari (III. 3 planoa) eta errepide eta landa-bideei (V.2 planoa) dagozkien plano arauemaileek lanaren edukiari zuzen-zuzen erantzuten diote.

Bestalde, IV. planoen multzoak hirigintza-antolamenduaren baldintzatzaile gainjarriak adierazten eta azaltzen ditu, eta ingurumen-izaerakoak dira guztiak. Hauek dira:

IV.1. Ingurumen-baldintzatzaileak eta baldintzatzaile kulturalak. ..... 1 / 10.000

IV.2. Zonakatze akustikoa. ..... 1 / 10.000

IV.3. Ingurumen-unitate homogeneoak. ..... 1 / 10.000

IV.4. Uholde-arriskua ..... 1 / 5.000

IV.5. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak. ..... 1 / 10.000

I.1 eta I.2 planoek, bestalde, udalerria bere ingurunean kokatzen dute, eta udalerriaren ortofotoak (I.3 planoa), berriz, Soraluze-Placencia de las Armas herriak 2013. urtean zuen egoera azaltzen du, hau da, plan honen abiapuntua.

Planaren Memoriaren 2. eranskinean, Eusko Jaurlaritzak arriskuen arloan emandako planoak jaso dira.

Modu osagarrian, prozesuan zehar egin den kartografia ere jaso da, Informazioa eta Diagnostikoa dokumentuan eta Aurrerapenean jasotakoa, 2014ko martxoan; behar izan den informazio guztia zehatz-mehatz biltzen dute dokumentu horiek (landaredia, malden analisia, higadura, hipsometria, geomorfologia, etab.).

Aurrerapenaren fase horretan, prozesuan kontuan hartu diren aukeren erreferentzia grafikoa ere jasota dago, xehetasun osoz.

Azkenik, Plan Bereziaren VII. planoan, proposatutako antolamenduaren azalpen-irudia ikus daiteke, oraintsuagoko ortofotoaren gainean egindakoa.

XIII.- INGURUMEN-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENAREN LABURPEN EZ-TEKNIKOA, ALDERDI GARRANTZITSUENEN KARTOGRAFIAREKIN

Soraluze-Placencia de las Armasko Udalak Plangintzako Arau Subsidiarioak, 1999. urtean onartutakoak, berrikusteko lanei ekitea eta udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) idaztea erabaki du. Eta, legearen arabera, antolamenduko dokumentu honek dagokion ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura bete behar du nahitaez, eta, beraz, testuinguru horretan idazten da HAPOren ingurumen-iraunkortasunari buruzko txosten hau (IIT).

IIT honen abiapuntutzat hartu da Aurrerapenarekin batera doan Informazioa eta Diagnostikoa dokumentuan ingurumenari, inguru fisikoari eta inguru sozioekonomikoari buruz jasotako informazioa, bai eta Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Departamentuak 2014ko irailaren 2an hasierako dokumentua aurkeztu ondoren igorritako erreferentziazko agiria ere.

Udalerriaren analisiak eta azterketak lurraldeko zenbait eremu gorde eta babesteko premia nabarmendu du, bestela, denborak aurrera egin ahala, hainbat balio eta baliabide bereziren galera konponezina gerta litekeela uste delako (Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru natura-intereseko eremua, Kurutzeko Gaina edo Kurutzetako Gaina eremua, interesekoak diren zuhaitz autoktonoak dituzten eremuak −pagadiak, hariztiak, baso mistoak, haltzadiak, gaztainadiak eta haltzadi txikiak, bereziki−, azaleko urak, korridore ekologikoak, faunaren eta floraren aldetik interesekoak diren eremuak, interes geologikoko eremuak, interes kulturaleko eremuak eta paisaia-intereseko eremuak, batez ere). Aldi berean, ingurumenaren ikuspegitik hobetzeko eta leheneratzeko jarduketak behar dituzten eremuak hauteman dira (Deba ibaia eta ibaiertzak, Eibar-Vitoria/Gasteiz AP1 autobidearen obrek eragindako eremuak, harizti azidofiloko eta baso mistoko arboladi gaztea edo degradatua duten zenbait eremu, Gaztañazuloako behe-ibarrean dagoen GOL enpresaren hondakindegi zaharra, etab.), bai eta ingurumen-arriskua dutenak ere (uholde-arriskua duten eremuak, higadura-arriskua dutenak edo kutsatuta egon daitezkeen lurrak dituztenak).

Lurraldearen ingurumen-balioak gorde edota babesteko ideia eta ingurumen-arriskuen kontrola udalerriko hirigunea berritzeko eta hirigunearen ezaugarriak berreskuratzeko beharrarekin batera ulertu behar dira, eta mende honetako lehenengo hamarkadan garatu diren ekintza egokiei jarraipena eman behar zaie. Gainera, une honetan urria den ondasun baten eskaerari erantzuna eman behar dio, etxebizitzaren premiari, hain zuzen (Kanoietako, Olaldeako eta Txurrukako proposamenak, eta hiriguneko beste zenbait jarduketa txiki); udalerriko hirigunean aurreikusitako esku-hartzeek eragingo dieten jarduerak birkokatzeko eta herriko enpleguari eusteko xedez (Amillagako proposamena), ekonomia-jarduerarako lurzoruak modu orekatuan prestatu behar ditu; horren urriak diren espazio publikoak sortuko ditu (plaza berriak Erregetxen, Olaldean eta Kanoietan), epe laburrera edo luzera gaur egungo hilerria Ezozira lekualdatuz eta, horrela, hezkuntza-zuzkiduretarako beharrei erantzuteko lurzorua libre utziz, besteak beste; eta mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetuko ditu (GI-627 errepidetik iparraldeko eta hegoaldeko hirigunerako sarrerak hobetuz, Debatik Maltzagaraino doan bizikleta-bidea luzatuz; hirigunean mugikortasuna hobetuz: bide-eraztuna, aparkalekuak, zubi eta igarobide berriak, ibaiertzeko pasealekua, kale eta plaza berriak, puntu beltzak eta arkitektura-oztipoak kenduz; eta igogailu publiko berri bat egitea ere aurreikusiz, etab.); horrez gain, beste proposamen batzuk ere jasotzen ditu, sustapeneko eta jabari publikoko aisialdiko baratzeak Ezozira bidearen ondoan, argiztatze publikoarekin lotutakoak, etab. Eta, hori guztia, biztanleriari eusteko eta udalerrian bizi-kalitatea areagotzeko xedez.

2014ko martxoan plangintzaren Aurrerapena formulatu zenean, hainbat antolamendu-irtenbide planteatu ziren, hautemandako arazoari erantzuna emateko eta, horren arabera, udal-proiektua zehazteko. Ingurumen-iraunkortasunerako eta iraunkortasun ekonomiko eta sozialerako irizpideak oinarri hartuta eta gaur egungo egoera eta udalerrriaren beharrak kontuan hartuta, planaren denbora-mugan egingo diren ekintza berriak hartzeko harrera-gaitasun handiena eta hauskortasun txikiena duten eremuak aukeratu dira.

Planak azkenik proposatu eta onartu duen hiri-ereduak ingurumen-aldagaia abiapuntuko premisatzat hartu du, planaren ia proposamen eta ekintza guztiak lehendik artifizializatuta dauden eremuetako lurraldeetan garatuko baitira; era berean, izaera antzekoa izango duten beste batzuk formulatu ditu udalerri osorako, udalerriko beste inguru batzuk ingurumenaren aldetik babesteko, kontserbatzeko, berreskuratzeko eta hobetzeko. Hirigintza-garapenak hirigunean egingo dira bereziki (lurzoru hiritarra), eta bi proposamen zehatz soilik dira, hain zuzen, lurzoru naturalean edo artifizializatu gabean egingo liratekeenak. Horietako bat aisialdiko baratzeak hartuko dituena da, eta erabilera horrek, gainera, berriztagarria ez den baliabide hori kontserbatzeko aukera emango du.

Planeko proposamenetako garapenek hirigunean eta puntualki ertzeko eremuetan izango dituzten ingurumen-eraginen abiapuntu diren ekintzetako bakoitzari buruz azterketa eta balioespena egin du IITk, eta erakutsi du eragin globala guztiz bateragarria dela (ingurumen-eragin baxua edo oso baxua); horietako askotan, bateragarria izateaz gain, onuragarria ere badela ondorioztatu da.

Landa-lurzoruaren antolamenduari dagokionez, planak izango dituen ondorioak ez dira negatiboak izango, batetik, landa-lurraren natura-, paisaia- eta produkzio-balioak kontserbatuta eta babestuta lurraldea errespetatzen duelako eta, bestetik, nekazaritza-erabileren garapen iraunkorra eta ingurumen-ikuspegitik eraldatuta, degradatuta eta hondatuta dauden eremuetako ingurumena lehengoratzea eta hobetzea sustatzen duelako. Urbanizaziotik babestu egin dira baliabide horiek, baina biztanleek beroriez gozatzeko aukera izango dute; izan ere, eragin positiboak edo onuragarriak sortzea lortu nahi da, eta halaxe espero da, horretarako aplikagarria den araudia ezarriz.

Plangintzaren mailako inpaktu esanguratsu posibleak identifikatzeaz eta ebaluatzeaz gain, IITk plan honen eraginak ezabatzeko edo arintzeko neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen proposamenak jasotzen ditu, batez ere ondorio negatiboak minimizatzera zuzendutakoak, horien eragile diren ekintzen intentsitatea mugatuz eta, beraz, arriskuak murriztuz. Neurrien beste helburu bat inpaktu hori konpentsatzea da, ahal izanez gero leheneratzeko neurriak hartuz edo egindako ekintzaren izaera bera duten eta kontrako ondorioa dakarten jarduketak gararaziz. Proposatzen diren neurri gehienak orokorrak dira, eta beste batzuk, aldiz, espezifikoagoak dira, kaltetuta egon daitekeen eremu bakoitzerako zehaztutakoak.

Plangintzaren fase honetan, arreta berezia jarri da proiektuaren eta obren fasean nahiz ustiapenaren fasean kontuz jokatuta zokoratu edo murritz daitezkeen inpaktuak identifikatzeko; aztertutako eta ebaluatutako aukera bakoitzean eraginak identifikatzeko unean adierazi da alderdi hori.

Ildo horretan, zaintza-programa bat ere jaso da, planaren eraginak edo ondorioak gainbegiratzeko; programa horrek IIT honetan hasieran aurreikusitakoaren eta HAPO gauzatzeak ekarriko duen azken emaitzaren artean desbideratze handirik ez izatea bermatzeko aukera emango duen jarraipen- eta kontrol-lana egitea du xede. Horretarako, garrantzitsua da, neurriak eta aholkuak betetzeaz gain, eragin negatiboak, batez ere indar handiena dutenak, eta eraginen aurreko ebaluazioan zalantza sortu dutenak zuzentzea eta kontrolatzea. Lan horrekin lotuta, jarraipen-adierazle batzuk proposatzen dira, ingurumena babesteko eta garapen iraunkorra lortzeko helburuak Soraluze-Placencia de las Armas lurraldean txertatzeko konpromisoa neurtzeko balioko dutenak.

Aipatutako guztiak plangintza-berrikuspen honi nola egin zaion aurre adierazten du, iraunkortasun-irizpideak oinarri hartuta lurraldearen antolamenduaren osoko proposamen baten bidez landu baita, eta, IIT honen xedeetarako, esan daiteke proposatutako irtenbideek ez dutela, inolaz ere, atalase onargarria baino ondorio handiagorik. Halaber, horietako askok inpaktu onuragarriak edo positiboak sustatuko dituzte, hasierako edo operazio aurreko egoerarekin alderatuta, oro har, lurraldean hobekuntza nabarmena ahalbidetuko baitute. Horrela, Soraluze-Placencia de las Armas hiriak bizirik iraungo duela bermatzeko beharrezkoa duen hiri- eta lurralde-ereduren proiektuari erantzuna emango dio, etorkizuneko belaunaldien beharrak kaltetu gabe.

Ikuspuntu horretatik, hauek dira daturik esanguratsuenen artean azpimarratu beharrekoak: hiri-lurzorua murriztea ekarriko du planak; ez da lurzoru hiritargarrien antolamendurik aurreikusten; hirigunea berritzea eta hiriaren ezaugarriak berreskuratzea du xede, eta hori guztia ezinbestekoa da udalerriaren etorkizunerako; eta babes bereziko lurzoruen azalera bikoizteko proposamena egiten da.

Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 12. artikuluan zehazten duenari jarraituz, dokumentu hau jendaurrean jarri da, jendeak ezagutu dezan eta erabakiak hartzeko prozesuan parte har dezan.

Plan Orokorraren VII. planoak eta zonakatze globalaren planoak (II.1) behar bezala azaltzen eta argitzen dute kapitulu hau.

XIV.- AUKERATUTAKO IRTENBIDEEN ETA PLANAREN ERAGIN NEGATIBOAK PREBENITZERA, MURRIZTERA EDO ARINTZERA BIDERATUTAKO NEURRIEN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENA, HORIETATIK ERATORRITAKO INGURUMEN-GASTUAK BARNERATZEN DITUELA BERMATZEN DUENA

Plan Orokorrak hirigunearen ezaugarriak berreskuratzeko xedean oinarritutako helburuak proposatzen ditu, eta ingurumenaren arlokoak dira batez ere helburu horiek. Hirigunean espazio libreak falta dira, uholde-arrisku garrantzitsua dago, ezinbestekoa da udalerrian mugikortasun-baldintzak berriro orientatzea, hirigintza-oztopoak murriztu behar dira, guztientzako segurtasuna bermatu behar da, eta ingurune osasungarri bat lortzeko ahalegina egin behar da.

Argi eta garbi dago ezinbestekoa dela esku hartzea, eta azkar esku hartzea, gainera. Horretarako, plana idazterakoan arreta berezia eskaini zaio berorren bideragarritasunari. Plan bat proiektu bat da, dokumentu bat, baina gauzatzeko modukoa izan behar du, eta horrelaxe egin da.

Helburu horretarako, azterketa ekonomiko-finantzarioa eta jarduketa-programa bat ditu, eta horiei atxikitzen gatzaizkio; horien balioespenetan, zenbait kasutan sor daitezkeen ingurumen-gastuei erantzuna ematen dieten neurriak txertatu dira.

Dena den, proposatutako neurri guztiek ingurumen-helburuak dituzte, eta askotariko eragileen parte-hartzea bultzatzen duten sinergiak formulatu dira, planaren helburuak errazago lortzeko xedez, ahalik eta adostasun gehienak lortzeko eta ekimenak gauzatzerakoan diru-laguntzak eskuratzeko aukera ematen baitu horrek.

Aurrez aipatutako adierazleek erakusten duten moduan, Soraluzeko etorkizuna bide iraunkorretik bideratzen du planak, eta arrazoizkoak eta mugatuak diren proposamenen bidez egiten du hori; baina, gaur egungo egoera dela eta, behar-beharrezkoa da proiektuaren lidergoa udalak bere gain hartzea, eragile publikoen eta pribatuen aurrekontuek bat egin dezaten eta epe laburrean eta ertainean udalerriko behar larrienei erantzuna eman diezaien bultzatzeko.

Udala ari da jada lanean ildo horretan, helburu horretarako proiektu hau badu.

Mendearen hasieran, duela 15 urte soilik, ziur asko ezinezkoa zen Soraluze-Placencia de las Armas noraino iritsi den hautematea; baina lehenbailehen beste urrats bat egitea falta da, eta, horretarako, ezinbestekoa da administrazio publiko osoaren lankidetza (Uraren Euskal Agentzia, Bide Azpiegiturak, Errepideak, Osasuna, Ingurumena, Gizarte Gaiak, Irisgarritasun Unibertsala, Kultura, Etxebizitza, SPRI...), bai eta eragile pribatuena ere, guztion artean proiektua bideragarri egiteko.

Donostian, 2017ko otsailean





SANTIAGO PEÑALBA MANU ARRUABARRENA MIKEL IRIONDO

1. ERANSKINA

Baliabide hidrikoen nahikotasunari buruzko txostena

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Gipuzkoako Urak

Blanca Vinuesa eraikina
Portuetxe, 16 - 1. solairua
20018 Donostia
Tfnoa: 902 30 22 22 - Faxa: 943 69 70 50
www.gipuzkoakour.com

AENOR ER Empresa Registrada ER-0543/1997

2014 ABE. 03
SARRERA/ENTRADA | IRTEERA/SALIDA
Zbka. ..... Nº | Zbka. 6504 Nº

SORALUZEko Udala
Hiart Arluziaga, Alkatesa Anderearentzat

C/ Santa Ana,1
20.590 SORALUZE.
Gipuzkoa

Donostia, 2.014ko Abenduaren 2a

Asunto: Solicitud de informe justificativo de suficiencia de recursos hídricos para satisfacer demandas previstas en nuevo Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Soraluze.
Zuen aurtengo Azaroaren 14 ko, 1056 irteera erregistro zkª duen idatzia

Referente a su escrito de solicitud de fecha 14.NOV/2.014, nº: 1056 y respecto al asunto de referencia, **COMUNICAMOS** que

1.- La infraestructura hidráulica disponible en el conjunto de Presa/Etap URKULU permite holgadamente disponer de los suficientes recursos hidráulicos para las necesidades descritas en la solicitud de referencia. Por todo ello se **informa POSITIVAMENTE** al respecto.

2.- Sobre la **«la protección del dominio público hidráulico»** al que se hace referencia en el escrito, se hace constar que no es competencia de GipuzkoakoUrak, por lo que en nuestra opinión deberían dirigirse al URA-Eusko Jaurlaritza para la resolución al respecto.

Adeitasunez

Sin.: José Salzar
Director Explotación

Nota:
Si bien las necesidades de recursos queda satisfecha, para el desarrollo de cada "intervención urbanistica", deberán contemplarse en y para cada caso la reconsideración de la *"infraestructura en baja"* que para cada uno de ellos se requiera.

2. ERANSKINA

INGURUMENAREN EGUNGO EGOERARI LOTUTAKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

(2014ko martxoko Informazio eta Diagnostiko Dokumentutik ateratako eranskin eguneratua)

INDICE **Página**

I.- INTRODUCCION. .....

I.1. Objeto. 1
I.2. El ámbito territorial. 1

II.- ASPECTOS RELEVANTES DE LA SITUACIÓN ACTUAL DEL MEDIO AMBIENTE. 1

II.1. El lugar. Perspectivas geográfica e histórica. 1
II.2. La población. 5
II.3. El medio urbano. Su situación actual. 13
II.4. El medio físico. 16
II.5. El patrimonio arqueológico y arquitectónico 70
II.6. El medio "natural" y el paisaje. 73
II.7. Las actividades en el medio rural: el sector agropecuario y forestal 74
II.8. El ruido 74
II.9. La agenda 21 local 75
II.10. Los núcleos rurales 75

III.- DIAGNÓSTICO EN RELACIÓN CON EL MEDIO 77

IV.- PLANOS 79

I.- INTRODUCCION.

I.1.- Objeto

El Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas decidió abordar los trabajos de revisión de sus Normas Subsidiarias de planeamiento, aprobadas en el año 1999, y redactar al efecto el Plan General de Ordenación Urbana del municipio.

Con ese fin, de acuerdo con el contrato suscrito el día 21 de noviembre de 2013, encargó dicho trabajo a los profesionales que suscribimos, Santiago Peñalba Garmendia y Manu Arruabarrena Florez, arquitectos, y Mikel Iriondo Iturrioz, abogado.

En la elaboración de este documento, junto con quienes dirigimos los trabajos, han colaborado los profesionales que completan el equipo; así como los Servicios Técnicos Municipales y la propia Corporación Municipal, que han conocido progresiva, puntual y periódicamente los avances de su desarrollo; e incluso los Servicios Técnicos de Debegesa.

El presente Anejo se redacta para su incorporación al Texto Refundido del PGOU, una vez aprobado definitivamente este, y en el se recogen la información y el diagnóstico elaborados en marzo de 2014 en relación con los aspectos relevantes de la situación del medio ambiente, completados con la información elaborada a los efectos de su actualización.

I.2.- El ámbito territorial

El Plan General a redactar tiene por objeto la totalidad del término municipal de Soraluze/Placencia de las Armas que cuenta con una extensión territorial de alrededor de 1.409 hectáreas y una población, de acuerdo con la rectificación padronal de 31 de diciembre del año 2012, de 4.019 habitantes, cifra que a fecha de 1 de enero de 2016 ha descendido a 3.944 habitantes.

II.- ASPECTOS RELEVANTES DE LA SITUACIÓN ACTUAL DEL MEDIO AMBIENTE

II.1.- El lugar. Perspectivas geográfica e histórica.

El municipio cuenta con cerca de 1.409 hectáreas que se localizan en el denominado “valle de Placencia”, en el tramo medio del curso del río Deba situado entre Osintxu (Bergara), aguas arriba, y Malzaga (Eibar), aguas abajo. Se trata de un valle muy estrecho que además del río ha acogido las infraestructuras viarias, de ferrocarril -en su día-, y de servicios, y cuyas laderas cuentan con muy fuertes pendientes. Se trata en consecuencia de un territorio muy singular, único en Gipuzkoa, territorio histórico en el que se localiza (plano I.1).

Pertenece al Área Funcional de Eibar (Bajo Deba) tal y como se ilustra en el plano I.2.

El cordal de Mazelaegi (Karakate-Irukurutzeta), con la cumbre del Atxolin, limita el término municipal al norte con Elgoibar; mientras que el municipio linda al oeste con el de Eibar, y al sur y al este con el de Bergara. Las laderas que vierten al Deba lo hacen mediante arroyos o escorrentías de diversa entidad, y se significan también por sus fuertes pendientes. La singularidad referida se extiende asimismo a la perspectiva geológica, observándose en el municipio la presencia de basaltos.

El territorio de Soraluze/Placencia de las Armas se sitúa entre las cotas 100 m. y 900 m. sobre el nivel del mar aproximadamente. El punto mas bajo no es otro que Málzaga, donde el Deba encuentra al Ego y toma rumbo a Elgoibar; mientras que el punto culminante es la cumbre del Kurutzebakar, junto a la cima inmediata del monte Hirukuruzeta, fuera del término municipal.

En el plano I.3 se muestra la extensión del término municipal y se significan algunos de sus elementos más estructurantes (río Deba, carretera GI-627, autopista AP-1, etc.), cabiendo observar que el territorio del municipio se inscribe en un rectángulo de 5,7 kilómetros de este a oeste y de 3,9 kilómetros de norte a sur.

La población de Soraluze/Placencia de las Armas, de acuerdo con el padrón del año 2012, es de 4.019 habitantes. Su evolución muestra una estabilidad en los últimos 6 años en torno a los 4.000 habitantes, si bien el municipio ha llegado a contar con una población superior en el recién pasado siglo. No se prevén cambios en esta situación, si bien en los últimos años se viene observando un descenso de la población (3.944 habitantes en 2016) que evidencia la urgencia de ejecutar el nuevo PGOU del municipio.

Los habitantes de Soraluze/Placencia de las Armas residen mayoritariamente en el núcleo urbano que se desarrolla de forma lineal a orillas del Deba, sin perjuicio de la existencia de un caserío diseminado en los barrios rurales de Ezozia, San Andrés y Txurruka, en la margen derecha del Deba, y de Irure, en la margen izquierda, cuya localización se ilustra asimismo en el plano I.3 y en la ortofoto que se incorpora en el plano I.4.

El casco histórico y sus arrabales (Atxuri, Baltegieta…) configuran el núcleo urbano, que ha crecido en las márgenes del Deba, tanto hacia el norte (calle Gabolats y su prolongación hacia Ezozia Y Mendiola) como hacia el sur (calle Santa Ana, Errekaldea...). En los últimos años la nueva edificación residencial se ha localizado preferentemente en la ladera de San Andrés, en el entorno de la antigua estación. Junto con estas edificaciones se ha gestionado y ejecutado una nueva calle por esta ladera, intervención que constituye una de las acciones urbanas más relevantes de las llevadas a cabo en el municipio en los últimos años, por su dificultad y por su alcance.



La actividad económica del municipio se basa en la industria y los servicios, siendo limitado el papel del sector agropecuario y forestal. Los polígonos industriales desarrollados del municipio se encuentran en su mayor parte ocupados y con actividad. No obstante se observa la existencia de antiguos asentamientos industriales y mixtos en desuso, inmersos en los desarrollos predominantemente residenciales, cuya edificación en muchos casos aparenta al menos una cierta obsolescencia. Se trata de partes de la ciudad que anuncian una problemática urbanística pero que, a la vez, pueden resultar a su vez las oportunidades de un futuro más o menos inmediato.

Tal y como se describe en la hoja web municipal, el rey castellano Alfonso XI oficializa la constitución de la villa otorgándole la oportuna carta-puebla en el real sitio de Algeciras el 15 de octubre de 1343. Según los antiguos cronistas, por este privilegio - actualmente desaparecido - el rey ordenó a los moradores de Herlaegia y Soraluze que fundasen villa y que la cercasen, otorgándoles las prerrogativas del fuero de Logroño y los términos correspondientes e imponiéndole el nombre de Placencia.

Siguiendo esta breve reseña histórica a partir de la información precitada, Placencia, junto con Eibar y Elgoibar y otros núcleos del Alto Deba, abandonan su antigua y realmente limitada unión geopolítica y acuden a la junta que el año 1397 se celebra en el coro de la iglesia de San Salvador de Getaria, en donde se gesta el embrión de la actual Gipuzkoa. A esta reunión la localidad asiste con el nombre de Placencia de Soraluze y es representada, tanto Eibar como ella, por una misma persona. Sin embargo, en el ámbito eclesiástico - mucho más inmutable que el político -, la localidad sigue girando en la órbita duranguesa, como prueba de sus antiguos lazos de dependencia de Vizcaya.

Es en esta época - finales del siglo XIV - cuando se acometen obras de relevancia, como la construcción en piedra de la iglesia parroquial, en sustitución de la antigua de madera. No obstante quedan mínimos rastros de esta obra, ya que la configuración actual de la iglesia corresponde a las obras que se hicieron en la segunda mitad del XVI y primera parte del XVII, independientemente de que el pórtico y la torre de campanas se comenzaran a construir en 1666 y 1686, respectivamente. Por cierto que la mayor parte del material utilizado para construir, se obtenía de las canteras existentes en la parte zaguera de los primeros números de la actual calle Rekalde.

En el siglo XV comienza a gestarse en la villa la industria armera. El peculiar medio físico del lugar propicia en un principio la aparición de fraguas en donde se instalan los talleres armeros; y es tal el desarrollo de la armería que, la corona -su principal cliente- designa veedores para vigilar la producción. Así en 1573, en la casa construida a primeros de siglo por el escribano local Juan García de Uribarri, y por ello llamada "Uribarrikua", ubicada en la actual calle Rabal, 10, se establece oficialmente el primer almacén real, origen de la sede en Placencia de las “Reales fábricas de armas” en el camino real medieval.

Ante el aumento que experimentaba la producción de armas, este "Erregetxe zarra" quedó obsoleto, por lo que los soraluzetarras construyeron otro "Erregetxe" sobre la Plaza Vieja, en el lugar donde se asentaba el antiguo frontón de pelota, iniciándose la obra en 1804 y finalizándose en 1807, que con los continuos conflictos bélicos acaecidos en ese siglo y el desplome de la industria armera, acabó infrautilizado, procediéndose a su demolición y quedando reducido a solar de uso público.

La desaparición definitiva del anterior entramado de las Reales Fábricas de Armas y del sistema gremial articulado en torno a las mismas, fue sancionada mediante real orden dictada en 1865. Sin embargo la producción de armas a gran escala no desaparecerá porque unos pocos años antes se había empezado a construir en la calle Baltegieta un emblemático y moderno taller, donde quedará ubicada la empresa privada denominada “Euscalduna”, en cuya constitución cobró un papel fundamental el armero local José Ignacio de Ibarra y la sociedad privada madrileña “Zuazubiscar, Isla y Cía”. Esta fábrica siguió produciendo en gran escala para el ejército, especialmente los afamados fusiles “Remington”.

